
Getaria

1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan



I. Liburukia
Volumen I



Ione Zuloaga Muxika
(Azkoitia, 1995)

Euskal Herriko Unibertsitatean Historian Graduatua eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria. Horrez gainera, Historia Garaikidean espezializatua da, Euskal Herriko Unibertsitatean burututako masterra izaki.

Sustatzailea
Promotor

Getariako Udala

Laguntzaileak
Colaboradores

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora
Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Getaria

1936-1945

Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

Ione Zuloaga Muxika

Getaria 2020

aranzadi
zientzia elkartea

PROIEKTUAREN ERAGILEA
Getariako Udala

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA
Juantxo Agirre-Mauleon, Javier Buces Cabello.

IKERLARI KOLABORATZAILEAK
Karlos Almorza, Iraitz Arizabaleta, Javier Buces, Iñaki Egaña, Francisco Etxeberria, Miren Garcia, Lourdes Herrasti, Marijose Hernández, Rebeca Martínez, Leire Padilla, Olatz Retegi, Eneko Sanz, Maider Urretabizkaia.

ESKERRAK
Idoia Arrieta Elizalde, Durango 1936 Kultur Elkartea, Itziar Erentxun, Mikel Errazkin Agirrezabala, Victoria Fernández Díaz, Amagoia Gurrutxaga Uranga, Floren Iribar, Oihane Mendizabal Sandonís, Juan Luis Urresti, ahotsak.eus, Euskal Memoria Fundazioa, Getariako udal-langileak eta herritarrak. Ikerketa honetan zehar, testigantza eman, dokumentazioa biltzen lagundu eta beti laguntzeko prest egon diren guztiei.

DIGITALIZAZIOA
Anais Rodriguez, Aranzadiko Artxibo Orokorra.

EDUKIAREN ZUZENTZAILEA
Karlos Almorza.

AZALEKO ARGAZKIAK
Getariako ikuspegi orokorra. (Pascual Marin Funtsa). Francisco Iribar Zulaika (senideek emandako argazkia).

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea/Autora
Ione Zuloaga Muxika

Maketazioa/Maquetación
TamTam S.L.

Imprimatzen du/Imprime
NINOA Graphic Solutions

ISBN 978-84-17713-32-4 (O.C.)
ISBN 978-84-17713-33-1 (1. libk.)
ISBN 978-84-17713-34-8 (2. libk.)

L.G. D 01284-2020

Aurkibide orokorra

1. AURKEZPENA 07

2. BIGARREN ERREPUBLIKA GETARIAN: GARAI BERRI BATEN HASIERA 11

2.1. BIGARREN ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA GETARIAN 12

2.2. MUNDU MAILAKO KRISIAREN ERAGINA GETARIAN 26

2.3. EMAKUME GETARIARRAK, ASKATASUNAREN BIDEAN 32

2.4. ERLIJIOAREN ERABILERA BIGARREN ERREPUBLIKAN 36

2.5. GETARIAKO BIGARREN ERREPUBLIKA GARAIKO HEZKUNTZA 38

2.6. EUSKARA ETA IDIAKEZ KASUA 40

2.7. GETARIAR EUSKAL NAZIONALISTA ETA ERREPUBLIKARREN ARTEKO EZTABAIDAK UDAL-GOBERNUAN 52

2.8. AUTOGOBERNUAREN DEFENTSA 57

3. GERRA HASI ZENETIK GETARIAN FRANKISTAK SARTU ZIREN ARTE 71

3.1. FRANKISTEK AURREZ ANTOLATUTAKO GERRARI, BAT-BATEKO ERANTZUN ERREPUBLIKARRA 73

3.2. EUSKADIKO GUDONTZIDIKO GUDARI GETARIARRAK 89

3.3. GERRAN EDO GERRAREN ONDORIOZ HILDAKO GUDARI GETARIARRAK 147

3.4. GETARIA EBAKUATUEN BABESGUNE 152

3.5. KOLPISTAK GETARIARA HURBILTZEN 154

3.6. FRONTEAN HILDAKO GETARIAR KOLPISTAK 155

3.7. GETARIAR IHESLARIAK 156


3.8. ERESOINKA, ASKATASUNA IPAR, HERRI BATEN AHOTSA 157

3.9. ESKUINDARREN AURKAKO ERREPRESIOA 158

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA 163

Getariar emakumeak antxoa prestaketan, 1895.
(Antxon Aguirre Sorondoren liburutik).

1. AURKEZPENA





Behinola, oroitzapena baina gauza biziagorik ez dagoela idatzi zuen Federico García Lorcak, faxistek gizarte justuago baten alde hitz-joko trebea erabiltzeagatik fusilatu eta desagerrarazi zuten poeta handi hark. Getariako Udalean ere zin egin dugu Getarian ohorezko lekua izango dutela askatasunaren alde dena eman zuten herritarrek; beraien izenak eta izanak etorkizuneko belaunaldiei helaraziko dizkiegula, egia ezagut dezaten, baina, bereziki, beraien askatasun-ametsek gurean geroa izan dezaten.

Izan ere, 36ko estatu-kolpe faxistak orduko "oraina" baina, bereziki, biharamuneko ilusioa zapuztea zuen helburu. Lehen uneko sarraskiei ondorengo urteetako ankerkeriak gehitu zizkieten: erailketak, zigor luzeak, kanporaketak, desagerpenak, umiliazioak... genozidioa. Getariako Udala azken urteetan egiten ari den lanari esker, baina bereziki, ahotsik gabeko herritarrak ozen hasi direlako/zirelako orroka, ezagunago zaigu gertatukoa. Eta liburu hau horren erakuslehio bat besterik ez da, edo beste modu batetara esanda, lehen geltokia gu ta gutarren egia, aitortza eta erreparazioan; Esperantzaren egunsentian; ahotsik gabekoen ahotsean.

Omenaldiek, liburuek, aurkezpenek eta abarrek harro esatera eramaten gaituzte lepoa ebaki baziguten ere, min handia eragin arren, gure arbasoen sustraiak ezin izan zituztela atera. Gaurdaino lurrean tinko mantendu dira faxismoaren aurka borrokatu ziren burkideen ilusio, konpromiso eta esperantzak. Kimu berriak sortzen joan dira eta argi dugu liburu hau bezalako egitasmoek berriak ereiten lagunduko dutela. Erreparazioa berriro ez errepikatzetik baitator, akabatu nahi izan zuten gizarte demokratiko eta ahaldundua eraikitzetik. Monzonek ondo trazatutakoari eutsita, Lepoan hartu eta segi aurrera!


Beldurrik gabe esatera ausartzen naiz, getariarrontzat, ohore bat dela momentu zailetan gure herriaren alde hartutako konpromisoari eutsiz guztia eman zuten herrikideak izatea. Lauaxeta idazle eta Eusko Gudarosteko komandanteak idatzi bezala... illuntziko bakian norbattek darrai kantari: "Dana eman biar yako matte dan azkatasunari". Agur eta ohore!

Haritz Alberdi Arrillaga
Getariako alkatea

Getariar haur eta emakumeak kalean, 1930 inguruan. (Pascual Marin Funtsa).

2.

BIGARREN ERREPUBLIKA GETARIAN: GARAI BERRI BATEN HASIERA




Kantauri itsasertzaren magalean, itsasoak kolpatutako amildegi arrokatsuen ertzean eta kresalaren usain gaziari so kokatzen da Getaria, nekazari eta arrantzaleen herria. Arroken artean, ikusgarriena, San Anton mendia, gehienentzat arratoi formaduna, berezienentzat, Jorge Oteiza eskultore bikainak esan gisan, bale formaduna.

Zuotako zenbaitek oraindik ere gogoratuko duzue San Anton mendira patata ereitera joaten zineten garai hura. Mendixkak, bizitza, tuberkuluaren bidez adierazten zuen une hura. Mendixkak tuberkuluak eman gisan hitz egingo balu, herri honen nondik-norakoek beste zeresanen bat lukete... Zorigaitzez, hainbeste gertaeren lekuko izandako mendixka, arrokek… ez dute bizirik, ez ahotsik, eta horrenbestez, getariarron ahotsak eta artxiboetako dokumentuen interpretazioa ezinbestekoa egin zaigu liburu hau osatzeko. Zuei esker onez, isilpean horrenbeste urtez gordetako historiako atal krudelenetako baten erreparazio nahiez doaz ondoko lerroak.

2.1. BIGARREN ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA GETARIAN

1930eko urtarriletik aurrera, Estatu Espainiarrean (eta horrenbestez bere menpeko Euskal Herrian ere bai) berebiziko aldaketa gertatu zen, hain zuzen, ordura arte Alfontso XIII.a erregearen baimenez agintzen egon zen Miguel Primo de Rivera diktadorea ordezkatu egin zuten Damaso Berenguer militarrarengatik. Getarian, gainontzeko Euskal Herriko zein Estatu Espainiarreko herrietan gisan, izan zen aldaketarik. Hain zuzen, geroago alkate frankista izango zen Eugenio Egurbide Azpeitia, Miguel Primo de Riveraren diktadura hasieratik Getariako alkatea izandakoak, 1930eko otsailaren 15eko Errege Dekretuari (ikus 1.eranskina) jarraiki, bere kargua utzi zuen:


208

209

1923ko urriaren 2a, Eugenio Egurbide Azpeitia Miguel Primo de Riveraren diktadura ezartzean, alkate izendatutako akta. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1923-10-02).

"En la Sala de Sesiones del Ilustre Ayuntamiento de la invicta villa de Guetaria, siendo las diez de la mañana del dia (sic[1]) veinticinco de Febrero de mil novecientos treinta, se personó el Sr. Alcalde Don Eugenio Egurbide, con asistencia de mi el Secretario, con el fin de dar cumplimiento a lo preceptuado por el articulo noveno del R.D. del quince del actual.

[1] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. "Sic" errepikakorra ez izatearren, ortografia zein gramatika akatsetan hau ez ezarri eta testua garaian bezala kopiatzea erabaki da. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, batzuek, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu.



1925ean Eugenio Egurbide alkate zelarik, autoritate eta armadako ofizialen bisitan. (Kutxateka Fototeka).

Teniendo a la vista la relacion de mayores contribuyentes con derecho a votar en las elecciones de Compromisarios para Senadores, asi como tambien la relacion de exconcejales a partir del año mil novecientos diez y siete, facilitadas por el Sr. Presidente de la Junta Municipal del Censo Electoral de esta localidad; el Sr. Alcalde teniendo presente que a este Municipio que cuenta con menos de dos mil habitantes, corresponden segun los articulos cuarenta y cinco y cuarenta y seis del Estatuto municipal ocho concejales de eleccion popular y tres corporativos o sea en total once, declaró que debía procederse y procedia a la proclamación de once concejales de este Municipio, correspondiendo la mitad mas uno o sea seis a los mayores contribuyentes y cinco a los Srs. que mayor votacion obtuvieron en el distrito único de esta villa de entre quienes tomaron asiento en el Concejo a partir del año mil novecientos diez y siete:

Resultando que el primero de la lista de mayores contribuyentes en orden a la cuantia satisfecha es el Excmo. Sr. Marques de Casa-Torres, que reside en Madrid, por lo cual de conformidad al articulo quinto del R.D. citando, debe de ser excluido, designar automaticamente, para concejales de este Municipio por el orden de mayor a menor de su cuota contributiva a los Srs. Don Mauricio Guibert Aramburu, Don Miguel Alegria Ijurra, Don Pedro Manterola Lazcano, Don Juan Iribar Larrañaga, Don Francisco Manterola Astiasaran y Don Vicente Altuna Embil.

A continuacion se procedio a la designacion de cinco concejales de entre los que mayor votacion obtuvieron y tomaron asiento en el Concejo a partir del año mil novecientos diez y siete y resultando que en dicho año de mil novecientos diez y siete obtuvieron Don Gregorio Balenciaga Echave, treinta y nueve votos, Don Jose Azpeitia Aizpuru, treinta y nueve votos, Don Manuel Rodriguez Lizardi treinta y nueve votos, Don Marciano Larrazu Echezarreta, diez y siete votos, y Don José M. Larrañaga Zulaica, diez y siete votos.

Que en mil novecientos veinte fueron proclamados concejales por el articulo veintinueve de la Ley Electoral los Srs. Don Miguel Alegria Ijurra, Don Ignacio Ucin Echezarreta, Don Jose Ventura Aranguren Gárate, Don Bernabé Mayoz Otaegui y Don Pedro Guereca Samaniego con un censo de trescientos cuarenta y cuatro electores; y por ultimo que el año mil novecientos veintidos fueron proclamados Concejales por el articulo veintinueve, los Srs. Don Jose Agustin Sorazu Larrañaga, Don Manuel Aranzabal Iturzaeta, Don Jesus Echezarreta Berasaluce, Don Jose Maria Aranguren Gárate y don Julian Agote Urquia, con un censo de trescientos sesenta y tres electores.

Resultando

que no residen esta localidad Don Manuel Aranzabal Iturzaeta y Don Julian Agote Urquia de la eleccion de mil novecientos veintidos; Don Pedro Guereca Samaniego de la eleccion de mil novecientos veinte, quedan excluidos dichos Srs. de conformidad con el articulo quinto del R. D. citado.

Resultando que Don Miguel Alegria Ijurra, es concejal como mayor contribuyente, quedan tambien excluido de la designacion de conformidad con el articulo octavo del R.D. citado.


Resultando que la mayor votacion obtenida, corresponde a los Concejales nombrados en mil novecientos veintidos, por contar con un censo de trescientos sesenta y tres electores quedan nombrados los tres Srs. procedentes de esta eleccion, o sea los Srs. Don José Agustin Sorazu Larrañaga, Don Jesus Echezarreta Berasaluce y Don José María Aranguren Gárate, quedando excluidos los Srs. Don Manuel Aranzabal Iturzaeta y Don Julian Agote Urquia, por no residir en esta villa.

Faltando dos Srs. Concejales para completar el número que corresponde a esta villa, resultando que los Srs. Concejales nombrados en mil novecientos veinte por el articulo veintinueve, obtuvieron mas votos que los nombrados en mil novecientos diez y siete, en votacion y teniendo en cuenta que Don Miguel Alegria Ijurra, quedan designando concejal como mayor contribuyente y Don Pedro Guereca Samaniego se halla ausente, quedan por lo tanto tres exconcejales con la misma votacion procedentes de mil novecientos veinte, y siguiendo el criterio establecido en el R. D. citando en su apartado D del articulo septimo se procede a designar automaticamente por el orden alfabetico a los Srs. Don José Ventura Aranguren Garate y Don Bernabé Mayoz Otaegui, quedando eliminado Don Ignacio Ucin Echezarreta.

Acto seguido el Sr. Alcalde proclamo concejales de este Ayuntamiento a los Srs. Don Mauricio Guibert Aramburu, Don Miguel Alegria Ijurra, Don Pedro Manterola Lazcano, Don Juan Iribar Larrañaga, Don Francisco Manterola Astiasaran y Don Vicente Altuna Embil en concepto de mayores contribuyentes y a los Srs. Don José Agustin Sorazu Larrañaga, Don Jesus Echezarreta Berasaluce, José Mª Aranguren Gárate, Don José Ventura Aranguren Gárate y Don Bernabé Mayoz Otaegui, como exconcejales de mayor votacion a partir del año mil novecientos diez y siete.

Con tanto el Sr. Alcalde dio por terminado el acto, de todo lo cual, y a los efectos del articulo noveno, caso tercero, certifico yo el Secretario.


Firmas: Eugenio Egurbide; Valentin Oyarbide"[2].



Damaso Berenguer-en "dictablanda"-ren iritsierarekin, Getariako udal-gobernuaren aldaketa. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1930-02-25).

"En Sala de Sesiones del Ilustre Ayuntamiento de la invicta villa de Guetaria siendo las doce horas del dia veintiseis de Febrero de mil novecientos treinta, se reunieron, bajo la presidencia de Sr. Alcalde Don Eugenio Egurbide, los Srs. Don Miguel Alegria, Don Pedro Manterola, Don Juan Iribar, Don Francisco Manterola, Don Vicente Altuna, Don José Agustin Sorazu, Don Jesus Echezarreta, Don José María Aranguren, Don José Ventura Aranguren y Don Bernabé Mayoz, proclamados concejales de este municipio el dia de ayer, de conformidad a los preceptuado por el R. D. del quince del actual, con asistencia de mi el Secretario.

[2] Getariako Udal-Agiritegia (GUA), sig.251-3: udal-aktak 1930-02-25.



Damaso Berenguer-en "dictablanda"-ren iritsierarekin, Getariako udal-gobernuaren aldaketa. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1930-02-25).

Abierta la sesion el Sr. Presidente ordenó se diera lectura al acta de proclamacion que tuvo lugar el dia de ayer y efectuada la lectura ordenada el Sr. Presidente dio posesion a los nuevos Concejales y declaró constituido el Ayuntamiento, cediendo la presidencia al concejal de mas edad, que resultó ser entre los presentes Don Juan Iribar, retirandose acto seguido el Sr. Egurbide.

Seguidamente en cumplimiento de lo ordenado por el apartado seguido del articulo decimo del R.D. del quince del actual se procedio al nombramiento de Alcalde, mediante votacion secreta y por papeletas de conformidad con el articulo ciento diez y nuevo del Estatuto Municipal, resultando que Don Juan Iribar Larrañaga obtuvo nueve botos y una papeleta en blanco, quedando en su consecuencia nombrado Alcalde Presidente de este Municipio Don Juan Iribar Larrañaga, que quedó posesionado del cargo indicando en el acto con arreglo a las disposiciones vigentes.

Acto seguido y en cumplimiento del articulo once del R.D. citado se acordó reunirse el día de mañana a las diez y ocho hora y media, con el fin de efectuar los nombramientos de Tenientes de Alcalde y demas cargos que con arreglo a la ley hayan de proveerse.

Con tanto se dio fin a la reunion de que certifico, yo el Secretario.


Firmas: Juan Iribar, Jose Ventura Aranguren, Jesus Echezarreta, Jose Agustin Sorazu, Pedro Manterola, Vicente Altuna, Francisco Manterola, Jose Maria Aranguren, Bernabé Mayoz; Valentin Oyarvide"[3].

Sistema hura ustelkeriaren jaun eta jabe zen, gutxiengo batek, boteredunek, eta hura ez galtzeko, diru kopuru handien jabe zirenez, eta biztanleria pobre baten jakitun, bozkak erosi eta beren agintea eta jabetza handiak mantentzeko gai izango zen sistema hura bermatzeko gaitasuna zuten. Horrez gainera, 1925eko azaroaren 23an, herritar xume haien guztien ohitura zaharrekin ere amaitu egin zuten[4].

Herritarrek eta zenbait politikarik, agintarien aldaketa soilarekin gauzek lehen bezalaxe jarraituko zutela ulertu zuten. Sistema hark guztiak, bere sustraiak lurrari tinko eutsita, bere horretan jarraituko zuen. Ordura arte botereak funtzionatutako modua aldatu beharra zegoen. Boterearen sustrai zaharrak errotik moztu eta hazi berriak erein beharra zegoen.

[3] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1930-02-26.

[4] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-12-29.



Damaso Berenguer-en "dictablanda"-ren iritsierarekin, Getariako udal-gobernuaren aldaketa. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1930-02-26).

Ordura arte monarkikoak izan ziren zenbait politikari zein herritar desadostasunez agertu ziren hartutako erabakiaren aurrean, ustelkeriaz hornitutako sistema mantendu egingo zela uste baitzuten. Horren aurrean, 1930eko abuztuaren 17an, Aliantza Errepublikarrak (Acción Republicana eta Partido Radical-ak eratua) eta Alderdi Erradikal-Sozialistak (EAJ/PNV-ren presentziarik gabe), Espainiar Errepublika finkatzeko delegatuen komitea eratu zuten, zeina "Donostiako Ituna" gisan ezagutzen den. Liskar, greba… hilabeteak izan ziren, 1931ko otsailaren 14an Damaso Berenguerrek dimititu zuen arte.

Alfontso XIII erregeak, Juan Bautista Aznar presidente izendatu zuen. Hala, 1931ko apirilaren 12rako udal-hauteskundeak eta haren osterako, Gorteetako hauteskundeak deitu zituen. Getarian horrek guztiak zeresan handia piztu zuen. Zenbait errepublikar, udal-hauteskunde haien bidez, monarkiarekin behin-betiko amaitzeko botoa eskuratzeaz arduratu ziren.


Euskal nazionalismoak ere, izugarrizko indarra hartu zuen kostaldeko herri nekazari eta arrantzalean. 1919an Batzokia inauguratu zenetik, euskal identitatea bermatuko bazen, estatu independente bat lortzea ezinbestekoa zela aurreikusi zuten:

"(…) AUTESKUNDIAK.- Epail-aren lenengo igandian ditugu auteskundiak. Erki edo distrito onetatik, Txurruka'tar Alfontsa azaldu zaigu osin arte, besterik ez da somatzen.

Euskaldunak autarkia edo botun eman bihar zaio euskaldun jatorrari, ez da naikua euskal abizenak daukan 'diputadua' txapeldun ateratsia, baizik Madrid'en azaldu ditzala argi eta garbi gure naimena edo azkatasuneko gogo bizia"[5].

Hori, euskal lurrak konkistatu eta oraindik ere bere menpeko bermatu nahi zituen monarkia espainiarraren bidez gauzatzea ezinezkoa zela bazekiten. Getariako euskal nazionalistek ere, argi zeukaten, usteldutako sistemaren menpean jarraitzeak, euskal identitatea babesgabe uzten zuela. Baziren Getarian horretaz probestu ziren zenbait herritar ere, diktaduraren babespean zenbait onura jaso izan zituzten herritar haiek. Giroa, Getarian, Euskal Herriko zein Estatu Espainiarreko gainontzeko herrietan gisan, gori-gorian zegoen. 1931ko martxoaren 18an "Aberkoi" ezizenez sinatutako getariarrak ongi baino hobeto ematen digu egoera haren berri:

[5] El Día egunkaria, 1931ko otsailaren 6a. Idazlea: "Aberkoi". Egunkarietan ere, garaiko idazkera mantentzea erabaki dugu. Horregatik, zenbaitetan gaur egun akats ortografiko zein gramatikaltzat ditugunak erreparatu ahal izango ditugu.



Getari

—o—

Bien nator EL DIA'ra ainbat laburren zerbait esan nahian. Ilabete asko eta egun gelago igaro dira laparringi txalogarri onek lendabizi argia ikusi zuala, eta erri polit ontatik ihortxo ere ez da "atrebitu" izpar bat bada ere blaitzen emengo gorabeherak emanaz.

Uste det Euskal Orrian leku zati bada ere utziko dieala onen ardura daukan azuntariak (1).

ARRANTZALIAK. — Negu naigabe aundikoa daramatzigu itxastarrak. Itxasoa nahe zekendu da urte auetan, bizigua ain arrai zoragarria oso urri dakarkie, eta japardua deitzen diogun arrain betiz ori batzuetan ekaitzen due itxura onez.

Eranegun lurrun-ontzi batzuek as ko ekari zuten, eta zoneurria ere (prezium) oso ona egin zuan, badago biarra eta jarrai dezala aurrerantz.

NEKAZARIAK. — Berak diote bezela oso neke aundikoa da. Abek ez dute zortzi ordubo lanik, ez ta U. G. T. "Unión General de Trabajadores"en legerik ere. Uda-berriako gertatzen ari dira, beren mendietara juateko eta paparra zabal zabal eguñaz erruki gabe lana jugari egiteko.

AUTESKUNDIAK. — Epail-aren lenengo txandan ditugu auteskundiak. Erki edo distrito onetatik, Txurruka'tar Altontza azaldu zaigu oain arte, besterik ez da somatzen.

Euskaldunak autarkia edo botua eman biar zaio euskaldun jatorrari, ez da naikua euskal abizenak daukan "diputadua" txapeldun aberatsa, baiak Madrid'en azaldu ditzala

El Día egunkaria, 1931ko otsailaren 6a. Idazlea: "Aberkoi".



EL DIA

ÓRIA

argi eta garbi gure naimena edo asmatsuneko gogo biziz.

ERIOTZA. — Igaro dan astian bide-berrian lanian ari zala Getari'tik Zarautz tarteko "kamiñerua" mendi gotik jausi zan, arri aundi batek azpian artu eta il da laga zuen.

Pere bizitzan gizon ona izan zan, ezagutzen zuen guziak asko nai izan zicten, eta naigabe aundia utzi zuen notin artean.

Irakurle, etoitz bat bere alde O. B. ta bere sendikoei laguntzen diet alse kabian.

ABERKOI

Getari zorioneko onen izena noizbait euskal lerretan azaltzeko garaia zan. Amaika aldiz esan izan diet entzun nai izan didatenai: "Getari ain euskal errixko jatorra izanik ¿nork ete dauka euskal orritatik ain urrun?" Gaur zorionez erantzuna daukagu. Ifiok "atrebitu" ez dalako izan da. Bai "atrebitu" dan ezkero, onek gerokak beste pillaixo bat batekin eskatu al dizkigu. Aurrera "Aberkoi", nere lagun zarra zera-ta. —LUZEAR.

El Día egunkaria, 1931ko otsailaren 6a. Idazlea: "Aberkoi".



el día

EUSKAL ORRIA

ERRIZ-ERRI

Getari

Auteskundiak.

Gar aundia nabaitzen da eri guzian auteskunde egunerako. Bi alderditakuak somatzen dira alkaren aurka, bata, "diktadurakuen" laguntzarekin azaltzen dena, nonbait lenago egindako okerak zuzentzera etoriko zaizkigu, eta bigarrena "popular'a" eritoio, guzientzat egokiena, au da itxastaren bazkuna, nekaziak eta eriko gaztedi argienak bat eginda.

Notintza artean alaitsasun beroenakin ikusten da zinegotzigai auen asmo sendoa, euskeraren alde zerbait lan egitia ez daukate aztuta, eta Eriberan denborako okerak "erebistatzea" ere ez esaten duenez "premia" egon biar du ta, beste ostantzean eriari dagokion onbideak ondo jaraitzekotan, gazte obek balezateke, eta guztion gogua iruditzen zait "kunplituko" dutela.

Alderdi "popularak" aukeratu dituen gizonak onek dira:

Itxastaren aldetik: Iribar'tar Sebastian, Idiakes'tar Xixilio, Bar'enetxea'tar Jenaro eta Larrañaga'tar Iñazio.

Nekazariak: Sorazu'tar Bixente, Ar'egitar Fructuoso eta Isasti'tar Joxe Antonio.

Kaletar'ak: Etxaniz'tar Domingo eta Alegria'tar Antonio.

Getariar'ak: ¿Bederatzi gazte auek baño egokiago eta jakintsuago arkituko dituzue? Iruditzen zait ezetz. Ia bada lagundu dezaiogun er'i zoriontsu bat opa duen talde oni.

ABERKOI"[6].

El Día egunkaria, 1931ko martxoaren 18a. Idazlea: "Aberkoi".

"Gar aundia nabaitzen da er'i guztan auteskunde egunerako. Bi alderditakuak somatzen dira alkar'en aurka, bata 'diktadurakuen' laguntzarekin azaltzen dana, nonbait lenago egindako oker'ak zuzentzera etor'iko zaizkigu, eta bigar'ena 'popular'a' er'ikoia, guzientzat egokiena, au da itxastar'en bazkuna, nekaziak eta er'iko gaztedi argienak bat eginda.

Notintza artean alaitsasun beroenakin ikusten da zinegotzigai auen asmo sendoa, euskeraren alde zerbait lan egitia ez daukate aztuta, eta Er'iberan denborako oker'ak 'er'ebistatzea' ere ez da esaten duenez 'premia' egon bihar du ta. beste ostantzean er'iari dagokion onbideak ondo jar'aitzekotan, gazte obek balezateke, eta guztion gogua iruditzen zait 'kunplituko' dutela.

Alderdi 'popular'ak' aukeratu dituen gizonak onek dira:

Itxastar'en aldetik: Iribar'tar Sebastian, Idiakes'tar Xixilio, Bar'enetxea'tar Jenaro eta Larrañaga'tar Iñazio.

Nekazariak: Sorazu'tar Bixente, Ar'egitar Fructuoso eta Isasti'tar Joxe Antonio.

Kaletar'ak: Etxaniz'tar Domingo eta Alegria'tar Antonio.

Getariar'ak: ¿Bederatzi gazte auek baño egokiago eta jakintsuago arkituko dituzue? Iruditzen zait ezetz. Ia bada lagundu dezaiogun er'i zoriontsu bat opa duen talde oni.

ABERKOI"[6].

Erreparatu ahal izan dugunez, diktadura osoan zehar, Eugenio Egurbide izan zen alkate, harik eta Berenguer jeneralaren diktablanda iritsi arte. Haren ostean, udal aldaketa gertatu zen, gainontzeko herrietan gertatu bezala. Egurbideren ordez, Juan Iribar ezarri zuten alkate eta "dictablanda"-ko azken urtea berak egingo zuen Getariako udalean.

Miguel Primo de Riveraren diktadurako azken Udal-Korporazioa

ALKATEA
Juan Iribar


Zinegotziak:
-Pedro Manterola
-Francisco Manterola
-Jose Agustin Sorazu
-Bernabe Mayoz

[6] El Día egunkaria, 1931ko martxoaren 18a. Idazlea: "Aberkoi".

Azken urteetan, beren boterea ustelkeriaren bidez mantendu zutenek horretan jarraitzeko nahia erakutsi zuten. Hemendik aurrera fenomeno horri garaian bertan emandako adieraz mintzatuko gara, hain zuzen, kazikismoaz. Kazikismoak, Estatu Espainiarrean Borboi familiaren Berrezarkuntza osoan zehar iraun zuen (1874-1931). Aldi horretan zehar, agintari espainiarrek, herritarrei haien boterea eman zietela irudikatu nahi izan zuten, botere ematea, irudi hutsa izan zelarik.

Hauteskundeak ospatzen ziren bakoitzean, estatuaren ordezkari gisan, Ministerioko Gobernatzaileak, herri bakoitzeko kazike edo administrazioaren boterea zuten agintariei, hurrengo hauteskundeetako emaitzak zeintzuk izan behar zuten bidaltzen zizkieten. Hau da, zerrenda batean, hurrengo hauteskundeetan hautatuak izango ziren ordezkariak adierazten zituen. Tokiko kazikeak, maiz, herritarren botoak erosten zituen eta beste zenbaitetan, hildakoen botoak ere erabiltzen zituen, bidalitako zerrendak bete ahal izateko.

Sistema horrek, hauteskundeen emaitzak itsutu egiten zituen, izan ere, Estatuaren nahiak betetzeaz arduratzen zen, herritarren nahiak islatu beharrean. Hauteskundeak ospatzen ziren aldiro, aurreko gobernuak egokitutako alderdiak irabazten zuen. Bigarren Errepublikaren guztizko ezarpenera arte, Berrezarkuntza aldi osoan zehar, bi alderdi baino ez ziren izan gobernuan agintari: Alderdi Kontserbadorea eta Alderdi Liberal Fusionista deiturikoak, hain zuzen. Azaldutakoari, Txandakatze-Sistema zeritzon eta haren bidez, instituzioen norakoa alda zezaketen alderdi ezkertiar zein eskuindar erradikalak, hautaketatik kanpo geratzen ziren, ideologia berberak aginduko zuelarik urte horietan guztietan zehar.



Kazikismoa. (La Flaca Aldizkari madrildarrean argitaratua).


"SUR'UMUR'UAK.- Beste er'ietan ere naiko ser esana izango dala iruritzen zait noski auteskunde gaian, bañan gure txoko ontan aña ezetz esango nuke.

Igande goizian lau alderdi proklamatu ziran, bederatzi ziñegotzientzat, ogeitaraño eman zituzten izenak.

Entzun dedanez ekin diote iñuzentiak ar'apatzen batari tximist argia (eletrika) agindu, besteari urak eta baser'ietarako bide ber'iak, dirua er'uz arkume janak eta automobila pres etxietara eramateko.

¿Noiztik onen samur'ak aldun auek? ¿Diru poltzan bat bilatu ote due? Eskeintzia balitz ematia, garai onetan ziaro damutuak leudeke.

Baser'itarrak batez ere, eta gañerako er'itar'ak ezaiteztela iñusentiak izan, or'elako eskeintzakin datozen koipetzuari es jaramonik egin, oien arkume janak ondorengo tripako miñak gertatzen dia-ta.



Hildakoak hauteskundeetan. (La Flaca aldizkari madrildarrak argitaratua).

Gizon bakar bat bezela zeuen autarkia edo botua eskeñi talde er'ikor'ari edo popular'ari, alde batea utzirik beste oien gezur'ak etas likizkeriak.

Kandidatura roja izendatzen da goiko alderdia. ¿Auen buru zeintzuk direla uste dezute? Jakin ezazute lengo ditadurakuak diabruen janzkerarekin. Zortzi urtian oien azpian bizitu gera txistatekorik egin gabe eta eurak goguan izan duen naspilak egiñaz. Or'egatik berak ezin badute ziñegotzi edo kontzejal izan sartu nai dituzte euren lagunak.

Bildur aundia diote alderdi er'ikoiari, etzita daude noski gazte onek lan berak egindako trapukeriak azalera aterako dituztela eta etzaiote komeni.

Iñauteriak edo karnabalak aldendu dira eta arpegia agertu dedila garbi giza artean, bazter'era utziaz par'egar'izko aurpegia edo kareta.



el día

EUSKAL ORRIA

Getari

BURUMUÑUAK. — Beste ¿ditan ere naiko ser ezarra luzago dala iruztarrean noski aotzkunde galeo, beñan gure tzoko ortan asta asta ezarpe nuke.

Igande gurian lau alderdi proklamatu zirian, bederatzi ziñegotzientzat, zeiñarako ezean zituzten lerrak.

Estaun dedanez ekin diote ifuentalak atapetzin batari txintxi argia eletrikoa) aztedu, bestearri urak eta euretzarako tzoe beñan, dirua efuruse janak eta automobila pres taketara eramateko.

¿Noiztik emen sarrafak aldrin asek? Diru poltzan bat bihatu ote due? Estrotzia bolitz ematia, zarri eustan are damutuak kuleko.

Beerfiafak batez ere, eta gaberro o eñiñak enaitzetela ifuentalak tan, ofrako ezkedunekin daloren kolpeburi es jarraunik egin, olen, arkume arrak ondorengo tripako miñak gertatzen dja-ta.

Gizon bakar bat bezela zeuen aldarria edo botua eskeñi talde eñikoari do popularri, alde batea utzirik beste oien gezurrak eta likiskeriak.

Kandidatura roja izendatzen da goian alderdia. ¿Auen buru zeintzuk direla uste dezute? Jakin ezazute lengo ditadurakuak diabruen janzkerakin. ortzi urtian oien azpian bizitu gera ditatekorik egin gabe eta eurak goguan izan duen naspilak egiñaz. Ofrezalik berak ezin badute ziñegotzi edo ontzejal izan sartu nai dituzte euren agunak.

Bildur aundia diote alderdi erikotastuta, daude noski gazte onek lan berak egindako trapukeriak azalera terako dituztela eta etziote komeni.

Iñauteriak edo karnabalak aldendu ira eta arpegia agertu dedila garbi tra artean, bazterra utziaz pafegatako aurpegia edo kareta.

Getari'k bihar du uririk politenetakoa. Kendu ezin ikusiak, lagun beartsua! eta biargiñari eta modu onetan aurkituko da er'itar onak opa duen eran.

ARANTZALAK. — Poxkro dendo rten anbo urte ona dalakoan. Ipar. Idhen aundia eta ugari, fruten omen rik. Lanai ogen galtian, garain etofio da-ta. Prodentzia denak lagundio die.

ITALIARAK. — Uso taurian eran agertu zaizkigu Cefalu'tar Amerika nalak, Cusumano eta Alioto'tar Amerik. Guzioi ongi etorria.

ABERKOI

El Día egunkaria, 1931ko apirilaren 9a. Idazlea: "Aberkoi".

Getari'k bihar du uririk politenetakoa. Kendu ezin ikusiak, lagun beartsua! eta biargiñari eta modu onetan aurkituko da er'itar onak opa duen eran"[7].

Getariarrek ere argi zuten zer-nolako menpekotasuna bizi izan zuten diktaduraren pean. Hala, nabarmen, "Aberkoi"-rek adierazitako "alderdi popular"-raren aldeko hautua egin zuten getariarrek 1931ko apirilaren 12an, igandez, ospatutako udal-hauteskundeetan.

[7] El Día egunkaria, 1931ko apirilaren 9a. Idazlea: "Aberkoi".

UDAL-HAUTESKUNDEETAKO BOTOAK HURRENEZ HURREN[8]

IZEN-ABIZENAK	ALDERDIA	BOTO KOPURUA
ANTONIO ALEGRIA LASA	INDEPENDIENTE	185
GENARO BASTERRETXEA SANTAMARIA	INDEPENDIENTE	185
SEBASTIAN IRIBAR ULAZIA	INDEPENDIENTE	185
JOSE ISASTI AZPEITIA	INDEPENDIENTE	184
CECILIO IDIAKEZ INDO	INDEPENDIENTE	183
FRUCTUOSO ARREGI LEIZAOLA	INDEPENDIENTE	179
JULIAN ULAZIA UNANUE	INDEPENDIENTE	148
JULIAN LARRAÑAGA ARANBURU	INDEPENDIENTE	145
ISIDORO CHUECA ARANBERRI	-	144
PRIMITIVO URBIETA EMBIL	-	144
MANUEL AZPEITIA MANZISIDOR	-	143
EUTIMIO ALBERDI LAZKANO	-	136
BARTOLOME ARANZABAL AZKARATE	-	16



Antonio Alegria Lasa, Getariako Bigarren Errepublikako lehen alkatea.
(Senideek emandako argazkia).



Genaro Basterretxea Santamaria.
(Senideek emandako argazkia).



Sebastian Iribar Ulazia.
(Senideek emandako argazkia).



Jose Isasti Azpeitia.
(Miren Isastik emandako argazkia).



Cecilio Idiakez Indo.
(Senideek emandako argazkia).



Fructuoso Arregi Leizaola.
(Senideek emandako argazkia).



Primitivo Urbieta Embil.
(Ibon Urbietak emandako argazkia).

Guztira 9 zinegotzi zegozkion Getariako udalari eta Isidoro Chueca eta Primitivo Urbietaren arteko 144 bototako berdinketari, aterabidea eman behar izan zioten. 1891ko maiatzaren 24ko Errege Dekretuari jarraiki, zozketa bidez, Primitivo Urbieta Embil hautatu zuten udal-gobernu errepublikarreko zinegotzi:

"Seguidamente el Sr. Alcalde admitió a los reunidos que el objeto de la reunión era resolver el empate resultado en la elección de concejales que nos han de sustituir el día 12 del actual entre los candidatos D. Isidoro Chueca y D. Primitivo Urbieta que la Junta del curso electoral a proclamado presuntos concejales, y recibida la orden telefónica del Sr. Gobernador Civil, de que se proceda inmediatamente a la constitución del nuevo Ayuntamiento, conforme al resultado de la elección y siendo de incunvencia del Ayuntamiento la resolución del empate mediante el oportuno sorteo, según previene el R. D. de 24 de mayo de 1891, declarada vigente por varias disposiciones recientes, el Ayuntamiento acuerda que se verifique el sorteo, advirtiendo a los interesados por si desean estar presentes.

Notificado oportunamente y comparecido inmediatamente, si procedió en presencia de los interesados a verificar el sorteo introduciendo en una bola el nombre y en la otra el número, utilizando para ello dos bolas para los nombres y otros dos para los números, 1 y 2 respectivamente y se advierte claramente que el que le correspondía número uno sería favorecido con la suerte o sea proclamado concejal.


Verificada esta operación, extrayendo del tambor uno a uno por un menor las bolas que le fueron entregadas al Sr. Presidente, dio el siguiente resultado:

Correspondió a D. Primitivo Urbieta el número uno y a D. Isidoro Chueca el número dos, siendo por consiguiente proclamado candidato D. Primitivo Urbieta.

Se advierte por la presidencia si alguien tenía que reclamar contra el sorteo y como nadie contestó se dio por terminado el acto de que el Secretario certificó"[9].

[8] 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeen emaitzak Getarian. https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_resul_muni_gip_1931_1933/es_def/index.shtml.

[9] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-04-18.



1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetako Isidoro Chueca eta Primitivo Urbietaren arteko berdinketaren konponketa. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-04-18).

Getariako udal-korporazio berriak, 1931ko apirilaren 18an egindako udalbatzaren bidez, Bigarren Errepublikako lehen udal-korporazioa hautatu zuen:

"**Acta de instalación del nuevo Ayuntamiento**

Parte primera. En la Villa de Guetaria a diez y ocho de abril de mil novecientos treinta y uno, siendo las diez horas se constituyó en la sala capitular el Sr. Alcalde saliente D. Juan Iribar, con los concejales D. Pedro Manterola, D. Francisco Manterola, D. Jose Agustin Sorazu y Bernabe Mayoz, con el fin de conferir la posesión a los elegidos el día 12 del actual y acto seguido, comparecieron y fueron cortésmente recibidos, D. Antonio Alegria, D. Genaro Basterrechea, D. Sebastian Iribar, D. Jose Isasti, D. Cecilio Idiaquez, D. Fructuoso Arregui, D. Julian Ulacia, D. Julian Larrañaga y D. Primitivo Urbieta electos proclamados concejales por este término municipal, contra los que no se ha formulado reclamación alguna. Y estando presentes los individuos que han de componer el nuevo Ayuntamiento, el alcalde saliente dio lectura de un telefonema del Sr. Gobernador transmitiendo circular del Sr. Ministro de Gobernación, en la que ordena la inmediata renovación del Ayuntamiento.

Teniendo esta lectura el Sr. Alcalde declaró posicionados a los concejales entrantes y tras cordial despedida abandonó el Salon haciendo igualmente todos los demás concejales salientes, con lo que se dio por terminada a esta primera parte firmando la presente acta todos los concurrentes de que al Secretario certifico.

Segunda parte: seguidamente constituido el nuevo Ayuntamiento bajo la presidencia interina de D. Sebastian Iribar, como de mayor número de votos y de mayor edad entre iguales, se procedió inmediatamente al nombramiento de Alcalde en votación Secretario que los concejales uno por uno fueron depositando en la urna. Terminada la votación y practicado el escrutinio, de modo provenido por la ley municipal de 1877, resultaron D. Antonio Alegria Lasa con 5 votos, Sebastian Iribar con tres votos y una papeleta en blanco, resultando así elegido Alcalde por mayoría absoluta el referido D. Antonio Alegria pasando inmediatamente a ocupar la presidencia y recibiendo las insignias del mando.


Acto seguido y bajo la presidencia del elegido Alcalde se procedió igualmente en votación secreta a la elección del 1º y 2º tenientes de alcalde y sindico, dando ello el siguiente resultado:

Para primer Teniente: D. Fructuoso Arregui 5 votos, D. Sebastian Iribar 3 y una papeleta en blanco.

Para segundo Teniente: D. Cecilio Idiaquez 5 votos, Sebastian Iribar 3 y una papeleta en blanco, y para regidor sindico. D. Sebastian Iribar 5 votos, Julian Ulacia 3 y una papeleta en blanco: quedandose por consiguiente elegidos: 1º Teniente D. Fructuoso Arregui Leizaola; 2º Teniente: D. Cecilio Idiaquez Indo y Sindico D. Sebastian Iribar Ulacia.

Los demás concejales guardando el número de orden de votos fueron colocados en el siguiente orden, D. Genaro Basterrechea Santamaria, D. Jose Isasti Azpeitia, D. Julian Ulacia Unanue, D. Julian Larrañaga Aranburu y D. Primitivo Urbieta Embil, quedando así definitivamente constituido el nuevo Ayuntamiento"[10].

[10] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-04-18.



Acta de instalacion del nuevo Ayuntamiento


71

Instalacion de nuevo ayunt.

Parte primera. En la villa de Getaria a diez y ocho de abril de mil novecientos treinta y uno, siendo las diez horas se constituyo en la sala capitular el Sr Alcalde saliente D Juan Subor, con los concejales D Pedro Mendiola, D Francisco Aranburu, D Jose Agustin Zarraga y D Bernabe Olaeta, con el fin de conferir la posesion a los elegidos el dia 12 del actual y acto seguido, comparecieron y fueron cortesmente recibidos D Antonio Allegria D Ignacio Aristimuño, D Sebastian Subor, D Jose Ignacio Carlos Idiaquez, D Justino Arregui D Julian Mitxelena, D Julian Larrañaga y D Primitivo Urbieta, dichos nombrados concejales por este termino municipal, contra los que no se ha formulado reclamacion alguna. Y estando presentes los mencionados que han de componer el nuevo Ayuntamiento el Sr Alcalde saliente dijo: Que en virtud de la Soberania transmitida emanada del Sr Presidente de Gobernacion, en la que reside la inmediata investidura del Ayuntamiento.

Terminada esta lectura el Sr Alcalde dicho fue nombrados a los concejales entrantes y tras cordial de-

Bigarren Errepublikako Getariako lehen udal-korporazioaren osatzea. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-04-18).



75

pedida abandono el Salon haciendo seguidamente todos los nuevos concejales salientes con lo que se dio por terminado este primer punto formando de todo esto todos los concurrentes de que el Secretario certifico

Antonio Allegria

Ignacio Aristimuño

Julian Larrañaga

Primitivo Urbieta


Segunda parte: Seguidamente constituido el nuevo Ayuntamiento bajo la presidencia interina del Sr Subor Subor, como de mayor numero de votos y de mayor edad fueron leidos se procedio inmediatamente al nombramiento de Alcalde en votacion secreta que los concejales emitieron por una persona depositando en la urna. Terminada la votacion y practicado el escrutinio, de modo prevenido por la ley municipal de 1877, resultaron D Antonio Allegria Casa con 5 votos, Sebastian Subor con tres y una papeleta en blanco, resultando en consecuencia elegido Alcalde por mayoria absoluta el referido D Antonio Allegria pasando inmediatamente a ocupar la presidencia y recibiendo las insignias del mando.

Acto seguido bajo la presidencia del elegido Alcalde se procedio a igual en votacion secreta a la eleccion del 1º y 2º Tenientes de Alcalde y Sindico. Dando el siguiente resultado.

Para primer Teniente D Justino Arregui 5 votos, D Sebastian Subor 3 y una papeleta en blanco.

Para segundo Teniente D Carlos Idiaquez 5 votos, Sebastian Subor 3 y una papeleta en blanco, y para Regidor Sindico D Sebastian Subor 5 votos Julian Mitxelena 3 y una papeleta en blanco, quedando los

Bigarren Errepublikako Getariako lehen udal-korporazioaren osatzea. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-04-18).



Bigarren Errepublikako Getariako lehen udal-korporazioaren osatzea.
(GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-04-18).

HERRITARREK, BIGARREN ERREPUBLIKA ALDARRIKATZEAREKIN BAT, BOZKAZ HAUTATUTAKO GETARIAKO LEHEN UDAL-KORPORAZIOA

ALKATEA
Antonio Alegria Lasa (185 boto)

Lehen alkateordea:
Fructuoso Arregi Leizaola (179 boto)

Bigarren alkateordea:
Cecilio Idiakez Indo (183 boto)

Sindikoa:
Sebastian Iribar Ulazia (185 boto)

Zinegotziak:
-Genaro Basterretxea Santamaria (185 boto)
-Jose Isasti Azpeitia (184 boto)
-Julian Ulazia Unanue (148 boto)
-Julian Larrañaga Aranburu (145 boto)
-Primitivo Urbieta Embil (144 boto)

1931ko apirilaren 18an getariarrek beren bozkaz hautatutako zinegotziek, udal-korporazioa osatu zuten. Hauteskunde haietan, diktaduran agintari izan zirenek ere, bertan parte hartzeko aukera izan zuten. Emaitza garbia izan zen, herriak, ordura arte izan zituen agintari ustelduen aldaketa eskatu zuen. Era batera edo bestera ordea, agintari haiek guztiek, boterearekin harreman estua izaten jarraitzen zuten eta Getarian ere, ahalak eta bi egin zituzten beren agintea mantendu ahal izateko:

"Seguidamente el Secretario dio cuenta de un telefonema del Sr. Gobernador Civil de la provincia que se acaba de recibir dando lectura íntegra y que dice:


'Gobernador Civil al Secretario de Ayuntamiento: De acuerdo Decreto publicado anulada elección cesando sus cargos concejales electos quedando administración Municipal a cargo Comisión Gestora compuesta por Antonio Alegria, Isidoro Chueca, Julian Ulacia, convoque la nueva elección de acuerdo gaceta publicada B.O. lunes último y circular aparecerá numero extraordinario hoy'.

Terminada su lectura, se les insistió por el Secretario a los concejales cesasen en sus funciones para inmediatamente constituir la Comisión gestora designada y conferir el cargo de la administración municipal.

El Sr. Alcalde D. Antonio Alegria hace uso de la palabra diciendo que el cargo y autoridad que hoy ejerce es emanado del pueblo en virtud del sufragio, que lo considera autentico y mas legitimo que una medida gubernamental y que mientras el pueblo no demuestre lo contrario no esta dispuesto a cesar en el cargo e invita a los concejales demuestren su opinión sobre su decisión, y se adhieren expresa y decididamente los concejales señores Arregui, Idiaquez, Iribar, Basterrechea y Azpeitia.

Sin mas demora y sin haber hecho manifestación alguna los concejales señores Ulacia, Larrañaga y Urbieta el Sr. Alcalde dijo levantaba la sesión abandonando el salon con los demas concejales adheridos (…)"[11].

[11] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-05-19.



Diktadurako zinegotziek herritarrek bozkaz hautatutako gobernua desegiteko nahiaren aurrean. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-05-19).

Antonio Alegria Lasa alkate izendatu berriak eta haren alderdiko gainontzeko euskal nazionalistek, argi zuten herritarrek hautestontzietan emandako botoen bidez iritsi zirela agintera. Herriaren hitza defendatzeko iritsi ziren kargura, herriaren interesei men eginez lan egiteko; ordura arte, boterean egon ziren haiek egin ez bezala. Ordura arteko agintariek, beren zein goi agintarien interesen arabera jokatu zuten, herriaren nahiei jaramonik egin gabe. Handik aurrera, ezin izango zuten halakorik erraztasunez egin eta horren adierazle, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz, azkenean, 1931ko apirilaren 18an osatutako udal-korporazioa behin-betiko onartzea izan zen:

"Seguidamente se dió cuenta de un telefonema del Señor Gobernador Civil de la provincia que dice así:

'Retirada protesta electoral relativa ese municipio queda anulada convocatoria nueva elección publicada B.O. 29 conveniente debiendo continuar al frente administración municipal Ayuntamiento elegido ultima elección.

Los reunidos se dieron por enterados del contenido de dicho telefonema"[12].

Diktaduran eskuhartze finkoa izan zuten agintariek, Euskal Herriko zein Estatu Espainiarreko zenbait herrietan egin gisan Getarian ere, udal-hauteskundeak berriro deitu nahi izan zituzten. Haien boterea berreskuratzeagatik edozer egiteko prest zeuden, baina 1931ko maiatzaren 31rako deitutako udal-hauteskunde haiek ez ziren Getarian ospatu. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1931ko apirilaren 18an osatutako udal-korporazioa guztiz zilegia zela aldarrikatu zuen. Gisa horretara, getariarrek inoren mehatxupean aukeraturiko udal-korporazioa, herritarren esanetara lan egiten hasi zen.


Berriki hautatutako udal-gobernu berri errepublikazale hark, 1932an beraien aurka Sanjurjo jeneralak emandako estatu-kolpea gogor gaitzetsi zuen:

"Seguidamente el Sr. Alcalde da cuenta de un telefonema del Sr. Gobernador Civil de la provincia interesando el acuerdo que hubiere adoptado el Ayuntamiento con motivo de la ultima rebelión acaudillada por Sanjurjo; y no habiendo adoptado aun ningun acuerdo sobre el particular; propone que con este motivo adhiera el Ayuntamiento al Gobierno de la Republica y soberania popular de las Cortes, haciendo contar en acta la mas energica protesta contra el intento felizmente fracasado, de sedición.


El Ayuntamiento acuerda elevar a acuerdo lo propuesto por el Sr. Alcalde, por unanimidad"[13].

[12] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-05-26.

[13] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-09-06.



Getariarrek bozkaz hautatutako udal-gobernuaren behin-betiko osatzea. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-05-26).




Getariarrek bozkaz hautatutako udal-gobernuaren behin-betiko osatzea. (GUA, sig. 251-3: udal-aktak 1931-05-26).

2.2. MUNDU MAILAKO KRISIAREN ERAGINA GETARIAN


Getariako Bigarren Errepublikako lehen udal-korporazioak ez zuen lan makala izan. Sistema kapitalistaren baitan, getariarrek ere haren ondorioak jasan behar izan zituzten. Batzuek beren ondasun eta dirua mantentzen jarraitu nahi izan zuten bitartean, besteek ahalak eta bi egin behar izan zituzten, ogi zati bat ahora eramateko lain izateko. Garai latzak ziren haiek. Herri langileak, aldarrikatu berri zen Bigarren Errepublikako gobernu berrian eta Getarian, udal-korporazio berrian, beren egoera aldatzeko esperantzak jarri zituen. Udal-korporazio berriaren helburu politikoak, miserian bizitako herri langilearen bizi baldintzak hobetzea izan behar zuen.

Miseria hura ulertzeko, denboran apur bat atzera egitea ezinbestekoa zaigu. Lehen Mundu Gerra amaitu zenetik, hamabi urte igaro ziren eta hark ere, bertan zuzenki zein zeharka parte hartu zuten herrialdeen altxortegian arrastorik utzi zuen. Altxortegiko zorpetzeak, herrialde horietako herritarrei zuzenean eragin zien. Borrokaldi odoltsu hartan, Estatu Espainiarra neutral mantendu eta bertako industriak, gerran parte hartutako zenbait herrialdeetara, ekoiztu ezin zituzten produktuak ekoitzi eta esportatzeaz arduratu ziren. Euskal industrien produktibitateak gora egin zuen.

Getariako kontserberek gerra zeharka bizi izan bazuten ere, bertako herritarrek gerraren eragina bertatik bertara jaso ahal izan zuten. Hain zuzen, 1918ko uztailaren 17an, izendatzea ezinezkoa egin zaigun torpedero batek, Senegaleko Daüar hiritik kakaoa eta bestelako merkantziak Frantziara zeramatzan L'Indian[14] itsasontzia hondoratu zuen. Hurrengo eguneko Diario Vasco egunkarian argitalpenean aztertu ahal izan dugunez, itsasontzia segituan hondoratu eta guztira 40 pertsona inguru hil egin ziren. Beste lau, Villamil deituriko torpederoak salbatu eta Getariara hurbildu ostean, ospitalera eraman zituzten. 1934ko martxoaren 18 eta 25eko udal-aktetan ikertu ahal izan dugunez, Lyquidiane ontzian zihoazen frantsesetako hiru, Getariako kanposantuan hilobiratu zituzten. Azken data horietan, Frantziako kontsulak, haien hilobia behin-betikotzeko eskaera egin eta Getariako udal-korporazioak onartu egin zuen[15].



Getariako hilerrian hiru marinel frantses. (GUA).



Getariako hilerrian hiru marinel frantses. (GUA).

[14] Getariako garai hartako udal-idazkariak honela izendatzen du hondoratutako itsasontzia. 1918ko uztailaren 18ko "Diario Vasco" egunkariak, "L'Indian" izenez deitu zuen hondoratutako itsasontzi frantsesa.

[15] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-03-18 eta 1934-03-25.

Gerra ere egun batean amaitu egin zen ordea eta horrek, ordura arte beren industriak geldirik edo haien ekoizpena gerrako zereginetara bideratuta izan zituzten herrialdeak, beren ekoizpen industriala poliki-poliki errekuperatzen hastea ahalbidetu zuen. Horrek, gerra garaian neutral izateaz probestu ziren zenbait fabriken itxiera edo produktibitate jaitsiera eta horren aurrean, nagusiek beren ondasunak mantentzeko langileen kaleratzea zein soldaten jaitsiera eragin zuen. Horrekin bat, langileriaren protesten ugaritzea eta sindikatuen beharrizana ahalbidetu zuen. Europar herrialde gehienak zorpetuta geratu ziren Lehen Mundu Gerraren ostean eta haren ondorio latzenak, fabrikak, dendak… martxan mantentzen zituen langileriak jasan behar izan zituen. Bien bitartean, Amerikako Estatu Batuek, delako 1920ko Hamarkada Zoriontsua bizi izan zuen. Lehen Mundu Gerran zehar, herrialde hau, gerran zeuden zenbait herrialderi kredituak eman eta haren ondorioz, zorpetu egin zituen. Hartaz baliatuta eta oraindik ere gerraren ostean zenbait herrialde europarrek ekoiztu ezin zituzten produktuak ekoizteaz arduratu zen.

Halako batean, burbuila hark ere eztanda egin zuen, 1929ko Wall Street-eko Krax-ak, urteen poderioz handiagotzen zihoan krisiaren hondoa jo zuen. Handik aurrera, 1929ko Krisia edo Depresio Handia gisan izendatzera pasa zen.

Getariako herritarrak ez ziren beren garairik onenak pasatzen ari. Udal-langileen artean esaterako kasu bereziak ditugu. 1931ko maiatzaren 12ko udal aktetan, Manuel Gorostiaga udaltzaingoari ezarritako Juan Ibargurenen salaketa ageri zaigu. Haren arabera, udaltzaingoak bere postua utzi eta arrain salmentan ere aritu zen; 1931ko abuztuaren 11ko udal-aktak udal-langileen soldata eskasaren berri ematen digu:

"El Ayuntamiento después de tratar del asunto y de la natural necesidad en que se encuentran los empleados que estan deficientemente retribuidos acordó advertirle al Sr. Gorostiaga la conveniencia de que procure evitar en lo posible toda intervención que pueda dar lugar a reparos"[16].

Udal-langileen egoera ez ezik, halakoxea zen gainontzeko herritarrena ere. Abuztuan bertan, Bigarren Errepublikako gobernuak, Andaluzia, Murtzia, Extremadura eta Mantxan Berehala Egikaritzeko Herri Lanen Plana deiturikoa martxan jarri zuen[17]. Hauen bidez, langabeziarekin amaitu nahi zen, momentu hartan ekonomia martxan jartzeko balio bazuen ere, momentuko gauza izanen zen. Getariako udal-gobernuak ere, aurrerago ikusiko dugunez, halako formulak martxan jarri zituen. Formula horrekin, langileentzat eratutako langabezia seguru boluntarioa ordaintzea salbuetsi eta derrigorrezko langabezia segurua ezartzea ekidin zen, honakoa langileentzat okerragoa zelarik.

Horrezaz gain, 1931ko azaroaren 10ean, Gipuzkoako Kudeaketa-Batzordeak, langabeziari aurre egiteko, langabezia-zerga deiturikoa proposatu zuen. Haren bidez, langabezian zeuden langileak babestu nahi ziren, baina hark momentuko superbibentziarako baino ez zien balio. Arazoak oraindik ere jarraitu egiten zuen, langabezia zerga batekin amaitzea ezinezkoa zen eta sistema kapitalistan bizi ahal izateko, langileek soldatapeko lanaren beharra ezinbestekotzat zuten. Hala, anarkista zein komunistek, sistema kapitalista ankerrarekin amaitu eta mundu berri bat sortzeko aukera, helburu politikotzat hartu zuten. Orokorrean ordea, Espainiar Estatuko gobernu errepublikarrak eta udaletxeetako ordezkariek, bestelako jarrera hartu zuten. Getariako udal-gobernuak, hasiera batean, langabezia zergak ongizate "petatxu" bat gisan bakarrik balio zuela eztabaidatu arren, azaroaren 24an berau onartzea erabaki zuen[18].

Getarian emakume eta haurrek, haien gehiengoan, heuren senar arrantzaleak itsasoan lan egin bitartean, herriko kontserba-fabrika eta sare josketan lan egiten zuten; bai eta nekazaritzan ere. Haien egoera ere, tamalgarria zen:

"El Sr. Alcalde dió cuenta de una comunicación dirigida por el Sr. Gobernador Civil de la provincia en el que transmite la queja del Sr. Inspector provincial de Sanidad, sobre las deplorables condiciones en que se encuentran algunas bodegas para trabajo de salazon de anchoa en la primavera, (…) como defecto la falta de luz y ventilación y pisos sin hormigón y para que se les advierta de que procedan a poner en las debidas condiciones para la temporada proxima, y el Ayuntamiento acuerda que se les notifique en forma a dueños de las referidas bodegas o fabricas de salazón"[19].

Getariako kontserberatako langileen lan-baldintzak ez ziren onak. Lanean zeudela, beraien osasuna jokoan jartzen zuten, baina ezinbestekoa zuten hartan jardutea sabelera eramateko zerbait eduki nahi bazuten. Kontserberetan zein sare josten ez ezik, arrain salmentan ere lan egiten zuten emakume getariarrek. Huraxe dugu, esaterako, Abelina Andreano haurren irakaslearen kasua:

"Idiakez zinegotziak esan du Abelina Andreano parbulo-eskolako irakaslea eskola orduetan arraina saltzen ibiltzen dela eskola utzita. Alkateak ohartarazpen bat egiteko esan du"[20].


[16] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-08-11.

[17] ESPUELAS, S. 2008. "La creación del seguro de desempleo en la II República. Un análisis de su impacto y de por qué fue voluntario". Universidad de Barcelona, 1-34.


[18] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-11-10 eta 1931-11-24.

[19] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-09-13.

[20] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-10-20.



Arrantzan egin osteko "despeska" lanak. (Antxon Aguirre Sorondoren liburutik).



Antxoa gazitzen ezartzen. (Antxon Aguirre Sorondoren liburutik).

Behin arrantzaleak Getariara iritsita, emakume zein haurrek "despeska", hau da, sare-arrantza egitean sareetatik arrainak kentzean zetzana burutzen zuten. Esan beharrik ez dago, emakumeek, sektore hauetan guztietan, diru gutxiago kobratzen zutela gizonezkoek baino:

"LA LLEGADA DE LA ANCHOA

Son las cuatro de la tarde. Van entrando por la bocaza del puerto los vaporcitos que vuelven de la pesca de la anchoa.

Cuando bajábamos, nos hemos cruzado con una larga fila de pescadores que traían un atillo al brazo. A nuestro lado un grupo de italianos chapurrean el español. El puerto está lleno de mujeres: mujeres que cosen las redes, mujeres que llevan cestos con pescado, mujeres sentadas a la puerta del local donde la anchoa que va llegando se subasta. Más allá, en la falda del 'Ratón', una hilera de hombres sacude, desde un costado del muelle, una malla de anchoas sobre un vapor"[21].

Kontserberen jabeek, Liborio eta Salvador Orlando (italiarrak), Carmen Lacazette Thiebaut[22], Miguel Alegria Ijuarra, Chueca, Alkorta S.A., Hermanos Larraza… beste zenbaiten artean, gisa horretara, irabazi handiagoak lortu ahal izaten zituzten gizonezkoak kontratatzean baino:

"ITALIAR'AK.- Uso txurian eran agertu zaizkigu Cefalu'tar Amerika anaiak, Cussimano eta Alioto'tar Antonio. Guzioi ongi etor'ia"[23].

Getarian garai hartan, zein aurreragotik ere, zenbait italiarrek kontserberak ezarri zein handik ateratako kontserbekin Italiara esportazioak[24] gauzatzen jardun zuten. Ontziolak ere baziren eta berriak ere egin ziren Getarian garai hartan, 1933ko urtarrilean eraikitze bidean jarri zen Eusebio Lazkanorena kasu.



Antxoa garbitzen. (Antxon Aguirre Sorondoren liburutik).

Bitartean, getariar familietara, behar adina diru iritsi ez eta langabezia garai haietan gogorrak eta bi pasa behar izan zituzten.

Hori gutxi ez balitz, urte horretako martxoan bertan, Gipuzkoako komisioak, pobrezia kriminalizatu eta kaleko pobreak bertatik atera nahi izan zituen, bortizki:

"Queda enterado el Ayuntamiento por lectura integra de una circular de la Comisión provincial sobre represión de la mendicidad, incluso de religiosos"[25].

---

[21] Diario Vasco egunkaria, 1935eko ekainaren 26a.

[22] Honakoak kontserba fabrika Oviedon ere bazuen.

[23] El Día egunkaria, 1931ko apirilaren 9a.

[24] Angelo Parodi Fu Bmneo-k bere kontserberatako bat Bermeon (Bizkaia) zuen, baina Getariako portutik esportatzeko baimena eman zion Espainiar Estatuko Aduanetako Zuzendari Nagusiak.

[25] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-03-16.

Horrek garaian pobrezia handia zegoela adierazten digu eta baldintza horiek langabezia eragin ostean, jende multzo handi bat kalean bizitzera behartu zutela. Egoera horretan, Gipuzkoako Komisioak hartutako erabakia guztiz ankertzat jo genezake. Hori gutxi ez eta, 1934ko otsailaren 4ko udalbatzan, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ogiaren 5 zentimo pezetako igoera plazaratu zen. Hala eta guztiz ere, Getarian garai hartan zegoen udal-gobernuak, getariarrek egunerokoan bizitza ateratzeko zituzten lanak ikusita, hura martxan jartzea ekidin eginen zuela adierazi zuen[26].

Getariako udal-gobernuak, egoera hura guztia konpontzen saiatzeko ahaleginak ere egin zituen. Arrantzaleen egoera ere ez zen batere ona Bigarren Errepublikaren hastapenetan:

"AR'ANTZALEAK.-Aspaldian ar'antzaleak egin dute itxasora juan da etor'i ugari, alper'ik: ez zuten ezertxo ateratzen bala orain, jainkoari esker'ak, zerbait ekartzen asi dira eta diotenez, ar'ai asko ikusi ere bai. egia da, bokarta onen bila juaten dira zortzi ordu bidean eta neke aundiko ar'antza da. Opa dizutet, lenbailen 'San Antonen' atzean izatea orain ur'uti okukazuten aberastasuna.

AZKIZU"[27].

Arrasteroak nonahi zituzten kostaldean eta horrek behar zuten arrantza kentzen zien. Bigarren arazo bat ere bazuten, arrain salmenta italiarren esku zegoen: arraina garestien erosten zietenak azken hauek ziren, haren ostean irabazi handiagoak ere lortzen zituzten azken haiek ordea, hain zuzen, Italiara ez ezik, beste herrialde batzuetara ere esportatzen baitzuten:

"ARRANTZALE ARAZOAK

Ez degu arrai konturik idazten orri auetan, ta derikiot beste gai asko bañan beartasun aundiagua daukala arazo onek. Guazen bada zertxo bait ezartzera, ta irakurle ondo entzun.

Arrastero kontu ori orain lau bost urte lehenago egin bear genuan lana zan. Ikusten genduan itxastar sendi asko urtetik urtera okerrago zijoala, ta gosea aurrera zijuakigula. Ala ere, noiz edo noiz gogaitu gera ta oraingo ontan egingo al'dute zerbait. Gañera, arrastero oietako geitxuenak konporme daude urrutietan arrantzan jarduntzeko, bañon bai daude beste pixti baster saleak guk atxitu bear ditugunak arrapatuaz ederki asko bizitzen diranak… ¿ze ondoren itsastar sendi beartzuentzat? Gosea, ta goseak ez du txantxik. ¿Ez al-dek nai onez urrutiago arrantzan egin? Ba, txarrez aritu bearrian izango aiz. Onze nai ez duanak txarrez ixil-ixilik egin bear… Egi egitan.

Arrastero bazter-zale oien nagusi ta bertan ebiltzen diran sendi buru batzuk bear bada ongi bihar leike. ¿Zer egiten dute oien ondo bizitzeak beste millako sendi, goseak ba'daude? Hogei 'millatik kanpora' bialtzen baditugu ikusiko degu emendik bi urte bañon len, arraia ugari ataiko atean orain hamabost urte bezela. ¡Bai orixe! Bañan ortarako saltzile pixkorrak epiñi bear dira, eta atxitzen dituztenari zigor minkorra ezarri. Ori egin ezkero, kenduko dizkio berriz etortseko bideak… ¡Bai portzierto…!

Bermeotarrrak egiten dute egokien. Aien kaieta arrastero bat bera ere juateko bildurrez egoten da. ¿Nola ez ba? Juaten danari berriz juateko gogoak kentzen dizkiotelako.

Orregatik urte guzian atxitzen dituzte legatz, bixigu ta abar. Gure kalak ostea, orduz lenagotik zearo 'eskobatuak' egoten dira, edo geu arrantzan gauden lekura etorri lotzagabe oiek, eta askota (au entzun ondo), geren tresnak aparejuak eraman. Ortxe da oien lana arrantzale gixajuari egiten diguna.

Ondarrutar, Mutrikuar ta getarren kaletan oiek ebilliko ezpalira, makiñabat bixigu ta legatz geigo atxituko genduzke. ¿Nun ikusten da urte auretan gertatzen dana kostan ontan? Guziak bat jo ta ez dira berreun arrua bixigu arrapatzen, eta len (gu gazteak giñala ikusten genuen) eunka arrua egunero ekarri oi zuten. Beraz, badakigu nun dagon akatza. Oiek kanpora bialdu arte emen ez da goserik amilduko. Dijuaztela Jainkuakin, eta utzi emen guri pakean.

Beste arazo bat bai daukat, eta oneri ere ikutu bat ematia ez litzake kalterako izango. Ala uste det beintza, eta erderaz irakurriko zenuten.

Alegia, 'la exportación de anchoa' dalako onentzat nai nuen esan. Entzun bada irakurle maite orrek:

Urtero italiar antxo erosleak noiz etorriko egon oi gera itxastar guziok eta ¿etortzen ez diranian?

Kontu egin dezagun aurten. Ao txabalik egon emengo erosleak artuko dutelakuan. Artzen dute, bai, ezin ukatu. Bañon ¿nolatan? Ogei balio zuna amar ordainduaz.

Guziak Itali laterriari[28] begiak jarrita egoten gera. Bai ba, oiek daukate Depósito edo dalako ori ta, beoyek beste Laterri guzieta zabaltzen dute. ¿Zer dala ta gure laterriak ez du depósito ori epintzen? Hogeita amabi laterri omen dira antxua jaten dutenak, eta oiek guziak Itali'tik bialduta. Ta ¿aurten ez ba'dute erosten, laterri oiek ze jan bear dute? Orregatik diot guk izango ba gendu depósito ori (kontu egin dezagun Bartzelona'n), a ze salmen ta egokia izango genduken aurtengua!

Zerbait egin bear litzake. Gero aurrerapen aundiaguak azaltzen ari dirala, bañan gure 'estadu' ontan bestiak egingo dutenetan beti… 'Ama, ura ekatzu' 'Ama, ¿nire alkandora nun da?' 'Ama, ¿bai alguaz?' Egonari motel, besteak irten arte…

Eguzki"[29].

[26] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-02-04.

[27] Euzkadi egunkaria, 1935eko maiatzaren 31a.

[28] Estatu, nazio.

[29] El Día egunkaria, 1936-05-20 (ikus 2. eranskina).

"Luego se dio cuenta de las conclusiones acordadas en la asamblea de Ondarroa el domingo anterior, en las que se pide al gobierno la abolición condicional de la pesca de arrastre, alejando desde el momento hasta treinta y cinco millas. El Sr. Alcalde da cuenta de la forma en que se desarrolló la asamblea en la que delegados o representaciones de Guipuzcoa proponían medida de momento menos severa, contra el arrastre, no por que no les convenía lo acordado, sino por ser mas viable de momento. El Ayuntamiento se dió por enterado"[30].

Hirugarren eta azken arazoa, igandean lanik ez egitea erabaki zela zen. Arrantzale getariarrek, beraientzat horrek guztiak galtze ekonomiko handia suposatu zuela adierazteaz arduratu ziren. Getariako udal-gobernua ere, arazo horiei irtenbidea ematen saiatu zen. 1932ko urriaren 27an, Idiakez eta Iribar zinegotziek langabezian zeuden langileen egoera hobetzeko mozio bat aurkeztu zuten udalbatzan:

"(…) A cuyo fin proponemos la ejecución de obras publicas, creando el trabajo necesario para todos los obreros de paro involuntario de esta vecindad. Insistimos en que estas obras han de efectuarse con caracter urgente, como indica el articulo 154 en su apartado cuarto del Estatuto Municipal rejente, bien concentrandose directamente por el Ayuntamiento o bien ejecutando por administracion municipal= Las obras, de cuya necesidad mas se nota y mayor numero de brazos se ocuparian a nuestro entender son; 1º Reparación de la plazoleta del matadero municipal: 2º ensanche de la curva de Trompape, construyendo un muro y adosado a el mas escaleras para el acceso del puerto, acertando asi la distancia y facilitando acceso a la Calle de General Arnao. 3º: Construcción de un vertedero de basuras en administración por el municipio, rectificando el acuerdo de la sesion ordinaria del dia 27 del pasado mes y 5º Todas aquellas obreras de utilidad publica que satisfagan el fin propuesto.- Todos los gastos que se ocasionen serán a cargo del presupuesto ordinario de 1933 pero teniendo en cuenta el aumento de gastos, estos se cubriran con los resultados del presupuesto ordinario de 1932, extraordinario de 1934 e impuestos nuevos que se encaran para cubrir dicho presupuesto de 1933.= Teniendo en cuenta el fin que se persigue, apoyamos y proponemos al Ilustre Ayuntamiento para que haga suya la mocion que proponemos, procurando todos los medios que esten a su alcance,= Salud, Republica y Libertad"[31].

Gaztañaga udal-idazkariak, legeari jarraiki eta udalak nahikoa aurrekontu ez zuela adierazita, honako programa betetzea ezinezkotzat determinatu zuen. Ulazia zinegotzia ere, proposamen horren aurka agertu zen, Getariako langabeen egoera ez zela hain txarra determinatuz. Horrez gainera, negurako nahikoa lan zegoela adierazi zuen eraikitzen ari ziren errepidean. Alegria alkateak baiezkoa eman zion, baina hartarako errepublikazaleak kontratatu zituztela adierazi zuen. Eztabaidak luze iraun zuen:

"El Sr. Ulacia: que no hay tal exclusiva, que sí hay trabajo será para los del pueblo y que por ello se interesó particularmente en conceder la aprobación del proyecto gastando pesetas, de su bolsillo para la prosperidad del pueblo y ello no a cuenta de la Villa y ataca a la presidencia diciendo que el no se acordo mucho de algunos cuando tenía trabajo el Ayuntamiento en la alcantarilla de Magallanes y otros; contestando la presidencia que no es verdad lo que acaba de decir el Sr. Ulacia, que el no ha exigido nunca para dar trabajo a que cambien de política o afilien a la suya como lo ha exigido el interlocutor, contestando el Sr. Ulacia que le pruebe cuanto acaba de imputarle, prometiendo la presidencia que le probara cumplidamente y expone que a su juicio es urgente el problema de parados y debe de tratar de resolver el Ayuntamiento este de alguna forma y para justificar exhibe una lista de obreros sin trabajo en la que figuran insertos treinta y cuatro.

El Sr. Ulacia: que esa lista de parados existe por que ha querido el Alcalde; que si no llega a publicar el bando que publicó no se le presente hoy al Ayuntamiento ningun problema de obreros parados y que de existir en realidad hubieran presentado los mismo obreros sin necesidad de bandos, y que el sabrá por que dió.

El Sr. Alcalde: que publicó el bando por que tenía conocimiento de casos y a fin de conocer la situacion del pueblo a lo que cree que esta obligado.

El Sr. Urbieta: que en esa lista habrá quienes no necesitan trabajo.

El Sr. Idiaquez: que de los insertos se irán todos al trabajo si se les proporciona.

El Sr. Urbieta: que no ha leido la lista pero que cree que habrá quien necesite otro para hacer los suyos.

El Sr. Alcalde expone que estima suficientemente discutido el asunto y que va a someter a votación, bien por la totalidad la moción o bien por partes y a peticion del Sr. Urbieta acuerda que se discuta y vote por partes, resolviendo en primer lugar si existe el problema de parados y ha de resolverlo el Ayuntamiento dando trabajo por el pueblo, en el 2º Si han de realizarse las obras y trabajos propuestos en la moción y en 3º: Si estos han de ser realizados sacando a subasta o en administración.

Verificada la votación sobre el primer punto nominalmente votan en pro los Sr. Arregui, Idiaquez, Iribar, Basterrechea, Isasti y la presidencia y en contra los señores Ulacia y Urbieta que resultan 6 en pro y 2 en contra.

La presidencia dice si hay algo que oponer al 2º punto y el Sr. Urbieta, manifiesta que el estima necesario el ensanche de la curva de Trompape y la escalera de acceso por dicho punto y que en cuanto al arreglo de la plazuela de frente del matadero que el tiene pensado hacerlo cuando se termina la construcción de la carretera del puerto y se trae para el mismo la maquina apisadora; pidiendo si se quiere alguna ayuda al Fomento y que cree que se haria bastante mas economico y mejor que ahora.

La presidencia, y los Srs. Idiaquez e Iribar manifiestan que es de muy de necesidad y urgencia su reparación y asimismo las demas obras proyectadas.

---

[30] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1936-05-24.

[31] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-10-27.

Sometido a votación y verificado esta nominalmente, da igual resultado que en el caso anterior.

Seguidamente el Sr. Alcalde dice que somete a votación el tercer punto si es de urgencia que se comprende en el caso 4º del articulo 164 del Estatuto y se han de realizar los trabajos sin tramites dilatorios de subasta.

El Secretario advierte que el articulo del estatuto en que se basa la moción esta comprendido en la parte derogada del Estatuto, aunque se presume de subsistencia en parte por las adiciones por lo que su aplicación estima discutible y asi mismo advierte que aparte de razones de economía de trabajos es de tener en cuenta la ventaja de contratos para eludir el Ayuntamiento de la responsabilidad por accidentes de trabajo que pudieran ocurrir.

El Sr. Urbieta se declara partidario de subastas en caso de realizar obras poniendo en apoyo de su pretensión el ejemplo de la alcantarilla de Magallanes hecha en administracion y que costo 2000 pts. mas que lo presupuestado y del vertedero de basura que a poco de construir se ha derruido y no hay a quien exigir garantía.

La presidencia dice que por razones de urgencia discutidas y en principio y amparado en la disposición citada, considera perfectamente legal cuanto se propone en la moción y que al no haber unanimidad procede la votación.

Verificado esta da igual resultado que los dos puntos anteriores, por lo que con mayoría absoluta queda aprobada la mocion en su totalidad y con la votación suficiente para su validez, conforme al art. 165 del Estatuto.

El Sr. Presidente propone que antes de llevar a ejecución este acuerdo se oiga el dictamen de un abogado y asi se acuerda (…)"[32].

Azaroaren 24an, 1933ko aurrekontuetatik 22.615, 64 pezeta herri lanen proiektura bideratuko zirela adostu zuten. Herri lanak egiteko langileak kontratatzeko komisioa sortu zen, Alegria alkatea eta, Ulazia eta Iribar zinegotzien partaidetzarekin. Langileek, herri lan haietarako kontratatu ahal izateko honako baldintzak bete behar zituzten:

"Art. 1º Tendran derecho al trabajo en las obras publicas a que se refiere esta reglamentación, todos los obreros naturales de Guetaria que esten en paro involuntario.

2º Tendran preferencia, en primer lugar, los padres o cabezas de familia que cuentan con mayor numero familiares sin ocupacion retribuida.

3º Se tendrá tambien en cuenta la situación economica de cada familia, asi como el tiempo que lleven sin trabajar.

4º Estas preferencias se atenderan dentro de cada especialidad"[33].

Getariar langileentzat, ez ziren garai errazak izan. Udal-gobernuak haien bizimodua hobetzeko ahaleginak egin arren, orain-dik ere langabeziak gora egiten jarraitu zuen. Horrek guztiak azal dezake 1936ko maiatzean 56 langile getariar langabezian egotea[34]. Sistema kapitalistaren bizimoldeak, langileriaren nahigabea zekarren. Azken aipu bat ere atxiki nahi nuke, langilearen kualifikazioaren arabera, soldatak gora edo behera egiten zuen; bai eta lurraldearen arabera ere, fabriketan, garai hartan, Estatu Espainiarraren barnean, langile andaluziar batek gipuzkoar euskaldun batek baino gutxiago kobratzen zuen:

"(…) siguiendo las escasas situaciones en que se puede establecer un desarrollo podemos suponer que se produce una congelación de los salarios entre 1931 y 1936, seguida de un aumento en 1936, pero este extremo, con los datos de que disponemos actualmente tan solo se puede intuir"[35].

[32] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-10-27.

[33] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-11-24.

[34] BARRUSO BARÉS, P. 1996. *El movimiento obrero durante la II República: organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Diputación Foral de Guipuzcoa, Departamento de Economía y Turismo, D.L.: Donostia, 76.or.

[35] *Ibidem*, 58.or.

2.3. EMAKUME GETARIARRAK, ASKATASUNAREN BIDEAN

Getariako emakumea, herri mailan izugarrizko indarra eduki zuen subjektua izan zen. Garaiko sozietate eta botereak haren paper garrantzitsua hobesten ez bazuten ere, errealitatea bestelakoa zen. Zuotako zenbaitek gogoratuko duzue, zeuek zein zeuen amak moilan saretzen eta arraina saltzen egoten ziren garai hura. Bai eta horrez gaindi, etxeko beharrak ere egiten zituztela.

XIX. mendean zehar, Estatua, Eliza eta medikuntzak bat eginik, urte luzeetatik zetorren emakumeak espazio pribatura atxikitzeko hautua bere egin zuten, emakume tradizionala delakoari bide emanez: "La Restauración reforzó la ideología conservadora en relación con las mujeres y se perpetuó a través de una serie de restricciones legales que delimitaban claramente su rol social"[36]. Emakumeek espazio pribatura mugatzen zituzten rol tradizionalak jarraitu beharra zituzten, espazio publikoa gizonezkoen eremua bihurtu bitartean. Emakumeak, eremu domestikora zokoratu zituzten eta, haien egiteko nagusiak ama, emazte eta rol tradizionalen transmisore izatea ziren.

Hala eta guztiz ere, honakoa ezin dugu guztiz orokortu. Ez dugu ahantzi behar emakumeek, espazio publikoan lanean jarraitu behar izan zutela. Horren adibide garbia izateko ez dugu, Bilboko fabrika handietan XIX. mende zein XX. mendean lan egiten zuten emakume eta ume langileen artera joan behar. Getarian bertan ere, emakume eta umeak lanean egotearen frogarik argiena bertako kontserbera eta moilako saretze eta arrain salmentan errepara genezake. Garai hartarako, Orlando italiarraren zein Chueca-ren fabrikan esaterako, emakume zein ume getariarrek lan egiten zuten:

"LA CONSERVA DE LAS ANCHOAS

Acompañados de Juan Chueca, que ya ha de ser nuestro 'cicerone' hasta que dejemos Guetaria, visitamos su fábrica de conserva de anchoa.

Una veintena de mujeres, a ambos lados de una mesa, hacen pequeños grupos de anchoas unidas por la cola que, previamente, han descabezado y limpiado. Estos montoncitos en forma de era se van colocando por capas en barriles. Entre capa y capa, un puñadito de sal asegura la conservación del pescado.

Suenan las cuatro y media. Las obreras descansan durante media hora de su trabajo. Se oye un chapotear de manos en un barril lleno de agua y un repiqueteo de zuecos que van dejando al salir del cobertizo donde realizan su labor"[37].

Beraz, emakumeek etxeko espazioko ardurak izateaz gain, espazio publikoan kokatutako fabriketako lana ere egin behar izan zuten. Emakume eta umeen lana kontserberen diru-metaketarako ezinbestekoa zen.

Estatu Espainiarrean, 1923-1931 bitartean Miguel Primo de Rivera-ren diktaduran zehar ordea, orain arte aipatutako emakumeen gorputzak zenbait aldaketa jasan zituen[38]. Elizak[39] zein Estatuak berak ere hori ekidin nahi izan bazuten ere, José Javier Díaz Freire ikertzaileak izendatutako emakume modernoa delakoa sortu zen: "Las mujeres, una parte de las mismas, habían abandonado su tradicional actitud sumisa y pasiva para abrazar formas de comportamiento más libres, como por ejemplo el 'flirt', que, además, limaban las distancias entre los sexos"[40].

XX. mendearen hasieratik aurrera, emakumeak ikusteko modua aldatu egin zen Gregorio Marañon-en teoriei esker, emakumeak ez zirela gizonezkoak baino gutxiago determinatu baitzuen eta haren ordez, emakumezkoak eta gizonezkoak subjektu ezberdin gisan kalifikatu zituen. Haren arabera, emakumeek bereztik amatasun sena zuten eta, gizonezkoek burutzen zituzten jarduerak, alargun edo soltera izatean baino ezin izango zituzten bete:

"(…) se decía que la razón, la lógica, la reflexión, la capacidad analítica e intelectual y la creatividad eran prerrogativas del hombre, mientras que la sentimentalidad, la afectividad, la sensibilidad, la dulzura, la intuición, la pasividad y la abnegación eran características exclusivas de las mujeres"[41]. Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) eta horrenbestez, Emakume Abertzale Batzak ere ideia horrekin bat egiten zuten. Emakumeak gizonezkoaren menpeko izaten jarraituko zuen, baina espazio publikora bidea eman zioten:


GUETARIA, PUEBLO EN EL MAR

Las fiestas en Tolosa y Eibar

Hudson "8"-Autoplano "6"

Rápidos
Seguros
Cómodos

Ciordia Automóviles

SAN SEBASTIAN

Getaria, 1935eko ekainaren 26a. (Diario Vasco egunkaritik).

---

[36] NASH, MARY. 2000. *Rojas: Las mujeres republicanas en la Guerra Civil.* Taurus: Madrid, 40.or.

[37] Diario Vasco egunkaria, 1935eko ekainaren 26a.

[38] XX. mende hasieratik jasaten ari zen eraldaketa prozesua, baina ikusgarri edo orokortu momentu hartan egin zela adierazi genezake.

[39] Pio XI.ak egindako *Casti Connubii* Entziklika (1930-12-31, ezkontza kristauari buruz) aplikatzen saiatu ziren, emakumeek haien moral tradizionala mantendu zezaten. Zenbait elkarte katoliko eta egunkari ere, emakumeen moral kristaua mantentzen saiatu ziren.

[40] DÍAZ FREIRE, JOSÉ JAVIER. 1999. "La reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la dictadura de Primo de Rivera", in *El Rumor de lo Cotidiano: Estudios sobre el País Vasco Contemporáneo*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 254.or.

[41] -NASH, M., op.cit., 44.or.
-Emakumearen subjektu politikoaren inguruan egindako hausnarketa hauek, nire Master Amaierako "Gerra Zibilak eta gerraosteko egoerak euskal emakumeengan eragindako zauriak: errepresioa eta erresistentziak (1936-1945). Alegiako kasua" lanean aurkeztutako zenbait ondorio dira.

"¿Emakumezkoak gizonezkoak aña dirala?

Ara emen gure egunetako beste 'gaitz' bat.

Sinistea- edo sinistu nai eragiten ibiltzea- edozein gaietan gizonezkoak aña dirala emakumezkoak.

Nik uste aize 'modernista' oiek an ur'in gizon gona zaleren batzuek aterako zituztela eta gero emen euren antzekoren batzuek lagun artuta ari dirala gu 'modernizatu' naian.

Nik ondo dakit- ¿eta nork ez?- emakumezkoak lan batzuetan duala gizonezkoak baño trebetasun aundiagoa, baño ¿emendik ateratzen da gizonezkoak aña al lezakiala gauza guzietan?

Kaaa… ur'ik ere ez.

Gañera ondo ikusten dan gauza da, emakumezkoak ber'iro jaio bearko luketela San Agustin batek… Santo Tomas batek eta balmes batek, esaterako, idatzi zituzten idazti sakon eta ar'igar'iak idaztera eltzeko.

Es da señorita kent ber berak ere.

ONALDE"[42].

Pixkanaka, XX. mende hasieratik, arestian aipatutako bi emakume subjektu mota bereizten hasi ziren. Emakume modernoa delakoa, geroz eta garrantzia handiagoa izaten hasi zen eta emakumeen gorputz askea sortzeko bidea martxan jarri zen. Prozesu horretan zinez lagunduko zuena Miguel Primo de Riveraren diktadurarekin amaitu eta herriak bozka bidez demokratikoki aukeratu osteko Bigarren Errepublikako gobernua izanen zen. El Día egunkarian euskal nazionalistek 1933ko martxoaren 18an argitaratutako idazki horretan argiki ikusten da euskal nazionalistak ez zirela emakume moderno haren babestzaile. Kontrara, emakumeak ordena tradizionalean beteko zuen paper hura betetzeaz arduratu ziren. Horrenbestez, haien mitinetan euskal identitatea babesteaz gain, ordura arte emakumeak euskal tradizioan mantendutako papera berresten zuten. Euskal nazionalista batzuek emakumeak ez zuela politikan parte hartzerik berretsi bitartean, beste batzuek, oinarri tradizionalak babestearren, emakume euskal nazionalistek zeregin berezia zutela berresten zuten, Arrasateko adibide honetan ikus genezakenez:

"Emakumeak ez lutekela politikan sartu bear… Emakumeak beren zeregiña lapiko-ondoan, jostor'atzean dutela… emakumeak…

Ez diogu gai oni ekingo, garkoa behintzat.

Baña emakumeak ere Aber'ia ama dute, ta ama maite bear. Abertzaletasuna emakumeai ere gizasemeai bezelatsu lagokie, eta berdinez erakutsiko ez ba-dute ere. Eta emakumeak aber'inidez asko dezateke.

Gure zeingi-ezaugar'irik argi ta bikañena euskera degu. Aber'i-esi ta abertzaletasun biderik onena ere, euskera. Euskerak diraun er'ietan abertzaletasuna arin eta sustsu sartu da ta bidez dira. Euskera galduriko er'ietan, motelago sartu, ta er'az bide-esi-gañeratu.

Bai, abertzaletasun-biderik eta esirik onena ere, euzkera. Eta euskera alde emakumeak asko dezateke, Ar'asate gure er'i onetan euskeraren gorabera emakumeen eskuetan oso-osoan dagoala esango genuke.

Ar'asate'ko gizasemeak geienbat edota beti euskera darabilte. Urtearen aldi luzeak er'itik ur'un daramazkiten gazteak berak ere, er'ira diranean, euren artean euskeraz mintzatzen dira.

Neskatxa alboan dutenetan somatzen degu oien ezpañetan erdera. (Neskatxak beren artean zer esanik ere ez). alkar'en artean euskera darabillen mutilak neskatxakin erdera, zergatik? Ar'asateko neskatxak euskera ez dakitelako ote?

Ez, euskera ez dakiten neskatxarik Ar'asaten, gutxi; edo-ta bat ez, bertakorik.

Euskeraz ez lutekela erderaz bezin 'lora' politik asmatuko?

Ba liteke. Baña paperezko lorarik politena baño arkaitz-arteko 'lora' basatia ere usaitsuago beti.

Eta zein itsusia dan ber'iz: 'Aintzane, si voy ahí'-entzun-bear'a. oietako bati galdetu genion bein; ama nungoa dezu, ume?

Eta oraindik oraintsu baser'itik kalera jetxia zan. Etzeraman ba garousai aundirik; erderak dotoretzen nunbait!

Baña emakumeak nai izatera, emen euskera indartuko da, iraungo du. Eta zer Aber'i –alde lan eder'agorik?

Soñekoari eusteko abertzale-ger'ikoa, polito da; alboan igarotzean 'agur', goxo; etxean neskame, anai-ar'eba ta aita-amakin, plazan mutilakin eta elizan Jaun eta Jabearekin euskeraz mintzatzea, au 'oso'.

GESALIBAR"[43].

Emakumeak askatasun bidean ezartzeko, Bigarren Errepublikako gobernuak, lege eta erreforma aunitz martxan jarri zituen. 1931ko abenduaren 9an Konstituzio Errepublikarra onartzeaz bat, emakume zein gizonezkoak, legearen aurrean, berdin tratatuak izango ziren. Horrez gainera, Gorte Errepublikarretan izandako eztabaida luze eta sakonaren ostean, emakumeek, botoa emateko eskubidea ere lortu zuten[44]. Hori gutxi ez balitz, dibortziatzeko eskubidea ere martxan jarri zen, bai eta lan-mundura

[42] El Día egunkaria, 1933ko martxoaren 18a.

[43] El Día egunkaria, 1931ko abuztuaren 12a.

[44] Clara Campoamor, Bigarren Errepublikaren lehen aldian, Madrildik hautatutako diputatua izan zen. Hark, Gorte Errepublikarretan emakumeen boto-eskubidearen alde emandako diskurtsoak, bertako partaideek, emakumeen boto-eskubidea legedi-errepublikarrean onartzeko ezinbestekoak izan ziren. 1931ko urriaren 1ean onartu zen emakumeen sufragio unibertsala.

sartzeko askatasun handiagoa ezartzen zuten beste zenbait lege ere: "La República supuso, para las mujeres, conquistas jurídicas y políticas, aún con límites y contradicciones, y un auténtico adelanto hacia la modernización"[45].

BIGARREN ERREPUBLIKAN[46], EMAKUMEENTZAKO LEGE-HOBEKUNTZAK

BOTO-ESKUBIDEA	1931KO URRIAREN 1A
DIBORTZIATZEKO ESKUBIDEA	1932KO OTSAILAREN 25A
ABORTATZEKO ESKUBIDEA (12 haurdunaldi asteren buruan)	1937KO URTARRILAREN 9A

Getariako Emakume Abertzale Batzako emakumeak espazio publikoa hartu zuten, baina beti ere oinarri tradizional haiek babesteko. Euskal identitatearen euskarri hartan, euskararen babestzaile papera izateaz gain, haren transmisio iturri bilakatu ziren. Hezkuntza eremuan, transmisioaren paper jakina betetzen zuten emakume haiek guztiek, eta hori Elbira Zipitria irakasle euskal nazionalistaren kasua dugu, zeinak Getarian bertan 1932ko azaroaren 20rako abertzaleek[47] Askizun prestatutako ospakizunean parte hartu zuen:

"Getaria

EUZKO ETXEAK ERATUTA dator'en iganderako Azkizu[48] deritzaion balada politean itzaldi aberkoi bat, izlari trebeek itz egingo dabe, batetik, Linazadoro'tar Karla (Altzeta) jaunak eta Zipritria'tar Elbira andereñoak biak euskeraz.

Gar aundia nabaritzen da ar'antzale eta nekazari artean egun aundi ori noiz baño noiz iritxi dedin.

Uri ontan batzokiaren azkundea ozpatu zan ezkoroz nai baño gutxiagotan entzun zaio Mendigoizalien Lendakari kementsuari, or'engatik poz pozik arkitzen gera denok.

Zipitria andeñoa, izlari eztitsuak ez du egundo gure artean itz egin, baño oso ezaguna da inguruetako batzokietan entzun diogulakoz.

¡Ernai! auzo urietako abertzaliak ez da noiz nai izaten onelako era, gogor arditu, gorde maitekor biotzian azi ona aber'iaren seme zintzoak lez"[49].

1936ko ekainaren 7rako, Getariako Emakume Abertzale Batzak ikurriñaren onespenerako ekitaldia prestatu zuen. Hartara, Irujo diputatua etorri zen eta Getariako udalak, ikurriñaren onespenaren ostean udaletxean egingo zen "lunch"-era gonbidatu zuen[50]:

"GETARI'KO JAIAK

Datorren igandean (7'an), Emakume Abertzale Batzakoen ikurrin onespena degu, eta nai genduke egun ortan jendetza aundia ikusia, Zumai, Arrua, Zestoa, Azpeiti, Azkoiti, Oikiña, Aizarnazabal, Zarautz, Oriyo, Usurbil eta abar emen ikusteko ustean gaude.

Ona egitaraua:

Goizeko 8'tan, jaun artze orokorra.

10'etan: Eleizaruntz txistulariakin ezpata dantzariak, poxpoliñak, agintariak eta erri guzia. Perossi'n meza nasugia abestuko dute Abesbatzako gazteak iru abotsetan. Laborda jauna ere emen izango da egunari aunditasun ederragua emateko. Sermolari Larrea'tar Nikasi Erretore jauna degu, ta esan bearrik ez ¡zeiñ yaioa dan itzaldi gaietan! Meza au ildako Emakume izenian da.

Meza ondoren ikurrin onespena.

11'etan: Dantzari saioa Elkano'ren enparantzan. Oso dantzaketa ederrak ditugu ta ez dadilla bat ere ikusi gabe gelditu.

Ordubatean: Oturuntza, Ituartetar Andoni'ren jatetxe berrian. Batzokian daukagun agirian izen errenka aundia arkitzen da. Ala obe.

4'tan: Itzaldi pamatuak, eta ez entzun gabe gelditu, bestela kezka aundia izango dezu ta… Ona emen zeintzuk diran:

Irujo aldun agurgarria (erderaz).

Leunda izlari pamatua (euskeraz).

Sistiaga andereño liraña (Euskeraz).

Bide batez Irujo jaunari omenaldi orokorra egin bearrian gera, erri onentzat on asko egin ditualako.

5'tetan: Aurreskua. Emen ikusiko ditugu gure Emakume begikuak zeiñ ongi portatzen diran…

Ondoren, Poxpolin dantza. Zarautz edo Zumaya'ko umetxoak. Eta gero, illunarte Eusko erromeria.

---

[45] DI FEBO, GIULIANA. 2003. "'Nuevo Estado', nacionalcatolicismo y género", in *Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política, cultura*. Madrid: Editorial Complutense, 20.or.

[46] Gerra Zibilean zehar Bigarren Errepublikako gobernua Estatu Espainiarraren barnean oraindik ere mantendu zen gunean egindako lege-berrespenak ere aipatu dira taulan.

[47] Liburuan zehar "abertzale" hitza agertzen den aldiro, euskal nazionalistei buruz ari gara.

[48] Nahiz eta euskara batuan Askizu idatzi, liburu guztian zehar, garaiko egunkarietako ortografia eta gramatika mantentzea erabaki dugu.

[49] El Día egunkaria, 1932ko azaroaren 15a.

[50] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1936-05-31.

Orra or pesta egokiak. Lengo igandeko nagiak soñean ditugularik, orain ostea 'prest' berritzeko.
¡Eup…! Igandean (7'an) guzion Getari'ra.
Eguzki"[51].

BIGARREN ERREPUBLIKA GARAIAN, JARDUN POLITIKOA EGIN ZUTEN EMAKUME GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	EGINKIZUN POLITIKOAK
ALKORTA ALKORTA, KARMEN	Emakume Abertzale Batzako militantea
ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA FRANCISCA	Emakume Abertzale Batzako militantea
ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA LUISA	Emakume Abertzale Batzako militantea
IDIAKEZ INDO, MARIA	Emakume Abertzale Batzako militantea
URANGA OLASKOAGA, ROSARIO	Getariako Emakume Abertzale Batzako presidentea



Karmen Alkorta Alkorta. (Senideek emandako argazkia).



Rosario eta Faustina Uranga Olaskoaga. (Senideek emandako argazkia).

Getariako irakasleei erreparatzen badiegu, haien gehiengoak ere emakumeak zirela nabarmen genezake:

Getariako emakumeak, Bigarren Errepublika garaian eskubide aunitz irabazi zituen. Hala eta guztiz ere, jabe handiak benefiziatzen zituen emakume eta gizonezkoen arteko soldata arrakala mantentzen jarraitu zuen. Horrez gainera, aipatzekoa da, lan banaketa sozio sexualak bere horretan jarraitu zuela. Hau da, emakumeak, espazio publikoki zenbait jardun bete bazituen ere, dela irakaskuntza, dela saretzea… beti ere bere "emakume rol"-arekin lotuta mantendu zen eta horrenbestez, ez zen harritzekoa oraindik ere aberatsek horretaz benefiziatu nahi izatea. Egia da, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, emakume getariarrak boto eskubidea, dibortziatzeko eskubidea… lortu zituela. Baina egunerokotasunean jasaten zituen soldata arrakalak, sexu-erasoak… bertan jarraitu zuten. Euskal Herrian, hori aldatzeko sistema irauli behar zela adierazi zuten komunista eta anarkistak ere nabarmendu ziren, baina Getarian batik bat Emakume Abertzale Batzak izan zuen indarra.

Horrez gainera, Bigarren Errepublika garaian, gerora diktadura frankistarekin bat egin zuten zenbait emakume eskuindarrek, balio tradizionalak irmoki defendatu zituzten. Haren eraginez, zenbaitetan emakumea espazio pribatura mugatzea ekarri zuten.

Ahaleginak ahalegin eta beste mundu ulerkera baten nahia adierazi zuten emakume haien ametsak, 1936ko uztailaren 17 eta 18 bitartean oligarkia eta militar frankistek emandako estatu kolpe eta ondorengo gerra eta diktaduraren inposaketaren eraginez, bertan behera geratu ziren. Eskuratutako eskubideak kentzeaz gainera, hurrengo kapituluan sakonago azalduko dugun gisan, espazio publikoa hartzera ausartu eta beste mundu ulerkera bat posible zela adierazteaz arduratu ziren emakume getariarrek, izugarrizko errepresioa jasan zuten.



1933ko maiatzaren 30eko eskola-errolda. (Getariako Udal-Agiritegia).

[51] El Día egunkaria, 1936ko ekainaren 6a.

2.4. ERLIJIOAREN ERABILERA BIGARREN ERREPUBLIKAN

2.4.1. Erlijioaren babespena Getariako udalbatzan

"El Estado Español no tiene religión" halaxe zioen 1931ko abenduaren 9an onartutako Espainiar Estatuko Bigarren Errepublikako Konstituzioko 3. artikuluak. Gisa horretara eta, batik bat Espainiar Estatuko Konstituzioko 26. artikuluarekin, gobernu ezarri berriak elizari ordura arte emandako laguntza guztiak moztu zituen. Horrek izugarrizko iskanbila sortu zuen, bai eliza katolikoaren partaideen partetik baita zenbait herritarren zein alderdi politikoen aldetik ere. Horren aurkako protesta irmoa egin zuten alderdien artean, Eusko Alderdi Jeltzalea kokatu behar dugu. Hain zuzen, erlijio katolikoa irmoki defendatzen zuen alderdia izaki, ezinezkotzat ikusten zuen Espainiar Estatuko gobernu berriak onartutako lege hura Euskal Herrian aplikatzea. Getarian, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuen udal-gobernua, haren gehiengoan Eusko Alderdi Jeltzalekoa izanik, ez zuen begi onez ikusi erabaki hura. Horren eraginez, Getariako udalak, ospakizun ofizialetan, oraindik ere, erlijioa partekatzen jarraitu zuen:

"Acto continuo el Sr. Alcalde advierte al Ayuntamiento que el día siguiente es San Prudencio y que proceda resolver en qué forma se ha de solemnizar la festividad que se celebra en la Ermita de este nombre, proponiendo por su parte que se debía de hacer en la forma que se hacía antiguamente, asistiendo el Ayuntamiento en corporación a misa mayor llevando los tamboriles cantores etc. Y obsequiando con una comida, con el Ayuntamiento invitando a la misma al clero parroquial, abandonándola por todo gasto los 150 pesetas al Ermitaño Sr. Lazcano.

El concejal Sr. Urbieta dijo que esa costumbre ya no rige y que es opinión de no restablecerla y que aún en caso de que quiera acudir y hacer comida el Ayuntamiento, se debía de hacer dicho gasto de (…) particular.

Contestan los concejales señores Idiaquez e Iribar exponiendo que dicha costumbre por su tradición y popularidad es digna de respetar y defienden la propuesta por el Sr. Alcalde.

El Sr. Urbieta dice que en todo caso el Ayuntamiento debe fijar el coste por cubierto y abonar de los que asisten.

Replican los otros diciendo que no se limita la asistencia por lo que puede acudir el que quiera, pero no por eso supone abuso la cantidad global de 150 pesetas por cuanto en dicha cifra se comprende el gasto total.

Sometida a votación fue aprobada la proposición del alcalde por 6 votos contra tres, de los señores Urbieta, Ulacia y Larrañaga"[52].

Bien bitartean, Urbieta, Ulazia eta Larrañaga errepublikazaleek erabaki haiei beren gaitzespena eman zieten. Konstituzio berriaren 26. artikuluarekin, Jesuiten Ordena, Espainiar Estatuan ilegala bihurtu zen. Harekin bat, Jesuitek, ordura arte beraien menpean izan zituzten ondasunak estatuaren menpe geratzeaz gain, hezkuntzan zuten eskuhartzea ere utzi beharra izan zuten. Haien espultsioarekin ordea, Euskal Herriko zenbait udalbatza desados agertu ziren, Lekeitiokoa kasu eta idatzi bat ere egin zuten, zeinetara Getariako udala batu egin zen:

"Acto continuo acordó por unanimidad adherirse a la campaña iniciada por el Ayuntamiento de Lequeitio en favor de la Comunidad religiosa de la Compañía de Jesus y contra del acuerdo del Ayuntamiento de Gijón"[53].

1932ko urtarrilaren 23an ateratako Dekretuaren bidez, Jesuitak Espainiar Estatutik espultsatu egin zituzten. Horren eraginez, haien ondasunak Espainiar Estatuaren menpean geratu ziren. Getariako udaletxeko zinegotzi jeltzaleak horrekin desados agertu eta halaxe adierazi zuten:

"Por ultimo el Sr. Alcalde propone se haga constar en el acta el sentimiento causado por el Decreto de la disolucion de la Conpañia de Jesus en el territorio de españa y que se envie un telegrama de protesta al gobierno.

A la proposición del Sr. Alcalde se adhieren los concejales Sr. Arregui, Idiaquez, Basterrechea e Isasti"[54].

1932ko abenduaren 15ean, udalak, Gorostidienea edo Villa San Jose deiturikoa, zeina ordura arte Jesuitena izan zen, eskola nazionalak eta irakasleen etxeak bertan kokatzeko eskaera egin zuen[55].

Itxura denez, Getariako udalak, oraindik ere zenbaitetan herriko elizari diru-laguntzak ematen jarraitu zuen eta Probintziako Udal Auzitegi Ekonomikoko presidenteak halakorik ezin zutela egin ere berri eman zion kostaldeko herri gipuzkoarrari:

"Se dió cuenta igualmente de otra circular del Sr. Presidente del Tribunal Económico municipal de la Provincia, advirtiendo, de conformidad con la Constitución Vigente, la imposibilidad y prohibición, de auxiliar por los fondos municipales, economicamente a la Iglesia e Instituciones religiosas y sin que para ello (…) que exista aprobado el presupuesto con algunas consignaciones de esta indole.

El Ayuntamiento da por enterado, haciendo contar el Sr. Alcalde, que un trimestre de este año se encuentra ya pagado al coro parroquial"[56].

Ez zen Estatu Espainiarreko Konstituzioa hautsi zuten azken aldia izan, hain zuzen ere, 1932ko apirilaren 26an, legeei muzin eginez eta horren kontziente izanez, Antonio Alegria Lasak, San Prudentzio egunean, Lazkano ermitauarekin egiten zuten bazkarira udal-korporazioan joateko deia egin zuen:

---

[52] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-04-27.

[53] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-05-12.

[54] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-01-26.

[55] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-12-15.

[56] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-04-12.

"Por ultimo el Sr. Alcalde, proximo el dia San Prudencio, festividad de la Ermita o barrio de este nombre, propone que aunque a actos religiosos no se puede acudir corporativamente, por conservar la tradición y ya que tiene acordado este Ayuntamiento acuda el Ayuntamiento como otros años a las fiestas y comida, concertada con el Ermitaño Sr. Lazcano.

Aceptan la proposición los concejales menos los señores Larrañaga y Ulacia que manifestaron no irian y que no es justo pagar lo mismo por los que no quieren asistir"[57].

1935eko abuztuaren 3an ere, nahiz eta udalbatzan jeltzalerik ez egon eta Gipuzkoako Gobernadore Zibilak hautatutako udalbatza egon, zinegotzi erlijioso eta ez-erlijiosoen arteko akordio eza sortu zen. Berriro ere erdian erlijio katolikoa zegoen. Oraingoan sortutako liskarra, Salbatore egunean udaletxean ospatzen zen "lunch"-era kleroa gonbidatu ala ez erabakitzearena izan zen. Urbieta eta Aramendi kleroa gonbidatzearen aurka agertu bitartean, Larrañaga eta Aranguren kleroa gonbidatzearen alde agertu ziren. Alkatearen bozkak gehiago balio izanik, eta Larrañaga postu hori betetzen egon izanagatik, kleroa "lunch"-era gonbidatu zuten:

"El Sr. Alcalde dice que proximo el dia seis festividad patronal de la Villa cuyo dia es costumbre invitar al lunch la Cofradia de pescadores clero y otras autoridades y personalidades del pueblo, procede que el Ayuntamiento determine como han de hacerse dichas invitaciones y lunch.

El Sr. Urbieta dice que por su parte no se invite al clero a dicho lunch.

El concejal Sr. Aranguren dice que es de opinión de que sea invitado como es costumbre de otros años.

Despues de discutido ampliamente el Sr. Alcalde dice que se va a votar la propuesta del Sr. Urbieta de que se le excluya de las invitaciones al lunch al clero parroquial, y verificada la votacion nominalmente votan por la no invitacion al clero Urbieta y Aramendi y por el contrario Aranguren y Larrañaga que resulta empate y por el voto del Sr. Alcalde acuerda, por mayoria sea invitado el clero parroquial al lunch del día San Salvador (…)"[58].

GETARIAKO KLEROAK BERE MENPEAN ZITUEN ONDASUNAK[59]

1.	Arnao Jeneralaren kaleko 21. zenbakiko etxearen 3. solairua
2.	"Hilerri Zaharra" izeneko parrokia-elizaren ondoko orubea
3.	Askizu auzoko herriguneko parrokia-etxea
4.	Izen bereko baratzea auzo horretan, eta jabetza horiei errentarik esleitzen ez dienez, deklaratutako jabetza bakoitzak sortzen edo ordezkatzen duen errentak zer behar duen adieraztea erabaki du. Jakinarazpen berean, parroko jaunak eskatu zuen hilerrian panteoirako zazpi metro eta berrogeita hamar zentimetro karratu lursail izateko, eta Udalak erabaki zuen aipatutako lekuan eta hildako Francisco Medina jaunaren gorpua lurperatuta dagoen tokian lagatzea, ezarritako metro koadroko hogeita bost pezetako prezioan.

Eliza katolikoak bere ondasunen berri eman zuen, eta zenbaitetan, herritarrei zerga ordaina ere jarri zion, estatuaren laguntza eza aitzakiatzat hartuta. Getariako herriko parrokoak, ordura arte Askizuko eskolari elizaren eraikina erabiltzeagatik zergarik ez bazion eskatu izan, handik aurrera errenta kobratzera pasa zen:

"Se dió cuenta a previa lectura de una comunicación del Sr. Cura parroco, que dice: 'Que si bien hasta estos años ha tenido la entera voluntad para ceder gratis la casa cural de Asquizu en que se halla establecida la escuela de barriada- ya que el Ayuntamiento a su vez era generoso para con la Iglesia; hoy cambiadas las circunstancias y viendose este sin el auxilio del Ayuntamiento y obligada a pagar la contribucion que se la señalase y sin fondos para ello: Suplica se le pague una renta por la cesion de la dicha casa cural de Asquizu que bien pudiera ser cien pesetas anuales'.

El Ayuntamiento en vista de la realidad de las circunstancias y razones que expone y estimando aceptable la cuantía de la renta o alquiler de la casa cural de Asquizu, destinado actualmente a escuela de dicho barrio, y mientras se utiliza en las actuales circunstancias y uso las cien pesetas de alquiler a contar desde esta fecha, por año"[60].

Oraindik ere ondasunei dagokienez indarra mantentzeaz gain, eliza katolikoak getariarrengan, gainontzeko Euskal Herriko herrietan gisan, izugarrizko indarra izaten jarraitu zuen. Getariarren gehiengoa, Bigarren Errepublika aldarrikatu ostean ezarritako lehen udalbatzak adierazi gisan, katolikoa zen:

"E: erlijiosuak izan tzeate? J: a bai. Gure aitak ohitura zuan, bazkaldu ber tzunian eo afaldu ber tzunian, errezatzekua. Ohia jute zanen e errezatzekua, hoi bai. E: eta ama? J: ama gutxio. Eleiza gehio ama, eleiza azkenean (…) eunero eleiza jun behar tzun goizeko zortzitan. Hotza, negua, elurra, euriya… baiño ama zerta jun bazu ba? (…) eleiza bai eta aitak errezua re bai (…)"[61].

---

[57] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-04-26.

[58] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1935-08-03.

[59] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-07-19.

[60] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-05-13.

[61] Testigantza: Joxe Arregi Aranguren.

Testigantzetarako argibideak:

(…) adierazpenak, elkarrizketa liburuan ezartzeko egokitua izan dela esan nahi du. / … adierazpenak, elkarrizketatuarengan isilunea izan dela adierazten du. / Elkarrizketatzailea, "E" adieraz adieraziko da. / Elkarrizketatua, bere izenaren lehenengo letraz adieraziko da. / Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

2.5. GETARIAKO BIGARREN ERREPUBLIKA GARAIKO HEZKUNTZA

Udal-aktetan eta zuok emandako testigantzek argitu digutenez, Bigarren Errepublika garaian, Getarian, eskola nazionalak neskato eta mutikoentzako bananduta, Askizuko eskola mistoa eta Meagako eskola mistoa zeuden. Horrez gainera, moilan mutikoentzako Kofradiako eskola kokatzen zen. Garai hartan beraz, eskola mistoa osatzearen arrazoia ez zen neskato zein mutikoei hezkuntza forma berdina ematearena. Honako fenomenoa, auzoetan herrian bertan baino haur gutxiago kokatzeagatik gertatzen zen.

Getariako eskola nazionalek ere, pedagogia berriarekin bat egin zuten, zeinari ikaslearen hobebeharretara atxikitzen zen. Hartaz, ordura arteko eskolako diziplina zorrotzarekin hautsi eta ikasteko aukerak eskolatik kanpora ere bazirela adierazi zuten:

"Por ultimo el Sr. Alcalde hace saber al Ayuntamiento que el Consejo escolar y los profesores le habian solicitado una subvencion, (…), al finalizar el curso, hacer con los alumnos mas merecedores, una gira que les pueda proporcionar alguna enseñanza indicando la conveniencia de costear un autobus desde esta hasta Tolosa y vuelta por San Sebastian, y que le encargasen de invitar al Ayuntamiento a la exposición de labores el dia catorce del corriente.

El Ayuntamiento agradece desde luego la invitación y encuentra laudable el proyecto de la gira escolar pero ante el elevado coste que representa un autobus por el recorrido señalado y de la reducida cantidad que figura en el presupuesto para premios escolares, acuerda conceder una subvención máxima de cien pesetas y facultar al Sr. Alcalde para que de acuerdo con los Srs. Profesores organice la gira, amoldando a la cantidad o subvencion señalada"[62].

Isabel Etxeberria Gorriti donostiarra, errepublikar hezkuntza erreforma berriaren baitan ikasitako irakasleetako bat izan zen. Bere historia errepresioaren kapituluan sakonduko dugu, hain zuzen, gerra garaian Getariako Kofradiako irakasle izan baitzen.



Isabel Etxeberria Gorriti bere magisterioko bigarren promozioko kideekin. (Isabel Etxeberria Gorritik emandako irudia).

[62] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-07-12.

Askizun beste eskola bat eraiki nahi izan zuten eta horretan, Diputazioak lagundu zuen:


"Acto seguido el Sr. Alcalde hace presente que al darse cuenta de la circular de la Exma. Comisión Gestora provincial de 1 de julio de 1931 sobre el plan de la enseñanza rural y creación de escuelas de barriada estimó el Ayuntamiento la conveniencia de crear una escuela de barriada en Asquizu y siendo de indiscutible conveniencia y necesidad la creación de dicha escuela, propone al Ayuntamiento la adopción del acuerdo a ello encaminado.

Los señores concejales hacen suyos las manifestaciones de la presidencia y en vista de las ventajas que ello podrá reportar a la enseñanza que seria adecuada a las necesidades del (…) y teniendo en cuenta que la conservacion del local actual aunque deficiente corre a cargo del ayuntamiento y subvenciona ademas la escuela de caracter particular con alguna cantidad, por unanimidad acuerda se solicite de la Exma. Comisión gestora provincial la creación de una escuela en dicho barrio, comprometiendose, desde luego, a las aportaciones y cargas que le imponen al Ayuntamiento las bases establecidas por la expresada Corporación provincial referentes al plan de enseñanza rural en la provincia"[63].

1933AN GETARIAKO IRAKASLEAK[64]

ORDENA ZENBAKIA	ESKOLA MOTA	IZEN-ABIZENAK	MATRIKULA	ASISTENTZIA	OHARRAK
1	Nazionala, mutikoena, bateratua	**FERNANDO SÁNCHEZ**	52	32	-
2	Nazionala, neskatoena, bateratua	**PAZ CARAZO**	91	55	-
3	Kofradia, mutikoentzat	**JULIAN MARTINEZ**	44	28	-
4	Haurrena, pribatua	**ABELINA ANDREANO**	95	50	Udalak diruz lagunduta
5	Askizun, mistoa, pribatua	**MAXIMA ORTEGA**	40	24	Udalak diruz lagunduta
6	Meagan, mistoa, pribatua	**AGUSTINA GARATE**	25	14	Udalak diruz lagunduta

1933ko maiatzaren 30ean, 3 urtetik 14 urtera bitartekoen eskola-errolda 525 haurrena zen. 1931ko aldarrikatutako Konstituzioak, hezkuntza laiko baten eta erlijioa geletatik kanpo geratzearen aldeko apustua egin zuen.



Getariako kofradiako eskolako ikasleak.

[63] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-10-15.

[64] GUA sig. 331-15 1933 irakasle izenak.

2.6. EUSKARA ETA IDIAKEZ KASUA

Euskara eta gaztelaniaren arteko diglosia egoera ez da gaur egungo arazoa. Hori ulertu ahal izateko, euskaldunoi, ezinbestekoa zaigu ulertzea, gure lurralde txikia, erreinu handiago batek konkistatua izan zela 1524an behin-betiko. Nafarroako Erresuma hegoaldea konkistatuaz eta Gaztela-Aragoiko erresuma konkistatzaileez mintzo gara. Egia bada ere, garai hartako Nafarroako Erresumako eskribauek erromantzea erabiltzen zutela, badakigu, herri xehearen hizkuntza euskara zela. Garai horretatik aurrera, nolabait, euskara babestu edo behintzat haren aurkako hauturik egiten ez zuen erresuma baten menpetik, nahi edo ez nahi bere hizkuntza hegemonikoa gaztelania zuen Gaztela-Aragoiko erresumaren menpe egotera pasa behar izan zuten garai hartako Nafarroako Erresumako hegoaldeko herritarrek.

Denboraren poderioz, batik bat, Ondorengotza gerraz geroztik (1701-1714), erresuma konkistatzaileak, zentralizazioa, bere ekonomia eredua ahalik eta efizienteena izan zedin, helburutzat ezarri zuen. Hori lortu ahal izateko, homogeneizazioaren bidean, Nafarroako Erresuma izan zenaren hegoaldean, gaztelania hizkuntza hegemoniko ezarri zuten. Nafarroako Erresumaren iparraldeari dagokionez, Frantziako Iraultzaz geroztik, ordura arte mantendutako estatus ofiziala deuseztatu eta Frantziako departamendu bat gehiago izatera pasa zen: Pirinio Atlantikoak. Nafar Erresuma izandakoa beraz, bera baino handiagoak ziren bi estaturen menpean geratu zen.

Euskararen zortea ere halakoa izan zen. Erresuma konkistatzaileetako administrazioan, gaztelania zein frantsesa bere eremu guztietan inposatu eta gainontzeko hizkuntzak herri xehearen ahotan desagertzera kondenatu zituzten. Euskara babesgabe geratu zen; hura babesteko neurririk ez izateaz gain, zenbaitetan, erresuma konkistatzaileak, zuzenki, hura erabat baztertzeko neurriak ere hartu zituen. Horren adibiderik argienak, Joan Mari Torrealdaik maisutasunez argituratutako “El Libro Negro del Euskera”-n errepara genitzake.

Estatu espainiarrean

“1772

EL EUSKERA, PROHIBIDO EN LOS LIBROS DE CONTABILIDAD

…que todos los Mercaderes y Comerciantes de por mayor y menor, Naturales y extranjeros, observen la Ley del Reino que se inserta y previene lleven sus Libros en Idioma Castellano.

Real Cédula del rey Carlos II, el 24 de diciembre de 1772”[65].

Estatu frantsesean

“1794

NI ACTAS NI ACTOS EN EUSKERA

La Convención Nacional, después de haber oído el informe de su comité de legislación, decreta:

Art. 1º. A contar del día de la publicación de la presente ley, ninguna acta pública podrá ser escrita más que en lengua francesa, en cualquier parte que sea del territorio de la República.

II.-A partir del mes que seguirá a la publicación de la presente ley, no podrá ser registrada ninguna acta, incluso bajo firma simple, si no está escrita en lengua francesa.

III.-Todo funcionario u oficial público, todo agente del gobierno que, a partir del día de la publicación de la presente ley, dirija, escriba o firme, en el ejercicio de sus funciones, procesos verbales, juicios, contratos u otras actas cualquiera por lo general, concebidos en idiomas o lenguas distintas a la francesa, será conducido ante el tribunal de policía correccional de su residencia, condenado a seis meses de prisión y destituido.

IV.-La misma pena tendrá lugar contra todo receptor del derecho de registro que, después de un mes de la publicación de la presente ley, registre actas, incluso bajo firma simple, escritas en idiomas o lenguas distintas a la francesa.

Convención Nacional, Ley de 2 de Termidor del año II, del 20 de julio de 1794”[66].

Bi estatu handiek, modu horretara, estatu modernoen sorreran, ekonomiak haien irabazirako funtziona zezan, modurik eraginkorrena, administrazioaren zentralizazioan ikusi zuten. Horren eraginez, estatu bakoitzean hizkuntza hegemonikoa inposatzea ezinbestekoa zen eta horren ondorioz, hizkuntzarik txikienak desagerraraztea ere bai. Aurreko lerroetan aipatutako neurriak, horren guztiaren ondorio izan ziren. Euskara, beste zenbait hizkuntza txikirekin batera desagerrarazte bidean ezarritako beste hizkuntzetako bat bihurtu zen. Prozesu hori eraginkorragoa izateko, bi estatuek, antzinako garaietatik zetorren euskararen desprestrigio kanpaina martxan jarri zuten. Haien helburu nagusia, espainiar zein frantsestu berriek (honakoa espainiar zein frantses nazionalismoaren sorreran gertatzen baita), hau da, garai hartako herri xeheak, euskara eta hura hitz egiten zuten euskaldunekiko jarrera ezkorra bultzatzea izan zen. Hau da, estatuek beraiek zuzenean ez ezik, euskara eta euskaldunen aurkako izate bat sortu zuten, euskara eta euskaldunen egoera zalantzatia eta babesgabea ziurtatuz.

[65] TORREALDAI NABEA, JOAN MARI. 1998. *El Libro Negro del Euskera*. Ttarttalo: Donostia, 16.or.

[66] *Ibidem,* 27-28.orr.

Ordea, Bigarren Errepublikako gobernu hautatu berriak, XIX. mende amaieratik, euskaldunen babesgune izango zen euskal nazionalismoaren jarraitzaile ziren euskal nazionalistei, esperantza izateko aukera ekarri zien. 1931ko abenduaren 9ko Konstituzio Errepublikarrean ordea, euskara, estatuaren ordezkari behinena zen administraziotik besterenduta geratu zen, Torrealdaik argiki erakusten digunez:

"1931

¿OFICIAL? SÍ, PERO MENOS

Art. 4º- El castellano es el idioma oficial de la república. Todo español tiene obligación de saberlo y derecho de usarlo, sin perjuicio de los derechos que las leyes del Estado reconozcan a las lenguas de las provincias o regiones. Salvo lo que se disponga en leyes especiales, a nadie se le podrá exigir el conocimiento ni el uso de ninguna lengua regional.

Art. 5º- Es obligatorio el estudio de la lengua castellana y ésta se utilizará también como instrumento de enseñanza en todos los centros de instrucción primaria y secundaria de las regiones autónomas. El Estado podrá mantener o crear en ellas instituciones docentes de todos los grados en el idioma oficial de la República.

Artículos 4º y 5º de la Constitución del 9 de diciembre de 1931"[67].

Hala eta guztiz ere, Getarian bertan, Euskal Herriko zenbait herrietan gisan, Bigarren Errepublikako aldarrikapenarekin bat hautatutako lehen udal-korporazioak, euskararen aldeko hautu garbia egin zuen. Nahiz eta arauak agindu gisan, udaleko administrazioa gaztelania hutsean egin zen, beti ere euskara eta euskaldunen ongizatearen aldeko neurriak hartu zituzten. Horren adibide dugu, 1932ko otsailaren 25ean Euskal Unibertsitatea sortzeko erabakiari baiezkoa ematea:

"Adherirse a los acuerdos del ayuntamiento de Bilbao sobre la creacion de la Universidad Vasca"[68].

Getaria, herri nekazari eta arrantzalea, euskal nortasuneko herria zen. Euskara zen nagusi herritarren ahotan eta hala, udal-agintariek ere, bertako herritarrek ahalik eta arnas-gunerik onena izan zezaten erabakiak hartu zituzten. Esaterako, herriko praktikantea hautatzerako orduan, euskaraz zekiela ziurtatzeaz arduratzen ziren:

"Por último se trata de la provision de la plaza de practicante y comadrona, y el Sr. Secretario da cuenta de que se ha recibido solo una solicitud aspirando a la plaza de practicante de D. Joaquin Marquina Aldanondo y para plaza de comadrona ninguno.

Se examinó la documentacion acompañada a la instancia por el unico aspirante Sr. Marquina asi como el informe del Medico titular proponiendo su nombramiento, de los que se desprende que el solicitante reúne condiciones profesionales para el cargo que aspira, faltando unicamente acreditar el conocimiento del vascuence, aunque asegura poseerlo en su instancia.


Enterado de todo ello el Ayuntamiento a propuesta del Sr. Alcalde acuerda dejar pendiente el nombramiento hasta la proxima sesion ordinaria"[69].

Zenbait getariarrek ere, beren ama hizkuntza, euskara, Getariako Erregistro Zibilean bertan ikertu ahal izan dugunez, haien seme-alabei izen euskaldunak ezartzeko probestu zuten:

"EUSKEL IZENA,- Aranburu pelotari pamatuak eta bere emazte Bordagarai'tar Agatek izan dute lenengo poxpoliña. ¡Bai izen egokia ezarri ere ugutzaterakuan Miren Terese. ¡Ori da ondorengueri bide egokia jartzia. Jakin bezate ¡ze politak diran euskal izenak! Euskalerrian euskeraz, eta Kastilla aldian… ba, eurak nai duten eran.

¿Ez alda orrela Agustin?

Artu itzak ameika zorion eta beste bat izaten deken arte…"[70].



Folio 83

ACTA DE NACIMIENTO

REGISTRO CIVIL DE Getaria

Número 7 — Distrito de Azpeitia

Nombre y Apellidos (10): Ane Miren (Ana María) Aizpuru Altuna

DILIGENCIA.- Con la inscripción de nacimiento de ANE-MARIA Miren y nombre y apellidos de ANE-MIREN. En Getaria a 4 de junio de 1932. El Secretario

En la villa de Getaria, provincia de Guipúzcoa, a las once del día siete de Junio de mil novecientos treinta y dos, ante D. Vicente Soraza, Juez municipal, y D. José Goyenaga, Secretario accidental se procede a inscribir el nacimiento de un(a) hembra, ocurrido en esta, a las diez y siete del día treinta de mayo último en la calle de Licano, núm. 38, piso, es hijo legítimo de Ramón Aizpuru Zarate natural de esta villa de 29 años casado jornalero y de Valentina Altuna Urdanibia natural de esta de 25 años casada nieto por línea paterna de Miguel natural de Soraza y de Micaela natural de esta, por línea materna de (de) José María y de María natural de esta y se le ponen los nombres de Ane Miren (Ana María). Esta inscripción se practica en el local del Juzgado en virtud de manifestación escrita del padre de la inscripta; y la presencia como testigos D. Manuel Goyenaga mayor de edad, domiciliado en esta de núm., y D. José Jauregui Gritor, mayor de edad, casado, domiciliado en esta de núm. Leída esta acta, se sella con el de este Juzgado y la firma el Sr. Juez, con los testigos de que certifico.

Vicente Soraza — M. Goyenaga — José Domingo Ibarra


Bigarren Errepublikan, euskal izenen ezarpena. (Getariako Erregistro Zibila).

[67] *Ibidem,* 81.or.

[68] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-02-25.

[69] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-12-25.

[70] El Día egunkaria, 1936ko maiatzaren 28a.


Folio 132
ACTA DE NACIMIENTO
REGISTRO CIVIL DE Getaria
Número 1
Distrito de Getaria
Nombre y Apellidos (10)

Bigarren Errepublikan, euskal izenen ezarpena. (Getariako Erregistro Zibila).

Udal-agintariek arnas-gunea sortu bazuten ere, boterea zentralizatzen zihoan heinean, euskararekiko konpromisoa eta nahimenak behera egiten zuen. Testuinguru horretan kokatu behar dugu, hain zuzen ere, Frantzisko Idiakez Indo getariar euskal nazionalistaren kasua:

"Por ultimo en propuesta de la presidencia acuerda hacer constar en acta el sentimiento de la corporación por el suceso de ayer en el que costo la vida al vecino de esta Ciriaco Gatzaga Echeverria y enviar el pésame a la viuda Francisca Esnal y aliviar la triste situacion de la misma y su familia encabezandola por el Ayuntamiento con ciento y cincuenta pesetas (150).

El concejal Sr. Larrañaga pide que se haga constar en voto de censura para el concejal Cecilio Idiaquez por la participación en la agresión al Sr. Gatzaga a cuya propuesta se adhiere el concejal Sr. Ulacia.

El Sr. Alcalde manifiesta que lamenta cuanto se le ha ocurrido al referido concejal Sr. Idiaquez"[71].



Getariako udal-korporazioak, 150 pezeta, Ciriaco Gatzaga hildakoaren alargunari. (GUA sig.251-3: udal-aktak 1932-02-16).

1932ko otsailaren 15a zen, Francisco Idiakez Indok buruan zuen oraindik ere aurreko gauen Ciriaco Gatzaga Etxeberria 40 urteko mutrikuar arrantzale errepublikarrarekin izandako sesioa. Gau hartan, Getariako taberna batetan zeudelarik, Gatzagak Idiakezi *que él era más nacionalista que cualquiera de los que allí estaban*[72] argitu zion. Idiakezek, Gatzaga, oinarri finkorik gabeko militante politikotzat determinatu zuen, batzuetan Batzokian euskal kantak kantatzen eta besteetan Zentro Errepublikarrean egoten baitzen. Halako batean, Idiakezek Gatzagari, faltsua zela adierazi zion, aipatu oinarri ez-finkoak izateagatik:

"Entonces éste le emplazó para el día siguiente, que se lo volviera a llamar, apostándose una peseta a que no le volvería a llamar falso. Aceptó Francisco y depositaron las dos pesetas convenidas y esa noche no pasó nada más"[73].

Hurrengo egunean, Francisco Idiakez, Getariako plazatik barrena, ohiko legez, aroztegiko lana amaitu ostean, etxe aldera zihoan bazkaltzera. Egun hartan, Ciriaco Gatzaga herriko plazan zain zuen eta itxura denez, Idiakezen arabera, aurreko egunean izandako eztabaidari jarraipena emateko deseatzen zegoen:

"Añadía Francisco: 'por la mañana acudí a mi trabajo de carpintero y terminado éste, al ir a comer, topé con Ciriaco en la esquina de la plaza por donde tenía que pasar forzosamente para ir a casa: estaba esperándome. Me instó a que repitiera que era un falso y 'que no era hombre', yo respondí que me dejara en paz que eso ya lo tenía pasado. Pero insistía con empujones…"[74].

Une horretan, Idiakezen anaia, Cecilio Idiakez Indo, Getariako udal-gobernuko zinegotzia agertu zen, haren 18 hilabeteko alaba besoetan zuela. Azken horrek, gertatzen ari zenaz jabetuta, bere anaia Franciscori etxe aldera abiatzeko adierazi zion. Aginduak betez, etxerako bidea hartzean, Francisco, bere anaia Cecilioren oihuez jabetu zen. Bi aldiz pentsatu gabe haren defentsan aroztegiko trintxa eskuetan joan zen. Haren ondorioz, bere deklarazioaren arabera, bera ongi jabetu gabe, Gatzagari, bere anaia defendatuz, trintxa sartu eta Gatzaga errepublikarra hil egin zuen[75]. Horren eraginez, atxilotu eta Francisco Idiakez Indo, Ondarretako kartzelara eraman zuten.

---


[71] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-02-16.

[72] ROQUERO USSÍA, M.R. 2013. "El caso Idiakez: lengua, prensa y política en la II República". *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 46: 481.or.

[73] *Ibidem*, 481.or.

[74] *Ibidem*, 481.or.

[75] Historiaren berregituraketa hau egin ahal izateko, arestian aipatutako Mª Rosario Roquero Ussía-ren artikulutik ateratako Francisco eta Cecilio Idiakez Indok, lehenengoari burututako epaiketan egindako deklarazioez baliatu gara.


REGISTRO CIVIL DE DISTRITO DE

Número

Nombre y Apellidos

Ciriaco Gatzagaren heriotza-akta. (Getariako Erregistro-Zibila).



Idiakez-Indo familia. (Kontxita Oiarzabal Idiakezek emandako argazkia).

Euskal nazionalista eta errepublikarren arteko liskarrak ez ziren berriak. Getarian eta Euskal Herriko herri guztietan haien zantzuak errepara genitzake; Gatzaga eta Idiakez liskarrera eraman zituen erroko arazoak ere horretan zetzan. Idiakez eta Gatzagaren artean gertatutakoak, nolabait, egunerokoan herritarren artean gertatutako eztabaidak, forma politikoa hartzera eta espazio publikoan eta horrenbestez, instituzio politikoetako alderdietan formalizatzea ekarri zuen:

"Acto seguido el Sr. Alcalde da cuenta al Ayuntamiento de cómo se alojan en el pueblo seis guardias a raíz del suceso del dia 15 del actual cuyo alojamiento sin incluir manutención correrá a cargo del Ayuntamiento.

Por ultimo el concejal Sr. Iribar hace uso de la palabra, manifestando que no encuentra bien la campaña tendenciosa y sectaria de un periódico de la provincia sobre el suceso ocurrido en esta el dia quince del actual, en cuanto se refiere a la expulsión del párroco, destitución del Alcalde y Juez etc.- Al decir esto el Sr. Alcalde cedió la presidencia al Teniente Alcalde Sr. Arregui y abandonó el salon diciendo que no estima pertinente estar presente al tratar del asunto que personalmente afecta.

Presidida asi la sesión por el Sr. Arregui reproduce el Sr. Iribar las anteriores manifestaciones y pide se ha constar en acta la protesta por la expresada campaña. Los demas concurrentes excepto el Sr. Larrañaga que manifiesta no se comparte con las manifestaciones del Sr. Iribar se adhieren a lo expuesto por este y acuerdan hacer constar en acta la mas energica protesta por la campaña iniciada en el periodico sobre la expulsión del parroco, destitución del Alcalde y Juez"[76].

Iribar zinegotzia, hain zuzen, La Voz de Guipúzcoa errepublikarren egunkariak hasitako kanpainaren inguruan mintzo zen. Haien arabera, alkateak bere postua utzi behar zuen, bai eta herriko parrokoak eta epaile munizipalak ere. Horregatik, Iribar jeltzaleak, hauen guztienganako defentsa irmoa egin zuen, argi baitzuen gertaeraren erantzukizuna ez zela aipatu agintariena.

"Por último el Sr. Alcalde da gracias al concejal Sr. Iribar por su gesto de la sesión anterior que exteriorizó su protesta por la campaña iniciada contra su autoridad, del Sr. Parroco y Juez (…) para los concejales que se adhieren a su moción, añadiendo que es de lamentar sea la Union Republicana de esta promotor de tal campaña, que fue también quien atropello también la autoridad del Alcalde y este Ayuntamiento con ocasión de las últimas fiestas de San Salvador"[77].


Errepublikarren erasoaren aurrean, euskal nazionalistak ere ez ziren isilik geratu. Francisco Idiakez, 1933ko otsailaren 22an, Donostiako Auzitegian epaitu zuten. Epaiketan, Usandizaga Idiakezen abokatuak, fiskalak, herri-epaimahaiak, Union Republicana-ko Carlos Sotos abokatuak eta Gatzagaren alargunaren aldeko Fermin Vega de Seoane abokatuak parte hartu zuten. Izugarrizko jendetza bertaratu zen, gertaera zuzenean ikusteko nahiez:

"En la fila abundaban los vecinos de los pueblos de los alrededores, 'viéndose también bastantes mujeres, que desafían el frío como pueden'. Sólo se permitió la entrada a doscientas personas; muchos más tuvieron que quedarse en la calle. Varias parejas de seguridad al mando de un teniente custodiaban la Audiencia y en especial la puerta de entrada"[78].

[76] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-02-25.

[77] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-03-01.

[78] GOQUERO USSÍA, M.R., op. cit., 482.or.



Idiakez eta Gatzagaren auziaren harira, eztabaidak udalean. (GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-02-25).

Fiskalak, guztira, Idiakezen aurka, hamalau urte eta zortzi hilabeteko kartzela zigorra, eta 15.000 pezetako kalte-ordaina eskatzen zituen. Carlos Sotos eta Fermin Vega de Seoane-k eskaerarekin bat egin zuten. Bitartean, Ignacio Usandizaga, Idiakezen abokatuak, absoluzioa eskatu zuen. Usandizaga abokatuak, bere defendatuak euskaraz deklaratzeko ahalegina egin zuen, gaztelania ondo ez zuela menperatzen argudiatuz. Magistratuen eztabaidaren ostean, euskaraz deklaratzea onartu eta interprete bat ezarri zioten hartarako. Epaiketan testiguekin etorri zen arazorik behinena, akusatuari euskaraz deklaratzen utzi bazioten ere, gainontzekoei ez zieten utzi, horra Cecilio Idiakez Indo akusatuaren anaiaren kasua:

"Tras el paso de las declaraciones de los peritos y las pruebas testificales comenzaron las dificultades. En primer lugar, Cecilio, el hermano del acusado, afirma que se expresa con dificultad en castellano y dice que *'pronunsia mal'* y solicita declarar en euskera. La acusación se opone y dice que lo haga en castellano (murmullos en el público). El Tribunal no accede a la petición del declarante. Y el periodista apuntaba que el Sr. Sotos (el fiscal) 'acosa al hermano con tono airado y grandilocuente, lo que hace balbucear a éste, de tal forma que no acierta a articular palabra, lo que desata el murmullo del público y el enfado del Sr. Usandizaga, el abogado defensor"[79].

Getariar herritarrek eta epaimahai herritarreko kideek ez zuten aukerarik izan beraien ama hizkuntzan deklaratzeko. Izugarrizko arazoa zen hori. Hain zuzen, Estatu Espainiarreko hizkuntza hegemonikoa ez jakiteak, errugabea izan zitekeen getariar herritarra kondenatzeko balio izan zuen. Deklaraziora eta herritar epaimahaikide gisan deitu zirenak, herritar xeheak ziren, haien ama hizkuntza euskara zutenak. Beraien eguneroko hizkuntza euskara zen eta beren ulermeneko hizkuntza ere huraxe zen. Lehen argitu dugunez ordea, administrazioko hizkuntza hegemonikoa, Estatu Espainiarra bere osotasunean hartzen zuen gaztelania zen. Gaztelania, boterearen hizkuntza zen. Euskara berriz, euskal burgesiaren zati txiki baten haren aldeko hautua egin bazuen ere (Jose Antonio Agirre, Telesforo Monzon… kasu), oro har, herri xehe eta menperatuaren hizkuntza izaten jarraitzen zuen. Era horretan, herri xeheak oraindik ere ez zuen nahikoa gaitasun biltzen haren egunerokotasuneko hizkuntza ez zen beste hizkuntza bat behar bezala menperatzeko. Getariako egoera ikusteko oso baliagarria zaigu Cecilio Idiakez zinegotziaren adibidea, zeina Getariako udalbatzako partaide izanagatik ere, eta aktak erreparatuz gero gaztelaniaz idatzita daudela erreparatuta ere, hark gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak zituela ikusita. Hala ez da harritzekoa, herritar xumeenek gaztelania bere osotasunean menperatzeko gaitasunik ez izatea. Getarian gaztelaniarekiko kontakturik handiena zutenak, udal-korporazioa eta merkatari italiarrekin negozioak zituzten jendea identifikatu genezake. Hori, Euskal Herriko gainontzeko eremuetako isla gisa ere erabili dezakegularik.

[79] GOQUERO USSÍA, M.R., op. cit., 482.or.

"El Jurado había respondido a una serie de preguntas (siete) sobre si había realizado Francisco la punción criminal, si había tenido lugar una discusión la noche anterior, si lo hizo tras ver a su hermano en peligro…. con un **Sí** o con un **No**. El defensor considera el cuestionario confuso, y que las respuestas se contradecían unas con otras. Las incongruencias llegaban al punto de responder afirmativamente a una y de forma negativa a otra en el mismo sentido. Por ello el abogado llega a solicitar una nueva reunión de deliberación del jurado, lo que le es denegado"[80].

1933ko otsailaren 23an, goizeko 09:00etan, Francisco Idiakez Indo 21 urte, 6 hilabete eta 21 eguneko kartzela zigorra egitera kondenatu zuten. Handik aurrera, Eusko Alderdi Jeltzaleak, euskararen eta horrenbestez, Espainiar Estatuko administrazioak euskaldunen aurka hartutako bidearen aurkako kanpaina hasi zuen. Euskaldunek auzitegi espainiarren aurrean hizkuntza hegemonikoa ez jakiteagatik bizi zuten errepresioa islatzeko ikur nagusi bilakatu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak Francisco Idiakez Indo.

Euskal nazionalistek argi utzi zuten, epaiketan, herri epaimahaiak hizkuntza hegemonikoa ez jakitearren kondenatu zutela 23 urteko gazte getariarra. Gazte getariarraren errugabetasuna defendatzearren, El Día egunkari euskal nazionalistak, herri-epaimahaia osatu zuten zenbait epaimahaikideren gaztelania ezjakintasuna frogatzen saiatu zen. Hura izan zen, Maria Rosario Roquero Ussía-k bere ikerketan aipatutako Marieta, Julio Mendia eta Jose Matxain herri-epaimahaikideen kasua[81]. 1933ko otsaila amaieran, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, kanpaina hura isiltzea nahi izan zuen[82]:

"Durante la semana pasada se ha señalado en Guipúzcoa una perturbación pasional con motivo de la causa instruida por el suceso de Guetaria. El gobernador hizo un llamamiento a la cordialidad en momentos en que la pasión política amenazaba, a título legítimo de invocación a la Justicia, con un desbordamiento. El asunto debe de darse por liquidado; y mi Autoridad sabrá imponerlo desde ahora. Que ni el suceso doloroso ha sido engendrado por móviles políticos ni su consecuencia deja agraviado el sentimiento vasco. Deben de enterrarse como procedentes de una campaña de Prensa, vendaval dispuesto a levantar la polvareda de los rencores en el noble solar vasco. Repito que esto debe de terminar *hoy* mismo".

Kartzelako egunak ere ez zitzaizkion errazak egin kondenatuari. 1933ko martxoaren 7an, bere anaia eta arrebetako bat, beste zenbait lagunekin Ondarretako kartzelara bisitatzera joan ziren. Ohi bezala, beren ama hizkuntzan mintzatzen hasi ziren, euskara betean. Horren aurrean, kartzelako zaindari batek gaztelaniaz hitz egiteko mehatxua egin zien. Gauzak aztoratu eta kartzelazainak bere arma bisita egitera joan ziren guztiei mehatxu egiteko erabili zuen. Horren aurrean, emakumeek gogor aurka egin zieten kartzelazainaren nahiei eta laster kartzelazainaren kideek, haien lankideari arma eskutik kendu zien. Hura guztia kartzelako zuzendariaren aurrean deklaratu eta hark, halakorik gehiago ez zela gertatuko aitortu zien.

Hala eta guztiz ere, euskal nazionalistek ez zuten amore eman eta, era guztietako ekintzak burutu zituzten Idiakez-en sententzia errebisatzeko. Francisco Idiakez, 1933ko apirilaren 16an ospatutako Aberri Egunez, Ondarretako kartzelan indarrez bete zuten:

"El día del *Aberri Eguna*, con ocasión de que vinieron barquitos pesqueros desde Getaria a Donosti a pasar el día festivo de la patria vasca, muchos de ellos pasaron por delante de la cárcel haciendo sonar sus bocinas y silbatos como forma de apoyo y saludo al joven encarcelado, convecino suyo. Y muchas cuadrillas de jóvenes acudieron a las inmediaciones de la cárcel, aprovechando el dar un paseo festivo hasta Ondarreta, con dar muestra de su apoyo a la causa del joven de Guetaria"[83].

Estepan Urkiaga "Lauaxeta" poeta abertzaleak ere bere aldeko aldarriak idatzi zituen Jagi-Jagi egunkarian:


¡JAGI-JAGI!

GRAN VIA, 44-BILBAO — Núm. 24 - Bilbao, 11 de Marzo de 1933 — GRAN VIA, 44-BILBAO

Onazezko au Idiakez entzat

Juventud Vasca de Bilbao

¡APODERADOS!

Estepan Urkiaga Basaraz "Lauaxeta"-k Idiakezi Jagi-Jagi egunkarian 1933ko martxoaren 11n eskainitako hitzak. (Maria Rosario Roquero Ussía-ren artikulutik).

[80] *Ibidem*, 484.or.

[81] *Ibidem*, 485-487.orr.

[82] *Ibidem*, 487-488.orr.


[83] *Ibidem*, 495.or.

Aldarriak aldarri, 1933ko abuztuaren 9ko gauean, Donostiako Auzitegiak Ondarretako espetxetik Duesokora lekualdatzeko erabakia hartu zuen. Polizia komisarioak, Donostiako Eraso-Indarretako kapitainak eta haren subofizial eta bi Guardia Zibilak inguratuta eta eskuak bilurturik, Kantabriako espetxerako bideari ekin zioten. Durango eta Bilbo artean, armez hornitutako 2.500 euskal nazionalistekin topo egin zuten. Haiek ekiditeko, bidez aldatu beharra izan zuten. Horren aurrean, Getariako 900 herritarrek injustizia harekin amaitzeko erregutu zioten 1933ko abuztuaren 10ean Getariako udal-korporazioari:


"Acto continuo se dió cuenta a precia lectura, de un escrito proposición que firmado por 900 vecinos presentan al Ayuntamiento en suplica de que inicie las gestiones conducentes a reparar el error de justicia cometido por el Jurado con el vecino de esta Francisco Idiaquez[84].

El Ayuntamiento, tomando en consideración las razones y fundamentos en que se apoyen las recurrentes coincidentes con el criterio y sentir del Ayuntamiento antes; por unanimidad acuerda:

Por la dolorosa circunstancia en que se encuentra el vecino de esta villa Francisco Idiaquez, condenado por error del Jurado que lo juzgó, estando acreditado este error por la solicitud de las partes en el proceso al Exmo. Sr. Ministro de Justicia de que dictase normas para la revisión del proceso, que se fundó, en que cinco de los Jurados desconocían en absoluto el castellano y tres de ellos, si bien conocían el castellano carecían de discernimiento bastante en relación a las preguntas del veredicto, redactados en este idioma; por la tragica situación del estado vecino de esta villa Francisco Idiaquez, a quien los ocho miembros del Jurado se propusieron absolver, por entender que habia obrado en le-



Francisco Idiakez Indoren alde. (GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-08-10).



Francisco Idiakez Indoren alde. (GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-08-10).

[84] Garai hartan, gaztelerako legeei jarraiki, "Idiaquez" eta ez gaur egun Euskaltzaindiak agindu gisan "Idiakez" idazten zen.

gitima defensa de su hermano según resulta de las declaraciones de los Jurados en el juicio que recientemente se les ha seguido sobre delito de revelación de voto; por la amargura injusta para Francisco Idiaquez, para sus familiares, y para los vascos todos, de que por desconocimiento del lenguaje oficial en el que se verificaron las actuaciones de quienes actuaron como juzgadores, esté aquel, actualmente, en el presidio del Dueso; este Ayuntamiento, creyendo interpretar los sentimientos nobles y generosos de todos los Vascos y de todos lo que entre los vascos viven, acuerda dirigirse a todos los Ayuntamientos del País interesando de ellos adopten acuerdos de que se eleve respetuosa suplica al Exmo. Sr. Ministro de Justicia para que con la urgencia posible se dicte resolución en el expediente incoado para la revisión del proceso de Idiaquez, de conformidad con la petición con que dicho expediente se incoó y acuerda asi mismo dirigirse a los Parlamentarios vascos en demanda de que apoyen la solicitud de revisión"[85].

El Día egunkariak ere, Idiakezen defentsan, bere eginbeharra betetzen jarraitu zuen:

"Ez dezagun aztu Idiakez

Gutxiok dakigu getariar gazte au nola darabilkiten espetxekik expetxera, bere anaia iltzera zijuala ikusita, guztiok –espetxeratu dutenak ere bai- egingo genduken bezela, anaiaren alde bear alegin guztiakin irten zalako.

Badakigu gañera epaia oker eman zutela ezjakiñean epaileak. Askatu egiten zutelakuan zigortu eta gogor ala ere, egin zutela. Berak aitortu zuten beren uste gabeko uts egitea, Idiakez er'ugabea dala adieraztear'en ludi guztiaren aur'ean, eta aitortze onegatik, beren bar'enak agintzen ziotena egin zutelako, gizon biotz dun bezela agertu diralako, epaituak eta zigortuak izan dira.

Baña guk, euskaldunak, gure anai gizarajoa leinbailen kalera irten dedin bere biotz garbi eta aberkoian daukan lore eder'aren azia zabaltzera, lenbailen bere Ama Euzkadiren laztan goxo eta maitekor'ak artu ditzan, leibailen bere ama eta anai-ar'eben negar malkoak legortu ditzen, lenbailen gure artian izan dezagun, saiatu egin bear degu esku artean dauzkagun era guztitan lan ta lan egiñaz.

Idiakez'ek espetxean igarotzen duan une bakoitza guri egiten diguten lapur'eta bat da. Lapurtu egin digute Idiakez eta gu, ganoragabekoak, aztu bagiña bezel, berarekin zer ikusirik ez dutenen antzera, ixilik gaude, galdi, ezer egin gabe… ¡¡[86] Beldur'a ote?

Ene anaiak!

¿Nun da gure biotzaren anai maitasuna? ¡Abertzaleak, Eusko langileak, euskaldunak: ¿zer egiten degu?

Patxi eraman digute Ondar'etako espetxetik, au beretzat txikigia, ariñegia dala ta, Santoñak gaizto gaiztoentzat daukan giltzape ilun eta latzenera. An dago opal opal ikustera juaten diradenari ir'ipar'a dariola bere bar'engo samintasuna iñori azaldu gabe, bakar bakar'ik.

¡Zenbat negar egiten ote du bakardade or'etan?

¿Zer oroipen erabiltzen ote ditu?

¡Patxi! ¿Zer egiten dek ik, giza-gaiztoentzat egiña dan gela itxusi or'etan?

…¿Gure zai agoia? ¿Guk atera zai? Ondo segok ik itxaropen ori edukitzea, bidezkoa baitek guk lan egitea ire alde. Baña, Patxi, ez ote da iritxi ire biotzera oldozuen minkor bat? Ez ote dek isuri, izan leikean malko astunenetako bay?

Guk, ik uste uan baño maitasun txepelagoa ote diagun ez al dek oldoztu? ¡Itzaz aztuta gaudelakoan, orain artian izan dekan itxaropen bakar'a galduta, negar ez ote agon esango nikek!

Baña ez dek or'ela. Irekin batera negar egin diagu guk ere orain artian, beste ezer egiten ez genekialako. Eta gure malkoak alper'ikakoak dirala, guk negar eginda ere ire zigor'a berdiña dala ezaguturik, esnatu gaituk eta ezin genezakek iñork ere gure asar'ea bar'uan gorde. Zabaldu dizkiagu gure bar'engo ateak eta oju gogor bat zator'ek kanpora guztian biotzetatik: ¡Idiakez gure anai ona irten dedila!

¿Nun dirade zuek beti abotan dabizkizuten eskubideak, Idiakez bezelako gazte garbi bat or'ela eduki bear badezute? Ezagutzen dezute bide oker'ean zabiltzatela eta beragatik daukazuten lekura, er'ia lo zegoala, lapur'ak egiten duten bezela, ixil ixilik, ondo gordeta eraman zenduten pitxi eder bat lez. Zuek ondo dakizute ordia Euzkadik jakin zuanean, artu zuan esteukada ezin aundiagokoa dala. Eta badakizute baita ere biotz bat zulatzen danian, artzen duan miñak gorputz guztiari zartateko ber'i onekin gogor minberatu dezute eta gure Aber'ia oso osorik jeiki da gorputz baten antzera antsi aundi bat egiñaz-

¡Askatu Idiakez!

¿Er'ugabea izanik zertan dago ilunpean- ¿Abertzalea dalako?

Mutikoak giñala, alkar'ekin juan oi giñan ikastolara eta bere abertzaletasunagatik zigortu zuan goiz batean irakasleak –'Gora Euzkadi' idatzi zualako matzalian joka negar'ez erabiliagatik Patxiku'k etzuan ukatu berak idatzi zuala. Bazekian aur'ez zer zigor zetorkion, baña Aber'iaganako maitasuna aundiagoa zuan irakaslien (…) zion bildur'a baño-(…)"[87].

[85] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-08-10.

[86] Gaur egun Euskaltzaindiak harridura-zein galde-ikurrak esaldiaren amaieran ezarri behar direla adierazten du. Garaian, gehienetan, gaztelaniako arauei men eginez idazten zuten.

[87] El Día egunkaria, 1933ko abuztuaren 20a.



Ez dezagun aztu Idiakez

Guztiok dakigu getariar guztiok zein nola darabilkiten espetxeetik arpeta-ra, bere, anaia Ularra zijoala kuxta, gustiok —espetxeratu dutenak ere bai— eskingo genduken bezela, anaiaren alde beer alegin guztiekin irten zaiako.

Badakigu gañera epaia oker eman zutela, eskatzailean epaileak. Askatu egiten zutelakoan zigortu eta gogor ala ere, egin zutela. Beraik aitortu zuten beren uste gabeko uts egitea. Idiakez erugabea dala adieraztearen lagi guztiaren aurean, eta aitortze onegatik, beren barnean agintzen zio-tena egin zutelako, gizon biotz dun bezela agertu diralako, epaitzaak eta zigortuak izan dira.

Baña guk, euskaldunak, gure anai gizarajoa lenbailen kalera irten de-din bere biotz garbi eta aberkoan daukan lore ederaren azia rabaltze-ra, lenbailen bere Ama Euskadiren laztan goxo eta maitekorak artu di-tzan lenbailen bere ama eta anai-arekin negar malkoak legortu dite-zen, lenbailen gure artian izan dezagun, galatu egin bear degu eskubi ar-tean daukagun era gurtitan lan ta lan egiñaz.

Idiakezek espetxean igaroten duan une bakoitza gori egiten digute la-guneta bat da. Lapurtu egin digute Idiakez eta gu, ganoragabeok artu bagiña bezela berarekin zer ikusirik ez dutenen antzera, ixilik gaude, gel-di, ezer egin gabe ¡¡Bildurra ote?

Ene anaiak!

¿Nun da gure biotzaren anai malta-zuna? ¡Abertzaleak, Euzko langileak eurkaldunak: ¿zer egiten degu?

Paixi eraman digute. Ondafetako espetxetik, au beretzat txikiegia, art-degia dala ta. Santoñak gaitz gaitzenitzat daukan gilizagie ilun eta la-tzenera. An dago oral opal ikusiezin duten diradenari ifipafa dariola be-re bafengo amintasuna ikusi ezaldu gabe, bakar bakarik.

¡Zenbi negar egiten ote du bakar-dade ofetan?

¿Zer oroipen erabiltzen ote ditu?

¡Paixi! ¿Zer egiten dak ik, giza-gaizkoentzat egiña dan gela ilzun ore tan?

...¿Gure ai agoia? ¿Ouk atera zai? Ondo agoak ik ikaropen ori edukitzea, bidegaoa baitek guk lan egitea ire alde. Baña, Paixi, ez ote da iritxi ire biotzera eldorean minkor bat? Ez ote dek ikuri, izan leikean malko as-tunenetako bat?

Ouk, ik uste uan baño maitasun txepelagoa ote diagun ez al dek oldoz-tu? ¡Ilzaz artuta gaudelakoan, orain artian izan dekan ikaropen bakara galduta, negar ez ote agon esango ni-kek!

Baña ez dek ofrla. Irekin batera negar egin diagu guk ere orain ar-tian, beste ezer egiten ez genekialako. Eta gure malkoak alperikakoak dira-la, guk negar eginda ere Ire zigorra bergiña dala eazgutunik, eznatu gaituk eta ezin geneazket ibork ere gure anaiea bafuan gorde. Zabaldu dirixa-gu gure bafengo aieak eta oju gogor bat aztorek kanpora gurtitan biotze-tatik: "¡Idiakez gure anai oña irten dedila!"

¿Nun dirade zuek beti abotan da-bilkiguten zakubideak, Idiakez bese-lako gazte garbi bat ofrla ediki bear badeutte? Ezagutzen dezute bide oke-fean zabiltzatela eta beragatik dau-karuten lezura, eña lo aegoala, lapu-rak egiten duten bezela, ixil ixilik, ondo gordeta eraman zenduten pixi eder bat lez. Zuek ondo dakizute or-dia Euzkadik jakin zuanean, artu zuan eginkada ezin aundiagokoa dala. Eta badakizute baita ere biotz bat zula-tzen danian, artzen duan miñak gor-puta guztiari zartateko beti onekin ge gor miñberatu dezute eta gure Abefie oso osorik jeiki da gorputz balen an-tzera antzi aundi bat egiñaz.

¡Askatu Idiakez!

¿Erugabea izanik zertan dago ilun-pean ¿Abertzaleo dalako?

Mutikoak giñala alkafekin juan e giñan ikaskolara eta bere abertzale-tasunagatik zigortu zuan gotz batean irakasleak — "Gora Euzkadi" idatzi zualako matzalian joka negafez erabi-lagatik Paixikurk eiman ukatu berak idatzi zuala. Barrekin aurez ser ikas-zetorrion, baña Abertzaleako malta-

Jaietan ondo jan eta edan ¿nun?
Butron'go oslatu zarrean
Garate'tar Anizeto
ELGOIBAR
EUSKOTARENTZAT TOKIRIK ONENA

"Ez dezagun aztu Idiakez". (El Día egunkaria, 1933ko abuztuaren 20a).

Defentsa hartan guztian ordea, azkenean, auzitegiak, hiru epaimahaikide ere kondenatu egin zituen:

"El periódico madrileño *El Sol* dará cuenta de que a los jurados se les ha condenado por 'violación de secreto', cometido al divulgar que su intención fue absolver al procesado. La sentencia de los tres jurados fue: un año, cuatro meses y 21 días de suspensión y multa de 250 pesetas. Declarada la insolvencia deberían cumplir un día de prisión por cada diez pesetas que dejen de satisfacer por la citada multa'"[88].

Bidean, Eli Gallastegi abertzale eta independentista, Bilboko Atxuriko tren estazioan Idiakezi babesa ematen egon zen. Haren babesean ere zenbait artikulu idatzi zituen. Euskal diputatu nazionalistek ere, errebisioaren aldeko hautu nabarmena egin zuten:

"Luego se dió cuenta de la correspondencia o contestaciones de los diferentes Ayuntamientos del Pais Vasco, relativos a la campaña iniciada pro revisión de la causa de Francisco Idiaquez, dando cuenta de haber elevado, conforme se les interesaba en la circular divulgada, respetuosas suplicas al Exmo. Sr. Ministro de Justicia y asi mismo de las contestaciones de los Parlamentarios Vascos, que se ofrecen desinteresadamente para apoyar la iniciativa, y muy especialmente el Diputado D. José Horn y Areilza que da iniciativas para las gestiones que al mismo le parece conducentes para el caso.

El Ayuntamiento agradece el apoyo de las corporaciones Parlamentarias y acuerda hacerles presente dicho agradecimiento"[89].

1933ko irailaren 25ean, 8 urte eta egun batera kommutatu zioten kartzela-zigorra. Gorteetarako hauteskundeetarako kanpainan ere, euskara eta gaztelaniaren diglosiaren biktima gisan irudikatu zuten abertzaleek El Día egunkarian:

"Auteskundiak

Gertu euskotar'ak: iritxi da garaia, zeiñ geran ota zer nai degun azaltzeko.

Esnatu lo zor'o ortatik: utzi bildur'ak alde batera, ta ekin zirt edo zart geronan alde. Iru aldi datorzkigu autarkiyak emateko, ¿nora?

Ez zalantzan egon: Ez itz goxoen billa ibili: Ez jaramonik egin jauntxoen esaneiri. Ez eta ere, zure maiterik maiteena goralduaz dijuztenaidi. ¿Zeñi?

-o-

Lenengo auteskundiak, araudia nai degun ala ez azaltzeko dira.

¿Zer onura ditu araudiak?

Asko.

¿Zer? Ez det uste egokiya danik, nik emen araudi osoa idaztia, bere garaian azalduko da ba. Baina, alaz ere zer edo zer esango dizuet.

Ba da arau bai guztiz onurakor'a, ta bera ¡13! Gar'ena (edozeñek esango luke).

Arau onek izkuntzan esaten du:

'Euskaler'iaren jator'iko izkuntza euskera da, ta izkuntza onek izango du, erderak bezela, Euskaler'ian lege indar'a'.

Aur'erago jar'aitzen du, esanaz:

'Euskaler'ian bizi dan edozein lagunek, euskal-alkartze bar'uan behintzat. Auzitegietan nai jaurpide arazodun betzar'etan euskera erabiltzeko eskubide oso-osoa izango du'.

¡Euskalduna! Araudia izan bagenu len, Idiakez'ekin gertatu zan gertakizun lotsagar'i ura, ez zuan Euzkadi'k ikusiko! ¡ Ez zuten egin zuten bezela euskera oinperatuko! Ta batez ere, Idiakez garai ontan etzan espetxian egongo!

Oraindik gehiago diyo arau or'ek.

'Euskeraz egiten dan Euskaler'iko lur'aldeetako eskoletan, erdera eta euskera, biak erabiliko dira irakaskintzak emateko, eta irakaskintza emate au nola zuzendu ta erabiliko dan zeatz jakiteko, lur'alde aiek menpeko diren Aldundiak esango dute zer egin bearko dan'.

[88] ROQUERO USSÍA, M.R., op.cit., 508.or.

[89] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-08-31.

Jaiki euskotar'ak! ¡Araudia bear degu! Dakarakin onurak, ez dira nolanai ustekoak.

¡Alsitu baser'itar! Zure goguan ikastoletan, ¿zer egin due euskeraz egiten duena zatitu baño? Hamaika aldiz ikusi dituzu, zure seme, bilobak, negar'ez euskera egin eta jo egiten zituztelako… Zuri ere gertatu izan zaizu, auzitegira juan, da euskeraz baño mintzo etzeralako epaikari ta ganerontzekuak par'ez…

Bukatu bitez Euzkadi'n euskaldun oiri gertatzen zaizkigun lotsagar'ikeriak! Gure buruatzaz jabetzen asi! Ta ori daba 'araudi alde autarkia emanaz'.

'ZALOÑA'

(Jar'aituko du)"[90].



Dueso'ko espetxian dauden anayairi

Idiakez'tar Pantzeska eta Porsel'tar Koldobika anai maitean, abertzale zintzoak gaztetasun argia ilunpetu guran lotu dotzue atozak espetxe gogo-
(rian.

Euzko ndafa menderatu ezinian botokan dabillz loi zikiñian.

Euzko baratza dago abeti loraz
(beterik
Ofi zuri biguñak usai ezkitzun ez-
(baldurik

Ez eman garantzirik ..
ori bigun oyek apurtuarik
nastai gogofa dago bizi indarturik
¡Ofi berink irtengo dira lengo le-
(kutik'

Abeti eziya dator indartsu
lur gori azpitik arin loratur:
biotz beroen irpi argiak
ametxori maitasuma edonun azaldur

Zuen itzaleko bakardade tamalak
beste anaitxoen odol ixuriak,
uxatuko ditu Euzkadi Abetitik
bere miñ eta naigabe guztiak.


Lau orma lori, intxusez apaindu
leyoak Kantauri'ko ur aldera,
maudete burni erdoitu artian,
gaztetxu arpegiz, itxasoari begira.
Itxaso bare urdin margodun,
Donoki margodun ber bera,
zuen uriko ur maitatiljek
datoz lasterka agurtzera.

Beren laztanak poetik jasoan
orma zafen barena
eldu dira zuen oñetara
euskotafen malkoak eskeintzera.

Itxaropenagaz Jaungoiko onak
zabaltzen ditu Donokiko Atiak,
itxaropenez sendotu itzaitute
itun gabe, gogai guztiak.

Ixillik

Idiakezen aldeko aldarria.
(Euzkadi, 1934ko otsailaren 20a).



Katolikoak bai, baño gurea eginda

"El Pontifice romano, cuando habla excatedra, es decir, cuando, cumpliendo su oficio de Pastor y Doctor de todos los cristianos en virtud de suprema autoridad apostólica, define que la Iglesia universal debe abrazar alguna doctrina determinada referente a la fe o a las costumbres gracias a la sentencia divina que en la persona de Pedro le ha sido prometida, es verdaderamente infalible, con aquella infalibilidad de que el divino Redentor ha querido que estuviera provista su Iglesia, siempre que se vea obligada a definir alguna doctrina sobre la fe o sobre las costumbres."

Gestia urritan kontu degu sekula katolikoo aitzen ikusi beaf ez gerokian gaizo bat.

Eta da gure Elelza amaren. Agindu eta esan batzuk sekulako itzal eta begirunezk aipatzeak artzea, eta beste batzuk lejor, artaketzat ere artu nai erda bilzea.

¿Zergatik au?

¿Ez alda elzia bat eta ber-bera agintzen digula, esatzeko, jai eguetan mezatzea eta estutzeko baño idazki eta gabetiko irakatsi txafak eta Berak galerazita edo kondenatutakoak ere ez irakustzeko?

¿Ez alda Elelza ber-bera lapurtzetik ez egitzen bata biotz eta gorputzez ere gurbi-gartzak izateko agintzen digula?

¿Zergatik, bada, Agindu baten ez egitza obra egitza dala zute izan eta bestetzat ezartzea ez?

¿Zergatik ori?

¿Ez alda Elelza ber-bera bata eta bestea agintzen digula?

¿Ez alda Elelza agindu berdiña dauna bata eta bestea agintzeko?

Nik uste dayela.

Meza entzuteko egin beaf aa artzen dogun ardorakin artuko bageen idazki eta lizarioni gure elelza amak txaftzat emanik daukanak ez irakuftzea, gure etzetara ekartzea diran lapurtzagi zital geyenak jona beatko lukete befiro etofi diran tokietara.

¡Zein edefa izango litzkean!

ONALDE.

GETARIA

[illegible] U. B.'ko lendakari jeunak artu zituen itzaa-gudaritzan urbitzen diran gudametilen aftena bertatako txindi mordoska bat, beren abetitik atin arpitu aften ezdia une batian bere, euren abeflatzaa azteen. Gezitara zy lapurteko bide diru

(ICORIA) **BAKE**

TXAPELOLA
Elósegui
OSA

Duesoko euskaldunei bertsoak. **(El Día egunkaria, 1933ko azaroaren 12a).**

[90] El Día egunkaria, 1933ko urriaren 15a.

Herritarrek eta politiko euskal nazionalistek egindako lan esanguratsuaren eraginez, 1934ko apirilaren 30ean Niceto Alcalá-Zamora Bigarren Errepublikako presidenteak sinatutako Amnistia Legean, Idiakez-en kausa errebisatzeko eskatzen zen:

"Por ultimo el Sr. Alcalde propuso asi se acordó por unanimidad felicitar y conceder un voto de gracias a los Diputados de la minoria Nacionalista del parlamento por haber conseguido por mucho de oportuna enmienda del proyecto de Ley de Amnistia hacer compatible la revisión de la causa del infortunado Francisco Idiaquez, vecino de esta villa"[91].

Hala, 1934ko abuztuaren 11n bertan, Duesotik Ondarretako espetxera lekualdatu zuten berriro ere; Larrinagako espetxean gaua pasatu zuelarik.



EL REGRESO DE IDIAKEZ

He aquí a Paizi de Idiakez (X) en uno de los momentos de su dolorosa peregrinaje entre tricornios y fusiles. Aparece a la salida de la Cárcel de Larrinaga de Bilbao, en aquella escala que se le hizo pasar a su regreso del primer viaje al penal del Dueso

Ahora vuelve por segunda vez para presentarse nuevamente ante otro Tribunal que va apreciar las circunstancias de aquel triste suceso de Getaria que tan amargas declaraciones ha traído para Paizi.


Se dijo ayer, y toda Guipúzcoa se puso en pie, que había partido de Bilbao con dirección a la cárcel de Ondarreta, de Donostia

En las estaciones del trayecto de la capital de Vizcaya a nuestra ciudad, de todos los pueblos de la costa, salieron compañeristas de Idiakez a recibirle con júbilo, pero el interés público fué defraudado porque en Durango se escamoteó a Idiakez, haciéndole descender del convoy, reintegrándole nuevamente a la prisión de Larrinaga

A última hora se nos dice que Paizi saldrá de la capital de Vizcaya para San Sebastián, en el tren de las seis treinta y cinco

El Día, 11 de agosto de 1934, p. 3. Donostiako Udal Liburutegia - Biblioteca Municipal de San Sebastián.

Idiakezen itzulera. (Maria Rosario Roquero Ussía-ren artikulutik).



Idiakez'ganako juan-etorria

Igandean Duesoko espetxean gidan Idiakez ikertzen eta guk ,befiztu egin ez genduan Bilbaldia eginguendualako, ara emen gure jun-etori odera ixo txiki oneu bidez.

Ekkeña buru genduela alera gidan Getari'tik ogeitabi gizon ontzi eder batan gabeko amabitan, getariarak, zarautztarak, tolosarak, ermaniarak eta askotiarak; zerua urdin zegon, itxasua bare; bafondean genduan keska ura entaltzearen abesbari gidan eta Itziar ko Ama agurtu ondoren Txintxon zatua zafi eskuratutsen genduen.

Ordubik aldean, lufeko aize zala edo ezala, ogitzaren zabalean zartzeko agindua; indartu zan lurzko aize ori eta gu an ilunpean danbadaka alde batera eta bestera ikaraz eta ori zaustarak eta getariarak lo egundaka nabaltzen gindumela.

Nik alde baletik Ekkeña zun eta beste'tik Efena. Onek etzun toki jakitik, erantzue nabaltzen zun locofean bezala nere gabetik zear Ekkeña'ren ao zuloan ciñ mutuña sartzen eta Ekkeña amofun Efena'ri "alpargatatik" aginka, geroxago nere "txanda" izaki eta un: bat bere aztarren bestetan edo magalean erkutatu ol dan bezala nere itzar azpitik igarotzen zitzaidan bezala. Ekkeñak buruko azkurea kentzen zion arte eta bitartean gure buru gaiean ur oien eta ontzia danbadaka.

Etzuan guk nai bezin azkar egoma zabaldu. Egunakin batera. Itxasoan jolo ballta bezala pixkana pixkanaka goratuaz, artean indargo zan egoaki oena beñaren izpi gozoa, igotzaren oderá! Bilbao inguruan gidala esan zigulen eta geroxago, zapiraz aldian "Maramiteko" jan bear zala. ¿Zer ote dek, genion guk alkarri, maramiteko ori? Eta nik ez dakit edo guk itxasgoza gendualako edo jaki ura gozoa zalako bedepein bertala maramil tankararen etzaak zimurtu eta legortuta agortu ziran.

Zortziraz ingurun Santoñan gidan, Jaupa ikusi eta Dueso'ra. Bertara gidan Idiakez, Porsei eta beste Barakaldoko gazte batzu zufean.

Ez galdetu txakurie zer esan gizkion alkarri: espetxeko nagusiak une batzuk getago izaretzen utzi zigun, eta itxasora amabitan.

Irurak inguruban befiro maramilakua eta lenago bezala. ¡Ura janariaren gozoa eta gure jateko gogua!


Bostetan amendu gidan Bermeo'runtz. Bermeotarak ondo artu gidauten ,bere Batzoki berdinzabra erakustat, ontzirafio lagundu eta Getariatik'en ITan lanzo duten zabalkundearrarte agurtu.

Kaltik irteeran ogetaka ontzi etzerunik eta gure ikuftintzoa nabaltzi zuenean ¡angoa ofua, angoa dreabra! Gidartzan buruzagia bezala gure ontzia an izaro zan ontzi taldearen erdiñik; bederatzietan Getaritza aketta artu eta etxera.

Legale izaki eta zuzentan Ekkeña eta Efena ontzaren zabalean bufikan.

KEIXETA.

Idiakezi bisita.
(El Día egunkaria 1934ko apirilaren 24a).



IDIAKEZ'EN AUZIA

Befi pongari ta alaitzu bat jaso degu. Afeta bizia zafiem gendoala es dalo zer esanik.

¿Zer dan diosu?

Zeude pixka bat.

An urrutí, Dueso'ko ostatu beltzean ezeren efu gabe dagoan anai aretzaz zafiua etzera egongo noski, irakurie aziakide ori.

Ainbat denboran, lan orma zar tristeren bafunbean bizi diran malko zotiñak, gure abeltaren esangari beresia dan euskera berdingabearenak dirala ere jakingo dezu noski.

Bere kultura eta izatera, beste mundutar iskuntzik etzkielako galdu baltan Getariar seme ginenoa. ¡Zenbat ikusteko jayo zan Pantzaka ginarajoa!

Ainbat il lune zenditik urrutiratuta, ainbat il lune abertitik aí, ainbat il lune berarekiñ egiñ dutzen jokorra maltzurkeriaz gogoratuaz. ¡Zenbat ilroi teko jayo zan, zeila bider esanda ere!

—o—

Aspaldian es degu gaizki aitatua. Baiña aitatu bear ere euskeraren ikur berezia berekiñ daramalkian gazte.

Ta ona gure'tzat pozgarri ta alaigarri dan bezin. ¡Idiakez'en aurri beltzera!

Bera lortzeko en'dira guzti zayalu gure aldunaki badute "empeño" pran bi eyiña.

Lengo egun batez, "Alcibar" idazle ospetsuak garbi agertzen zigun bezela.

Zenbat eskiñari eldu bear izan zaion gai bera dalata!

Ain lerrotik empezendik, ta azkenez erbestetako gizon alpatuak ere ala aitortu dute. Bada, azkenez "empeño" ta ainbat aldelara joagatik, artarafioko itxaropenik ez da arkitu, gaur arte.

Orraintzo lasaitu gera.

"Amnistia" edo dalako onen bidez lortu da Idiakez'en auzi beltzaz.

Ene, gaizki diot oso. Ez da "amnistia"ren bidez balkafik izandu; Ifiem aldun jakintzu azkafaren esfafi bidezko ta leyaketa jakinduriztoan bitartez baizik. Zoriontik maitekorenak dameskiogu, eusko aldun artaldeko ar zai buruzkoari.

—o—

¡Auzia befiro!

Zuzentasuna buru izango dalakoan gaude. Orixe nai genduke beintzat.

Hasiartuko aldira noski jokora maltzur ta gorotzkoak, ta bide egingo alizayo egi ta afanziari.

Au da Euzkadik zutifik jafia eskatuko duana.

Ta gu itxaropenez aitatuak gaude.

Egi ta afanzari bide usiera emkero, Idiakez anai ezinezko geure artean baidegu bezala.

Au izaki befiz gure gaurko azpetsa.

Efurik gabe bota zaituzte
zerigaitzoko lekera:
euskerarekiñ batera negar
egindakoa zu zara.
Ikuskozu orok zu ikusteko
egafi biñan gera.
Alos Paruzeska, alos lenbaitiken
anayak bezaltzera.

Basafi

"Idiakezen auzia".
(El Día egunkaria 1934ko apirilaren 26a).

[91] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-04-22.

Abuztuaren 10ean, Getariako Union Republicana-k akusazio gisan epaiketara ez agertzea hautatu zuen. Handik 12 egunera, sententziaren errebisioa hasi zen. Testigu gehienek euskaraz deklaratu zuten eta herri epaimahaiak gaztelaniaz egin zuen. Idiakezen aldeko deklarazioak izan ziren. 1934ko irailaren 22an, absolbitu eta aske geratu zen.

Getariako Buru Batzarrak hala eskatuta, Euskal Herriko Batzoki zein Emakume Abertzale Batzako presidenteei, Idiakezi laguntzeko erabilitako dirua biltzen laguntzeko eskatu zieten. Guztira 8.000 pezetako gastua izan zen eta esaterako, Azkoitiako Gurea pilotalekuan zenbait pilota partidu antolatu ziren hartarako:

"Partido de pelota en Azcoitia

Pasado mañana, festividad de Todos los Santos, se celebrarán en el frontón Gurea de Azkoitia, cedido galantemente por los hermanos Etxaniz, dos grandes partidos de pelota, que darán comienzo a las once y media de la mañana, con arreglo a las combinaciones siguientes;

Primer partido: Zabaleta y Murua I contra Zabala y Aramburu.

Segundo partido: Ecenarro y Ulacia II contra Olaizola y Juaristi.

Los partidos han despertado gran interés entre los aficionados, esperándose que el magnífico frontón Gurea se verá completamente lleno.

Los fondos que se recauden en esta fiesta pelotística se destinarán a engrosar la suscripción para sostengar los gastos ocasionados por el proceso Idiakez"[92].

EAJ-k beti ere, Francisco Idiakezen kasua internazionalizatzeko hautua egin zuen, euskararen kontrako auzitzat eta beraz, aberriaren aurkako auzitzat jotzen baitzuen. Elias Gallastegi, Monzon eta beste burkide batzuekin bildu zen, Idiakezen kasua Genevako 1919an sortua zen Nazioen Elkartera eraman nahi baitzuen, euskaldunen protesta gisara. Planaren barnean Donostian mitin bat eman eta handik Genevarako martxa bat egitea proposatzen zen. Mitin horretara, euskal kultura eta mugimenduaren inguruan ibiltzen ziren pertsonak eta zenbait pertsona anonimo bildu nahi izan zituen Gallastegik. Martxak Frantziako hegoaldetik 45 egun inguru iraun behar zituen eta bertan euskal lurraldeetako euskararen arazo linguistikoaren inguruko propaganda eginen zen. Monzonek, hasiera batean, ekintzarekin bat egin nahi izan zuen, baina berak Genevan nota-memorandum bat emateko proposamena egin eta Gallastegik oso arintzat kontsideratu zuen. Monzon ez zen oso ados agertu gerora Gallastegik eginiko proposamenarekin.

Manuel Irujo ere asko interesatu zen kasuaz eta internazionalizatu ere egin zuen, Idiakezi emozionalki eta juridikoki laguntzeaz gain. Gainera, Bartzelonako afari batean, zeinetan galiziar, katalan eta Estatu Espainiarreko zenbait ordezkarirekin bilduta zegoela Campionek idatzitako Pedro Mariren historia kontatu eta haren kasua Francisco Idiakezenarekin alderatu zuen. Pedro Mari izatez Ameriketara omen zihoan, baina gaztelaniaz jakin ez eta Madrilera lekualdatu zuten, ejertzito espainiarrera. Han zegoela eta gaztelania ez zuelarik ulertzen, halako batean bere "arraza"-ko jendearekin, hau da, lapurtarren kantuekin egin zuen topo eta horren eraginez, haiengana, hau da, ejertzito frantsesera batu zen. Horregatik, etxera itzultzean, armada espainiarragatik desertore, gaztelanieraz epaitu, hark ezer jakin gabe eta epaiketaz arrastorik enteratu gabe, sententzian hiltzera kondenatu eta fusilatu egin zuten.

Palestra entitate katalanaren egoitzan egin zuten delako biltzarra. Gainera, Manuel Irujok, Espainiar Estatuko Bigarren Errepublikako Konstituzioak agintzen zuen 7. artikuluari erreferentzia eginez, pertsonak, beraiek ulertzen zuten hizkuntzan epaitu behar zirela adierazi zuen. Gaia internazionalizatzerako orduan, 1933ko Genevako Gutxiengo Herrialdeen Kongresu nazionalistara ez ziren joan (1936tik egin ziren beste guztietara joan ziren handik aurrera), galiziarrak eta katalanak bai ordea. Seguruenik estatutua prestatzen ari zirelako izango zen, baina Manuel Irujok Euskadi Buru Batzarrari Idiakezen kasuak Genevan aurkeztuz gero izan zezakeen oihartzunaz oharturik, haserre idatzi zion. Manuel Irujok kasua oso gertutik eraman zuen, eta horretan, Vicente Cantos Espainiar Estatuko Justizia Ministroarekin ere hitz egin eta akordioak lortu zituen, esaterako, herri-epaimahaikideak gaztelania menperatzen zuten jendea izateko.

Jose Ariztimuño "Aitzol"-ek ere eskuhartze handia burutu zuen kasu honetan guztian. Euskarak administrazioan, komunikabideetan, hezkuntzan… zuen bazterketarekin amaitu behar zela adierazi zuen. Idiakez euskaraz epaitzeko derrigortasuna mahai gainean jarri zuen, beste herrialde guztiek eta haietako herritarrek zuten eskubide gisa aldarrikatuz[93].



PARA UNA SUSCRIPCION

Partidos de pelota en Azcoitia

Pasado mañana, festividad de Todos los Santos, se celebrarán en el frontón Gurea de Azkoitia, cedido galantemente por los hermanos Etxaniz, dos grandes partidos de pelota, que darán comienzo a las once y media de la mañana, con arreglo a las combinaciones siguientes:

Primer partido: Zabaleta y Murua I contra Zabala y Aramburu.

Segundo partido: Ecenarro y Ulacia II contra Olaizola y Juaristi.

Los partidos han despertado gran interés entre los aficionados, esperándose que el magnífico frontón G... se verá completamente lleno.

Los fondos que se recauden en es...

pone aliviar tan dolorosa situación en la medida de sus fuerzas y solicita del vecindario de San Sebastián su cooperación en esta caritativa obra, remitiendo a la citada Institución donativos en ropas personales para adultos y niños, así como de cama y aseo, donativos que serán entregados con la urgencia que el caso requiere a los mismos necesitados.

La admisión de ropas terminará el día 8 de noviembre próximo.

J. Fuentes - Echevarría

MEDICO-DENTISTA

Loyola, 1, segundo. Teléfono 1-61-39

ta fiesta pelotística se destinarán a engrosar la suscripción para sufragar los ga... ocasionados por el proceso Idiakez.

Idiakezen aldeko pilota partiduak Azkoitiako Gurea pilotalekuan.
(El Día egunkaria, 1934ko urriaren 30a).

[92] El Día egunkaria, 1934ko urriaren 30a.

[93] ROQUERO USSÍA, M.R., op.cit., 520-525.or.

2.7. GETARIAR EUSKAL NAZIONALISTA ETA ERREPUBLIKARREN ARTEKO EZTABAIDAK UDAL-GOBERNUAN

Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, Getarian ere, euskal nazionalista eta errepublikazaleen arteko liskarrak ez ziren txiki geratu, aurreko atalean ere azaldu dugunez. Oihartzuna, 1931ko apirilaren 9an argitaratutako El Día "izparringi"[94] euskal nazionalistako orrietaraino iritsi zen, "Aberkoi" ezizenez idazten zuen getariarren hitzekin:

"SUR'UMUR'UAK.- Beste er'ietan ere naiko ser esana izango dala iruritzen zait noski auteskunde gaian, bañan gure txoko ontan aña ezetz esango nuke.

Igande goizian lau alderdi proklamatu ziran, bederatzi ziñegotzientzat, ogeitaraño eman zituzten izenak.

Entzun dedanez ekin diote iñuzentiak ar'apatzen batari tximist argia (eletrika) agindu, besteari urak eta baser'ietarako bide ber'iak, dirua er'uz arkume janak eta automobila pres etxietara eramateko.

¿Noiztik onen samur'ak aldun auek? ¿ Diru poltzan bat bilatu ote due? Eskeintzia balitz ematia, garai onetan ziaro damutuak leudeke.

Baser'itarrak batez ere, eta gañerako er'itar'ak ezaiteztela iñusentiak izan, or'elako eskeintzakin datozen koipetzuari es jaramonik egin, oien arkume janak ondorengo tripako miñak gertatzen dia-ta"[95].

"Aberkoi" euskal nazionalistak, ordura arte monarkiko izan eta Miguel Primo de Riveraren diktadura babestu zuten haiek, errepublikazale mozorrotu eta bozkak erosteaz salatu zituen:

"Gizon bakar bat bezela zeuen autarkia edo botua eskeñi talde er'ikor'ari edo popular'ari, alde batea utzirik beste oien gezur'ak etas likizkeriak.

Kandidatura Roja izendatzen da goiko alderdia. ¿Auen buru zeintzuk direla uste dezute? Jakin ezazute lengo ditadurakuak diabruen janzkerarekin. Zortzi urtian oien azpian bizitu gera txistatekorik egin gabe eta eurak goguan izan duen naspilak egiñaz. Or'egatik berak ezin badute ziñegotzi edo kontzejal izan sartu nai dituzte euren lagunak.

Bildur aundia diote alderdi er'ikoiari, etzita daude noski gazte onek lan berak egindako trapukeriak azalera aterako dituztela eta etzaiote komeni.

Iñauteriak edo karnabalak aldendu dira eta arpegia agertu dedila garbi giza artean, bazter'era utziaz par'egar'izko aurpegia edo kareta.

Getari'k bihar du uririk politenetakoa. Kendu ezin ikusiak, lagun beartsua! eta biargiñari eta modu onetan aurkituko da er'itar onak opa duen eran"[96].

Egia bada ere zenbait errepublikazale getariarrek paper hori hartu zutela, hau ez zen guztien kasua izan. Hor ditugu esaterako, Getariako Izquierda Republicana[97] zein UGT-ko militante politikoen zenbait eredu, zeintzuek Bigarren Errepublikako gobernua guztiz zilegitzat zuten eta haren defentsan, haren aurkako estatu kolpea eman zutenen aurka gerrara borrokatzera joan ziren.

UNION GENERAL DE TRABAJADORES-ERA (UGT) AFILIATUTAKO GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK
URBANO ARREGI UZIN
JUAN SETIEN CALVO
PEDRO SETIEN CALVO
JOSE EGURBIDE AZPEITIA
ISIDRO BERASALUZE EGAÑA
MODESTO VIEJO ARAGON
JOSE LARRAMENDI ARRAIZ
ANTONIO GARRASTAZU ARRUTI
LEONCIO BURGAÑA ETXEBERRIA
BARTOLOME ARANZABAL ITURZAETA
JOSE MARIA LARRAÑAGA ARANBURU

"Aberkoi"-rek hitz egiten digun errepublikazale haiek guztiak, errepublikazale eskuindar gisan determina genitzake. Haiei buruz, "Asmazak" ezizenez idazten zuen getariarrak, 1936ko otsaileko Bigarren Errepublikako Gorteetarako azken hauteskundeen aurretik, hilaren 14an zehazki idatzi zuen. Errepublikazale eskuindar haien artean, gerora, diktadura frankistan zehar paper garrantzitsua izan zuten zenbaiten izenak ageri zaizkigu dela Isidoro Chueca, dela "Chirrim" gaitzizenez ezaguna zen getariarra, dela "Bateko Urre" gaitzizenez ezaguna zena, dela "Urraka", Resurreción Zumeta zein Alejo Jimeno Oses Getariako falangeko buruzagia izango zena:

"GETARI

¿Zalantzan ote jendea?

Orain arte emengo txaketeruak egondu dira zeñeri autarkia eman. Uste zuten etzala Usabiaga'rik azalduko, ta orregatik ari ziran lan da lan 'karkari' aurrerapen aundiak emateko… ¡Zeñen langille purrukatuak diran oietxek oso ezagunak 'portzierto'.

¡Zeñek ez ezagutu 'Chueca, Chirrim, Resu, Bateko Urre, Jardinero ta euren antzeko oiek?' Urraka gaixoari ere egiten dizkioten begirakadak aundiak izan bear dute. Agindu omen diote, alegia eskubiari autarkia ematen ba'diote 'Trinkadura' ekarriko diotela…' ¡Gizajoak! Zearo karnaba jan dute,

[94] Haren sinonimoa "egunkari" litzateke. Egunkari abertzalean maiz agertzen zaizkigu "izpar", "izparringi"… adierak.

[95] El Día egunkaria, 1931ko apirilaren 9a lehen zatia.

[96] El Día egunkaria, 1931ko apirilaren 9a bigarren zatia.

[97] Liburuan zehar, Izquierda Republicana alderdi politikoa "IR" laburduraz adieraziko da.

ta etxez etxe arpegiko azala larros biurtuta ari dira…¿Eskoben kirtenen bildur ez al zerate? ¡Ori planta! ¿Zeñentzat autarkia, Usabiaga ala Muxika?

Biak bapez ta kito.

Gauz arrigarria, errian ez du nai iñork ere karken paperik epiñi… bildur edo… ez gaude berdin Zarautztarrakin. Arraye-pola.

Ara ba, nik zeon tokian onela banaketa egingo nuke. Entzun ondo:

Eskallerak 'Resuk'; portua ta ogiriña 'Jardinerok'; brotxa 'Isidoritok' (tamala, begi bat estalia dauka ta ezin ondo ikusiko du…) paperak 'Bateko Urre' ta bere lagunek. Bukaeran zabal zabal kalean bera abestu latiñeraz: Resurrexit sicut dixit aleluia… chue… jardi… urre… chirrin, ta guzi…

-o-

Ezkertiarrak lengo egunian emen genituan. Gizajuak lekurik ezin arkitu zuten, ta azkenik orratio billatu zuten. ta ¿nun uste dezute? Gure ikurrin baten azpian. Oste polit ura: begira goiko papertxoari irakurriaz une berian. ¡Beste biderik ez dezu!

-o-

Naiko estu ibillia izan bear du Jardineruak tripetatik, Markes'en etxian Euzko irudiak ipiñi dituztelako. Oso goitik egon nunbait, eta ezin iñolaz ere kendu. Gizajoak atakeak etortzeko 'peligruan' egon bear du… Ala bada tientuañ egon leizke aurreago esan dituzten 'txaketero' biek. Sartu giltza aboan, ortzak, mingaña urra ez dezaion.

Zirta sartu naian ibili da baserrietan esanaz 'Venimos en nombre del marqués'.

¡Pobre jardinero, mas le valía si estuviera trabajando en el jardín.

Onen kontuak oso oroigarriak ditugu, ta ona emen garbi:

Bere izena Alejo Jimeno… ¡ze abizen polita! Ba, jauntxo au Batzokian bazkide eduki gendun markesak Madrid'tik igesi egin zuten une latz aietan. Izentatu genduan 'como socio protector…' Geroxeago ordea anka eman zigun eta orain 'socio de busca votos' ezarri zaigu…

Gañera errian 'Fiscal' dago, ta jakiña da 'Hombre de respeto', ¡Au komeria! Errian dauzkagun lege gizonak oso xelebriak kontxo… Epaillaria, idazlaria, beonen laguntzalle 'Heliotropo' ta ¡Jesús! ixildu nayen. Gizon aundiak benetan.

Bitori'n daukan apaiz gaia nik uste denboraz aixa egingo dula Artzobispo… zergatik gaurko egunian Markes ta Barones oiek diru ta 'influentzi' aundiak edukitzen bai dituzte… Urte askotarako izan deiela ba.

-o-

Entzun degu gauz polita gaur. Bateonbat aspaldi ontan tripamiñez egon bear zun, eta bialdu diote lagun bati 'Diario Vasko'ko alderdi bat Getari'ko dama edo dalako ori?

Dana dala: neri bialdu baziraten papertxo ori, andra balitzake egingo nieke gonak igo umeari bezela ta epurdiko piñ batzuk eman…

Gizona bada berriz; ortzak erakutsi.

Egunak urreratzen ta estu jendea. ¿Ez alda horrela anónimo? Umekeriak dira oiek eta zoaz ikastetxera, baleike oraindik ikasteko ote dauskatzun otoitzak eta.

-o-

¡¡Erritar, gogor joka bearrian gera oraingo ontan. Ez jaramonik egin Chueca, Chirrintxon, Bateko Urre, Resurresi, Urraka ta beren antzeko txaketero oieri, ta jarai ongi Jainko ta gure aurreko Lege-Zar onari!!

-o-

¡Baserritar anaiak, zuek ere entzun ondo! Ez beldur izan zeon nagusi Markesito'ri, jarrai aurrera beldur gabe, ez dizu iñork (gu aurrean gauden bitartean) trabik epiñiko ta bota zeure iritzi Jainkozkoa. ¿Gu ez gerala eskubikoak? Ez, arrazoi dute. Gu gera Jainkozaleak eta ez eskubi masoizaleak.

¡Que se vayan al jardín los Jimenos y los Torres…

'Asmazak'"[98].

Benetako talka beraz, errepublikazale eskuindarren eta euskal nazionalisten artekoa izan zen. Euskal nazionalista eta errepublikazale ezkertiarren artean baziren haien arteko talkak ere, baina bestelakoak ziren. Azken hauek, ez ziren bozkak erosteaz arduratzen ziren pertsonak, haien mundu ikuskera eta ulerkera bera euskal nazionalisten guztiz ezberdina zutenak ziren. Errepublikazale ezkertiarrek modu oso orokorrean azalduz, ordura arteko ordena mantentzen zuten balio tradizionalekin amaitu nahi zuten bitartean, euskal nazionalistek balio tradizionalak babestu eta euskal identitatearen babesa aldarrikatzen zuten. Ezin genezake albo batera utzi, euskal identitatea ere zenbait errepublikazale ezkertiar, komunista zein anarkistek babestua izan zela. Jesus Larrañaga Euskadiko Alderdi Komunistako kidearen kasua huraxe izango litzateke.

[98] El Día egunkaria, 1936ko otsailaren 14a.



Lista de los milicianos que pertenecen á la U. G. T.

Urbano Arregui Ucin
Juan Setien Salve
Pedro Setien Salve
Luis Menal Agote
José Egurbide Aspeitia
Isidro Berasaluce Egaña
Eleodoro Viejo Aragón
José Larramendi Arreis
Antonio Garmendia Arruti
Leoncio Burgaña Echeverria
Bartolomé Aranzabal Iturraeta
José Mª Larrañaga Aranburu

Guetaria 28 de Agosto de 1.936

Getariako UGT-ko afiliatuak. (CDMH).

Esan beharrik ez dago, komunista eta euskal nazionalisten arteko talkak handiagoak izan zirela, beti ere, ordura arteko ordena eusten zuten zimentuak guztiz iraultzeko ekimena abiarazita baitzuten. Baina ez gaitezen sorgin gurpilari eragiten jardun eta goazkio Getariako errepublikazale eskuindarren eta euskal nazionalisten artean gertatutako liskar haiei argi pixka bat ematera.

Konkretuki, 1931ko ekainaren 14an kokatu behar dugu. Egun horretan, errepublikazaleek[99], Zentro Errepublikarraren irekiera ospakizuna antolatu zuten. Euskal nazionalista eta karlistak bat eginik Lizarrako Estatutua eztabaidatzen zebiltzan unea zen eta egun hartan bertan, Getariako errepublikazaleak, hurrengo kapituluan hobeto azalduko dugunez, Gipuzkoako Batzorde Kudeatzaileek deituak izan ziren. Zentro Errepublikarrak bere ospakizun propioa behar izanaz, Santiago Meabe Bilbao mitin bat emateko gonbidatu zuen. Euskal nazionalistak, errepublikazaleak emandako mitinean minduta sentitu eta udalari protesta agiri bat bidali zioten. Udalak, haien nahiarekin bat egin eta Santagi Meabe-k handik aurrera Getarian ezingo zuela sartu erabaki zuten:

"El Sr. Alcalde manifiesta a los reunidos que había convocado la sesión únicamente para tratar de los incidentes ocurridos ayer con motivo del mitin republicano y se dió lectura al escrito de protesta que ha presentado el vecindario y que dice lo siguiente:

'Ilustre Ayuntamiento de Guetaria.- Los firmantes vecinos de esta villa con debido respeto piden a su ilustre Ayuntamiento haga suya la protesta sobre lo dicho en el mitin republicano de Ayer dia 14, considerando un atropello para los nobles sentimientos guetarianos y de euskeldunes en general las palabras dirigidas al pueblo y sobre todo por lo que dijo uno de los oradores 'que debieran de ser afusilados todos los que fueron a Estella, no de frente como los hombres sino de espalda como traidores'.

Y como buenos guetarianos consideramos hacer honor y justicia a nuestro querido pueblo elevando la presente protesta en creeencia de que en lo sucesivo tomará ese ilustre Ayuntamiento las debidas precauciones para que no vuelva a ocurrir más aquel triste y vergonzoso espectaculo de ayer. -Dios guarde muchos años.- Guetaria 15 de junio de 1931.-Firmado por 36 vecinos.

Terminada su lectura se adoptaron por mayoria sin que los de la minoría señores Urbieta y Larrañaga hicieran alegación alguna de su parte, los siguientes acuerdos:

1º Hacer suya y elevar al señor gobernador de la provincia la protesta formulada y suscrita por el vecindario en masa por las palabras ofensivas pronunciadas al publico por el orador Santi de Meabe en el mitin republicano del domingo dia 14.

2º Pedir asi mismo la prohibición de entrar mas en Guetaria al referido orador por su actitud irrespetuosa y provocadora demostrada en su discurso.

3º Demostrar la gratitud de este Ayuntamiento al publico de Guetaria por la conducta observada durante el mitin del domingo, que supo escuchar con sensatez, cordura y orden, aplaudiendo a los oradores que por los términos de su expresión así lo merecían censurando y protestando con energía a los proveedores que apasionadamente trataron el herir los nobles sentimientos de este vecindario y la linea de conducta trazada por la mayoria del Ayuntamiento en orden al Estatuto Vasco"[100].

Euskal nazionalista eta errepublikazaleen arteko liskarrak, beraz, ez ziren kale kantoian geratu. Udabaltza bera ere zipriztindu zuten eta, hartaz, alderdi bakoitzaren ideologia eta programa politikoan zenbait meta ezarri zituzten eta zenbaitetan, herriko egituren inguruko proiektuak ez ezik, ospakizunak ere mugatu zituzten. Huraxe izan zen, Union Republicana alderdiko kideek 1931ko Salbatore egunean egin nahi izan zuten "berbena" baten ospakizun nahiaren aurrean gertatutakoa. Antonio Alegria Lasak, haien eskaera, udalbatzara eraman zuen eta zinegotzi gehienek ospakizunari ordutegia luzeegia medio, ezezkoa emanez, hasiera batean, bertan behera utzi behar izan zuten:

"El Ayuntamiento despues de discutido acordó por mayoria y por cinco votos contra dos (siendo estos los Srs. Ulacia y Larrañaga), denegar la celebración de la referida verbena ya despues de las doce de la noche horas, señalada para terminación de todo festejo en los programas oficiales de festejos para dichos dias y en atención a que el cierre total de los establecimientos se señala para la una"[101].

Horren aurrean, Union Republicana-ko kideak ez ziren geldirik geratu eta azkenean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ospakizuna betetzea baimendu zuen, udalbatzak erabakitakoa ezezkoa izan bazen ere; hain zuzen, udalbatzak gehiengoz erabakitakoak

[99] Ikerketan gehiago aztertu ahal ezin izan dugun arren, Getariako Zentro Errepublikarrean, eskuindar zein ezkertiar errepublikazaleak biltzen zirela pentsa genezake.

[100] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-06-15.

[101] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-08-04.

baino botere handiagoa zuen Gipuzkoako Gobernadore Zibilak berak bakarrik. Ospakizuna behatzeko, Getariako bi mikeleteak eta Zarautzeko postuko bi Guardia Zibil ezarri zituen:

"Por fin, el mismo dia siete y a las diez y nueve horas llegó a la alcaldia el siguiente telefonema: 'El Gobernador Civil a Alcalde.= Ruegole comunique Unión Repúblicana queda autorizada celebración verbena terraza dicho centro dia 8 y 9 actual desde once a dos de la madrugada'

La alcaldia seguidamente se puso al habla por teléfono con el Sr. Gobernador Civil haciendole ver el acuerdo que anteriormente habia tomado la Corporación y sus fundamentos; pero sin conseguir que fuera revocada la orden que queda transcripta"[102].

Antonio Alegria Lasak Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren ordena bete bazuen ere, momentuoro udalbatzak hartutako erabakia ukatu eta Gobernadore Zibilak bere nahia inposatu zuela adierazten saiatu zen. Haren kexu, udalbatzaren gehiengoarekin bat eginez, Gobernazioko Ministroari haien kexua bidaltzea erabaki zuten:

"(…) que recibida la orden contraria del Sr. Gobernador Civil no quedaba mas remedio que darla cumplimiento como se ha hecho, pero pide a la Corporación acuerde que conste en el acta de esta sesión haber visto con sentimiento que el Gobernador Civil la haya desautorizado en un asunto que sin ser ni mucho menos de capital importancia, tanto puede contribuir a que desmerezcan las buenas costumbres de la villa y a ocasionar alteraciones del orden público.

Añade por fin, que él personalmente y como Alcalde de Guetaria está satisfecho de haber cumplido con su deber.

El Ayuntamiento acepta de buen grado todas las gestiones de la Alcaldía, compartiendo con él los sinsabores que le hayan producido y acuerda elevar a la consideración del Sr. Ministro de la Gobernación la oportuna protesta contra los atropellos cometidos con la Alcaldia y aún con el Ayuntamiento"[103].

Talkekin jarraituz, 1932ko irailean, Niceto Alcalá-Zamora Bigarren Errepublikako presidenteak Euskal Herrira egindako bidaian zehar, Donostian udalek egindako ongi etorrirako inork ez ziotela abisatu salatu zuen Alegria alkateak[104]. Ulazia errepublikazalea beraiei abisua "oportunamente" eman zietela argudiatuz justifikatu zen. Getarian bertan arku bat ezarri zioten, Niceto Alcalá-Zamora Bigarren Errepublikako presidenteari, girnalda eta loreekin bertatik pasa zedin.

Liskarrek ez zuten etenik eta zenbaitetan, udalbatzan bertan erabakiak hartu ordez, egunkariak erabili zituzten egin beharrekoa plazaratzeko. 1933ko urriaren 19an esaterako, portuko garbiketaren inguruko zenbait eskakizun, egunkarien bidez egin eta udalbatzan ez baieztatu izanaz kexatu zen Alegria Getariako alkatea. Modu horretan, udalbatzak hartarako nahirik ez zuela adieraztea nahi zuela ematen zuela esan zuen, eta haien nahia beraienarekin bat zetorrela:

"Por ultimo el Sr. Alcalde propone que se adopte acuerdo conforme propuesta en la anterior sesión relativo a la petición de mejoras del puerto, y despues de un pequeño debate en el que se ha aludido a que, segun la prensa diaria, han elevado la petición de estas mejoras en nombre del centro y minoria Republicana, como dando a entender, al no dirigirse al Ayuntamiento, que este es opuesto a dichas mejoras cuando es todo lo contrario y entendiendo que quien representa al Municipio y sus intereses es el Ayuntamiento, y por lo tanto la entidad competente para promover la petición, se acuerda por unanimidad, dirigir al organismo competente la oportuna solicitud de mejora del agrado y limpieza del puerto y prolongación del mismo de defensa y facilitando al Sr. Alcalde para entregar en persona dichas peticiones al organismo provincial encargado del ramo"[105].

Kale izendegiekin ere zenbait arazo izan ziren. Getariako udal-gobernu errepublikazale eskuindarrak, 1935eko abuztuaren 17an, herriko plazari, Juan Usabiaga Alderdi Errepublikazale Erradikaleko kidearen izena ematea adostu zuen. Horren aurrean, euskal nazionalistak ez ziren ados jarri eta Euskal Udalen Mugimenduan udaletik espultsatutako alkate eta zinegotziek beren kargua hartu zutenean, zenbait getariarrek Usabiagaren izena kentzeko eskaria egin zuten, bai udalean eta baita El Día egunkari abertzalean ere errepara genezakeenez:

"GETARI'TIK

Aspaldi ontan zai-zai geunden lasai aldi apur bat artzeko, ta ona emen hainbeste maite dugun 'Erriaren Abotsa'.

Igandean berriro igo ziran gure ziñegotziak, aldundegira, ta eundako poztasuna une berean igaro genuan. Alkatetza artzerakoan besteko 'bat' bakarrik azaldu zan, ta nik ez dakit ondorengo jestoreak lo zorruak artuta oyean gelditu ote ziran Edo, baleike 'sorpresa' orrek ondoezen bat eman da…

¿'Kalmantia' sendagilleak agingu ez ote zioten? izan ere 'pena' artzekua da, gogoraturik orain ez dutela len ana 'mokao' goxo jango, 'entre homenaje' ta gañerantzeko pestakin… tira ba, nire nairik aundiena izango litzake jarraitzia osasun onakin, horrela 'pelotako' indar geigo izan dezazuten.

Orain agintzen jarri diranari ere ikutu bat eman nai nieke. Erriak aukeratuak zerate, ta komeni da berak nai duena ontzat artzia. Lan da lan, txindiak ez du kutxan egon bear alperrik, baizik beartsuari laguntza eman azita ori da egizko erriaren gogoa.

[102] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-08-11.

[103] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-08-11.

[104] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-09-13.

[105] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-10-19.

Komeri polita ikusiak gera igande illuntzean. Jende pilla aundi bat nola ezker nola eskui juan ziran Udal Etxera Alkatearen billa, ta esan zioten erriaren nairik aundiena izango litzakela Enparantzako 'plaka' kenduerazita. Erantzun zioten itzegingo zula hurrengo batutzen ziranian eta guzion naia komeni bada beteko zala. Izan ere, ¿ez da zerbait egitekoa? Asko eskeñi, ta gutxi edo bapez eman. Gure erriak izan dituan laguntzallerik aundienak ziran Kalbeton, Zendoya, Aldamar zarra ta abar. Baña jaun ori… nik ez dakit zer buruz bide izan zuten. baziran bai pranko, txapela ere kendu zutenak 'ojaletari' estalkiak kendu zizkiotenean… ta orain eurak dira aurkako amurru geyekin daudenak. Ala ere, bazan bete bat naiz buru sagi ibilli bere orduan eskutatu ta anka eman zuna. Ez da orrelakorik egin bear, beti kemen aundiakin jarrai bear da ekin dako lan garrantzidunari, ta ez izutu, ta beste alderuntz iges egin.

Dana dala, gu 'kontentu' giñan igande goizean ostera ikusi gendunian geren ikurrin biak Batzokian eta Udaletxeko balkoian. Aurrerantz jarri bedi komeri politak ikusten ditugu errain. Jauntxo eta señora oiek artu zuten 'taupadak' egundako atzealdia eman diote… Alegia, igande ontan uste degu gutxigo sasisatu bearrian izango dirala.

Begira argi ta garbi 'Casa Torres'ko Marques izandako sendiak zer egin zun:

Etorri onera berebillan, autarkia eman eta berari agur egitera izan ziran jauntxoari esan zion 'Adiós, hasta la vista, ahora vamos a San Juan de Luz por si ocurriera algo'.

Oraindik an egon bear dute, eta etortzeko beldurrez noski, Jimeno gajua orregatik orain geldi çamar arkituko da… Aspaldian etxe aldian du apalagaia, ta baleike beorrek galeraztia nabarmenkeri ori (…)"[106].

Martxoan, oraindik ere, Juan Usabiagaren izenpean jarraituko zuen plaza nagusiak.



Niceto Alcalá-Zamora 1933an Lasarten. (Pascual Marin Funtsa).

[106] El Día egunkaria, 1936ko otsailaren 28a.

2.8. AUTOGOBERNUAREN DEFENTSA

2.8.1. Lizarrako estatutua

1931ko apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zenerako, euskal nazionalismoa gori-gorian zegoen. Herri mugimendu zein politikari nazionalistek, euskal nortasuna eta lurralde eskubideak berretsiko zituen estatu baten aldeko hautua egin zuten. Horrez gain, gizonezkoak soldaduskara joatea ere ekidin nahi izan zen, ordura arte, euskal gizonek ez baitzuten Espainiar Estatuan soldaduska egiteko betebeharrik.

Lehen pausoa, 1931ko apirilaren 17an EAJ/PNV-k Gernikan deitu zuen bileran burutu zen. Hain zuzen, honakoaren helburu nagusiak, Euskal Errepublika Federalaren aldarrikapenean zetzan, baina Estatu Espainiarreko indar polizialek hau ez gauzatzea erabaki zuten. Horren aurrean, Azpeitia, Getxo, Laudio eta Zangozak, Alkateen Batzorde Iraunkorra eratu zuten, Jose Antonio Agirre Getxoko alkatea haren buru nagusi izendatuta.


Getarian, Bizkaian gertatutakoaren jakitun, 1931ko apirilaren 18an hartutako erabakiak, udal-korporazio berriaren euskal nortasuna berretsi egin zuen. Antonio Alegria Lasak, getariarrek hautatutako alkate berriak, Euskal Errepublika konfederatuaren aldeko aldarria gauzatu zuen, zeinak Euskal Errepublika gainontzeko Errepublika Iberiarren barnean kokatu zuen:

"Seguidamente fueron adoptados los siguientes acuerdos:

(…) El Sr. Alcalde propuso que pareciéndole propicio el momento, se reclame del Gobierno provisional republicano la proclamación de la República Vasca, confederada con las demás Repúblicas Ibéricas.

Acepta la proposión del Sr. Alcalde D. Cecilio Idiaquez, rechazando los demás por estimar que se debe de apoyar la República Española"[107].

Zinegotzien artean, alkate abertzaleak egindako lehen aldarrira, Cecilio Idiakez Indo abertzalea batu zen. Euskal identitatearen babespenaren beste adibide garbia, 1932ko urtarrilean, udal-batzaren gehiengoaren akordioz, Bigarren Errepublikako Niceto Alcalá-Zamora presidentearen argazkia errefusatzeko erabakia izan zen:



Antonio Alegria Lasak Euskal Errepublika konfederatuaren aldeko aldarria. (GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-04-18).

"Acto seguido el Sr. Alcalde dio cuenta de haber recibido su petición y contra reembolso de 10 pesetas un retrato de Exmo. Sr. Presidente de la Republica y propone al Ayuntamiento resuelva si se ha de adquirir o devolver y despues de discutido acordo por mayoria y con votos en contra de los señores Ulacia, Larrañaga y Urbieta, devolver dicho retrato y acordo tambien, por unanimidad adquirir una bandera nacional que reuna debidas condiciones, por encontrar en mal estado los anteriores"[108].

1931ko apirilaren 18an ordea, gainontzeko zinegotziek, Alegriak eta Idiakezek ez bezala, lege ezarri berriari jarraiki, Euskal Herriak, Estatu Espainiarraren barne egon behar zuela eta haren legedia zentralari so egingo zuela adierazi zuten. Gertatuak gertatu, handik ia urtebetera, 1932ko apirilaren 5ean, Antonio Alegriak, Getariako udaleko balkoian, bandera errepublikarraz gain, ikurriña ezartzea erabaki zuen[109].

Gauzak horrela, 1931ko maiatzaren 12an, Getariako udala, Azpeitia, Andoain, Bergara eta Zumaiako udalek egindako apustuari batu zitzaion. Hauek, euskal lurraldeetako autonomiaren defentsa antolatu eta zehazki, Gipuzkoako Estatutua idaztearen ardura lurralde horretako udalek izango zutela adierazi zuten, aurretiaz egindako Eusko Ikaskuntzaren idatziaz baliatuz:

"Luego se dió cuenta de una moción presentada por el Sr. Alcalde, de que se adhiere el Ayuntamiento a la campaña de municipios iniciada por los alcaldes de Azpeitia, Vergara, Andoain y Zumaya en pró de la autonomia Vasca y que el Estatuto Guipuzcoano de Autonomia sea redactado por los Ayuntamientos previo un primer estudio por la Sociedad de Estudios Vascos.


Despues de discutido se aprobo por votacion y por 6 votos contra tres la moción de referencia, siendo los tres, Sr. Ulacia, Larrañaga y Urbieta que se discrepan por opinar que de momento no procede crear organismos partidarios que le puedan restar fuerzas al Gobierno Constituido"[110].

Garai hartan, Euskal Estatutuaz arduratuko ziren Gipuzkoako Aldundiko Batzorde Kudeatzaileak gobernu zentralaren menpean zeuden. Horregatik, euskal nazionalistek, udaletan zuten boterea probestuz, Gipuzkoako Aldundiko Batzorde Kudeatzaileei muzin eginez eta udaletan zeuden euskal nazionalista zein tradizionalisten artean babestuz, Eusko Ikaskuntzaren Euskal Estatutuaren proiektua babestea adostu zuten.

[107] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-04-18.
[108] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-01-05.
[109] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-04-05.
[110] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-05-12.

Getarian ere, bazegoen ordea, aurreko lerroetan erreparatu ahal izan dugunez, Gipuzkoako Batzorde Kudeatzaileen Euskal Estatutua osatzearen aurka agertu zenik. Haien artean, Unión Republicana-ko Julian Larrañaga Aranburu, Julian Ulazia Unanue eta Getariako Unión Republicana elkarteko presidentea eta udaleko zinegotzia zen Primitivo Urbieta Embil zeuden.

Hiru zinegotzien ezezkoak ez zien atzerapausurik suposatu Eusko Ikaskuntzaren Euskal Estatutua babesten zuten Getariako zinegotziei. Hartaz, 1931ko ekainaren 9an, Getariako udalbatzak, Eusko Ikaskuntzak argitaratu berri zuen Euskal Estatutuaren aurreproiektua eztabaidatu zuen:



Euskal Estatuaren aldeko apostua. (GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-05-12).

"Inmediatamente el Sr. Alcalde dijo que habiendo publicado la prensa el anteproyecto del Estatuto Vasco redactado por la Sociedad de Estudios Vascos y recibido tambien un folleto editado por dicha Sociedad y que dada la transcendencia del asunto ha dispuesto que solamente se trate sobre su estudio y discusión en la sesión de hoy.

Seguidamente se dio lectura de una comunicación de la Comisión Gestora provincial convocando al Ayuntamiento para que acuda el domingo proximo dia 14 a la asamblea de municipios convocada para el estudio y discusión del anteproyecto del Estatuto Vasco. Se dio lectura así mismo de otra convocatoria hecha por los Alcaldes iniciadores de la Campaña pro Estatuto Vasco convocando a una reunion con el mismo objeto que tendra lugar en Azpeitia el dia 11, y como quiera este Ayuntamiento se halla adherido a dicha Campaña de municipios acordo asistir a la Asamblea de Azpeitia del dia once.

Seguidamente se dio lectura al referido anteproyecto del Estatuto Vasco, discutiendo despues de una amplia explicación e interpretacion, capitulo por capitulo.

Terminada su lectura, y despues de amplia discusión acordo proponer las enmiendas siguientes:

1º al articulo tercero en sentido de que los que no son naturales u oriundos del Pais no puedan gozar de los derechos políticos hasta una residencia ininterrumpida de 10 años.

2º Al Articulo 15, en sentido de que el Estado Vasco recabe la facultad sobre la materia religiosa para formar Concordato con la Santa Sede.

3º Sobre la soberania del Estado Vasco que ha de ser reconocido en todo lo que no este limitado en el Estatuto presente.

4º Al articulo 7 sobre la enseñanza y lenguas en sentido de que las regiones euscaldunes sea el idioma Vasco como vehiculo de enseñanza con cursos en castellano y que en las regiones de habla castellana sería esta de vehiculo de enseñanza pero que se de cursos de ninguna.

Con tanta se dio en conformidad al referido anteproyecto y acuerda procurar su implantacion"[111].

Handik bi egunera, Antonio Alegria Lasa alkateak, Jose Gaztañaga udal-idazkariarekin batera, Azpeitian egindako udalerrien bilkurara egin zuen. Bertan, gainontzeko udalen ordezkariekin batera, Getariako udalak, Eusko Ikaskuntzaren Euskal Estatutuaren aurreproiektuari egindako emendakinak aurkeztu zituen.

1931ko ekainaren 13an, Getariako udalak, hurrengo egunean Lizarran bertan konbokatutako euskal lurraldeetako hegoaldeko lau herrialdeetako udalerrien bilkurara joatea erabaki zuen. Bertan Euskal Estatutua eztabaidatu eta onarpen bidean jartzeko asmoa zegoen. Getariako Ulazia, Larrañaga eta Urbieta zinegotzi errepublikarrek, hara ez zutela egingo adierazi zuten. Ez joateko arrazoien artean, alde batetik, Gipuzkoako Batzorde Kudeatzaileak konbokatutako Euskal Estatutuaren eztabaidara joango zirela zegoen; bestetik, egun horretan bertan, Union Republicana-ko elkartea irekitzen zen[112].

"Gipuzkoar'ak, Later'i ber'ia nola antolatu erabakitzeko ta Later'i ori osatu bear duten er'iak oñar'i izan bear duten lege nagusia emateko, Madrid'eko Batzar'a aukeratzera guaz. Andik sortuko dan Legediak, ona ala txar'a izan, gure er'iari aur'era ala atzera egin eraziko dio, naitanaiez.

Er'i biziak, beren eskabideak egiteko deia entzun duten unean, Euzkadi'ri Euskaler'iari dagokionez antzin gogo sendoaren abots indartsua jasotzeko garaia degu.

Udalen deiari guziak bat egiñik erantzunaz, gure er'ia jaiki zan. eta une onen indar berezia oi bezin argiz nabaiturik, er'iak berak aututako Euzko Udalen gain utzi zuan Euzko-Later'iaren Araudia ontzat artzea. ¡Udalak baitira er'iaren ordezkaririk egoki ta bidezkoenak!

Euzko Araudia osatu da. Azpeiti'n guziok dakizuten eran, abo batez goratu zuten 81 gipuzkoar Udalek. Eta gero, Lizar'a'ko egun oroigar'i artan, Euzkadi'k jator'iz ta legez iñori baño eskubide sendoagoz dagokion azkatasun bidean egindako eskabiderik zuzenena zala aitortu zuten, era berean, 485 euzko Udalek.

[111] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-06-09.

[112] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-06-13.

Euzko-Araudiaren alde aritzea, gurasoakandik datorkigun Sinesmen bakar'ari eusteko. Euskaler'iak duan eskubide argiaren alde jardutea añaxe da beraz, gañontzeko españar er'iarekin biotzez baturik bizitzeko bear'ezkoak ditugun politika-azkatasun guden alde ekitea añaxe.

Gipuzkoar-alkate-bazkintza izan da. Alderdi guzien gañetik jar'irik, beren gogo, adimen eta abertzaletasunaganak, Batzar-Eratzale aietan, Gipuzkoar ordezkari ta Lizar'a'ko Araudi aldezle bidartsu izan zitezken itzal aundiko gizonak bilatzeko lan zail bezin aintzingar'ia izan duana.

Gure alkateen juan-etor'iak, biyarko (…) agindu bezela, gurenda sorterik eder'ena eskeñi digute.

Ara, gipuzkoar'ak, gure erkiak bear zituan aldungaiak. Ez gatoz zuen laguntza eske, Euzko-Araudi aldezko euzko aldungaiak zuen begiko dituzutela, ta beren alde, bero, sutsu, kementsu zaudetela bai-baitakigu.

Ona gai oen izenak:

PILDAIN'dar ANDONI j.

URKIJO'tar JULI j.

PIKABEA'tar ER'APEL j.

LEIZAOLA'tar JOSU MIRENA j.

¡Gipuzkoar semeok, zuen gizonak oek dituzute!

¡Gure er'i maitearen ordezkaririk egoki ta jator'enen alde autarkia eman eta sendoro lan egin! ¡euskaldun guziok bat egiten gaitun ikur'itz deunagatik! JAUNGOIKOA ta LEGE-ZARA'gatik! AUTES-BAZKINTZAK"[113].

Lizarrako eztabaidan, Eusko Ikaskuntzak 1931ko maiatzaren 31n aurkeztu zuen Euskal Estatutuaren Aurreproiektuak, tradizionalista eta abertzaleen aldetik erreforma esanguratsuak jaso zituen. Horren eraginez, Euskal Estatutua espainiar Gorteetan bi bloketan defendatu zuten: alde batetik, abertzale eta tradizionalistek, euskal lurralde konfesional baten aldeko hautua egin zuten eta bestetik, errepublikazaleek, euskal lurralde federal eta laiko baten aldeko hautua.

1931ko uztailaren 15ean, Getariako ohiko udalbatzan, Gipuzkoako Aldundiko Batzorde Kudeatzaileek egindako Euskal Estatutua[114] irakurri zuten, zeina Ulazia, Urbieta eta Larrañagak baino ez zuten babestu. Gainontzeko zinegotziek, Eusko Ikaskuntzak eginiko aurreproiektua eta Lizarran hari egindako emendakinen Euskal Estatutuari atxiki zitzaizkion, Batzorde Kudeatzaileena besterenduz:

"Azkenik, Euskal Nafar Estatutuaren proiektua osorik irakurri zen, Batzorde Kudeatzaileak egina eta udal honetako gutxiengoari igorria, eta udal hau gehiengoz Eusko Ikaskuntzak egindako eta Lizarrako Batzarrean egindako aldaketekin onartutako Estatutuari atxikita dagoenez, erabaki zuen estatutu horri atxikitzea, gutxiengoaren aurkako botoekin (Ulazia, Urbieta eta Larrañaga, Kudeaketa Batzordearen Estatutua osorik onartzen dutenak"[115].

Guztira, Lizarrako Estatutua izenez ezagutuko zena, estatutuaren aldeko mugimenduko Hego Euskal Herriko 520 udaletatik 480 udalek onartu zuten[116]. Bitartean, Madrilen, Bigarren Errepublikaren legeztatzea martxan zen, hura 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zenetik. Hori jakinik, eta zehazki, estatuak, estatuaren eta erlijioaren eskumena gobernu zentralaren eskumenean utziko zuen 14. artikulua eztabaidatu aurretik, Lizarrako Estatutuaren babesleak ziren zinegotziei, Madrilera euskal lurraldeen nortasuna defendatzera joateko deia egin zitzaien:

"Seguidamente el Sr. Alcalde dió cuenta de una carta circular de la campaña municipal pro-Estatuto-Vasco, que representan los alcaldes de Sangüeza, Guecho, Azpeitia y Llodio, invitando a que para mayor solemnidad del acto de entrega al Gobierno del Estatuto Vasco aprobado en Estella, acudan a Madrid todos los Alcaldes del País para mayor brillantez del acto, a cuyo fin participa la organización de trenes especiales a precios excepcionales y asequibles a todo Ayuntamiento.


Gipuzkoarrei deia

Ona gai oen izenak:

PILDAIN'dar ANDONI j.

URKIJO'tar JULI j.

PIKABEA'tar ER'APEL j.

LEIZAOLA'tar JOSU MIRENA j.

¡Gipuzkoar semeok, zuen gizonak oek dituzute!

AUTES-BAZKINTZAK

Gipuzkoarrei deia.
(El Día egunkaria, 1931ko ekainaren 23a).

[113] El Día egunkaria, 1931ko ekainaren 23a.

[114] Estatutu honek, Hego Euskal Herria bere baitan hartzen zuen.

[115] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-07-15.

[116] BUCES CABELLO, J. 2016. Azpeitia 1936-1945: *Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan.* Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia, 35.or.

El Ayuntamiento acuerda por mayoria y seis votos contra tres, siendo estos últimos los Srs. Urbieta, Ulacia y Larrañaga, designar al Sr. Alcalde Don Antonio Alegria para que el dia que señale la comisión referida traslade a Madrid al objeto expresado"[117].

Hartaz, irailaren 22an, Antonio Alegria Lasa alkate getariarra, Hego Euskal Herriko gainontzeko 419 alkaterekin, Lizarrako Estatutua Niceto Alcalá-Zamora Bigarren Errepublikako presidenteari eramateko, Madrilera bertaratu zen. Euskal Estatutua, hilaren 25 eta 26an Gorteetan eztabaidatu eta, errefusatu egin zuten. Hartarako arrazoi nagusia, Lizarrako Estatutuak euskal estatu konfesional baten aldeko aldarria egin bitartean, gobernu eratu berriak, laikotasunaren aldeko apustua egin izana izan zen. Beraz, Getariako udalak aho batez onartutako Lizarrako Estatutua bertan behera geratu zen.

2.8.2. 1932ko Gestoreen Estatutua

Bigarren Errepublikako gobernu berriak Lizarrako Estatutua atzera bota izanagatik ere, Euskal Estatutuaren defentsan jarraitu zuten zenbait botere politikok. Oraingoan, zehazki, errepublikazaleek Probintziako Batzorde Kudeatzaileen bidez, Euskal Estatutuaren ideia politikoa berreskuratzeari ekin zioten. Tradizionalistak, joera ezkertiarreko Euskal Estatutuaren kontra agertu ziren. Izan ere, estatutu berri hark, euskal estatua konfesionala izateaz besterentzeaz gain, "Euskal Estatua" terminoa ere bertatik kentzen zuen.

1932ko urtarrilaren 19an, Getariako udalera, Gipuzkoako Batzorde Kudeatzaileen gonbita bat iritsi zen. Bertan, Getariako udalari, Donostian ospatuko zen Euskal Estatutuaren bilerara dei egiten zitzaion. Bilera hartan, Hego Euskal Herriko lurraldeentzako estatutu bakar bat edo probintzia bakoitzarentzako ezberdin bat behar zen determinatuko zen. Hala, Getariako udalak, Hego Euskal Herriko lau lurraldeentzako estatutu bakar bat defendatu zuen eta hautu hura, 1932ko urtarrilaren 31n, Donostian, Foru Aldundiko jauregian Antonio Alegria Lasa Getariako alkateak defendatu zuen[118]. Han, Hego Euskal Herriko lau probintzietarako estatutu berri bat diseinatu eta hango herritarren eskubideak defendatuko zituen udalen bilgune bat eratzea proposatu zen. Hartaz, lau euskal probintzietarako proiektu berri hura egitea erabaki zen.

1932ko martxoaren 21erako, Probintziako Batzorde Kudeatzaileek Euskal Estatutu berria prest zuten. Hasiera batean, hura eztabaidatzeko, maiatzaren 22an Iruñeako Gayarre antzokirako gonbita zuten euskal udalerriek. Getariako udalak, aho batez, Genaro Basterretxea hautatu zuen Euskal Estatutu berriaren alde bozkatzeko. Azkenean, bileraren eguna luzatu eta ekainaren 19an ospatu zen aurreko lerroetan aipatu Iruñeako Gayarre antzokian. Bilera hartara, Antonio Alegria Lasa Getariako alkatea eta Genaro Basterretxea Santamaria bertaratu ziren Euskal Estatutu berriari baiezkoa emanez eta Nafarroako udalerrien gehiengoak Euskal Estatutuaren aurka ageri izana atsekabez hartuz[119]. 550 udalerrietatik, 354k proiektu berriaren aldeko botoa eman zuten[120].

Nafar eskuindarrek, Nafar Estatutuaren aldeko hautua egin zuten eta horrenbestez, hiru probintzien aldeko hautua egin beharrean gelditu ziren gipuzkoar, bizkaitar eta arabarrak. Zenbait arabar politikarik, atzera egin zuten gipuzkoar eta bizkaitar indarrekin estatutu bat osatzearekin, izan ere, nafarren laguntzarik gabe bi hauen nagusitasun industrialak botererik gabe utziko zituela uste zuten. Arazo hau medio, Euskal Estatutuaren aldeko mugimenduak bere etenaldia izan zuen.

2.8.3. 1933ko azaroaren 5eko Euskal Estatutuaren inguruko Erreferenduma

Euskal lurraldeetako agintariek bere horretan jarraitu zuten, haien eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak onartuko zituen Euskal Estatutu baten sorkuntzan. 1933ko maiatzean, Bilboko udalak, Probintziako Batzorde Kudeatzaileari azken Euskal Estatutua udalen onespenera pasatzeko eskatu eta hura erabakitzeko erreferendumak martxan jartzea adostu zuen[121].

1933ko uztailaren 30ean, Probintziako Batzorde Kudeatzaileek, hiru euskal lurralde historikoak barne hartzen zituen Euskal Estatutua bozkatzeko erreferendumaren aldeko deia egin zuten. Hala, 1933ko abuztuaren 6an, Gasteizen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrietako ordezkariak Euskal Estatutua ikuskatzeko, emendakinak egin eta estatutua onartzeko bildu ziren. Getariako udaletik, Antonio Alegria Lasa alkatea bertaratu zen. Estatutuak euskal lurraldearen babeserako ez ezik, euskararen eta bertan bizi ziren biztanleen babeserako balio behar zuen, Idiakezen defentsako aldarri honek erakusten duen gisan:

"¡Idiakez…!

¡EUSKERA! ¿NUN DIRA ZURE SEMEAK? Euskotar'ak beren buruaren jabetasuna galdu ezkeroztik, hamaika lotsagarikeri gertatu da euskotar'en artian.

Diote, Euzkadik azkatasuna galdu zuela 1839gn. urtean. Egia da; bañan gure Aber'ia aspalditikan zegon españatar'en menpean.

Izkuntzaz iñor etzan oroitzen, bastertua zegon, ez jakiñen ezaugar'i bat baño etzan. Udaletan, sal erosle eta abar españeraz itz egiten zan, gaizki bada ere: galdua zegon ba eusko izakera guztia.

---

[117] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1931-08-25.

[118] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-01-19.

[119] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1932-06-21.

[120] BUCES CABELLO, J., op.cit., 35.or.

[121] ARITZABALETA GANTXEGI, I. 2019. Deba 1936-1945: *Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan.* Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia, 48.or.

Españar'ak edo españolistak (orain lez) ziran er'i onen jabe: berak erabiltzen zituzten emengo gora berak. Aiek nora nai, ara Aber'ia; gorputz ilaren antzera; ala baizan.

Aber'i bat azkatua izan ar'en izkuntzarik gabe gorputz ila da; gogoa (alma) ila bai dauka eta azkatzia ezin izan eta jakiña bestek ibili bear eskutik.

Eta…Aber'i ori lentxio edo geroxio erori egin bear, eta nai ta naiez gogoaren 'dominadoriak' nai duten aldera erori bear.

Galdu zuan Euzkadi'k askatasuna. España ordu arte arpegia estalirik etortzen ba zan ere, sartu zan aur'ez aur'e, ausarditsu eta gogorki.

Euskotar'ak lo zeuden, 'dominadoreak' egiten zuten guztia, burua makurturik artzen zuten… Ir'intzi bat jaurti zan España aldian: ' il da Euzkadi"'

Bañan… 'Euskotar'ak jaiki! Euzkadi da euskotar'en Aber'ia' entzuten da Euzkadi'ko txoko batean.

Arana Goiri'tar Sabin, izandu da ir'intzi or'ekin Euzkadi estaltzen ari ziran autsak aztindu zituana.

Argi eta garbi kusi zuan Aber'ia'ren zoritxar'a: bildu ere bai bere sustraia eta asi zan Aber'i lanketan.

Laister da espetxian… ¡il zuten!... bañan abertzaletasuna bikain jaikitzen da.

¿Nola ez ba? On ar'i sendoaren gañian sortu baita. Il da zegon Euskera maitea, piztu zuan, ez eder'a zalako, baizik Aber'iarena zalako, bada berak esan eban: 'Aber'iaren izkuntza maite ez duanak ez da Aber'irik maite'.

Eta eldu gera gaurko egunetara. Abertzaleak piloka omen gera. Abertzaleak (Aber'ia maite dutenak) alde guzietan nagusi.

¿Eta nun da Euskera?

¿Eta nun da Euskera?

¿Arana Gori'tar Sabin'ek, kalera joan da bilatu ez, eta mendian galduta zeuden basar'ietan arkitutako izkuntz maitagar'i ura nun da?

¡Ai!... Santoña deitzen dioten España'ren bastertxo batean. ¡Antxe dago euskoen gogoa (alma)! Giltzapean gizon gaizkile eta galduak egon oi diran toki zoritxar'eko or'etan.

Españiak Euzkadi'ri egin dion zauririk aundiena oraingoan egin dio bada lehenago gogoa (alma) zaurituta utzi du.

Gorputzaren yaputasuna lotsagar'iteria bada eta onen aurka jaikitzen bagera, gogoaren yaputasuna ezin eraman gentzaguke!

¡Beraz, eldu da garaia! Abertzaletasunik badago, garaia da azaltzekoa.

Ez Idiakez abertzalia dalako, baizik Euskeraren irudi bizia degulako.

¡Beraz, Euskeragatik!

¿Zertarako dogu Araudi edo Estatutoa?

¿Zertarako Askatasuna ber bera, baldin Aber'ia'ren gogo edo anima bestean menpean badaukagu? Euskadi gorputz ila izango litzake, eta edozeñek naiduan tokira eraman lezake.

¡Beraz, abertzaleak! (…), biotzez eska dezagun: Idiakez'en auzi ber'itzea! Idiakez'en azkatasuna!

Idiakez espetxean dagon bitartian ezin genezake España'ri beste eskubiderik 'reklamatu'.

Aber'ia bai, bañan gorputz eta gogo azkatuekin.

¡Euzkadi Euskerarekin!"[122].

Erreferenduma, 1933ko azaroaren 5ean ospatu zen, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetan baiezkoa nagusitu zelarik. Estatu Espainiarrean, euskal emakumeak izan ziren Konstituzio Errepublikarrak onartutako haien bozka ematen lehenak.



Emakumeak Euskal Estatutua bozkatzen.
(Indalecio Ojanguren Funtsa, Gipuzkoako Artxibo Orokorra).

[122] El Día egunkaria, 1933ko abuztuaren 24an argitaratua.

1933KO AZAROAREN 5EKO ERREFERENDUMAREN EMAITZAK GETARIAN

HAUTESLE KOPURUA	ALDEKOAK	KONTRAKOAK	ZURIAK	BALIOGABEAK
993	983	6	0	0

Getariako udala pozarren agertu zen emaitzak ikusi ostean eta herriko musika banda Getariako kaleak alaitzera irten zezan adostu zuen:

"(…) al objeto de enterar y estar al corriente del resultado del plebiscito verificado hoy para la aprobación del Estatuto Vasco, y habiendo llegado noticias satisfactorias que hacen presumir el triunfo o sea votación necesaria para la aprobación del mismo, propuso para la presidencia y se acordó por unanimidad que se toque la musica por la noche para que el vecindario comparta con el regocijo, y se envien telegramas de felicitación a las autoridades dirigentes del Plebiscito, con lo que la presidencia levanta la sesion, de que certifico"[123].

Herritarren artean bazen ordea, Euskal Estatutu berria onartzen ez zuenik ere:

"DESDE GUETARIA
NUEVOS TRIUNFOS ESTATUTISTAS

Guetaria, 6 de Noviembre de 1933.

Sr. Director de LA CONSTANCIA

Admirado amigo y correligionario: Ante todo debo felicitarle por su calurosa y valiente campaña contra el Estatuto Vasco, bien cierto que de llegar a la realidad, habrán de cumplirse las profecías que usted ha hecho públicas en la prensa, en día no lejano.

Para que sepa su digno periódico LA CONSTACIA, el plebiscito del día 5 del corriente en esta localidad, le dirá que adoleció de la misma insinceridad que la de los demás pueblos de la costa, tal cual lo presumíamos, pues arrojó nada menos que el ¡99 por 100!! Del censo en pro del estatuto.

Es decir que en Guetaria ese día resucitaron todos los muertos del año, recobraron la salud todos los enfermos, los ausentes, por mano de ángeles se encontraron frente a la urna, y hasta el mismo Idiaquez obtuvo un salvo conducto que le sacara de la cárcel y le permitiera depositar en el bombo su papeleta, pro Estatuto. ¡Ah! Tampoco hubo abstenciones. Todos los abstenidos estaban practicando el ayuno encerrados en la urna de cristal.

No tenía esto nada de particular al figurar en la Mesa como interventores, los muy conocidos separatistas don José Oquiñena, Antonio Ituarte, Antonio Aramburu, Lucas Alegría, Crescencio Silveti, José Mª Egaña y José Agustín Aizpuru, componentes de los Colegios de las Escuelas municipales y de la Casa Albergue de los pescadores.

Después de conocido el resultado del escrutinio local que fué próximamente a las seis de la tarde, en nota ligera, sin saber la general que debió partir de la Parroquia, se voltearon las campanas de la iglesia, cantándose acto seguido un Te Deum, terminando con el Iñaki…

Decíamos nosotros ante tanta ligereza, ¿qué tendrá que ver una solemnidad religiosa para celebrar una cuestión eminentemente política?

Pues todo esto fué, señor Director, lo que aconteció en esta localidad, que no dejará de ser un triste recuerdo para los anales de la historia del país vascongado.

Entretanto le admira este su afmo. amigo y correligionario que le saluda.

El Corresponsal"[124].

Euskal nazionalistek ere, haien estatutuaren aldeko aldarria eta mezu horren aurka El Día egunkarian, 1933ko azaroaren 15ean idatzi zuten. Haien guztien ordezkaritzan Antonio Ituartek idatzi zuen:

"Getari'tik

¡GORA ARAUDIJA!

Uri onetan, beste er'ijetan bezela abertzaleak egin degu bihar'a ugari, araudijaren alde; ikusirik nola baser'itar jator'ak, gizon da emakume azaldu ziran beren auteskundia emanaz gozamen aundiarekin. ¡Gogor egin zan da ondo erten!

Getaritar'ak argi eta garbi agertu degu zer nai degun. Aur'era ta guzia ekar'i arte ez lo artu,

Igezi duen egunetan izan gera agertu bat egiten, baser'i etxetan; guzietan ate nagusian ikusten da Josu'ren Biotza edo eleizeko agerkun bat, baño Gaztaka-aundi dediratzen zayon baser'i baten ar'itu nitzan ikusirik Josu'ren Biotzen azpian 'Eusko Abendaren Ereserkia'. Zorionak.

[123] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1933-11-05.

[124] La Constancia egunkaria, 1933ko azaroaren 11n argitaratua.

Il onen bostian jakin zanian ondo erten zubela Araudijak, er'ia pozturik kaleatu zan diadar'az. ¡Gora Araudija! Eliza beterik abestu zan Te Deum ta Iñaki. Or'ela getariar'ak ospatu degu zorioneko eguna.

ASKIZU.

Nire eskubeta etor'i da izpar'ingi 'La Constancia' il onen amaikakua. Bertan dakarki Getari'ko idatzi bat 'Nuevos triunfos de los estatutistas'. Asten da zorionak emanaz zukendariari, Araudijen aurka bikain agertu dalako. Aur'eratzen da esanaz, zer ikusi bear duan elizkizunak ospatzeko, er'ijetako gora berak. Izentatu gaitu zazpi abertzale, esanaz 'los muy conocidos separatistas' (ezker'ak). Nik galdera bat egingo nioke 'Corresponsal' or'eri: ¿Euskalduna zera? ¿Bai? Orduban 'separatista' zu zera, zergatik ikusi dezu euskaldun geyenak zer esatia erakutzi degun il onen bostian eta otoitz bat egiten dizut, ur'engo idatzian nik bezela agertu zazu zure izena.

Antonio ITUARTE"[125].

Baina bi aste geroago gauzatuko ziren 1933ko azaroaren 19ko Espainiar Estatuko Gorteetarako hauteskundeen eraginez, Euskal Estatutuaren onarpena eten egin zen. Hain zuzen, Bigarren Errepublikako gobernu berria osatu zuten indarrak, eskuindarrak ziren eta haien helburua nagusia zentralizazioa izaki, Euskal Estatutuaren ideia atzera bota zuten. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, karlistekin banandu ostean, EAJ-k 12 diputatu lortu zituen, eskuin espainiarrak 3 eta ezkerreko alderdiek 2.

1933KO ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEETAKO GETARIAKO EMAITZAK[126]

HAUTESLE KOPURUA	826
JESÚS M. LEIZAOLA EAJ/PNV (1)	547
MANUEL IRUJO EAJ/PNV (1)	406
TELESFORO MONZON EAJ/PNV (1)	406
J. ANTONIO IRAZUSTA EAJ/PNV (1)	409
RAFAEL PIKABEA EAJ/PNV (1)	407
RAMIRO MAEZTU Ren. Esp. (2)	79
MARIA ROSA URRACA C. Trad. (3)	62
ANTONIO PAGUAGA C. Trad. (3)	70
AGUSTIN TELLERIA C. Trad. (3)	63
ENRIQUE DE FRANCISCO PSOE (4)	38
TORIBIO ETXEBARRIA PSOE (4)	3
JULIA ALVAREZ PSOE (4)	4
FEDERICO ANGULO PSOE (4)	1
JUAN USABIAGA PRR (5)	229
NICOLAS BIZKARRONDO Ac. Rep. (6)	218
MANUEL DE LA TORRE PRF (7)	177
JOSE MIGUEL GOMENDIO Rep. Ind. (8)	193
JUAN ASTIGARRIBIA PCE (9)	0
RICARDO URONDO PCE (9)	0
JESUS LARRAÑAGA PCE (9)	0
LUIS ZAPIRAIN PCE (9)	0
JOSE IMAZ EAE/ANV (10)	2
BOTO SOLTEAK	-
BOTO ZURIAK	0

2.8.4. Ardoaren gerra eta Getariako euskal-nazionalisten udal-kanporatzea

Euskal Estatutuaren etenak eta Madrildik Probintziako Batzorde Kudeatzaileak hautatzearekin, Getariako euskal nazionalisten, errepublikazaleen eta tradizionalisten arteko tentsioak areagotu egin ziren. Iskanbila sortzeko azken ukitua, Madrilgo Gorteetan erabakitako ardoaren zergaren murriztea izan zen. Ordura arte, euskal udalek, ardoaren zergaren bitartez beren gastuan ehuneko handia ordaintzen zuten. Ardoaren zergaren murrizketak beraz, diru sortaren zati handia galtzea zekarren. Hori aitzakiatzat hartuta, euskal nazionalistek, euskal eskubide eta tradizioen aldeko aldarrikapenak berhartu zituzten:

"(…) El Ayuntamiento acuerda facilitar los datos interesados y comunicar al mismo tiempo que este Ayuntamiento se adhiere a las gestiones iniciadas por la Comisión Gestora, a este respecto por tratarse de asunto de vital interes para la hacienda de esta localidad"[127].

Probintziako Batzorde Kudeatzaileak, abertzale eta ezkertiarrak ez ziren gehiengoaz osatuta zeuden eta horrek, gehienbat ziren gipuzkoar udal-gobernuekin izugarrizko tentsioa eragin zuen. Abertzaleek, Probintziako Batzorde Kudeatzaileak euskal kontzertu ekonomikoa ez zutela defendatzen uste zuten. Horretaz gain, gobernu zentralak, Kataluniako Parlament-ak onartu zuen Laborantza Kontratuen Legea atzera bota ostean, Esquerra Republicana eta euskal nazionalistek (solidaritate gisan) Madrilgo Gorteak abandonatu zituzten.

Egoerari aurre egin asmoz, Fernando Sasiain Donostiako alkateak, Probintziako Batzorde Kudeatzaileekin elkarrizketak hasi zituen. Hauen ezezkoaren aurrean, Sasiainek, euskal udalen artean eratu behar zen Batzorde Batu eta Iraunkor baten aldeko hautua egin zuen.

1934ko uztailaren 5ean Bilbon euskal udaletako ordezkari guztiak bildu eta hamar egunera, Donostian ospatuko zen Udalen Bitarteko Batzorderako hautatuko ziren kideen batzarrera gonbidatu zuten Getariako udala. Azken hauen ordezkaritza, Antonio Alegria Lasa herriko alkateak bete zuen.

Aipatu batzarrera, beraien ordezkariak, 90 gipuzkoar herrietatik 85ek bidali zituzten. Bertan, Fernando Sasiain Donostiako alkatea, Florencio Iratxeta Irungo zinegotzi errepublikarra eta, Ignacio Zubizarreta, Feliciano Beldarrain eta Domingo Berriotxoa Bergara, Oiartzun eta Ordiziako alkate nazionalistak, hurrenez hurren, Udalen Bitarteko Batzorderako hautatu ziren.

[125] El Día egunkaria, 1933ko azaroaren 15ean argitaratua.

[126] Eusko Jaurlaritza. Segurtasun-Saila. https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_result_mun_gip_1933/es_def/index.shtml.

[127] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-06-17.

orr.

Gobernu zentralak ez zuen erantzunik eman eta horren aurrean, Udalen Bitarteko Batzordeak, 1934ko abuztuaren 12rako hauteskundeak deitu zituen:

"De orden del Sr. Alcalde se dio lectura por el Secretario a una comunicación del Sr. Alcalde de San Sebastián que literalmente dice así: 'Reunido en esta ciudad en el dia de ayer la Comisión interina de Ayuntamientos Vascos, integrada por los representantes de los Ayuntamientos de Irun, Villarreal de Urrechua, Oyarzun, Vergara y San Sebastián tomose por unanimidad el acuerdo de cursar la convocatoria con las instrucciones precisa para que se proceda a la elección de la Comisión definitiva, encargada de la defensa del Concierto Económico y la autonomía Municipal señalada en la Constitución de la República, dando así cumplimiento a lo dispuesto en la Asamblea celebrada en Bilbao el día 29 del pasado julio= La elección de la Comisión definitiva se verificará con arreglo a las siguientes instrucciones:= 1º La Comisión definitiva se compondra (sic= de 52 miembros, 20 por la provincia de Vizcaya, 20 por la de Guipuzcoa y 12 por la de Alava.= 2º El nombramiento de dicha Comisión verificará por medio de los Ayuntamientos los cuales designarán separadamente de cada provincia, los representantes correspondientes a la misma, teniendo derecho a voto los señores concejales en ejercicio, a cada uno de los cuales se le completará el numero de votos que obtuvo en las elecciones municipales, si procede de los de 1931 y la mitad si procede de las de 1933.= 3º Los elejidos deberán ser, necesariamente, alcaldes o concejales en ejercicio.= 4º Para el nombramiento se seguirá el sistema de mayorías y minorías y distritos que rigió en la legislación por la que se regularon las ultimas elecciones provinciales, por cada uno de ellos procede se designen, tres por mayoría y uno por minoría.= 5º Las designaciones se harán por los Ayuntamientos el dia 12 del corriente.- Si por cualquier causa alguna no pudiese verificarlas en esa fecha podrá realizarlas otro dia, hasta el 18 del corriente inclusive, siempre que los actos se entreguen en el Ayuntamiento de la Capital de la provincia antes de las diez de la mañana del dia 19.= 6º El escrutinio general se realizará en la Capital de la provincia el citado dia 19 por la Comisión interna actual en dicho acto resolvera los casos de empate si los hubiese.= 7º Las respectivas Comisiones provinciales definitivas, una vez constituidas, nombrarán de su seno una comisión ejecutiva provincial, compuesta de 5 miembros las de Guipuzcoa y Vizcaya y de 3 la de Alava, en forma que cada distrito electoral tenga un representante en la misma.= 8º Los Alcaldes de las Capitales de la provincia quedan facultados pasa cursar las oportunas instrucciones a los respectivos Ayuntamientos a fin de que por estas pueda llevarse a cabo la designación de representantes a que se hace referencia en los apartados anteriores.= Lo que tengo el honor de comunicar a V.S. a los efectos consiguientes.= San Sebastián 4 de agosto de 1934.-EL Alcalde Presidente F. Sasiain.= Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Guetaria'"[128].

Egun horretan bertan, udalbatzan batuta eta hauteskundeetarako prest, Antonio Alegria Lasak "(…) que antes de entrar en el orden del dia quiere hacer constar que se encuentran en la sala de sesiones el Cabo de Miqueletes de este pues y Cabo con un numero de la Guardia Civil armados, y que le extraña la presencia de dicha fuerza en el local durante la celebración de la sesión ordinaria, sin haber sido requerido por él"[129] adierazi zuen. Jose Gaztañaga udal-idazkariak, berak hartan zerikusirik ez zuela adierazteko, Udal-Estatutuko 227. artikuluari jarraiki, udal zinegotzi euskal nazionalistak egitera zihoazen hauteskundeak ilegalak zirela adierazi zuen. Antonio Alegria Lasak udal-idazkariari ilegalitatearen berri emateko adierazi zion:

"El Sr. Alcalde invita al Secretario a que concrete en virtud de qué disposición lo considera ilegal y el Secretario contesta que en primer lugar no esta comprendido dentro de las facultades y atribuciones que concede la Ley municipal y disponiendo el art. 10 de la Constitución vigente que una Ley determinará la forma de elegir el organo gestor politico administrativo de la provincia, mientras no exista dicha Ley y sean convocados las elecciones por autoridad competente carece de legalidad"[130].

Alegria, Getariako alkateak, udalaren interes ekonomikoen babesean jardungo zuen komisioa hautatzeko eskumena udalek izan behar zutela adieraziz, behin-betiko komisioa osatzeko Getariako udal-zinegotziei botatzeko baimena eskaini zien.

UDALEN BATZORDE IRAUNKORRA HAUTATZEKO 1934KO ABUZTUAREN 12KO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK GETARIAN

ZINEGOTZIAK	BOZKATUTAKO HAUTAGAIAK
ALEGRIA LASA, ANTONIO	JOSE IMAZ ARRIETA / FLORENCIO MARKIEGI OLAZABAL / VICTORIANO ARRATE LOIOLA
ARREGI LEIZAOLA, FRUCTUOSO	JOSE IMAZ ARRIETA / FLORENCIO MARKIEGI OLAZABAL / VICTORIANO ARRATE LOIOLA
IDIAKEZ INDO, CECILIO	FLORENCIO MARKIEGI OLAZABAL / VICTORIANO ARRATE LOIOLA / DOMINGO BERRIOTXOA ELGARRETA
ISASTI AZPEITIA, JOSE	VICTORIANO ARRATE LOIOLA / DOMINGO BERRIOTXOA ELGARRETA / JOSE IMAZ ARRIETA
IRIBAR ULAZIA, SEBASTIAN	DOMINGO BERRIOTXOA ELGARRETA / JOSE IMAZ ARRIETA / FLORENCIO MARKIEGI OLAZABAL

Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz, 1934ko abuztuaren 15eko udal-aktek adierazten digutenez, Antonio Alegria Lasa bere kargutik kentzeko agindua iritsi zen. Haren ordez, Getariako udaleko Lehen Alkateordea, Fructuoso Arregi Leizaola alkate funtziotan ezartzeko agindua ere helaraziz. Horren aurrean, Alegria alkateak, bezperan bera alkatetzako postutik kentzeko egin zen udalbatzan bildutako zinegotziek bera Alkate lanetan onartzen zuten ala ez galdetu zuen. Zinegotziek aho batez onartu eta

[128] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-08-12.
[129] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-08-12.
[130] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-08-12.

Antonio Alegria Lasak, bere postua, Fructuoso Arregi Leizaolari utzi zion. Azken horrek, Antonio Alegria Lasari Getarian alkate gisan egindako lana eskertu zion gainontzeko zinegotziek ere berdin eginez. Horrez gainera, Gobernamenduko Ministroari salaketa irmoa egin zieten Antonio Alegria Lasa haren alkatetza postutik bidaltzeagatik. Bere kargutik kentzeaz gainera, 8 urte eta egun baten buruan ezin izango zuen alkatetza edo antzeko kargurik bete; ez eta urte horietan zehar hautagai zein hautesle gisan jardun. Hori nahikoa ez 3eta, 300 pezetako isuna ezarri zioten eta epaiketako gastuak ere berak ordaindu behar izango zituen[131].

Abuztuaren 14an bertan, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Ormaiztegi, Azpeitia, Zumaia eta Debako alkateak ere bere karguetatik kendu egin zituen. Hilaren 19an, Arregik, ezintasun fisiko eta materialagatik bere karguari uko egin zion. Haren ordez, Idiakezi kargua hartzeko adierazi zitzaion, baina azken horrek ere ezezkoa eman zuen. Horiek ez ziren ezezkoa emango zuten zinegotzi bakarrak izan. 1934ko abuztuaren 27an ospatutako udalbatzan eta zeinetan, Ulazia, Urbieta eta Larrañaga zinegotzien presentziarik ez zen izan, berriro ere, zinegotzi abertzaleek, Alegria alkatearekin solidarizatuz, beren alkatetzarako aukerari uko egin zieten:

"Seguidamente el Secretario hace constar que de los concejales de que compone este Ayuntamiento faltan los Señores D. Julian Ulacia, Julian Larrañaga y D. Primitivo Urbieta que han sido igualmente convocados, los cuales tampoco han presentado es… o causa que les impidiera su asistencia.

Acto segundo el mismo Secretario dice que como, según se desprende del acta de la sesion anterior, queda el Ayuntamiento sin presidente acudió donde el Sr. Gobernador Civil para dar cuenta de lo que ocurre y que el mismo díjole que cumpliera la ley, ofreciendo por su orden la alcaldía interina a los concejales, y que si no aceptaba nadie diera cuenta inmediatamente que le habilitaría para no interrumpir la administración y que ha convocado la reunión de hoy para ofrecerles por el orden que establece el art. 119 de la Ley Municipal en relación con el 52 del mismo dando (…) a los citados artículos ofrece la alcaldía interina a los reunidos en el orden legal que son en primer lugar el 1º Teniente Alcalde D. Fructuoso Arregui; en 2º Cecilio Idiaquez 2º Teniente alcalde en tiempo Sebastian Iribar como mayor de edad en igualdad de (…) de votos; 4º Genaro Basterrechea por mayor votación y (…), entre los presentes, Juan Isasti tambien por mayor numero de votos, y dicen todos que se solidarizan con el alcalde efectivo suspendido y que ninguno adopta la alcaldía"[132].

Getarian, Euskal Herriko gainontzeko zenbait herrietan gisan, giroa gori-gori zegoen. Horren lekuko izan ziren 1934ko irailaren 3an Gernikan parlamentari katalanei ongi etorria emateko asmoz bildu ziren herritarrak. Gernikako Arbolaren inguruan zeudelarik, estatuko segurtasun indarrak oldartu eta herritarren aurka kolpeka hasi ziren. Modu horretan, estatuak probintzietako agintariek ordura arte hartu zituzten erabakien aurreko iritzia islatu zuen. Udalen Batzorde Iraunkorren aurkako ekintza izan zen, hauen deuseztapena lortu asmoz. Beldurraren aurrean, euskal udaletako agintariek haien kemena erakutsi zuten, Probintziako Batzorde Betearazleak 1934ko irailaren 4an batuz eta honako aldarria eginez[133]:

1º Euskal lurraldeko udal guztien dimisio kolektiboa

2º Euskal parlamentari guztiei eta herrialdearen defentsan interesatutako alderdi politiko guztiei hitzarmen honen berri ematea

3º Hiru hiriburuetako alkateak dimisio kolektiboa gauzatzeko ahalduntzea hilabete honetako 7. egunerako

4º Batzorde Iraunkorrek bere horretan jarrai dezatela Kontzertu Ekonomikoaren eta udalen autonomiaren defentsan eta, alkate eta zinegotzien ezarri zaizkien prozesu eta multen aurka.

1934ko irailaren 19an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Getariako udal berria hautatu zuen. Handik aurrera, euskal nazionalistarik izango ez zuen eta eskuindar errepublikarrekin bat egin zuten ordezkariek osatu zuten Getariako udala:

"En la Villa de Guetaria a diez y nueve de Septiembre de mil novecientos treinta y cuatro, siendo las cinco horas de la tarde se reúnen en la sala consistorial previamente convocados por el Sr. Alcalde interino D. Julian Larrañaga, los concejales señores D. Julian Ulacia y D. Primitivo Urbieta y los señores D. Manuel Azpeitia Mancisidor, Tomas Aranguren Eizaguirre, D. Saturnino Larrañaga Ucin y Jose Aramendi Goicoechea.

El Sr. Alcalde manifiesta a los concurrentes que el objeto de la reunión es constituirse el Ayuntamiento con los nuevos concejales interinos designados por el Sr. Gobernador y el Secretario dió lectura de un comunicado del Gobernador que dice lo siguiente:

'Para su entrega a los interesados, adjunto le remite cuatro credenciales de concejales interinos, hechos en uso de las atribuciones que me confiere el articulo 46 de la Ley municipal y Delegados del Gobierno, por el Decreto de 16 de junio de 1931 articulo 4º elevado a Ley por los constituyentes.= Sirvase darles posesión con urgencia para normalizar la situación de la Corporación.= San Sebastian 19 de Septiembre de 1934.-El Gobernador.=Emeterio Muga.-Rubricado.= Sr. Alcalde en funciones de Guetaria.=

Acto seguido les fueron entregados a los concejales interinos nombrados por el Sr. Gobernador. D. Manuel Azpeitia, D. Tomas Aranguren, D. Saturnino Larrañaga y D. José Aramendi los credenciales respectivos del siguiente tenor literal:

'En uso de las atribuciones que me estan conferidas, he acordado designar a V. Concejal interino para cubrir vacante existente en ese Ayuntamiento por abandono de funciones.= Le encargo tome posesión acto seguido, para normalizar la situación de la Corporación.= El Gobernador Emeterio Muga'- los cuales manifestaron que aceptaban los cargos para el que han sido designados por el Gobernado y el Sr. Alcalde despues de agradecer, da por posesionados.

Seguidamente se procedió a la elección del 1º Teniente Alcalde, resultando elegido por el numero total de votos el concejal efectivo D. Primitivo Urbieta y en la misma forma fue elegido segundo Teniente Alcalde a D. Julian Ulacia"[134].

[131] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1935-08-17.

[132] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-08-27.

[133] Alegiako Udal-Agiritegia: 28. Kaxa. 2. Zenbakia. Aktak.

[134] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-09-19.

1934ko irailaren 19an Gipuzkoako Gobernadore Zibilak hautatutako Getariako udalbatza berria

ALKATEA
Julian Larrañaga Aranburu

Lehen alkateordea:
Primitivo Urbieta Embil

Bigarren alkateordea:
Julian Ulazia Unanue

Zinegotziak:
-Manuel Azpeitia Manzisidor
-Tomas Aranguren Eizagirre
-Saturnino Larrañaga Uzin
-Jose Aramendi Goikoetxea

Honako udal-gobernua Lerroux-en gobernu errepublikazale eskuindarrarekin bat eginda egon zen. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ezarritako adierazpen-askatasunaren aurka, Getariako udal-gobernu hark bat egin zuen; beste zenbaiten artean, paretetan ordura arte ezartzen ziren kartelak kentzeko agindua eman zuten:

"Teniendo noticia de que aun quedan algunos pasquines en las paredes de las casas y muros acuerda mandar a los alguaciles que lo quiten y hagan desaparecer"[135].

Udalen auzia amaitutzat eman bazen ere, ezin dugu aipamenik gabe utzi gure euskal lurraldeetan alderdi, talde zein sindikatuek egindako 1934ko iraultza. Getarian bertan, aztertu dugunaren arabera, ez zuen halako oihartzunik izan. Hala eta guztiz ere, udal-aktetan bada haren arrastorik. Lehenengoa, 1934ko urriaren 2an Gipuzkoako Gobernadore Zibilak "alarma egoerara" egindako deialdiaren ingurukoa da. Bigarrengoa, berriz, Urbieta zinegotzi errepublikazale eskuindarrak Gipuzkoako Gobernadore Zibilari eta Komandante Militarrari egindako eskertzara gainontzeko zinegotziak batu zitezen egindako deialdia da. Kasu horretan, argiki, langileriaren aurka egindako basakeria "Sofocada ya bestialmente la sangrienta revolución estallada en toda España" justifikatu ere egiten duela erreparatu ahal izan dugu[136]. Zenbait getariarrek, langileria zapaltzeko erabilitako aparailu polizialaren aldeko diru-sorta eman zuten, El Diario Vascon errepara genezakeenez:

"SUSCRIPCIÓN PARA LA FUERZA PÚBLICA


Con el fin de engrosar en la suscripción nacional para la fuerza pública, han sido remitidas del Juzgado municipal de esta villa al de Primera Instancia 19 pesetas; con arreglo a la siguiente relación:

Don Juan Chueca, juez propietario, 5; don Valentín Andreano, juez suplente, 3; don Alfonso Basurko, secretario propietario, 5; don José Gastañaga, secretario suplente, 5; don Alejo Gimeno, fiscal propietario, 2. Total: 20 pesetas"[137].

Getariarrentzat eta batik bat, errepublikazale ezkertiar eta euskal nazionalistentzat, garai latzenak, urtebete beranduago iritsi ziren. Alde batetik, 1935ko urriaren 5erako Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1934ko Urriko Iraultzaren ospakizun oro indarrez zapaltzeko agindua eman zuen; bestetik, euskal nazionalistei beren ideologia espazio publikora eramatea gaitzetsi zitzaien:

"Igualmente figura un telefonema del Sr. Gobernador Civil transmitiendo ordenes del Sr. Ministro de la Gobernación relativas a la prohibición de actos de caracter publico en los que tomen parte los nacionalistas Vascos"[138].

1935eko abenduaren 14tik aurrera, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz, "Ministerio Krisia" zegoelako, alderdi politiko guztien propaganda debekatu egin zen[139].



Zentsura. (GUA).

2.8.5. 1936ko otsaileko Gorteetako hauteskundeak eta Fronte Popularraren garaipena

1934ko abuztuaz eta batez ere, Urriko Iraultzaz geroztik, euskal nazionalista, errepublikazale ezkertiar, komunista zein anarkistek ez zuten etenik izan haren gehiengoan eskuindarra zen Espainiar Estatuko gobernuaren aurkako aldarriak egiten. Gobernu errepublikazale eskuindarraren menpean jasandako errepresioak, politikoki indar bateratu baten presentziaren beharra zutela adierazi zien. Horren emaitza (zinez labur azaldu badugu ere) Fronte Popularraren sorrera izan zen. Azken hau, errepublikazale eskuindarrei boterea kendu eta herritarrek beharrezkoak zituzten erreforma errealak gauzatzeaz arduratuko ziren alderdi zein talde politiko ezberdinek osatu zuten.

Eskuindar errepublikazale getariarrek Fronte Popularrak hauteskunde haiek galtzeko milaka trikimailu erabili zituzten, garai zaharretako ustelkeria jokoetara maiz eginez, hauteskundeak baino lehenagoko El Día egunkariko ale ezberdinetan errepara genezakeenez:

"GETARI'TIK

¡Gauz ikaragarria!

[135] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-11-10.
[136] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1934-10-13.
[137] El Diario Vasco egunkaria, 1934-12-20.
[138] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1935-12-07.
[139] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1935-12-14.

Dakizutenez erri onetan orain artean eduki dute Centro Republicano deitzen dioten alkartea. Bañon, geldi-geldi iendeak igez egin dute bazkun ortatik, eta azkeneko berriak diote garbi BI bazkide bakarri arkitzen ziradela… Ba gaur illuntzean (illak 5), baten batzuk (edo ezdakigu ziur euretakuak baldio badira ere) 'Centro'ko 'kartelari' C.E.D.A.'ren izpi aundiak ipiñi dizkiote, ta ori naiko ez dalarik, gañera moria kendu, ta oriya, margoiztu.

¡Auek gauzak ikusten ditugu, jaunak!

Egundako parreak egin ditugu ikusi degunok Centro'aren 'planta'.

Erri ontan oraingo zedista berriak errege zaleak ote ditugu ba? Len ere orlako astakeriakin oituak gaude, tao rain berri orrekin ez zaigu arrigarri. Jantzi beltzadunak, larri ziran bialdu arte, tao rain ostea ¿ekarri bear ote dituzte? ¡Auek eguzkizaleak! Epelean giro nunbait.

Piztiakin kontuz erritar. Oiek abere bildurgarriak izaten dira-ta…

Marqués de la Torre'k agindu du bere 'jardineruari…' alegia lene gin zun bezela, baserritar bere mendeko guzieri autarkia eskubiari bota azteko. Gañera 'jardinero' ori bera ari da… eskeñika. Ba, tientuan egon leizke bai Marqués ta bai jardinero. Bear dan lekura iritxiko gera-ta. ¡Mucho ojo!

'Asmazak'"[140].

"GETARI

¡¡Ernai anai maite ori!!

Entzun erriaren abotsa, gauz pranko ikusten ari gera bolara ontan, ta eurak azaltzia ez litzake kalterako izango.

Gaurko esan bear garrantzidun auez jauntxo batzuentzat dijuazte. Beaz, entzun ondo.

Baserritar gizajoak daukaten alan aundia izaki, ta lenoko batean 'Orrua' baserrira juan ziran aspaldi ontan 'Txaketa' sarri kentzen duten batzuk, eta etxe jaunari eskatu dio botua.

Erantzun dio baserritarrak;

-Ta, ¿zeñentzat da?

-'C.E.D.A.'koentzat.

-¿Zer dira oiek?

-Oiek dira eskubitar purrukatuak, ezkertarren aurkakoak.

-Ta, orren izen aundiko eskubitar oiek, ¿nun ziran ba Eliz ta Lekaidetxe erretzeko une latz aietan? Orain gañera esan digutenez, masoiak, erretzalleak, ta beste ezin kontatu ala pranko dijuazte baturik. ¿Zer da 'pastel' ori? Ez, ez, ezta zuentzat gure autarkirik, eta ¡alde emendik!

'Ziotza' deitzen dioten gazte bat ere 'Busca botos' dabil. Erañegun Juakiñ ena juan omen zan, eta eskatu dio. Besteak zion, ¿ta txindik bai alda?

-Ziotzak: ez.

-Ez dezu ba nere autarkirik.

-Z.- Orduan, emango zaizu durotxo bat azkenian.

-Ni ez naiz duroko gizona, nik abertzalieri eskeñia daukat nere iritxia, ta etorri zeran bidetik aldegin zazu 'larririk' ekarri gabe.

-o-

Errita saioa bik. Urraka deitzen dioten 'señora' ere lengo gabea naiko larri ibillia izan bear du… Alegia (zion berak ikusirik bi mutil erbesteko Frente Popular'ko paperak jartzen): 'Ara or zuen lagunak, oiek bañon okerragoak ditun abertzaleak'.

¡Jesus milla bider! Besteak entzunik ori: arrazoiakin garbitu zun ba…

-¡Alajaña! Ik esateko ori neri. Beitu akion eure alderdi 'txaketero' orreri, ta orduan esanakin oiek bañon okerrago geradela.

¡Por Dios, qué manera de hablar 'Urtaka'. Lástima que la nariz es un poco chata, en lo demás podía hacer su papel en el Teatro del Principe.

Asmazak"[141].

"GETARI

¿Zalantzan ote jendea?

Orain arte emengo txaketeruak egondu dira zeñeri autarkia eman. Uste zuten etzala Usabiaga'rik azalduko, ta orregatik ari ziran lan da lan 'karkari' aurrerapen aundiak emateko… ¡Zeñen langille purrukatuak diran oietxek oso ezagunak 'portzierto'.

¡Zeñek ez ezagutu 'Chueca, Chirrim, Resu, Bateko Urre, Jardinero ta euren antzeko oiek?' Urraka gaixoari ere egiten dizkioten begirakadak aundiak izan bear dute. Agindu omen diote, alegia eskubiari autarkia ematen ba'diote 'Trinkadura' ekarriko diotela…'¡Gizajoak! Zearo karnaba jan dute, ta etxez etxe arpegiko azala larros biurtuta ari dira… ¿Eskoben kirtenen bildur ez al zerate? ¡Ori planta! ¿Zeñentzat autarkia, Usabiaga ala Muxika?

[140] El Día egunkaria, 1936ko otsailaren 7an argitaratua.

[141] El Día egunkaria, 1936ko otsailaren 12an argitaratua.

Biak bapez ta kito.

Gauz arrigarria, errian ez du nai iñork ere karken paperik epiñi… bildur edo… ez gaude berdin Zarautztarrakin. Arraye-pola.

Ara ba, nik zeon tokian onela banaketa egingo nuke. Entzun ondo:

Eskallerak 'Resuk'; portua ta ogiriña 'Jardinerok'; brotxa 'Isidoritok' (tamala, begi bat estalia dauka ta ezin ondo ikusiko du…) paperak 'Bateko Urre' ta bere lagunek. Bukaeran zabal zabal kalean bera abestu latiñeraz: Resurrexit sicut dixit aleluia… chue… jardi… urre… chirrin, ta guzi…

-o-

Ezkertiarrak lengo egunian emen genituan. Gizajuak lekurik ezin arkitu zuten, ta azkenik orratio billatu zuten. ta ¿nun uste dezute? Gure ikurrin baten azpian. Oste polit ura: begira goiko papertxoari irakurriaz une berian. ¡Beste biderik ez dezu!

-o-

Naiko estu ibillia izan bear du Jardineruak tripetatik, Markes'en etxian Euzko irudiak ipiñi dituztelako. Oso goitik egon nunbait, eta ezin iñolaz ere kendu. Gizajoak atakeak etortzeko 'peligruan' egon bear du… Ala bada tientuañ egon leizke aurreago esan dituzten 'txaketero' biek. Sartu giltza aboan, ortzak, mingaña urra ez dezaion.

Zirta sartu naian ibili da baserrietan esanaz 'Venimos en nombre del marqués'.

¡Pobre jardinero, mas le valía si estuviera trabajando en el jardín.

Onen kontuak oso oroigarriak ditugu, ta ona emen garbi:

Bere izena Alejo Jimeno… ¡ze abizen polita! Ba, jauntxo au Batzokian bazkide eduki gendun markesak Madrid'tik igesi egin zuten une latz aietan. Izentatu genduan 'como socio protector…' Geroxeago ordea anka eman zigun eta orain 'socio de busca votos' ezarri zaigu…

Gañera errian 'Fiscal' dago, ta jakiña da 'Hombre de respeto', ¡Au komeria! Errian dauzkagun lege gizonak oso xelebriak kontxo… Epaillaria, idazlaria, beonen laguntzalle 'Heliotropo' ta ¡Jesús! ixildu nayen. Gizon aundiak benetan.

Bitori'n daukan apaiz gaia nik uste denboraz aixa egingo dula Artzobispo… zergatik gaurko egunian Markes ta Barones oiek diru ta 'influentzi' aundiak edukitzen bai dituzte… Urte askotarako izan deiela ba.

-o-

Entzun degu gauz polita gaur. Bateonbat aspaldi ontan tripamiñez egon bear zun, eta bialdu diote lagun bati 'Diario Vasko'ko alderdi bat Getari'ko dama edo dalako ori?

Dana dala: neri bialdu baziraten papertxo ori, andra balitzake egingo nieke gonak igo umeari bezela ta epurdiko piñ batzuk eman…

Gizona bada berriz; ortzak erakutsi.

Egunak urreratzen ta estu jendea. ¿Ez alda horrela anónimo? Umekeriak dira oiek eta zoaz ikastetxera, baleike oraindik ikasteko ote dauskatzun otoitzak eta.

-o-

¡¡Erritar, gogor joka bearrian gera oraingo ontan. Ez jaramonik egin Chueca, Chirrintxon, Bateko Urre, Resurresi, Urraka ta beren antzeko txaketero oieri, ta jarai ongi Jainko ta gure aurreko Lege-Zar onari!!

-o-

¡Baserritar anaiak, zuek ere entzun ondo! Ez beldur izan zeon nagusi Markesito'ri, jarrai aurrera beldur gabe, ez dizu iñork (gu aurrean gauden bitartean) trabik epiñiko ta bota zeure iritzi Jainkozkoa. ¿Gu ez gerala eskubikoak? Ez, arrazoi dute. Gu gera Jainkozaleak eta ez eskubi masoizaleak.

¡Que se vayan al jardín los Jimenos y los Torres…

'Asmazak'"[142].



Madrid 1 de Febrero de 1.936

Estimado Alejo: Escribo á V. estas cuatro renglones, en el mismo sentido que acabo de escribir á Don Leoncio, rogándole tanto á él como á V., que personalmente, vea, y hable con todos y cada uno de mis colonos, rogándoles, de mi parte, que si quieren complacerme, que voten íntegramente, la candidatura del bloque nacional constituida con los nombres siguientes: Lojendio, Mógica, Oreja y Pagoaga, y que les diga que mi deseo ha sido y es siempre como se lo vengo demostrando con hechos (y á costa de mi bolsillo) mantener con ellos siempre la mayor armonía y paz.

Todo lo que V. procure hacer en este sentido por complacerme se lo agradeceré su afecmo.

Casa Torres-ko markesaren botoen erosketa. (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

[142] El Día egunkaria, 1936ko otsailaren 14an argitaratua.

1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeetan, Fronte Popularrak garaipena lortu zuen.

1936KO OTSAILEKO ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEETAKO GETARIAKO EMAITZAK[143]

HAUTESLE KOPURUA	412
MANUEL IRUJO EAJ/PNV (1)	249
J. ANTONIO IRAZUSTA EAJ/PNV (1)	186
TELESFORO MONZON EAJ/PNV (1)	186
JOSE MARIA LASARTE EAJ/PNV (1)	185
RAFAEL PIKABEA EAJ/PNV (1)	187
ANTONIO PAGUAGA C. Trad. (2)	132
JUAN P. LOJENDIO CEDA (3)	133
RICARDO OREJA C. Trad. (2)	132

JOSE MUGICA Ren. Esp. (4)	132
MIGUEL AMILIBIA PSOE (5)	26
MARIANO ANSO Izq. Rep. (6)	30
LUIS APRAIZ Izq. Rep. (6)	27
JESUS LARRAÑAGA PCE (7)	23
JUAN USABIAGA PRR (8)	-
BOTO ZURIAK	-
BOTO SOLTEAK	-
JOSE MIGUEL GOMENDIO Rep. Ind. (8)	193

JUAN ASTIGARRIBIA PCE (9)	0
RICARDO URONDO PCE (9)	0
JESUS LARRAÑAGA PCE (9)	0
LUIS ZAPIRAIN PCE (9)	0
JOSE IMAZ EAE/ANV (10)	2
BOTO SOLTEAK	-
BOTO ZURIAK	0

Haren eraginez, 1934ko Ardoaren Gerran isuna jasotako Getariako eta gainontzeko Hego Euskal Herriko zinegotziak amnistiatu egin zituzten. Horrenbestez, beren karguetara itzuli ziren:

"(…) el Sr. Alcalde en funciones D. Julian Larrañaga, (…) los señores D. Antonio Alegria, D. Fructuoso Arregui, D. Cecilio Idiaquez, D. Sebastian Iribar, D. Genaro Basterrechea y D. Jose Isasti todos ellos concejales de eleccion popular, y de orden del Sr. Alcalde el Secretario dio lectura integra al telefonema del Sr. Gobernador que dice lo siguiente: 'Sirvase notificar a todos los concejales de eleccion popular que desde el dia de hoy veintidos pueden integrarse a sus puestos, habiendo sido amnistiados cuantos sufrían condena inhabilitación, en su consecuencia cesarán todos los gestores gubernativos, etc.' y habiendo comparecido los señores arriba citados en virtud de esta notificación, el Alcalde Sr. Larrañaga entrega las insignias de la alcaldia al que lo es de elección popular D. Antonio Alegria y quedan posesionados todos los citados concejales de elección popular.

Seguidamente el Sr. Alcalde hace uso de la pabra para manifestar: en primer lugar su agradecimiento por los que nos han hecho justicia despues de tan injusta persecución sufrida a raiz de la campaña municipalista, ardorosamente instruida en defensa de la autonomia municipal y el concierto economico de la provincia y añade que el deseo de los integrados es que la Diputación provincial sea integrada por representantes populares elegidos por los municipios, y que el Estatuto Vasco estancado en el parlamento anterior sea rapidamente aprobado y puesto en rigor, y propone que en este sentido sean cerrados un telefonema al Sr. Gobernador Civil de la provincia y otro al Sr. Presidente del Consejo de Ministros y el Ayuntamiento aprueba por aclamación con lo que se dio por reconstituido el Ayuntamiento.

Luego se acordo izar la bandera republicana en la fachada de la casa consistorial como demostración del acto"[144].

Hala, 1936ko otsailaren 22an, ordura arteko Estatutuaren auziko gastuak udaletik ordaintzea erabaki zen. 1936ko otsaileko hauteskundeetatik aurrera, getariar udal-gobernuan ere errepublikazaleek oraingoan babestuko zuten Euskal Estatutuaren aldeko apustua egin zuten. Estatutuak, autonomiaren barnean, Araba zein Nafarroako lurraldeak atxikitzea onartzen zuen.

Euskal Estatutua aurrera bidean bazen ere, 1936ko uztailaren 17 eta 18 artean Bigarren Errepublikaren aurka gauzatutako estatu-kolpeak, Euskal Estatutuarentzat etenaldia suposatu zuen, nahiz eta ia hiru hilabete beranduago 1936ko urriaren 1ean espainiar errepublikako gobernuak onartu egin zuen.


Euzkadi

Una histórica sesión en las Cortes españolas

Por aclamación fué aprobado ayer el Estatuto vasco

Un emocionante discurso de nuestro diputado don José Antonio de Aguirre, acogido con vivas muestras de respeto y simpatía por todos los parlamentarios

Nabarra podría incorporarse al territorio autónomo cumpliendo los requisitos constitucionales oportunos

¡¡ITXARKUNDIA!!

Ante la aprobación del Estatuto

Azkatasuna gurekin!

Euskal Estatutuaren aldarrikapena, Euzkadi Egunkarian, 1936ko urriaren 2an argitaratua. (Euskal Memoria Fundazioa).

1936ko otsailaren 23ko udalbatza amnistiatua

ALKATEA
Antonio Alegria Lasa

Zinegotziak:
-Fructuoso Arregi Leizaola
-Cecilio Idiakez Indo
-Sebastian Iribar Ulazia
-Genaro Basterretxea Santamaria
-Jose Isasti Azpeitia
-Julian Ulazia Unanue
-Primitivo Urbieta Embil

[143] Eusko Jaurlaritza. Segurtasun-Saila. https://www.euskadi.eus/web01a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_result_mun_gip_1936_feb/es_def/index.shtml.

[144] GUA, sig.251-3: udal-aktak 1936-02-23.

Getariar gudariak goardia egiten Bou Gipuzkoan. (Peru Ajuria Artxibategia).

3.

GERRA HASI ZENETIK GETARIAN FRANKISTAK SARTU ZIREN ARTE



1936ko uztailaren 17 eta 18 artean, espainiar oligarkia eta armadako sektoreetako batek herritarrek beren bozkez hautatu zuten Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako estatu-kolpea eman zuten. Izatez, estatu-kolpea 1936ko uztailaren 18ko egunsentirako prestatuta zegoen, baina Melillan estatu-kolpea emango zuten militarren sektoreetako batzuen lokaletan erregistrorako aginduak ekidin nahiak, estatu-kolpea martxan jarri zuen:

"La intervención de legionarios insurgentes para evitar el registro desencadenó la sublevación en el Marruecos español. Eran las cinco de la tarde"[145].

1936ko uztailaren 18ko goizean, Diario Vasco egunkariak, Gipuzkoako kolpisten transmisio katea egiteaz arduratuz, militar erreakzionarioak "Mañana hará buen tiempo" adierarekin kolpeari hasiera emateko abisatu zituen[146].

Estatu Espainiarra bere horretan osatzen zuten gainontzeko lurraldeetako oligarkia tradizionalaren zati batek ere, bat egin zuen estatu-kolpearekin[147]. Oligarkiak, hein handi batean, geroago ezarriko zen diktadura frankistan, Bigarren Errepublikan zehar galdu zituen zenbait eskumen berreskuratzeko aterabidea ikusten zuen. Hauen helburu nagusia, Bigarren Errepublika aurretik zituzten pribilegioak berreskuratzea izan zen, eta horretarako ezinbestekoa zen Bigarren Errepublikak herritarren alde eman zituen erreforma xumeak etetea.

Beraien helburua lortzeko, estatu-kolpearen porrotaren ostean sortutako gerran, Bigarren Errepublikaren aldeko hautua egin zuten herritarren aurkako diziplinamendu bortitzean gupidarik gabe jokatu zuten. Euskal lurraldeetako Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek estatu-kolpeari aurre egin eta kolpistak errenditu ez zirenez, gerra hasi zen; bertako herritarrek, izan nazionalista, errepublikar ezkertiar, komunista, sozialista zein anarkista (beste zenbaiten artean), izkiluak hartu zituzten Bigarren Errepublikako gobernua defendatzeko. Azken hauek armen hornikuntzan arazo larria izan bitartean, kolpistek, gerra osoan zehar Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntza izan zuten, besteak beste, gerraren logistika zein armen hornikuntzarako.



Alemania nazia, Italia faxista eta Espainia frankista bat eginik.
(Euskal Memoria Fundazioa).

Indar-errepublikarrek berriz, europar demokraziek bizkarra eman ostean, Mexiko eta Sobietar Errepublikar Sozialisten Batasunaren laguntza txikia baino ez zuten izan[148]. Horrez gainera, zenbait herrialdetatik, langileriaren solidaritateagatik faxismoaren aurka borrokatzera etorri ziren Brigada Internazionalen laguntza ere izan zuten indar-errepublikarrek; 1938ko irailaren 23an gehiengoek erretirada agindua jaso zuten[149] eta azkenak, 1939ko martxoan erretiratu ziren.



Brigadista Internazional Komunista ingelesak.

[145] BARRUSO BARÉS, P. 1995. Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa. Haranburu: Donostia, 73.or.

[146] 1936ko uztailean "El Diario Vasco"-k estatu-kolpea emateko "Mañana hará buen tiempo" berria, aurrez militarrek 1936ko otsailean Fronte Popularrak irabazitako hauteskundeetatik aurrera Bigarren Errepublika behin-betiko kentzeko azken agindua eman zuen. Estatu-kolpea beraz, militar eta oligarkien eskutik aurrez planifikatuta zegoen.

[147] Euskal lurraldeen kasuan Neguri auzoa oligarkia kolpista horren "base" nagusietako bat izan zen. Bertan zeuden esaterako, Ybarra, Lequerica, Careaga, Aresti… familiak. Neguriz gain, beste familia oligarkiko batzuk ere nabarmendu ziren, gaur egungo politikan ere eskuhartze nabarmena izan dutenak: Aznar, Oreja… kasu.


[148] Faxistek, Frantzia, Ingalaterra, Amerikako Estatu Batu eta Belgikako zenbait faxisten arma-laguntza ere jaso zuten. Indar-errepublikarrek jasotako laguntza txikia izan zen, garaiko Italia eta Alemaniak zuten arma-fabriken potentzial handia kontutan hartuz.

[149] 1938ko urriaren 28an egindako desfilean agurtu zituzten Brigada Internazionalak Bartzelonan.

3.1. FRANKISTEK AURREZ ANTOLATUTAKO GERRARI, BAT-BATEKO ERANTZUN ERREPUBLIKARRA

Frankistek, gerra hasi ordurako errepublikar-indarrek[150] ez zuten abantaila bat zuten: estatu-kolpea eta haren ostean emango ziren pausoak, beraiek zehaztasun osoz formulatuta zituzten. Errepublikar-indarrek, desabantaila garbia zuten, frankistak ofentsibarako teknikak argi zituzten bitartean, lehenengoek frankisten nahiak gelditu beharra izan zuten, lehen uneetan behintzat.

Estatu-kolpea eta gerra, ez zen beraz, Jose Castillo Eraso-Guardiaren (PSOEko militantea) eta, Jose Calvo Soteloren (Renovación Española-rekin diputatu kongresuan) hilketaren eragin soilagatik hasi. Aipatu dugunez, frankistek, hilketak gertatu ziren uztailaren 12 eta 13ko (hurrenez hurren) egunak baino lehenagotik estatu-kolpea eta haren osteko prozesu osoa ongi baino hobeto egituratuta zeukaten.



Jose Castillo Eraso Guardia eta PSOEko militantearen ehorzketa.



Jose Calvo Sotelo Renovación Españolako presidentearen ehorzketa Madrilen.

3.1.1. Erreketeen formakuntza militarra, gerra hasi baino lehen

Euskal lurraldeetan, zuotako zenbaitek behin baino gehiagotan entzundako errekete deituriko indar-paramilitar eskuindarrek, estatu-kolpea eta gerra formulatzeko eskumen berezia izan zuten[151]. Gerraren ostean, frankistek, Salamancatik koordinatutako armada sendoa izan zutela adierazi bazuten ere, Javier Ugarte historialarik berretsi gisan, euskal lurraldeetan, eragin berezia izan zuten arestian aipatutako erreketeek. Azken hauek era antolatu eta zenbaitetan autonomo batean jokatu zuten:

"Cierto que la impronta castrense se hizo notar, pero también es cierto que hubo un verdadero poder para-estatal o cuasi-estatal en zona rebelde vasco-navarra, autónomo en buena medida de las directrices de Salamanca, con un proyecto de régimen propio (acorde con lo que por entonces se hacía en Europa en línea a las propuestas de la derecha radical) y un poder notable para sacar adelante su proyecto"[152].

Erreketeak oinarri tradizionalen eta euskal foruen (monarkia espainiarraren defendatzaileak -Carlos Maria Isidroren "Carlos V.aren" aldekoak-) babesle ziren indar paramilitar gisan definitu ditzakegu, hein handi batean. Haien organismo politikoa, geroago diktadura frankistan zehar zeresana izango duen "Comunión Tradicionalista" izan zen.

Bigarren Errepublikan zehar, gobernu errepublikarrek, erreketeek defendatzen zituzten oinarri tradizional horrekin hausten zuten zenbait aldaketa edo erreforma martxan jarri zituzten. Horrez gain, arestian ikusi dugunez, euskal lurraldeetan ere, ordena sozial tradizionalarekin hautsi eta herritar guztientzat bizitza justuago eta hobeagoa ezarriko zuten zenbait lege aldatzeen aldeko mugimenduek kaleak hartu zituzten. Egunerokotasunean ekintza horien guztien jakitun, erreketeek, Bigarren Errepublika, beraien balioak eta oinarriak kolokan jartzen zituen etsaitzat definitu zuten[153]. Etsaia behin definituta, Bigarren Errepublika kentzeko ahaleginak hasi zituzten eta baita ongi garatu ere, proiektu politiko sendoa egituratu baitzuten, zeinak Gerra Zibilean eta ondorengo Diktadura Frankistan haien partehartze egonkorra ahalbidetu zien.

---

[150] "Errepublikar-indarrak" kontzeptua, liburuaren zati honetatik aurrera, Bigarren Errepublikako gobernuaren alde borroka egin zuten indar-politiko ezberdinak adierazteko erabiliko da: izan komunista, nazionalista (euskaldun zein kataluniar, zein eskuindar zein ezkertiar), anarkista, sozialista, ezker errepublikar…

[151] Gerraren ostean, Euskal Herriko herri gehienetan estatu-erakundeetan eta enpresa esanguratsuenetan postu garrantzitsuenetarikoak lortu eta gerra galdu zutenei errepresioa gauzatzeaz arduratu zirenak izan ziren.

[152] UGARTE TELLERIA, J. 2009. "El carlismo en la guerra del 36: la formación de un cuasi-estado nacional-corporativo y foral en la zona vasco-navarra". *Historia Contemporánea,* 38. Zbk.: 51. or.

[153] Horrez gainera, erreketeen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat, Carlos V.aren oinordekoaren espainiar monarkian eta ez errepublikan sinesten zutela da.

orr.

Proiektu politiko haren burmuina, Manuel Fal Conde eta Victor Pradera izan ziren. Haiek herritar tradizionalisten oinarri politikoen eta militarren formakuntzaz arduratu ziren. Enrique Varelak, Fal Conderen eta Luis Redondo Sevillako erreketearen komandante jefearen aginduz, 1932 urtearen bukaerarako, *Compendio de Ordenanzas, Reglamento y Obligaciones del Boina Roja, Jefe de Patrulla y Jefe* del Requeté idatzi zuen[154]:

"Más bien era una dura pugna por el poder de diferentes proyectos que compartían un léxico autoritario y corporativo común, pero que se disputaba arduamente el poder en ese momento"[155].

Formakuntza haren burmuin garaikidea Fal Conde eta Victor Pradera izan baziren ere, erreketeen milizia formakuntzaren antzinatasuna XIX. mendeko gerra karlistetan kokatu behar dugu. Horrek ere, Bigarren Errepublikako indarren formakuntza ez hain garatuaren aurrean, abantaila nabarmena ematen zien. Erreketeek haien oinarriak beti militarizatuta eduki zituzten, izan ere, haien proiektu politikoaren helburua, gerrilen bidezko gerra hasi eta Ejertzito Erreal baten bidez boterea beren esku hartzea izan zen. Beraien ordena sozial tradizionala inposatzeko, indar militarrean sinesten zuten ezinbestean. Horren eraginez, errekete gazteenak, apaiz, mediku, abokatu, enpresari txikiek… atzeman eta formakuntza ideologikoaz gain, formakuntza praktikoa edo militarra ere ematen zieten.

Jarduera militarizatuen benetako egituratzea, berriz, 1930eko maiatzean hasi zuten, zeina Jaime Borboikoak agindutako "Ekintza Komite" delakoaren bidez egituratu zen[156]. Bigarren Errepublika garaian hasiera batean "Ekintza Komiteak" atzera-pausua egin bazuen ere, 1931ko irailean Leitza, Azpeitia, Iruña eta Zarautzen eginiko bileren ostean, berriro ere miliziak osatzeko formakuntzarako egituraketa hautua egin zuten. Hautu hori egitearen arrazoi nagusia, bete-betean beraien ordena tradizionalarekin hautsiko zuen Bigarren Errepublikaren apirileko aldarrikapena izan zen.

Bigarren Errepublikaren lehen uneetan Nafarroan, guztira, 10.000 errekete zentro erlijiosoetan formatu zituzten (dekuria deituak), Comunión Tradicionalistako sedeetan… babes-sistema gauzatzeko[157]. Gipuzkoari dagokionez, 1934ko otsailaren 18an, Gipuzkoako Gazte Tradizionalistek mitin bat eman zuten eta 2.000 errekete bertaratu ziren[158]. 1934ko udaratik aurrera, Mussoliniren Italian, "La Dispoli" hegazkinen basean, lehen erreketeak militarki formatzen hasi ziren:

"A pesar del extraordinario desarrollo del carlismo, cuyas autoridades decían contar a principios de 1934 con 16 diarios, 18 jefaturas regionales, 48 provinciales, 1.631 juntas locales, 540 círculos, 230 sociedades de Margaritas, 803 secciones de juventud y un total aproximado de 700.000 militantes distribuidos preferentemente en Andalucía Occidental, Navarra, País Vasco, Valencia y zonas de Cataluña, su estructura de mando continuó desarrollando una actividad eminentemente parlamentaria y propagandística"[159].

Beraz, Italiak, erreketeei, gerra aurretik ere haren laguntza eskaini zien, estatu-kolpea ematen lagunduko zien formakuntza militarra eskainiz. 1934ko maiatzean Fal Conde Comunión Tradicionalistako buru egitean, berriro ere erreketeen militarizazioa erradikalizatu egin zen eta gerrarako lehen oinarriak bertan prestatzen hasi ziren. Hori bideratzeko, kabo, sarjentu eta ofizialak formatzeko Akademia Militarra martxan jarri zuten eta entrenamenduak, Urbasan, Markalain eta Makirrianen egiten zituzten. 1934ko urriko Iraultzaren testuinguruan, beraien miliziak Gobernadore Zibilaren eskuetan ezarri zituzten, ordena sozial tradizionala inposatzeko lemapean.



1932an, Jaime del Burgok zuzendutako erreketeen formakuntza militarra Makirriainen.

[154] Handik aurrera, erreketeek, dekuriak utzi eta patruiletan egituratzeari ekin zioten.

[155] UGARTE TELLERIA, J., op. cit., 67.or.

[156] CALLEJA, E.G.; ARÓSTEGUI SÁNCHEZ, J. 1994. "La tradición recuperada: el Requeté carlista y la insurrección". *Historia Contemporánea,* 11. Zbk: 32. or.

[157] *Ibidem*, 35. or.

[158] *Ibidem*, 38. or.

[159] *Ibidem*, 40. or.

Fal Conde haren buru izanik, bozka bidez ezarritako boterearen aurkako politika egituratua osatzen jarraitu zuten:

"La intención de Fal era desarrollar una política más militante, agresiva e intransigente, transformando la Comunión en un partido de masas perfectamente encuadradas en secciones especializadas que actuarían bajo control centralizado"[160].

Urte horietan guztietan Margarita, Socorro Blanco, Zirkulo Tradizionalista eta Pelayoek militarizazio horretan guztian lagundu zuten:

"A medida que el ingreso de militares en servicio o retirados por las leyes de Azaña permitían cubrir los cuadros de mando e inspección del Requeté junto con las docenas de hombres adiestrados en Italia, se efectuaba una escrupulosa tarea de selección de la suboficialidad, mediante cursillos de teoría y práctica militar como los impartidos por el propio del Burgo todos los martes, jueves y sábados de 20 a 22 horas a los aspirantes a sargentos y por Mario Ozcoidi los lunes, miércoles y viernes a la misma hora a los aspirantes a cabos"[161].

Erreketeek, arestian aipatu gisan, behin formatuta, uneoro kanpo indar faxisten eta nazien laguntza bilatu zuten. Horien artean, garrantzitsuena aurreko lerroetan aipatutako armen hornikuntza izan zen, taktika eta teknika militarrak gauzatuz, geroz eta herri gehiago ordena sozial tradizionalaren menpe ezartzeko beharrezkoa baitzuten:

"En abril (de 1935), Olazábal viajó nuevamente a Roma y propuso un encuentro entre Fal Conde y Mussolini, que no pudo llevarse a cabo ante la pérdida de interés del dirigente fascista por los «asuntos» de España tras el acercamiento italo-francés. Olazábal volvería a Italia en septiembre para solicitar en vano nueva ayuda, y realizaría otro viaje el 12 ó 13 de julio de 1936, revelando a Senzadenari los planes de insurrección para fines de ese verano con la esperanza de obtener la ayuda prometida, que de nuevo le fue denegada"[162].

1936ko otsailaren 28rako, erreketeek, Estatu Espainiar osoan, gerrako lehenengo zein bigarren lerroan borroka zezaketen 25.000 soldadu zituzten[163] eta horietatik, 1.000 gipuzkoarrak ziren (oraindik ere egituratu gabeak zeudenak).

1936ko otsaileko hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi ostean, martxoan, Fal Conde eta Javier de Borbon Parmak zuzendutako Donibane Lohizuneko bileran, estatu-kolpea egituratzeko lehen pausoak eman zituzten. Bitartean, Bigarren Errepublikako gobernu berriaren aurkako militarrak ere, erreketeekiko zatituta hasiera batean, estatu-kolpea prestatzen hasi ziren.

Gobernu aldaketarako bidea, suzko armez emango zuten estatu-kolpea izango zen. Militarrei dagokionez, otsaileko bilera Iruñan bertan Union Militar Española-ko Bigarren Errepublikako gobernuaren kontra zeuden militarren batzordeko zazpi ofizialek gauzatu zuten. Haren ostean, 1936ko martxoaren 8an, Madrilen, Franco, Mola, Orgaz, Saliquet, Fanjul, Varela, Villegas, Kindelán eta Rodríguez del Barrio jeneralak bildu ziren. Hauek guztiak, Masquelet jeneralak, Gerrako Ministro Berriak agindutako lanpostu toki berrien lekualdatzean aurkitzen ziren, Bigarren Errepublikako Fronte Popularreko gobernuak, militar haiek guztiak gertu mantenduz estatu-kolpea emateko gaitasuna ikusten baitzuen. Bigarren Errepublikako gobernuak muzin egin zion haiek Madrilen biltzeko zuten gaitasunari eta era berean, estatu-kolpea formulatzeko zuten gaitasunari.

Emilio Mola Vidal militarrak 1936ko ekainean Nafarroako erreketeekin hasitako elkarrizketek, estatu-kolpea batasun eta indarrez gauzatzeko baliabidea eman zion. Erreketeak organismo paramilitar antolatu eta hausturarik gabekoak ziren, guztiz beharrezkoa gerra irabazteko.

Gipuzkoan ere, estatu-kolpea defendatuko duen indarra Comunión Tradicionalista izango da eta haren indar-paramilitarra erreketeak:

"Con presencia en la mayoría de los municipios guipuzcoanos, bien a través de Círculos Tradicionalistas o de los sindicatos profesionales, controlados mayoritariamente, cuentan con requetés organizados en la mayor parte de las localidades"[164].

*GIPUZKOAKO KOLPISTEN PLANTEAMENDUA

1936ko maiatzean, Agustin Telleria, Gipuzkoako Erreketeen Probintziako buruzagia atxilotu egin zuten, bere etxean txapela gorriak aurkitzeagatik. Handik aurrera Juan Irizar Gipuzkoako Erreketeen Probintziako Jefe izendatu zuten eta honi, Jorge Uria Eibarreko Círculo Tradicionalista-ko presidenteak, Bergarako zonaldean erabiltzeko armak eman zizkion. Gerra hasterako, erreketeek, Antzuolako parrokian eta Bergarako Sindikatu Profesionaleko lokalean armen deposituak zituzten:

"Los requetés estaban organizados en las diversas localidades en pequeños núcleos (17 en Antzuola, 24 en Bergara, 16 en Eibar, 12 en Zarautz, 13 en Azkoitia, 4 en Zumaya…) pero en general contaban con escaso armamento"[165].

Haien helburu nagusia, gerrarako entrenamendu paramilitarrak gauzatzea eta armak lortzea zen. Era berean, falangistak ere egituratuta zeuden, baina haien pertsona kopurua txikiagoa zen. Hala eta guztiz ere, gipuzkoar errekete eta falangistak, zenbaitetan,

[160] *Ibidem*, 41. or.

[161] *Ibidem*, 46. or.

[162] *Ibidem*, 48. or.

[163] ARÓSTEGUI SÁNCHEZ, J. 2013. *Combatientes requetés en la Guerra Civil española (1936-1939).* La esfera de los libros: Madrid, 88.or.

[164] BARRUSO BARÉS, P., op. cit.,. 66.or.

[165] *Ibidem*, 67.or.


agindu militarrei muzin egin zien eta Mola militarrak ez zuen bere menpean izango zuen konfidantzazko militarrik izan. Gipuzkoako desabantaila horrek ordea, ez zuen ekidin Gipuzkoako erreketeek eta falangistek ere indar militar kolpistekin bat egitea.

1936ko irailaren 17rako, Donostia tropa frankistek menpean hartu eta lau egunetara, azken hauek, erreketeak zerrendatzeko sistema egituratuta antolatzen hasi ziren:

"Ha quedado abierta la suscripción para los requetés que quieran alistarse como activos y como auxiliares. Los activos serán destinados al frente de combate y los auxiliares formarán el somatén local. Horas para la inscripción (…) en el cuartel general de Requetés (Antiguo Kursaal)"[166].

Getarian ere, organismo paramilitar tradizionalista eta kolpistekin bat egin zuenik ere izan zen. Horien artean ditugu, gerra irabazi ostean, Bigarren Errepublikaren alde borroka egin zuten getariarrei errepresio gogorra eragin zieten Antonio Aranguren Manterola, Jose Francisco Irigoyen Azpiazu, Victoriano Irigoyen Arrizabalaga, Juan Jose Larrañaga Amezti, Joaquin Larrañaga Aramberri, Saturnino Manterola Larrañaga, Jose San Martin Murua, Jose Antonio Azkue Martija, Jose Domingo Zubimendi Ezenarro eta Jose Maria Zubimendi Ecenarro, beste zenbaiten artean. Batzuek gerra lurreko tertzio erreketeetan egin bitartean, Getaria kostako herria izanik eta herritarren gehiengoak itsasoko lanean zuten esperientzia kontutan izanik, erreketeen itsas-gudontzidian jardun zuen beste zenbaitek ere[167].

Beste zenbaitek ordea, gerrako urteetako kintetan egotea tokatzen zitzaielako derrigorrean joan behar izan zuten borrokatzerra. Hori izan zen, esaterako, Victor Iribar Areizaga getariarraren kasua. Azken honek, gerra hastean, Getariatik Frantziara ihes egin zuen, baina denbora baten ostean, berriro ere Getariara egin eta tropa frankisten ejertzitoan sartu behar izan zuen. Gerra ostean, bere anaia Juan Iribar Areizagak argitzen duenez, Victor Iribar Areizaga, Ferrolen Gerra-Kontseilua egin zain aurkitzen zen.



JUAN IRIBAR AREIZAGA

GUETARIA
(Guipúzcoa)

Sr. D. Angel Suances Piñeiro

EL FERROL DEL CAUDILLO

Muy señor mío y de mayor consideración: Como asistente de Vd. durante mi servicio en la marina, me permito dirigir á V. para exponer el siguiente caso:
Mi hermano el portador de la presente VICTOR IRIBAR AREIZAGA del reemplazo de 1937 marina que durante el Movimiento, con los demás evacuados se marchó á Francia, volvio al cabo de poco tiempo y ha servido en el Ejercito durante la campaña, como acreditan los certificados que obran en su poder. Ahora ha sido llamado a Ferrol para el Consejo de Guerra,(según se supone por la causa de deserción o falta de incorporación con su reemplazo). De esta localidad han pasado varios por dicho Consejo, muchos de ellos que no han prestado servicio alguno con los Nacionales, y otros han tenido que esperar bastante tiempo al turno. Como el caso de mi hermano no es igual, pues tiene hecho el tiempo reglamentario en filas, aunque se retrasara unos días su incorporación, no quisiera que lo tuvieren sin consideración y mucho tiempo, por lo que, si Vd. pudiera, valiendo de sus relaciones, gestionar la pronta tramitación de la causa y su libertad, le agradecería infinito.
Con gracias anticipadas y reiterandome suyo para cuanto le pudiera servir le saluda atentamente su S. S. q. e. s. m.

Juan Iribar Areizaga bere anaia Victor Iribarren babesean[168]. (GUA).

GETARIAKO GERRARA JOANDAKO ERREKETE BOLUNTARIOEN ETA SOLDADUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
ALKORTA, BARTOLOME	-	-	Soldadua
AIZPURU AIZPURU, JOSE	23	-	Soldadua
ANDONEGUI EIZAGUIRRE, SINFORIANO	30	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ANDREANO INDO, GUILLERMO	24	Gazitze-industria	Soldadua
ARANGUREN MANTEROLA, ANTONIO	24	Arotza	Atzeraguardiako erreketeen buruzagia / Zumalacarregui Tertzioko 3.en konpainian sarjentu

[166] "Requeté de Guipúzcoa", *El Diario Vasco,* 1936ko irailaren 17a, 4. or.

[167] Jarraian doakizuen taulan, Getariako udal-artxiboko soldaduska deialdian errekete boluntario (v.r.=artxiboan bertan, voluntario requeté), itsas-armadako boluntario (v.m.= artxiboan bertan, voluntario marina) zein itsas armadako errekete (v.r.m= artxiboan bertan, voluntario requeté marina) gisan identifikatu ditugun kolpisten armadako soldaduak sailkatu ditugu.

[168] Getariako Udal-Agiritegia (GUA).

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
ARANGUREN MANTEROLA, JESUS	17	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ARAKISTAIN ALTUNA, CAYETANO JOSE	17	-	Errekete gudontzidiko boluntario
AREIZAGA IRURETAGOIENA, JOSE	21	-	Soldadua
AREIZAGA IRURETAGOIENA, JUAN	16	-	Soldadua
AZKUE AIZPURU, PRUDENCIO	19	-	Errekete gudontzidiko boluntario
AZKUE MARTIJA, JOSE ANTONIO	24	-	Atzeraguardiako boluntario erreketea / Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian
AZPEITIA IBARGUREN, JOSE MARIA	18	-	Errekete gudontzidiko boluntario
AZPEITIA OIARZABAL, JOSE MARIA	18	-	Errekete boluntario
AZPEITIA OIARZABAL, MANUEL	16	-	Errekete boluntario
CALVO ARANGUREN, ANTONIO	20	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ETXABE FURUNDARENA, DIONISIO	26	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ETXEBERRIA ERKIZIA, JOSE MARIA	-	-	Tercio Lacar
ETXANIZ ITXASO, EZEKIEL	28	Medikua	Teniente Medikoa Oriamendi Tertzioan
ERORKI BAKAN, ALFREDO	27	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ESNAL OSTOLAZA, BERNARDINO	20	-	Zumalakarregi Tertzioa
ESNAL OSTOLAZA, JOSE MARIA	22	-	Errekete boluntario
GARRASTAZU ARANGUREN, JUAN (IGNACIO)	22	-	Errekete boluntario
GARRASTAZU ARANGUREN, RAMON	-	-	Soldadua
GARRASTAZU ARRUTI, J. IGNACIO	Adingabea	-	Errekete boluntario
GARRASTAZU ARRUTI, JOSE MARIA	Adingabea	-	Milizia Tradizionalista
GOROSTIDI LARUNBIDE, FRANCISCO	19	-	Errekete boluntario
GIBERT TOBAR, JOSE ANTONIO	15	-	Errekete gudontzidiko boluntario
ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, DONATO	18	-	-
INCHAURRANDIETA ARRECHE, LUIS "TXAPO"	32	Apaiza	Apaiz erreketea / Oriamendi Tertzioko alfereza
IÑARRA MAYOZ, JOSE MIGUEL	-	-	-
IBARGUREN LARRAÑAGA, ANGEL	22	-	Errekete boluntario
IRIBAR AREIZAGA, ANICETO	21	Arrantzalea	Soldadua
IRIBAR AREIZAGA, VICTOR	18	-	Soldadua
IRIBAR ARREGI, GABRIEL	18	-	Soldadua
IRIBAR ZULAIKA, CLAUDIO	26	-	Errekete gudontzidiko boluntario
IRIGOIEN ARRIZABALAGA, VICTORIANO	25	Ebanista	Errekete boluntario / Atzeraguardiako erreketeen buruzagia / Zumalacarregui Tertzioko 3.en konpainian
IRIGOIEN AZPIAZU, JOSE FRANCISCO	18	-	Errekete gudontzidiko boluntario
IRURETAGOIENA ARREGI, ANTONIO	23	-	Soldadua
IRURETAGOIENA ARREGI, JOSE FRANCISCO	20	-	Soldadua
LARRAÑAGA AMEZTI, JUAN JOSE	28	Trenean	Zumalacarregui Tertzioan
LARRAÑAGA ARANBERRI, JOAKIN	18	Arrantzalea	Erreketeen gudontzidia: Canarias kruzeroa
LARRAÑAGA UZIN, JOSE	26	-	Errekete gudontzidiko boluntario
LAZKANO AZKUE, JOSE	27	Nekazaria	Oriamendi Tertzioa
MANTEROLA AGOTE, JUAN MARIA	18	-	Errekete gudontzidiko boluntario
MANTEROLA LARRAÑAGA, SATURNINO	16	-	Erreketeen gudontzidia: Calvo Sotelo kanoilaria eta Marte miaketa ontzian
MARTINEZ SEGURA, PEDRO	-	Albaitaria	Soldadua
MAYOZ PEÑA, BERNABE	26	-	Soldadua
OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MANUEL	16	-	Soldadua
OTAMENDI ILLARRAMENDI, DIONISIO	21	-	Soldadua
PILLADO FERNANDEZ, ANTONIO	-	-	Itsas-armadako boluntarioa
RICA JUARISTI, JOSE LUIS	26	-	Errekete boluntario


IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
SAN MARTIN MURUA, JOSE	20	Arrantzalea	Erreketeen gudontzidia: Juan Mari itsasontzia
UZIN IRURETAGOIENA, JOSE	21	-	Errekete gudontzidiko boluntario
UGARTE EZEIZA, LEONCIO	27	-	Errekete boluntario
ZUBIMENDI EZENARRO, JOSE MARIA	-	Epaile munizipala	Errekete boluntario
ZUBIMENDI ESNAL, JOSE ANTONIO	21	-	Soldadua
ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, LORENZO	21	-	Errekete boluntario



Erreketeen Gudontzidiko boluntarioak (toki ezezaguna).

Errekete boluntarioen artean gertatutako beste kasu kuriosoetako bat errekete apaizak armatu eta Gerra Zibilean borrokatu eta frankismoan zehar, errepresio-eragile gisan funtzionatzea izan zen. Antonio Añoverosek, geroago Bilboko apezpiku izan zenak, esaterako, Bardeetan egindako errepublikarren hilketak presentziatu zituen; Santos Begiristain apaiz nafarrak, tropa frankistek hil beharreko errepublikarren zerrendak egin zituen… Nafarroan eta Errioxa Beherean, pistola soinean, apaiz errekete askok errepublikarren bizitzarekin amaitu zuten.

Getariarren memorian ere zenbaitek ongi gogoan izango dute, Luis Inchaurrandieta Arreche "Txapo" apaiz lezoarra. Gerra Zibilean, errekete boluntario gisan parte hartu zuen, Oriamendi Tertzioko alferezа izendatu eta frankismoan zehar ere, indar-errepublikarren alde egin zuten zenbait getariarren aurkako errepresioa gauzatu zuen.



Seminarista armatuak Iruñako zezen-plazan.



FICHA N.º 208.

Apellidos: ICHAURRANDIETA ARRECHE
Profesión: SACERDOTE
Nombre: LUIS
Natural: LEZO
Edad: Fecha nacimiento: 32 7 de NOVIEMBRE DE 1904
Nombre padre: JOSE JUAN
Nombre madre: LUISA
Estado: SOLTERO
Nombre esposo:
Cuantos hijos:
Edades extremas:
Filiación: REQUETE
Graduación: 10-Oct-36 alferez. = CAPELLAN 2º Teniente =
Procedencia: SAN SEBASTIAN
Destino: Tercio de "Oriamendi" 3ª Regueta.
Noticias: CALLE MAYOR 27- 2º. Lezo é a la Parroquia Tel. 6.048.=
Observaciones: Incorporado 11-11-36
Referencia:

Luis Inchaurrandieta Arreche apaiz erreketearen fitxa.
(Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra).

3.1.1. Bigarren Errepublikaren aldeko indarren erantzuna Gipuzkoan

Indar errepublikarrek unean-uneko estatu-kolpe baten zurrumurruak izan zituzten, baina horren aurrean ez zuten defentsa egiturarik gauzatu. Ez zeuden arestian ikusitako erreketeen formakuntza militar tekniko eta taktiko berdinarekin prestatuta. Gerrak, gehiengoak, esku hutsik harrapatu zituen eta horri aurre egin ahal izateko ezinbesteko neurriak oso denbora gutxian hartu behar izan zituzten.

Donostian, esaterako, estatu-kolpearen lehen uneak nahiko lasaiak izan baziren ere, estatu-kolpearen porrota eta gerraren hasierarekin, Krisi-Gabinetea osatzea ezinbestekotzat hartu zuten. Hala, Gobernadore Zibilarekin bat, UGT, ELA/STV, CNT, Irujo, Lasarte eta Amilibiarekin batera uztailaren 18an bertan sortu zen. Egun horien testigu, esaterako, Donostian aurkitzen zen Martina Olaizola getariarra izan zen:

"M: ta octubre septiembre azkenean baserrira baserrira itzuli nintzen hoteletik. Ta han izeba batek esan zidan; etorriko bazinake laguntzera gure etxera ta... Han beste hiru hilabete egin nituen, eta lagundu egin nituen josten ikasten ere ibili nintzenzen. Hurrengo apirilean, berriz ere segi lanian gauzak iten hotelekuak. Julion zan bai, treintaiseisian, hasi zen Gerra; iluntze batian balkoian bageunden han, kozinera zera zan gailega. Celia zuen izena. Hoteleko balkoian gauden, ta tiroka, ta tiroka gerra hasi egun hartan… gu konturatu ez egun hartan. Hurrengo goizean, aldamenean CNTkoak geunduken eta tiroka ibili ziren, gu aszensorea hartu eta bera, egun guztia jan gabe egon ginen. Gero hurrengo eguenen kamionan etxera danok, eta Etxekoandreak eta familia denak alde egin, nik esaten det hainbeste gauza lagata… Haiek pena izango zuen"[169].

Krisi-Gabineteko botere nagusia, Estatu Nagusiko Augusto Perez Garmendia komandanteak izan zuen. Kolpe militarrari aurre egin zieten indar errepublikarrek, Donostia eta gainontzeko lurraldeak Bigarren Errepublikaren egitura politikoen baitan mantendu ahal izateko, Bigarren Errepublikaren gobernuaren aldeko Defentsa Batzordeak eratzeari ekin zioten. Horren emaitza, 1936ko uztailaren 27an, ordura arteko botere desagertuaren hutsunea betetzeko asmoz sortutako Gipuzkoako Defentsa Batzordea izan zen:

"La Junta nace con un espíritu de concentración de todas las fuerzas que se mantienen junto a la legalidad republicana y con la intención de regir todos los aspectos de la vida provincial"[170].

GIPUZKOAKO DEFENTSA BATZORDEA

PRESIDENTEA
Miguel Amilibia (PSOE)

Gerra Komisaria:
Jesus Larrañaga (Euzkadiko PC)

Hornidura Komisaria:
Sergio Etxebarria (PSOE)

Garraio Komisaria:
Jose Aguado (IR)

Ordena Publikoaren Komisaria:
Telesforo Monzon (EAJ)

Informazio Komisaria:
Miguel González Inestal (CNT)

Finantza Komisaria:
Jose Imaz (EAE)

Horretarako, Gipuzkoako Defentsa Batzordearen barnean, egunerokotasuna erregulatzeaz arduratuko ziren aipaturiko Komisariak sortu zituzten. Komisarien indar nagusia, bost ordezkarirekin, Fronte Popularraren esku zegoen. Komisariak ezartzeko eraikin publikoen konfiskazioa burutu zuten: Diputazioan Gerra Komisaria ezarri zen, Hornikuntzarena Udaletxean, Garraioena Kasinoan (gaur egungo udaletxean), Ordena Publikoarena Gobernu Zibilean, Informazio eta Propagandarena Udaleko Telefono-zerbitzuaren eraikinean eta Finantza Komisaria, Probintziako Aurrezki Kutxan. Komisariak, aldi berean, alderdi ezberdinetako partaideen Komiteek osatzen zituzten.

1936ko abuztuaren 7an, Gobernadore Zibila kargugabetu eta handik aurrera, Ortega Karabineroen Tenienteak Gipuzkoako lurraldeko agintea hartu zuen. Abuztuaren bukaeran, 24ean konkretuki, Lan eta Laguntza Sozialerako Komisariak ireki zituzten. Handik aurrera, Gipuzkoako Defentsa Batzordearen menpe egongo ziren (teorian) Azpeitiako eta Eibarko Defentsa Batzordeak sortu ziren.

Eibarkoak bere mendean Debako jurisdikzioa hartu zuen eta Azpeitiakoak, Azpeitiako Komandantzia ere deituak, Gipuzkoa erdialdea mendean zuenak, haren gehiengoan nazionalistak biltzen zituen: Manuel Irujo Ollo (EAJ-guztien buruzagia) Telesforo Monzon Ortiz de Urruela (EAJ), Jose Maria Lasarte Arana (EAJ/ELAko abokatua), Salvador Aranburu Irastorza (ELA/STV), Lino Lazkano Leturia (Euzko Nekazarien Bazkuna), Mikel Alberdi Garcia (Mendigoixalea), Tomas Mitxelena Olano (EAE/ANV), Jose Estornes Lasa (EAJ), Miguel Jose Garmendia Aldaz (EAJ/ELA), Mikel Aierdi Aldasoro (Gipuzkoako Mendigoizale Batza) eta Kandido Saseta Etxebarria buru militarra izanik. Hauek 1936ko abuztuaren 5etik aurrera Eusko Gudarostea sortu zuten agintariak izan ziren[171]. Getaria zehazki, azken horren jurisdikziopean zegoen[172].

Bi Defentsa Batzorde hauek hartzen ez zituzten lurraldeak, Gipuzkoako Defentsa Batzordearen eskuetan geratu ziren, zeinak Frantziako mugatik Oriako ibaira hartzen zuen. Defentsa Batzorde egituratu horien barnean, era berean, herri bakoitzeko egituratze politikoa gauzatzeko herrietako Komiteak egituratu zituzten.

---

[169] Testigantza: ahotsak.eus. Martina Olaizola Balerdi: GET-015. "Gerra hasierako bizipenak hotelean".

Testigantzetarako argibideak: (…) adierazpenak, elkarrizketa liburuan ezartzeko egokitua izan dela esan nahi du. / Adierazpenak, elkarrizketatuarengan isilunea izan dela adierazten du. / Elkarrizketatzailea, "E" adieraz adieraziko da. / Elkarrizketatua, bere izenaren lehenengo letraz adieraziko da. / Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

[170] BARRUSO BARÉS, P., op. cit., 118.or.

[171] BUCES CABELLO, J., op.cit, 43.or.

[172] PARDO SAN GIL, J. 1998. *Euzkadiko Gudontzidia=La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi*. Untzi Museoa: Donostia, 32.or.

Juan Pardo San Gili bere esker ona erakutsi nahi diogu, bere ikerketa-lanarengatik izan ez balitz, ezinezkoa izango bailitzaiguke segidan doakizuen atala osatzea. Horrenbestez, liburuko atal honetan sorturiko edozein zalantza aipatu bere liburuan kontsulta dezakezue, modu zabalagoan azaltzen baitu.

Gipuzkoako kostaldeko zonaldean gehienbat nazionalistek zuten boterea eta hauek estatu-kolpearen lehen instanteetan neutral mantentzeagatik, ez zituzten Herriko Defentsa Komiteak segituan sortu. Hala eta guztiz ere, Defentsa Komiteetako Gerra Komisariek gero gerrara joango ziren miliziak egituratu zituzten dekretu bidez 1936ko abuztuaren 7az geroztik:

"Por ello, en el decreto de creación de los mismos del 7 de agosto, se ponen una serie de condiciones. Entre las más importantes el alistamiento por un mínimo de dos meses –o hasta que termine la campaña- y que el mando corresponderá a 'oficiales y clases del Ejército, Guardia Civil, Asalto y Carabineros'. Por su parte el Gobierno garantiza la conservación del puesto de trabajo y el sueldo íntegro a los milicianos"[173].

Getarian, herriko udal-artxiboan ikertu ahal izan dugunez, honakoak izan ziren Herriko Defentsa Komitea eratu zutenak:

GETARIAKO DEFENTSA KOMITEA[174]

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	KOMITEKO POSTUA	FILIAZIOA
AIZPURU LAZKANO, JOSE	23	Jornalaria	Gerra Komiteko kidea	EAJ/PNV
ALEGRIA LASA, ANTONIO	-	Getariako Bigarren Errepublikako alkatea	-	EAJ/PNV
ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME	46	Mekanikoa	Getariako Hornikuntza Komiteko kide	UGT
EGURBIDE ISASTI, JOSE	-	-	Getariako Obren Komiteko kide	Fronte Popularra
ESNAL, KANDIDO	-	-	-	Fronte Popularra?
ITUARTE, ANTONIO	43	-		EAJ
SETIEN CALVO, PEDRO	-	Mekanikoa eta gidaria	Komunikazio Komisaria (frankistek esandakoa)	UGT



Getariako Defentsa Komitea. (Renoko Unibertsitatea).



Jose Aizpuru Lazkano. (senideek emandako argazkia).



Jose Egurbide Isasti. (senideek emandako argazkia).

Horiez gain, agregatu edo laguntzaileak ere izan zituen Getariako Defentsa Komiteak:

GETARIAKO DEFENTSA KOMITEKO AGREGATU EDO LAGUNTZAILEAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
AIZPURU LAZKANO, AGUSTIN	30	Harakina	Euzko Alderdi Jeltzalea
ALKORTA INDO, RAMON	23	-	Fronte Popularra
BERASALUZE ELIAS, (A) NICETO	-	-	Juventudes Socialistas Unificadas (JSU) Kultura eta kirol batailoia
ETXANIZ ITXASO, EZEKIEL	-	Medikua	Tropa frankistak Getariara sartzean, Oriamendi Tertzioaren zerbitzura lan egin zuen
LARRAÑAGA ARANBURU, JOSE MARIA	23	Gidaria eta dendaria	UGT
MARTINEZ GIL, JULIAN	-	Marinelen eskolako irakasle nazionala	Izquierda Republicana (IR)[175]
SETIEN CALVO, JUAN	29	Mekanikoa (txofer lanak egin) eta marinela	Unión General de Trabajadores (UGT)

[173] BARRUSO BARÉS, P., op. cit., 138.or.

[174] Honakoa zehazteko, Getariako Udal-Artxiboko dokumentu frankistetan oinarritu gara; besteak beste, bertan, Getariako Defentsa Komiteko kideei egindako akusazioak ageri zaizkigu.

[175] Liburuan zehar Izquierda Republicana alderdi politikoa "IR" laburduraz adieraziko da.



Agustin Aizpuru Lazkano. (Senideek emandako argazkia).



Aniceto Berasaluze Elias. (Senideek emandako argazkia).



Jose Maria Larrañaga Aranburu eta Karmen Campos. (Senideek emandako argazkia).

Komitea, gerrarako armak eta kotxeak errekisatzeaz arduratu zen, tropa frankistak gainean baitzituzten eta haien aurrean defendatu beharra baitzuten. 1936ko abuztuaren 18an Getaria, Azkoitia, Zestoa, Errezil, Goiatz, Bidania, Beizama, Zumaia, Aizarnazabal, Deba, Zarautz eta Aiako udalen artean, hornigaien junta erregulatzeko zenbait neurri hartu zituzten. Indar-errepublikarrek zein tropa frankistek ere zenbait getariarren garraioak konfiskatu egin zituzten, gerra zein hornigaien beharretarako:


Euskal lurraldeetako indar-errepublikar ezberdinek, emakumeak ere gerrara eramateko hautua egin zuten. Hori egin zutenak, batik bat, Bigarren Errepublikako gobernua defendatu zuten indar ezkertiarrak izan ziren, haien artean komunista eta anarkistak nabarmenduz, batik bat[176]. Gerrako hasierako hilabeteetan, lurralde errepublikar guztietan, aipatu indar-errepublikarrek emakumeak frontera joateko deitu zituzten. Zenbait indar-errepublikarrek, gerra, iraultza gisan ulertu zuten, hau da, ordura arte emakumeak oprimituta egotera bermatzen zituen ordena



Euskal emakumea kolpistek etendako eta herriak demokratikoki hautatutako Bigarren Errepublikako gobernua babesteko gizonezkoei dei egiten.

IZEN-ABIZENAK	KONFISKATUTAKO ONDASUNAK
ALKORTA, CASILDO	Ford 9783 matrikulako kamioia
IRIBAR GALARRAGA, CELEDONIO	Chrisler markako kotxea eta Chevrolet markako kamioneta
LARRAÑAGA, IGNACIO	Kamioia
ORLANDO GUZMAN, SALVADOR	Reo markako 9347 matrikulako garraioa

Errekisatutako garraioak. (GUA).



[176] Hor dugu esaterako, Soledad Casilda Hernáez Vargas "Kaxilda" gisan ezaguna zen anarkista. Bigarren Errepublikan zehar errepresioaren aurkako zenbait ekintza burutzeaz gain, Gerra Zibilean zehar, teniente gisan borrokatu zuen Hilario Zamora Zutabean.

tradizionalarekin hausteko tresna gisan erabili zuten, besteak beste; emakumea bere kateetatik askatu nahi izan zuten. Emakume haietako asko, soinean zeramatzaten kateen jakitun zen, egunerokotasunean kalean, fabriketan[177]… bizitako momentu krudelengatik. Bigarren Errepublika zehar, emakume haiek, aurrean azaldutako egoera krudela borrokatzeko formakuntza politikoa jaso zuten[178] bizi zutena borrokatzeko formakuntza politiko ezberdinen jabe izatera bultzatu zituen eta azken horrek, kontzienteki, ordena tradizionala aldatzekotan, gerran parte hartzera bultzatu zituen. Beraz, kontzientzia politikoa zuten emakumeak ziren eta hartaz, gerran, kontzienteki parte hartu zuten, beste zenbait gizonezkok gisan:

"Lucharon en el frente de Segovia donde se creó un batallón de mujeres; pero también en Cataluña desde donde enviaron un batallón femenino para defender Mallorca; en Asturias se formó un pequeño grupo de milicianas y una de ellas llegó a ser Capitán de una Compañía de ametralladoras"[179].



Emakume miliziarra, izkiluarekin.



Emakumeak gerran, propaganda-argazkia.



Guadarraman emakume miliziarra borrokan 1936ko uztailaren 25ean.

[177] Zenbait fabriketako jabeek, emakume langileak beraien prostitutak bailiran erabiltzen zituzten. Emakume haiek, lanera, etxean zituztenei jaten eman ahal izateko joaten ziren eta askotan, jabea behar horretaz aprobetxatzen zen. Hau da, jabeari fabore sexualak egiteagatik, haren ordainetan, zenbait benefizio, kasu hartan, janaria, gehienetan, lortuko zituztela aitortuta. Jabe aberats batzuk emakume langile pobrearen egoeraz probesten ziren eta menpeko egiten zuten bigarren aldiz. Lehenengoan, bere fabrikarako eskulana zelako eta handik gainbalioa lortuz. Bigarrenik, sexualki eraso eginez. Honako konklusioak "Gerra Zibilak eta gerraosteko egoerak euskal emankumeengan eragindako zauriak: errepresioa eta erresistentziak (1936-1945). Alegiako kasua" Master Amaierako lanerako aurkeztutako ondorioak dira.

[178] Bizi zuten egoera hura ez zela ausazkoa eta ez zutela zertan egoera hartan bizi ohartzeko balio izan zien. Eta hartaz ohartuta, egoera hura aldatzeko zenbait mekanismo lortu eta zenbaitetan garatu egin zituzten. Esaterako, emakume anarkistek, prostituzioa bortxaketa ordaindua zela jakitun, emakume haiek prostituziotik atera ahal izateko zenbait egitura osatu zituzten.

[179] GÓMEZ ESCARDA, M. 2008. "La mujer en la propaganda política republicana de la Guerra Civil española". *Barataria: revista castellano-manchega de ciencias sociales, 9*. Zbk: 87-88.orr.

Euskal nazionalistek ordea, hein handi batean, ordena tradizionalaren aldeko hautua egin zuten, hain zuzen, emakumea atzeraguardiara mugatu zuten eta Bigarren Errepublikan zehar eta gerran hitza hartu zuten emakume nazionalistak, ordena tradizionala mantentzeko propaganda eta mitinen ardurez baino ez ziren arduratu:


"La militancia nacionalista femenina, sin embargo, no debía confundirse con la masculina. Aquella ponía especial énfasis en la labor patriótica a través de la función maternal y familiar, y en el ámbito público quedaba restringida a la beneficencia, la asistencia social, la lengua, la educación y la propaganda, quedando la actividad estrictamente política en manos de los hombres"[180].

Eusko Gudarostean, emakumeen parte hartzea irmoki debekatu egin zen[181]. Getarian ere izan zen gerrako frontean parte hartu zuen emakumerik, huraxe izan zen Fermina Etxegoienen kasua.

Hala eta guztiz ere, 1936ko urriaren 16an Francisco Largo Caballero Gerra Ministroaren aginduz Errepublikako Ejertzito Popularra sortzeko aginduarekin batera, emakumeak lubakietako lehen lerrotik atzeraguardiara eramateko agindua iritsi zen. Anarkistek eta beste zenbait indar-errepublikarrek aginduari muzin egin bazien ere, haien gehiengoak agindua bete egin zuten. Horren eraginez, gerrara joan ziren emakumeak, atzeraguardiako fabriketako langile, ospitale-langile, gerrako amabitxi[182]… bihurtu ziren. Emakumea, beste behin, ordena tradizionalaren baitan ezarri zuten eta ezin izan zuen irauli ordura arte beregain ezarritako lan banaketa sexuala.

Nolanahi ere, indar-errepublikarren alde, esan beharra dugu, hasiera batean emakumeak lehen lerrora eramatearekin lan banaketa sexual tradizionalarekin hautsi nahi izan zutela. Aldiz, frankistek, argi erakutsi zuten haien emakumeak non egon behar zuten, ordena tradizionala mantentzearren eta ez haustearren, haien tokia etxeko espaziora mugatuko zen atzeraguardian. Indar errepublikarreko emakumeak ez bezala, haien jarduera, hein handi batean, Auxilio Social deiturikoak sortutako umeentzako komedoreetan zein beti ere, emakumea etxeko espazioan mantenduko zuten; propaganda egitera mugatuko zen.

Hori gutxi balitz, emakumeek, gerran zehar, errepresio sexual bortitza eta erbestea, beren gorputzean jasan beharra izan zuten.



Soldadu errepublikarrak eskutitzak idazten.

[180] UGALDE SOLANO, M. 1993. *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza.* 1906-1936. Emakunde: Bilbao, 524.or.

[181] MARTINEZ, MARISOL; MENDAZA, DAVID; EGAÑA, IÑAKI. 2000. *1936 Guerra Civil en Euskal Herria.* Aralar Liburuak: Andoain.

[182] Hauek soldadu errepublikarrei gerran mantentzeko animoak emateaz eta azken finean, beraien bikotekideak bailiran jokatzen zuten. Emakume haiek, gerran zegoen soldadu bat baino gehiagori eskutitzak bidaltzeaz arduratu ziren. Hau guztia, indar-errepublikar batzuek egituratu zuten, gerra irabazteko tresna beharrezkotzat determinatu baitzuten (Izquierda Republicana, komunistetako batzuk…). Komunista batzuek eta anarkistek ordea, emakumea ekintza horietarako erabiltzea irmoki gaitzetsi zuten. Izan ere, gisa horretara, emakumeak gizonezkoen babesle funtzioa betetzen zuten eta subjektu politiko gisan azpimarratu beharrean gizonezkoen objektu bihurtzen ziren. Horrek beraz, anarkista zein komunista batzuentzako emakumearen askatasunerako muga suposatzen zuen. Amabitxiak tropa frankistek ere erabili zituzten. Frankistek, gerra amaitzean, indar errepublikarren aldeko amabitxiak prostitutatzat kalifikatu zituzten, beren ordena tradizionala ez baitzuten jarraitzen errepublikazaleei bidalitako eskutitzetan.

cibirá órdenes para su actuación en los frentes de combate del citado sector.

Lo que comunico a V. E. para su conocimiento y efectos. Madrid, 15 de Octubre de 1936.

LARGO CABALLERO

Señor...

Excmo. Sr.: La naturaleza político-social de las fuerzas armadas que actúan en todo el territorio sometido al Gobierno legítimo de la República y el motivo mismo de la guerra civil hacen necesario, a la par que imprimir la máxima eficacia militar al Ejército en armas contra la rebelión, ejercer sobre la masa de combatientes constante influencia, a fin de que en ningún instante se pierda la noción de cuál es el espíritu que debe animar a la totalidad de los combatientes en la causa en favor de la libertad. En ningún caso esta necesidad está en pugna con la absoluta conveniencia de prestigiar la autoridad de los mandos. Antes al contrario tiende, además de a lo que consignado queda, a establecer una corriente espiritual y social entre los Jefes, Oficiales y clases del Ejército leal y los soldados y milicianos que componen el volumen total de éste, de tal suerte que el noble afán combativo que a todos nos agrupa en los momentos actuales se centuplique, y al ser traducido en hechos, tengan éstos la virtud de que cada acción del Ejército leal al régimen sea paso firme y definitivo en orden al logro de la victoria total.

Por lo que antecede, he tenido a bien disponer:

1.° Se crea un Comisariado general de Guerra, cuya principal misión consistirá en ejercer un control de índole político-social sobre los soldados, milicianos y demás fuerzas armadas al servicio de la República y lograr una coordinación entre los mandos militares y las masas combatientes, encaminada al mejor aprovechamiento de la eficiencia de las citadas fuerzas.

2.° La acción de este Comisariado se extenderá a todo el territorio sometido al Gobierno legítimo de la Nación y tendrá su natural campo de desarrollo en las diversas Divisiones, Brigadas, Regimientos, Batallones, Columnas combatientes y unidades armadas de cualquier clase e índole.

3.° El Comisariado general citado será desempeñado por un Comisario general de Guerra, designado por el Ministro del Ramo.

4.° Dependientes del Comisario general de Guerra actuarán cuatro Subcomisarios generales.

5.° El Ministro de la Guerra podrá designar por orden manuscrita un número ilimitado de Comisarios delegados de Guerra.

6.° Sin perjuicio de cuanto se desprende de la presente Orden, el Ministro de la Guerra podrá dar en todo momento instrucciones al Comisariado general y a los Subcomisarios y Comisarios delegados a que se hace mención en los precedentes artículos.

Lo que comunico a V. E. para su conocimiento y efectos. Madrid, 15 de Octubre de 1936.

LARGO CABALLERO

Señor...

Excmo. Sr.: En virtud de lo dispuesto por Orden circular de esta fecha creando el Comisariado general de Guerra, he resuelto que el cargo de Comisario general a que se refiere el artículo 3.° de la citada circular recaiga en el Ministro de Estado, don Julio Alvarez del Vayo, y los de Subcomisarios a que se contrae el artículo 4.° de la citada Orden, en D. Antonio Mije García, D. Crescenciano Bilbao Castellanos, D. Angel Pestaña Núñez y D. Angel G. Gil Roldán, que tendrán a su cargo la misión conferida al Comisariado por dicha Orden circular.

Lo que comunico a V. E. para su conocimiento y cumplimiento. Madrid, 15 de Octubre de 1936.

LARGO CABALLERO

Señor...

Excmo. Sr.: Comprendido en el Decreto de 17 de Agosto último sobre reingreso en el Ejército de Jefes, Oficiales, Suboficiales y clases retirados para formar los cuadros de las unidades creadas a virtud de lo dispuesto en otro Decreto de igual fecha (*Diario Oficial* número 182), he resuelto conceder el reingreso en el Ejército al Teniente coronel retirado del mismo D. Arturo Mena Roig, con antigüedad de primero del pasado Septiembre.

Lo que comunico a V. E. para su conocimiento y efectos. Madrid, 15 de Octubre de 1936.

LARGO CABALLERO

Señor...

Excmo. Sr.: Vuelto a la situación de activo el Teniente coronel de Infantería retirado del Ejército D. Arturo Mena Roig, por Orden circular de esta misma fecha, y en uso de la autorización que me concede el Decreto de 13 del actual, he resuelto concederle el empleo de Coronel por haberse distinguido notablemente en las operaciones de guerra al frente de su columna, debiendo disfrutar la antigüedad de 30 del pasado Septiembre en el nuevo empleo que se le confiere.

Lo que comunico a V. E. para su conocimiento y efectos. Madrid, 15 de Octubre de 1936.

LARGO CABALLERO

Señor...

MINISTERIO DE HACIENDA

ORDENES

Ilmo. Sr.: Visto el escrito presentado por el Comité de control de Empresa del Ramo de Ahorro del Banco de Ahorro y Construcción, hoy Banco de Construcción, S. A., y

Resultando que con fecha 12 de Agosto último se dictó Orden ministerial por la que se decretó la liquidación intervenida del Ramo de Ahorro del extinguido Banco de Ahorro y Construcción, hoy Banco de Construcción, S. A., siendo nombrado Interventor del Estado D. José Pastorín e Ibarra, el que dentro del plazo ordenado ha remitido una Memoria explicativa de la situación económica y sobre su funcionamiento:

Resultando que con fecha 9 de Septiembre próximo pasado los funcionarios del Ramo de Ahorro del Banco de Construcción, S. A., se constituyeron en Comité de control, hecho que comunicaron a este Centro y que ha servido de fundamento para solicitar su reconocimiento oficial y su transformación en Comité directivo:

Vistos los artículos 293, 329, 351 y 352 del Estatuto de Ahorro, en relación con los artículos 404 y 405 del mismo texto, y especialmente el 317:

Considerando que en la actualidad funciona la intervención del Estado con el carácter de incautación ejercida por el Inspector de Seguros y Ahorro D. José Pastorín e Ibarra, situación que no es compatible con las peticiones formuladas por el Comité de control de funcionarios sindicados, no existiendo precepto legal en que fundamentar la sustitución de las facultades interventoras por personas que no formen parte del Cuerpo Técnico de Seguros, por lo que podría llegarse a una solución armónica en relación con las actuales circunstancias, aprovechando el ofrecimiento del Comité de control formado por funcionarios que tienen motivos fundados para conocer la organización técnica y administrativa del organismo, consistiendo

1936ko urriaren 16ko Lege-Dekretua. Emakumeak gerrako lehen lerrotik atzeraguardiara.



Emakumeak arma-fabrikan.

Getariako Defentsa Komiteak, arestian adierazi gisan, Bigarren Errepublikako gobernua defendatuko zuten miliziak egituratzeko ardura hartu zuen. Haien artean, ideologia ezberdineko indar-errepublikarrak egituratu zituzten.



Emakumea atzeraguardiara bultzatzeko propaganda.

GETARIAKO INDAR-ERREPUBLIKARRETAKO MILIZIANOEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
AGIRIANO ARANZABAL, PEDRO	53	Mikeletea	Eskuin ideologiakoa
AIZPURU LAZKANO, AGUSTIN	30	Harakina	EAJ/PNV
AIZPURU LAZKANO, JOSE	23	Jornalaria	EAJ/PNV
AIZPURU ZUBIZARRETA, JOSE ANTONIO	23	-	Saseta Batailoia
AIZPURU ZUBIZARRETA, MARCELINO	-	-	Gogorki Batailoia
AIZPURUA AZKUE, JOSE AGUSTIN	19	Mekanikoa	UGT/JSU (Ejertzito Errepublikarra)
ALBERDI AIZPURUA, SEBASTIAN	19	-	Aralar Batailoia
ALBIZU INDO, MELTXOR	28	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
ALKORTA BALENZIAGA, LUIS	19	Ikaslea	Gerran mobilizatua errepublikarren alde
ALTUNA BILBAO, *****	-	-	Juventudes Socialistas Unificadas (JSU)
ALKORTA INDO, RAMON	-	-	Fronte Popularra
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO[183]	18	-	Euskadiko Gudontzidia (ELA/STV)
ALEGRIA LASA, ANTONIO	-	-	Getariako Bigarren Errepublikako alkatea (EAJ/PNV)
ARANBURU ARRIETA, MODESTO	-	Arrantzalea	Flota errepublikarra
ARANBURU ARRIETA, NORVERTO	-	Arrantzalea	Flota errepublikarra “Miguel Cervantes”
ARANGUREN IÑARRA, MANUEL	26	Marinela	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)-Gipuzkoa itsasontziko patroia
ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA	24	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (ELA/STV)
ARANGUREN IÑARRA, IGNACIO	31	-	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia
ARANGUREN ONDARRA, JOSE MARIA	53	Kontramaisua	Euskadiko Gudontzidia: Goizeko-Izarra (UGT)
ARANGUREN SEGUROLA, JOSE MARIA	24	-	Indar-errepublikazaleak
ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME	46	Mekanikoa	UGT (erbesteratutako marinela iparraldean)
ARANZABAL ITURZAETA, MANUEL	-	-	Guillermo Torrijos Batailoia (UGT)
ARREGI AZPEITIA, ALBERTO	-	-	Eusko Gudarostea: Loiola Batailoia
ARREGI AZPEITIA, PEDRO JOSE	20	-	Eusko Gudarostea

[183] 115.orrialdean argazkia ikusgai.

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, ANSELMO	23	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
ARREGI UZIN, URBANO	-	-	Euskadiko Gudontzidia (UGT)[184]
ARREGI LEIZAOLA, JOSE LEANDRO	-	-	Eusko Gudarostea
ARRUA, JOSEBA MIRENA	-	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
AZKUE AZKUE, MANUEL	16	-	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia
AZKUE IBARBIA, ANTONIO	25	-	Eusko Gudarostea
AZKUE IBARBIA, JUAN	-	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
AZKUE LARRAÑAGA, FLORENCIO	24	-	Eusko Gudarostea, Amaiur Batailoia (kaboa)
AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO	32	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
AZKUE UZIN, LUCIANO	20	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
AZKUE UZIN, PEDRO	-	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV-ELA/STV)
AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO	27	Mekanikoa	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV-ELA/STV)
BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO	20	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV-ELA/STV)
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS	17	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO	-	Endai-mutila (ikazkina edo makina garbitzen zuena)	Euskadiko Gudontzidia (IR)
BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO	24	Sugina	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV) / UGT[185]
BERASALUZE ELIAS, (A)NICETO	-	-	JSU: Kultura eta Kirol Batailoia
BERISTAIN GARRASTAZU, DAVID	-	-	Nazionalista
BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN	24	-	Euskadiko Gudontzidia (IR)
BURGAÑA ETXEBARRIA, LEONCIO	21	-	UGT
CASALAN RAYA, TORIBIO	41	Karabineroa	Karabineroa
CIBUSGAÑA ETXEBERRIA, LEON	-	-	IR
DARKISTADE GARAI, ALBERTO	-	-	ELA/STV
DARKISTADE GARAI, ENRIKE	-	Sugina	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV), Lezo Urreiztietarekin armez hornitzen
DARPON MITXELENA, ENRIKE	26	-	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO)	24	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
DE LA HOZ KINTANA, EMILIO	23	-	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
EGIBAR ARRESIGOR, NEMESIO	20	-	JSU: Kultura eta Kirol Batailoia
EGURBIDE AZPEITIA, JOSE	-	-	UGT
EGURBIDE ISASTI, JOSE	-	-	Fronte Popularra
EGUSKIZA AZPEITIA, JOSE	19	-	Prieto Batailoia
EIZAGIRRE FERNANDEZ, JOAKIN	23	Marinel karabineroa	-
EMBIL ETXANIZ, FRANCISCO	23	Enplegatua	Eusko Gudarostea
EMBIL ETXANIZ, SEBASTIAN	-	Arotza	Lehenago il
ERANDEGI, JOSE	-	-	Gudaria
ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE MANUEL	22	-	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
ERRAZKIN AIZPURUA, RICARDO	26	-	Montaña 2 Batailoia
ESNAL AGOTE, JESUS	27	-	IR
ESNAL AGOTE, LUIS	25	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV) / UGT[186]
ESTEBEZ ONDATEGI, VICTOR	32	Pintorea	UGT
ETXEGOIEN, FERMINA	-	-	-
EZENARRO AZKUE, (JOSE) JOAKIN	-	Pilotaria	Ejertzito Errepublikarrarekin Katalunian (EAJ/PNV)

[184] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.

[185] Ikertutako dokumentu batzuetan UGT-koa dela ageri zaigu.

[186] Ikertutako iturri batzuek UGT-koa zela argitzen dute.

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
FURUNDARENA AGIRREBENGOA, AGUSTIN	-	Barkuko patroia	ELA/STV
FURUNDARENA AGIRREBENGOA, PRUDENCIO	-	-	Eusko Gudarostea: Saseta Batailoia (EAJ/PNV)
GALDOS AZPEITIA, JUAN JOSE	-	Igeltseroa	ELA/STV
GARCIA AZPILLAGA, JUAN	22	-	Eusko Gudarostea: Saseta Batailoia (EAJ/PNV)
GARCIA AZPILLAGA, ENRIKE	19	-	Eusko Gudarostea: Saseta Batailoia (EAJ/PNV)
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO	17	-	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
GARRASTAZU ARRUTI, ANTONIO	31	-	IR-UGT
GARRASTAZU OLASKOAGA, JOSE	-	-	IR
GESALAGA ARRIOLA, JOSE	-	-	Eusko Gudarostea: Saseta Batailoia (EAJ/PNV)
IBARBIA SUBIÑAS, JOSE	17	Nekazaria	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
IDIAKEZ INDO, FRANCISCO	27	Arotza	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia (EAJ/PNV)
ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE ANTONIO	26	-	Soldadu Langileen Batailoia
IÑARRA ESNAL, JOSE MIGUEL	52	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
IÑARRA ETXABE, MIGUEL	22	Nekazaria	Ejertzito errepublikarra: Brigada Mixta Pirineikako sarjentua / EAE/ANV
IÑARRA MAYOR, JOSE	-	Arrantzalea	Flota errepublikarrean Katalunian
IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO	21	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE	23	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
IRIONDO EMBIL, CANDIDO	-	-	Fronte Popularra
IRIONDO REMENTERIA, CIPRIANO	29	Igeltseroa	Itxarkundia Batailoiko intendentzia
ISASTI AIZPURU, FRANCISCO	23	Arrantzalea	Eusko Gudarostea: EAJ/PNV
ISASTI URANGA, GREGORIO	41	-	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia
ISASTI URANGA, NAZARIO	-	-	Gurs
ITUARTE ETXEBARRIA, ANTONIO	34	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE	26	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/STV)
ITUARTE ETXEBARRIA, MIGUEL	-	-	Eusko Gudarostea: Amuategi Batailoia
ITUARTE ETXEBARRIA, PEDRO	22	Arrantzalea	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia
ITUARTE URBIETA, ANTONIO	43	-	EAJ/PNV
ITURBE EGAÑA, JUAN	24	Arrantzalea	Eusko Gudarostea: Amaiur Batailoia
ITURBE GALARRAGA, ANICETO	27	-	Eusko Gudarostea: Sukarrieta Batailoia
ITURRINO ARANGUREN, LUIS	17	-	Eusko Gudarostea: Prieto Batailoia
KAMIO UZIN, ATANASIO	25	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
KAMIO UZIN, FRANCISCO	-	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
KAMIO UZIN, TOMAS	22	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
KEREJETA AGOTE, GERARDO	24	Marinela	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
KEREJETA AGOTE, NIKASIO	30	-	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
LARRAMENDI ARRAIZ, JOSE MARIA	23	-	Leandro Carro Batailoia / (UGT)
LARRAÑAGA ARANBURU, JOSE MARIA	23	Gidaria eta dendaria	UGT
LARRAÑAGA AZPEITIA, IGNACIO MARIA	26	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV-ELA/STV)
LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE	24	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
LARRAÑAGA AZPEITIA, JUAN	-	-	Gerra Komisaria
LASAGA INZA, DOMINGO	31	Papergilea	UGT
LEKUBE BURGAÑA, CALISTO	26	-	Eusko Gudarostea (EAJ/PNV)
LEKUBE BURGAÑA, JULIAN	23	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
LEKUBE GOENAGA, IGNACIO	30	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
LETE CORREA, PEDRO	30	Arrantzalea	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
LOMA AZKAGA, LUIS	-	-	UGT

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	FILIAZIOA
LOPEZ, ALFONSO	-	-	Eusko Gudarostea
LULOAGA AGOTE, ROMAN	23	Arrantzalea	Eusko Gudarostea: Zabalbide
MANTEROLA AGOTE, ENRIKE	30	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
MARTINEZ GIL, JULIAN	-	-	Eusko Gudarostea: IR, alfereza
MENDIZABAL ALBERDI, MANUEL	24	2. Mekanikaria	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
MENDOZA MARTINEZ, DEMETRIO	34	Ebanista	-
MIRASOLAIN, AGUSTIN ANDRES	-	Pilotaria	EAJ/PNV
MOLET GARATE, BASILIO	-	Gidaria	Eusko Gudarostea
MUGERZA BELAUSTEGI, LUCIO	28	Arrantzalea	Eusko Gudarostea: EAJ/PNV
OIARZABAL AGIRRE, JUAN BAUTISTA	-	Mikeletea	EAJ/PNV
OLAZIREGI ALZAGA, IGNACIO	-	-	Frontean hildakoa
OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MARCIAL	19	-	Eusko Gudarostea: Itxarkundia Batailoia
OLASKOAGA, JOSE MARIA	-	-	UGT
OLASKOAGA ZUBIMENDI, EMILIO	20	-	Eusko Gudarostea: Lehenago il Batailoia
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN	32	-	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA	26	Marinela	Euskadiko Gudontzidia / (IR-UGT)
OLIDEN ALKORTA, JOSE MARIA	35	Mekanikoa	IR
OTAMENDI ILLARRAMENDI, BERNARDO	18	Marinela	Eusko Gudarostea: Itxarkundia Batailoia
SARASKETA, PEDRO	-	-	Eusko Gudarostea
SEBAL AGIRRE, TOMAS	27	Mekanikoa	Sozialista: tenientea
SESMA SOROZABAL, EUSTAKIO (EDUR)	21	-	EAJ/PNV-ko atzeraguardia
SETIEN CALVO, JUAN	29	Mekanikoa (gidari lanetan)	UGT
SETIEN CALVO, PEDRO	-	Mekanikoa eta gidaria	Eusko Gudarostea: UGT
SETIEN CASADO, JUAN	-	-	Eusko Gudarostea: UGT
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO	-	Marinela	Euskadiko Gudontzidia / (EAJ/PNV)
SUSTAETA URKIDI, ANDRES	49	Marinela	Euskadiko Gudontzidia / (UGT)
UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO	41	Marinela	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
UZIN ALKORTA, PRUDENCIO	-	Marinela	Euskadiko Gudontzidia
UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO	23	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
UZIN BERASALUZE, SALVADOR	18	-	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO	40	Marinela	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
URANGA SILBETI, JUSTO	24	-	Eusko Gudarostea: Lehenago il Batailoia
URKIDI ARRIETA, BIENVENIDO	24	Zerbitzaria	Euskadiko Gudontzidia (EAJ/PNV)
URRESTI ANDONEGI, AGUSTIN	-	-	EAJ/PNV Atzeraguardia
URRESTI ANDONEGI, JOSE	21	Marinela	Euskadiko Gudontzidia / (ELA/STV)
VIEJO ARAGON, MODESTO	38	Hargina	UGT
ZAYA SANCHO, JOSE MARIA	-	-	Flota Errepublikarra
ZUBURKERIA ETXEBERRIA, LEON	-	-	IR

Guztira 140 gudari getariar inguru joan ziren gerrara Errepublikaren alde borrokatzera eta horietatik ia 60 inguruk, Euskadiko Gudontzidiarekin egin zuten.

3.2. EUSKADIKO GUDONTZIDIKO[187] GUDARI GETARIARRAK

Barnealdeko herritarrei, bere memoriara, gerraz hitz egitean, batiz bat, lubakiak eta bertan borrokatzen egondako gudarien irudiak etortzen zaizkie. Gerrako gertaerak, lubaki eta mendiekin lotu izan dituzte eta itsasoa, bere memorian, kasurik gehienetan, errefuxiatuen ihesaldiari lotuta baino ez da ageri. Getariarren memorian ordea, lurreko Eusko Gudarostearekin bat egin zuten gudariez gain, Bizkaiko Golkoko itsasoan Euskadiko Gudontzidiarekin borroka egin zuten senide eta lagun-gudariak ere presente dituzte.

Gudari haiek guztiek, batez ere, indar-errepublikarren merkantzia-ontzien defentsan eta frankistek ezarritako minen desaktibatzean lan egin zuten. Merkantzia-ontzi haiek, herriak boto bidez hautatutako gobernua eraitsi zuten kolpistei aurre egiteko arma kargamenduak zekartzaten; bai eta, gosetea nagusi zen eremuetan hura asetzeko elikagaiak ere:

"Los cañones, que venían sin munición, (...) se embarcaron en Bayona, arrastrándose a Azpeitia desde el puerto de Getaria"[188].

Horrez gainera, Getariatik alde egin beharra izan zuten zenbait errefuxiaturen ontziak ere babestu zituzten, Cervera gurutzaontziaren[189] kanoikaden mehatxupetik, besteak beste.

Gehienek, soldaduskan baino ez zuten arma bat beraien eskuetan izan eta formakuntza militarrik gabeko soldadu boluntarioak ziren:

"Ontziotako tripulatzaileak bolondresak ziren. Berez merkantzi ontzietan eta arrantzakoetan zebiltzan itsasgizonak ziren, prestakuntza militar gutxikoak edo batere gabekoak baina lanean gogotik, diziplina eta motibazio handiarekin, aritzeko prest zeuden"[190].

Gudari haiek guztiak, beren ontzien baino kalitate hobeagoa eta handiagoak ziren ontzi frankisten aurka borrokatu behar izan zuten. Gudariek izandako itsasontzi handienak PYSBEren bou[191] bakailo-ontziak izan zirela kontutan hartuta, ezinbestekoa zaigu, gaur egun, Gerra Zibilean bertan egin zuten bezalaxe[192] gudari hauen guztien zintzotasuna gorestea.

Lurrean ez ezik, itsasoan ere, kolpistek, gerra-estrategia burutu zuten. Hala eta guztiz ere, kolpearen osteko helburu-estrategikoa lurrean gauzatutako gerran zentratzen zenez, ez zuten horrenbeste landu uretako estrategia. Frankistek, Itsas-Armadako buruzagi gorenek estatu-kolpearekin bat egingo zutela uste zuten eta halaxe egin ere. Horren aurrean, beren buruzagiei ontzietako tripulazioek egin zieten aurre, baina gerra hasi eta berehala ontzi gehienen nagusitasuna frankistek lortu zuten.

3.2.1. Itsasoko egoera Gerra Zibila hastean, 1936ko uztailetik urrira bitartean

Bigarren Errepublikako gobernuak, estatu-kolpearen lehen berriak uztailaren 16an jaso zituen. Horren jakitun, Jose Gira Itsas Ministroak, Afrikako kostaldera zenbait itsasontzi patruilatzera bidali zituen. Hara abiatutako itsasontzi guztiak, ofizial kolpistak atxilotuta, laguntzaile eta marinelen eskuetan zeuden.

Kolpistek, Ferrol eta Cadizeko Itsas Armadaren baseetan garaipena lortu arren, gainontzekoetan porrota izan zuten:

"Eta arrazoi bakarra ez zen Armadako altxamendurako planik eza izan, baizik eta, nagusiki, marinelen eta Gorputz Laguntzaileen jarrera irmoa ezen, Ciudad Lineal emisoretik 3. mailako ofizial Benjamin Balboa irratitelegrafistak koordinatu zituelarik, ofizialei galarazi egin zieten ontzietako agintea hartu eta altxamenduarekin bat egitea"[193].

Uztailaren 22rako, kolpistak, Galiziako itsas-baseen jabe egin ziren eta Gobernu Errepublikarraren defentsan, Xauen itsasontzia baino ez zen batu. Aipatu bi itsas-baseetan frankistek zituzten itsasontzien kantitatea eta kalitatea kontutan hartuz, haien itsaso-nagusitasuna nabarmena zen.

Egoerari aurre egiteko indar-errepublikarrak ere, frankisten menpean egon zitezkeen ontziak errekisatu edo jabetzen saiatu ziren, kolpistei itsasoan aurre egin ahal izateko. Gipuzkoan, esaterako, Donostialdean hain zuzen, Torpedero nº3 deituriko ibiltzen zen Bidasoa eta Frantziako muga zaintzen. Pasaiako flotako arrantzaleek altxamenduaren berri jakitean, Donostiako kaleetan borrokatzeaz gain, Torpedero nº3 Bigarren Errepublikaren gobernuko indarren alde jartzea lortu zuten:

"Uztailaren 22an, goizean, Lina arrantza-ontzian arrantzale pila handi samar bat igo zen, ontzi-bizkarpean ezkutaturik inoren susmorik ez eragitearren. Gehienak CNTrenak ziren, baina UGT eta PCEkoak eta nazionalistaren bat edo beste ere baziren. Itsasontzia –binakako motoredun bat–, ohi zuen legez, CAMPSAra joan zen petrolioa hartzera. Torpedontziaren aldamenetik igarotzean, ordea, Buenavistako kaian amarratuta baitzegoen, motorea gelditu eta hari hurreratu zitzaion. Linan ezkutaturiko gizonek, ziztu bizian, torpedontzira jauzi egin eta, berehala, ontziaz jabetu ziren, inolako odolik izateke gainera. Izan ere, torpedontziko tripulazioak ez zien aurka egin, are gehiago, lehen unetik beretik laguntza eskaini zien heldu berriei"[194].

---

[187] 1936ko urrian, Eusko Jaurlaritzak, Euzkadi'ko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldea gisan izendatu zuen. Hurrengo lerroetan, gaur egungo grafiari jarraiki, Euskadiko Gudontzidia izenez adieraztea erabaki dugu.

[188] IRUJO, M. 1978. *La Guerra Civil en Euzkadi antes del Estatuto*. Kirikiño argitaraldia, 134.or.

[189] Gaztelaniazko "crucero" litzateke.

[190] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 12.or.

[191] Bou armatuak, Euskadiko Gudontzidiko ontzi esanguratsuenak izan ziren. Haiek guztiak, gerra hasi baino lehen, arrantzaleek bakailao arrantzarako erabiltzen zituzten. Eusko Jaurlaritzak gerrarako zereginetarako itsasontzi bilakatu zituen, batez ere, zainketa-lanetarako.

[192] 1937ko apirilean ospatutako Aberri Eguna, Matxitxako lurmuturreko batailan parte hartu zuten gudariei eskaini zieten.

[193] PARDO SAN GIL, P., op.cit., 24.or.

[194] *Ibidem*, 26-28.orr.



Torpedero nº3. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

Torpedero nº3-ko komandantea kolpisten aldekoa zen eta horren eraginez, indar-errepublikarren aginduetara jarri zuten. Hurrengo egunetan, Torpedero nº3-a kolpistak zeuden Kasinoa, Klub Nautikoa eta Maria Cristina Hotela kanoiez tiro egiteko erabili zuten. Uztailaren 23rako Donostiako militar kolpistak, itsasoko eta lurreko erasoen harira, errenditu egin ziren. Loiolako kuarteleko militarrek uztailaren 28an errenditu arte borrokan jarraitu zuten. Horra beraz, itsasoko indarrak edukitzeak ere, itsasoaz gain, lurrean borrokatzeko afera ematen zuen eta indar-mota horrez jabetzen zenak, gerra irabazterako orduan, berebiziko abantaila izango zuen.

3.2.2. Itsas-Armada Frankista

Aurreko errenkadetan argitu gisan, Bizkaiko Itsasoaren kontrola, kolpisten eskuetan zegoen:

"Alabaina, Bizkaiko Itsasoaren kontrola errebeldeen esku zegoen, nabarmen gainera. Ferrolgo Itsas Basea hartuta zuten, eta harekin batera España korazatua, Almirante Cervera gurutzaontzia, Velasco destruktorea eta hainbat torpedontzi eta kostazain. Gainera base hartan bertan amaitzear zeuden Canarias eta Baleares gurutzaontzien eraikuntza lanak, eta artean askotxo falta zitzaien Júpiter, Vulcano, Marte eta Neptuno minaontziak bukatzeko. Marinen ere 5 hidrohegazkin eta zenbait ontzi laguntzaile eskuratu zituzten"[195].

Bitartean, indar-errepublikarrek arestian aipatutako Torpedero nº3-ren jabe baino ez ziren.

Uztailaren 23an, Gerra Zibila bizi izan zutenen eta haien ondorengoen artean hain famatua den Almirante Cervera gurutzaontzia bere ekintzak burutzen hasi zen.

Uztailaren 24an Burgosen kolpistek Defentsa Nazionaleko Junta eratu eta sei egunera, hilaren 30ean, Francisco Moreno ontzi-kapitaina Flota frankistaren buru izendatu zuten.

Abuztuaren 12an, frankistek, España korazatua martxan jarri zuten.

Irailaren 16an berriz, Canarias gurutzaontzia. Hala eta guztiz ere, maila txikiagoan inondik ere, Itsas Armada Errepublikarraren gisan, frankistek ere, merkantzia eta arrantza-ontziak ekipatu beharra izan zituzten.

Armaturiko merkantzia-ontziak gurutzaontzien laguntzaile, eskolta, minaketa, zaintza-lanetan, etsaiaren itsas-komunikazioak erasoz, lehorreko soldaduei artilleriaz laguntzea zein garraio militar gisara erabili zituzten:

"Gurutzontzi laguntzaileek eta garraiontzi armatuek oso armamentu desberdinak jaso zituzten, eginkizunak zein ziren; esaterako, gurutzontzi handienek 152 eta 88 mm-ko zortzi kanoi izan zitzaketen, eta garraio militarrek pieza bakar bat, 47 mm-koa –batzuetan horrelakorik ere ez–. Patruilaontzi gisa erabiltzen ziren arrantza-ontziak, "bou armatu" ere esaten zietenak, 76 eta 47 mm-ko kanoi bat edo biz hornitu zituzten oro har, metrailadore pare batez inondik ere; batzuetan sakonera-kargak eramatera heldu ziren. Minak bilatzea eginkizun zutenak armarik gabe joan ohi ziren eskierki, bakar-bakarrik dragatzeko ekipoak eta tripulatzaileen arma indibidualak zituztela"[196].

Ribadeon (Lugo) Itsas Base bat ere sortu zuten. Kolpistek irailean Donostia eta Pasaia menpean hartzean, beste itsas base bat sortu zuten eta urrirako bou armatuen bigarren taldea prest zuten. Bizkaiko Itsaso osoa segituan menderatu ostean, handik aurrera hornikuntzak galarazi eta lehorreko kolpisten ekintzetan laguntzeaz arduratu ziren.



Stella Maris txalupa. Erdian eseritako bizarduna Juan Tornos errekete-kapitain eta ontzi-tenientea Donostiako kanoen flotako buruzagia. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

[195] *Ibidem*, 28-30.orr.

[196] *Ibidem*, 30.or.

Operazioak:

Kolpistek Bizkaiko Itsasoan zuten nagusitasunaren jakitun, kostaldeko herri errepublikarrak bonbardatzeaz, horniketa mozteaz… arduratu ziren. Horretan aritu zen esaterako, Almirante Cervera gurutzaontzia, zeina **uztailaren 28an** Ferroldik irten eta ekintza haietan parte hartu zuen. Lehen bonbardaketak, Gijonen, Gobernu Errepublikarraren aldeko instituzioetan gauzatu zituen, izan ere, Simancaseko kuartelean kolpea eman zutenak babestuta zeuden. Gerora, batik bat, arrantzontzi eta merkantzia-ontzi errepublikarrei eraso egiten ibili zen eta hegazkin errepublikarrek egindako zenbait erasoren aurrean ere kontran egin zuen:

"Denis, Tritonia, Tiburón,... Hauekin batera, Galiziatik etorriz Asturias hartu nahi zuten zutabeen aurreratzea lagundu zuen artilleriaz abuztuaren 8tik aurrera"[197].

Abuztuaren 12an España korazatua (Luis de Viena FK[198]) eta Velasco destruktorea (Manuel Calderón KK[199]) itsasoratu ziren eta Gijon aldera abiatu ziren. Berehala, Pasaia, Donostia eta Bilboko portuak (Cabo Bustotik Bidasoako kostaraino bonbardatzeko agindua zen zehazki) bonbardatzeko agindua jaso zuen, bertako herritarrak beldur zitezen. Modu horretan, Nafarroatik zetozen erreketeei Donostia hartu eta Irungo muga ixteko ahalbidetzea eman nahi zieten.

Abuztuaren 16an, Velascok, Algortako San Inazioko bateria zaharren aurka tirokatu zuen. Horren aurrean erantzunik jaso ez eta goizeko 6,30ak inguruan, Santurtzin CAMPSAK zituen erregai depositoen aurka tirokatu zuen. Deposituetako bi sutan utzi zituen. Egun horretan bertan, errepublikar hegazkinek Tiburon bou frankista tirokatu eta Santanderreko portura sartzera derrigortu zuten.

Egun berean, Armada errepublikarrak Bizkaiko Itsasoan itsasoko indar-errepublikarra sortzeko beharra ikusi eta hara bidali zituen C-3 (Antonio Arbona OA[200]) eta C-6 (Mariano Romero KK[201]) Malagatik Iberiar Penintsularen iparraldera. Hala eta guztiz ere, C-3ak hilaren 18an bira eman eta Portugalera joan zen eta C-3ak Cervera jopuntuan izanik ere, ez zion ezer jaurti, bi komandanteak kolpisten aldekoak baitziren.



Velasco destruktoreak CAMPSA-ko deposituak bonbardatzean sortutako sutea.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).

Abuztuaren 17an, Velasco Ferrolera erregai bila joan ostean, España eta Almirante Cerverak, Guadalupe, San Markos eta Txoritokietako gotorlekuak kainoinatu zituzten. Bonbardaketek kalte materialak baino moralak eragin zituzten, izan ere, frankistek itsasoan zeukaten nagusitasun nabarmena zuten. Egun berean, Torpedero nº3 bere lanetan hasi zen Irun eta Hondarribiko defentsan. Behin hegazkin bati baino ez zion tiro egin eta handik aurrera atzeraguardiako lanetan ibili zen itsasontzi hura. Torpedero nº 3 Irun irailaren 5ean frankistek menpean hartu arte egon zen han eta handik Pasaiara egin zuen berriro ere.

Abuztuaren 18an, goizeko 9ak inguruan, Guadalupe, San Markos, Txoritokieta eta oraingoan, Donostiako herrigunea ere bonbardatu egin zituzten. Urgull mendian ezarritako bateria batek haiei erantzuna eman zien, eta itsasontzi frankistak kostatik 11-12 km urrundu ziren. Frankisten erasoak, Donostian hildako eta zauritu[202] batzuk utzi zituen. Hurrengo egunetan ere antzeko bonbardaketek jarraitu zuten.

Abuztuaren 20an, Arriluce merkantzi-ontzia gerrako materialez beteta zetorren, Valentziatik Avilesera eta Cerverak bere jopuntuan izan zuen. Arriluce Cabo Negron lehorreratzen saiatu, baina hondoratu eta Cerverak tiro egin zion txikitu arte, bertako materiala inork errekuperatu ez zezan. Hala eta guztiz ere, San Martin de Podeseko herritarrek emandako laguntza eta salbatzeko zituzten itsasontzi txikiengatik, hiru kenduta, Arriluceko tripulazio osoa salbatu zen.

Hilaren 22an, berriro ere, Almirante Cerverak Urgull eta Guadalupe bonbardatu zituen. Hurrengo egunean, Tritonia ontzi frankista, Lenna merkantzi ontzi estoniarra erasotzen saiatu zen, baina errepublikarrek, Albericiatik hiru hegazkin bidali zituzten eta horrez gainera, Tiburon eta Alcaudon bouek eta V-8 arrantzainak eginiko lanak medio, Tritonia ontziak atzera egin behar izan zuen bere erasoan.

Hilaren 25ean eta iraila hasieran bidalitako itsaspekoek ere, Errepublikar Armadari ez zion inongo nagusitasunik eman Bizkaiko Itsasoan:

"Bitartean, matxinatuen ontziek presio etengabea zertzen zuten errepublikaren itsas trafikoaren kontra. Irailaren 3an Almirante Cerverak ikatzontzi bat harrapatu zuen, Genoveva Fierro izenekoa; gero minaontzi bihurtu zuten hau. Hilaren 7an, Bou Taldea le-

[197] *Ibidem*, 34.or.

[198] Fragata-kapitaina.

[199] Korbeta-kapitaina.

[200] Ontzi-alfereza.

[201] Korbeta-kapitaina.

[202] 3 hildako eta 31 zauritu izan ziren Juan Pardo San Gilek argitzen digunez.

horreko soldaduekin batera aritu zen San Esteban de Pravia hartzen, eta gero Ulía baporea harrapatu zuen Frantziara zihoalarik berau. Hilaren 8an Velasco ontzia Abandoz jabetu zen, Asturiasko ikatza Bilbora zeramanean. Hilaren 11an bouek Alfonso Senra eta Udondo baporeak atxilotu zituzten, Gijonerako bidean zirela"[203].

Francoren buruzagitzarekin, Defentsa Nazionaleko Batzarra desegin eta Estatuko Batzar Teknikoa eratu zuten. Francoren Koartel Nagusia Salamancan kokatzen zen, Gudarosteko eta Armadako Estatu Nagusietako buruak eta Abiazioko Buruzagitza bertan kokatzen ziren. 1936ko urriaren 28an Juan Cervera Valderrama almiranteordea Armadako Estatu Nagusiko buru izendatzean, itsas indarrak gudarosteetatik libratu eta, Flotan, Ferrol eta Cadizeko Itsas Baseetan antolatu ziren:

"Flotaren osatzaileak Canarias eta Almirante Cervera gurutzontziak eta gurutzontzi laguntzaile batzuk ziren, eta batez ere Mediterraneoan aritu zen; Francisco Morenok segitu zuen agintean, kontralmirantetzarako gaitu baitzuten azaroaren 11z geroztik. Ferrolgo Itsas Baseari, gero Ferrolgo Itsas Departamentu deitu zuten hari hain zuzen, eta Luis de Castro Arizkun kontralmirantearen agindupean, España korazatua, Velasco destruktorea, Dómine –1937ko urtarrilean desegina– eta Ciudad de Valencia gurutzontzi laguntzaileak, Ribadeo eta Pasaiako Patruilaontzi Taldeak eta Galiziako itsasadarrak eta Pasaia-Bidasoa bitarteko alderdia zaintzeko ardura zuten ontzi txiki eta laguntzaileak atxiki zizkioten. Cadizko Itsas Baseari –geroko Itsas Departamentuari–, Manuel Ruiz de Atauri kontralmirantearen agindupean, hiru gurutzontzi laguntzaile atxiki zizkioten, eta Afrika Iparreko Itsas Indarrak eta Itsasarteko Patruilaontzi Taldea. Gipuzkoako itsasbazterrari dagokionean, Luis Garcia Caveda ontzi-kapitainak hartu zuen Manuel Moreuren tokia, Bizkaiko Itsasoko Ekialdeko Sektoreko buru eta Donostiako Itsas Komandante gisa. Pasaiako Flota denbora labur batez sendotu egin zuten, urrian Juan Mary eta Santa Urbana bouak gehitu zizkiotenean, baina azaroan Ferrolera itzuli ziren eta gero Mediterraneora jo zuten. Azaroaren 21ean Galerna bakailao-ontzia heldu zen, Ferrolen artilatu eta kostazaintzat sailkatu ondoren; komandanteak, Pablo Suanzes Jaudenes korbeta-kapitainak, Flotako agindua ere hartu zuen bere gain"[204].

3.2.3. Itsas-Armada errepublikarra (estatu-kolpetik urria hasiera bitartean)

Frankistek, beren menpean izugarrizko flota indartsua zuten eta indar-errepublikarrak, eskuragarri zituzten mekanismo ezberdinen bidez egin behar izan zieten aurre. Indar-errepublikarren flotaren antolamenduaren egituratzea ulertzeko, Bigarren Errepublikan zehar gobernuak egindako erreformei men egin behar diegu.

Itsas-Armada Errepublikarraren antolaketa, Bigarren Errepublikan zehar hartutako erabaki ezberdinek baldintzatu zuten:

"Armada berrantolatzeko legeak, 1931ko azaroaren 24koak, ofizial eta ofizialordeen gorputzen egitura berria finkatu zuen: Gorputz Patentatuak mantentzen ziren (Armadaren Gorputz Nagusia, Makinariak, Osasuna, Intendentzia eta Juridikoa), karrerako ofizialak biltzen baitzituzten, eta Gorputz Laguntzaile berriak sortu ziren (Itsas Laguntzaileen Gorputza, Irratitelegrafiakoa, Artilleriakoa, Osasunekoa, Torpedoetakoa...), bertan bilduz marinel xehetik ofizialordetzara heldutakoak, hauen lanbide-aukerak ere areagotuz antzinatasun handienekoak ofizial lanpostuei asimilatuz, Gorputz Patentatuetako ofizialen kontsiderazio eta soldata berdinez"[205].

Horrez gainera, 1932ko urtarrilaren 12ko Legearen bidez, Herri Ontziterian ere aldaketa sakonak gertatu ziren. Horren bidez, Herri Ontziteriaren Idazkariordetza bat sortu zen, zeina estamentu militarretik guztiz bereizita kokatzen zen eta hari zegozkion, nabigazio, portu, itsas- inskripzio, arrantza eta ontzigintza alorretako hainbat eskumen:

"Itsas Komandantzia eta Laguntzaile Bulego zaharren ordez, Armadak baitzituen kontrolpean, herri eskumeneko Itsas Ordezkaritza eta Ordezkariordetzak eratu ziren. Itsas probintzia bakoitzean ordezkari bat izendatu zuten, nabigazio, portu zerbitzu eta itsas inskripzio kontuetan eskumena zuena. Haren mendean ordezkariordeak zeuden, probintziako itsas barruti adina ordezkariorde, eta hauek, bere aldetik, beren mugapeko portuko kapitain ere baziren. Arrantza ikuskaritza bereizirik antolatu zuten, Arrantza Ordezkaritza erregionaletan hain zuzen. Postu horiek betetzeko Itsas Zerbitzuen Gorputz Nagusia sortu zuten, honetara bilduz bai Merkantzi Ontziteriako kapitainak bai Armadako Gorputz Nagusiko edo Itsas Erreserbako ofizialak. Horretara, administrazio periferikoak izaera zibila hartu zuen, nabarmen"[206].

Garai hartan, merkantzia-ontzietan eta arrantza-ontzietan guztira 46.000 inguru ziren: 300 armadore, 3.000 kapitain eta ofizial, 2.500 arrantzu eta kabotajeko patroi, 39.000 tripulatzaile, eta beste 1.500 inguru ikuskaritzako eta lehorrekoen artean[207]. Euskaldun gehienak, ofizial, ontzi-bizkarreko edo kubiertako langile eta sukaldeko lanetan jarduten zuten. Galiziarren artean ere ontzi-bizkarreko edo kubiertako langile gehien zeuden. Makinarian, gehienak, Levantekoak. Andaluziar gehienak sukaldean eta zerbitzari lanetan zebiltzan.

Sindikazio maila oso altua zen: kapitainak eta pilotoak Elkarte Nautiko edo Kapitain eta Pilotuen Sindikatuetan biltzen ziren; makinariak, Asociación General de Maquinistas Navales-en; tripulante gehienak Estatu Espainiarrean UGT eta CNTn sindikatuta zeuden, Hego Euskal Herrian berriz, Eusko Langileen Alkartasunean (ELA). Gerra hasi baino zerbait lehenago, erakunde-sindikal eta ofizial-elkarte guztien koordinazio eta lotura organoa sortu zuten[208].

---

[203] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 38.or.

[204] *Ibidem*, 48-50.orr.

[205] *Ibidem*, 16.or.

[206] *Ibidem*, 18.or.

[207] *Ibidem*, 20.or.

[208] *Ibidem*, 22.or.

Armadako Gorputz Nagusiko 721 ofizialetatik 110 baino ez ziren izan gobernuaren Armadan parte hartu zutenak. Gainontzekoak matxinadan hil, exekutatu edo kolpisten alde jarri ziren. 110 horietatik 47 baino ez ziren Bigarren Errepublikako gobernuaren aldekoak[209]. Gainontzeko 63ak beti ere desertatzeko tentuz ibili ziren:

"Agintaririk ezaz eta leialtasun gutxiko edo gabeko ofizialak erabili beharraz, Errepublikaren Armadak oso ondorio kaltegarriak jasan zituen gerra osoan zehar: eraginkortasun kaxkarra, ontzietan sabotajeak eta tripulazioen moralak barrena jotzea"[210].

Hala eta guztiz ere, arestian aipatutako botere iraultzaileek gerra taktika eta teknikak aurrera eraman ahal izateko antolamendu ezberdina formulatu zuten eta hauekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Euskadiko Gudontzidiaren urriko sorreratik aurrera, euskaldunak, itsas-armada modu autonomoan funtzionatzen ezarri zuten.

**Flota errepublikarraren osaketa:*

Bigarren Errepublikako Itsas-Armadak borroka unitatea zuen: 3 gurutzaontzi, 8 destruktore eta 6 itsaspekoz osatutakoa. Horrez gainera, 2 gurutzaontzi, 6 destruktore eta 4 minaontzi eraikitzen ari ziren:

"1936an, Errepublikaren Itsas Armadaren ontziak hainbat taldetan antolatuta zeuden: Ontziteria, Itsaspekoen Taldea, Afrikako Itsas Armada, Ferrol, Cadiz eta Cartagenako Itsas Base nagusietako ontziak eta Balear Uharteetako (Mahon) bigarren mailako basekoak, Itsas Eskoletakoak eta, azkenik, eginkizun bereziak zituzten eta Armadaren Estatu Nagusiaren mendekoak ziren ontziak"[211].

Armadako buruzagitza Jose Giral Itsas Ministroaren eskuetan zegoen eta hark berari laguntzeko, Itsas Idazkariordea zuen. Itsas Armadaren agintaritza gorena, Itsasoko indarren Estatu Nagusiko burua zen Javier de Salas Gonzalezek zuen. Itsas aldeko jurisdikzio administratiboa Gipuzkoa eta Bizkaiko kasuan Ferrolgo Itsas Baseko buruzagitzari zegokion. Itsas Armadan bertan, Itsas Aeronautikak 107 hegazkin zituen eta haren buruzagitza Madrilen kokatzen zen, haren baseak kostalde mediterranearrean kokatu arren. Itsas Infanteria ere bazuen eta haren batailoietako bat Cartagenan zegoen.

Bigarren Errepublikako gobernuak itsasoari dagokionez egoera kritikoagoa zuen. Izan ere, Hego Euskal Herria guztiz blokeatuta zegoen, eta ezinbestekoa zen bertan bizi zen jendearentzako aireko, itsasoko eta lurreko bideak irekita izatea, batik bat, populazio hura guztia elikagaiez hornitzeko. Bizkaiko Itsasorako Bigarren Errepublikako gobernuak zuen itsasontzi bakarra Torpedo nº 3-a zen eta defentsan eskas bazebiltzan zer esanik ez ofentsibarik ezin zutela egin.

Horren eraginez, Bigarren Errepublikako itsas-armadaren zeregina gerra materiala eta ekipoak garraiatzea izan zen. Abuztuan bertan arrantza-ontziak artileriaz ekipatzeko lehen planak martxan jarri zituzten[212]. Abuztuan bertan, lehen itsaspekoak Bizkaiko Itsasora iritsi ziren: C-3, C-4 eta C-5 deiturikoak; irailean, berriz, C-6, C-2 eta B-6 iritsi ziren:

"C-2 eta C-6en kasuan izan ezik, guztietan matxinatuen aldekoak ziren agintariak, eta ederki saiatu ziren itsaspekoak behar bezala ez erabiltzen, behin eta berriz matxurak omen eta, edo inon ageri ez ziren arazo teknikoak"[213].

Gipuzkoako errepublikarren itsas-armadaren jarduerak gerra hasi berritan

Gipuzkoako itsas-agintari nagusia Gipuzkoako Defentsa Batzordeko Gerrako Komisariaren menpeko Edmundo Sanjuan Cañete zen. Gerrako Komisarioa Jesus Larrañaga komunista zen.

Abuztuaren 3an, Torpedero nº3-a Hondarribian zela, itsasontziko komandanteak eta haren laguntzaileak ihes egin zuten Frantziara. Haren ostean, Gerrako Komisariak Manuel Sanjurjo merkantzia-kapitaina haren buruzagitzan ezarri zuen, haren ordezkoa izanen zen Evaristo Lopez Rodriguez ontzi-tenientea iritsi zen arte. Azken hau, kolpisten aldekoa zen eta aukera ikustean desertatu egin zuen eta kolpistekin bat egin.

Gipuzkoako Defentsa Batzarrak, arrantzan jarduteko, Pasaiako portu sarreran zainketa-lanak egiteko, hornigaiak ekartzeko eta gerrako garraioa egiteko zenbait ontzi martxan ezarri zituen. Armen garraioan hainbat arrantza-ontzi erabili zituzten: Lina, Trintxerpe, Alkarri, Lagundu, Domayo eta Mourisca. Kosta-zainketan Goizeko-Izarra eta Iparreko-Izarra aritu ziren, besteak beste[214].

**Gudarien konpainiak Getarian:*

Behin Eusko Gudarostea abuztua hasieran sortuta, milizia haiek armen hornikuntzaren gabezia bizi izan zuten. Horri aurre egiteko Katalunia eta Frantzian lortutako zenbait arma ekarri zituzten Getaria bertara eta baita Pasaira ere Domayo eta Mourisca arrantza-ontzien bidez:

"Bi ontzi horiez antolatu zituzten, irail hasieran, Euzko Gudaroztearen Itsas Zerbitzuak, Jose Maria Burgaña Belaustegiren zuzendaritzapean, Domayoren kapitaina berau. Mourisca Agustin Furundarena Agirrebengoa patroiak agintzen zuen. Donostia erori eta gero, Itsas Zerbitzuetan sartu ziren Angel de la Guarda, Nazareno nº1 eta Nazareno nº9 baxurako arrantza-ontziak. Trintxerpe bi-

[209] *Ibidem*, 32.or.
[210] *Ibidem*, 32.or.
[211] *Ibidem*, 16.or.
[212] *Ibidem*, 30.or.
[213] *Ibidem*, 30.or.
[214] *Ibidem*, 32.or.

nakako motoredunak ere lagundu zien lanetan, horrexetarako bidali baitzuten Bizkaiko itsas agintariek. Azpeitiko Komandantziak, gainera, Jose Mariaren anaia Hilario Burgaña izendatu zuen Zumaiako Itsas Ordezkari. Ontziak Getaria, Zumaia eta Pasaiatik aritu ziren lanean, eta oso partaidetza aktiboa izan zuten soldaduak ebakuatzeko unean, Gipuzkoatik erretiratu behar zelarik. Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Departamentuko Itsas Saila sortzean, aipatutako horiexek izango ziren Euzkadiko Gudontzidian sartutako lehen unitateak"[215].

Irailaren 5ean Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Pasaiako Flotari zeukaten guztia jaso eta itsasora irtetzeko prestatzeko agindua eman zion.

Irailaren 6an, arrantza-ontziak Bilbora abiatzeko agindua eman zuen:

"Gipuzkoako Itsas Aliantza arduratu zen ontziek itsasora irteteko behar zuten guztia antolatzeaz, ahalik eta pertsona gehien ebakuatzeaz eta Pasaian bildutako horni kopururik handiena eramateaz (CAMPSAren erregaia eta lubrifikatzaileak, PYSBE[216] ren bakailaoa, eta jeneroak orokorrean). Lan horretarako, eskura ziren ontzi guztiak erabili zituzten, bai merkantzi ontziak izan, bai arrantzukoak bai laketekoak. Hilaren 7an heldu ziren lehenbiziko ontziak Bilbora, tartean PYSBEren Vendaval, Euzkal-Erria, Galerna, Tramontana eta Hispania bakailao-ontziak zirela, pertsonal zibilez beterik eta ontziratu ahal izan zituzten horni eta jaki guztiez. Tramontana Portugaleten geratu zen, eta beste lau bakailao-ontziak Pasaiara itzuli ziren, jendea ateratzen jarraitzeko"[217].

Irailaren 12an Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Donostia eta Pasaiatik erretiratzea erabaki zuenean, ontzi guztiek Pasaia utzi zuten eta gehienak Bilbora joan baziren ere, beste batzuek Getaria, Mutriku eta beste portu batzuetarako bidea hartu zuten. Euzkal-Erria, Domayo eta Mouriscak Donostian geldialdia egin zuten ebakuatuak hartzeko. Mourisca eta Domayok Donostian geratu ziren Eusko Gudarosteko azken bi konpainiak hartu eta Getarian lehorreratu zituzten. Mouriscak Zumaiara egin zuen konponketa batzuk egitera. Goizeko-Izarra Donostiara sartzen ahalegindu zen berriro ere, baina Kontxan sartzean tiro egin eta patroia bera zauritzean, bira eman eta ihes egin behar izan zuten:

"Guztira, Torpedero nº3 ontziaz gain, hogei bat merkantzia-ontzi, gehienak Bizkaiko Defentsa Batzarrak bidaliak, PYSBEren bost bakailao-ontziak eta ehundik gora arrantza-ontzi eta laketeko edo zerbitzuko ontzi aritu ziren ebakuazio lanetan, bat bera ere galtzeke"[218].

Irailaren 20an, Bilbotik bidalitako Trintxerpe eta Domayo ontziek zenbait gudariren konpainiak hartu zituzten Getarian eta Ondarroara eraman zituzten, Mourisca ontziarekin bat eginez:

"Mutriku erori aurretik, herriko arrantza-ontziak eta Ondarroako Flota ebakuazio lanean hasi ziren. Neurri txikiko berrogeita hamar bat ontzi, arrasteko binakako batzuk barne, Lekeitio, Bermeo eta Bilbora joan ziren. Domayo eta Mourisca elkartu zitzaizkien, berriro ere milizia nazionalistak ontzietan hartuz eta Bermeora eramanez, Trintxerpe Lekeitiora heldu zen bitartean. Toki horietatik hainbat bidaia egin zuten Frantziara, ebakuatuak eta agintari batzuk eramanez, Bilbon ontzitalde osoarekin atzera bildu aurretik"[219].



Azkenengo itsasontziak Donostiatik Bilbora abiatzen (1936/09/13). Ezkerrean Euzkal-Erria Boua. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

Irailaren 21ean, tropa frankistak Getaria eta Zumaiara sartu ziren.

Bizkaiko itsas-antolaketa

Joaquin Egia Untzuetak Euzko Gudontzidiko buruzagia izango zenak, Bilboko portuaren kontrol osoa izan zuen; batik bat garraioaren antolaketa eta portuko jardueren kontrola zuen. Abuztu amaiera arte ez zen han sortu itsas-armadarik, lehen itsaspekoak iritsi ziren arte. Irail erdian C-2, C-3, C-4, C-5 eta C-6 itsaspekoak heldu ziren eta baita Torpedo nº 3 ere, azken hau, Gipuzkoa ebakuatu ostean:

"Ontzi horiez baliatuz antolatu zuten, sasoi horretan, Iparreko Itsas Armada, Remigio Verdia Joli korbeta-kapitainaren agindupean, eta Emilio Alcedo Aranzasti 2. ofizial irratitelegrafista zela Estatu Nagusiko buru. Unitate horien base nagusia Bilbo zen"[220].

Pasaiako Flotako ontziak ere irailean iritsi eta Bizkaiko Defentsa Batzordearen eskutan geratuz, haietako batzuk, Bilbo eta Baiona arteko itsas-loturetarako erabili zituzten:

"(…) Komunikazio Sailaren kontura inondik ere (PYSBEren Galerna eta Vendaval bakailao- ontziak), beste batzuk ziztu bizian egokitu zituzten minaketari gisa aritzeko (Danak Ondo, Marce, Jaimín, Rafael Cantos) eta azkenik Iparreko Itsas Armadak beste

[215] *Ibidem*, 32.or.

[216] Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España. Louis Legasse armadore frantsesak, bakailao arrantzan aritzeko sortutako enpresa izan zen. Haren zenbait itsasontzik, Euskal Erria, Mistral… kasu, Euskadiko Gudontzidiko ontzien flotan parte hartu zuten.

[217] PARDO SAN GIL,J., op.cit., 38.or.

[218] *Ibidem*, 40.or.

[219] *Ibidem*, 42.or.

[220] *Ibidem*, 34.or.

batzuk ere artilatzea proiektatu zuen, zainketa eta eskolta zerbitzuetan aritzeko (Tramontana eta Mistral); asmoak horiek zirelarik ere, ordea, urrira arte ez ziren aurrera atera"[221].

Operazioak:

Irailaren 13an Flota Errepublikarra Bilboko portutik Mediterraneora atera zen eta, Bilboko portuan, Jose Luis Diez konponketa batzuen zain zegoelako eta C-2 eta C-5 itsaspekoak baino ez zituzten utzi.

Irailaren 15ean Indalecio Prieto Itsas Ministroak Remigio Verdia Joli korbeta-kapitaina Bizkaiko Itsasko Itsaspekoen Buru egin zuen:

"Errepublikak Bizkaiko Itsasoan zituen indarrak, itsaspekoez gain (C-2, C-3, C-4, C-5 eta C-6), Torpedero nº3 eta Alcaudon eta Tiburon bouak ziren. Ur gaineko ontziak ere Verdiaren agindupean geratu ziren, eta guztiez itsas talde bat eratu zuten, Bilbon finkatuz basea, Iparreko Itsas Indarrak izenaz. Bizkaiko Defentsa Batzarreko Gerrako Saila arduratu zen ontziak eta tripulazioak mantentzeaz, ontzi laguntzaile gehiago alistatzeaz eta egin beharreko zerbitzuak agintzeaz. Unitate horiei laguntzearren, PYS-BEren bakailao-ontzirik handienetako bi aukeratu zituzten, Mistral eta Tramontana, itsas kanoiak eskuratu orduko artilatzeko asmotan inolaz ere"[222].

Galerna eta Vendaval, Komunikazio Sailaren eskuetan geratu eta gauez egin ohi zituzten bidaiak eta kostatik 50 milara, etsaiak ez ikusteko.

EAJko Monzon eta Pikabeak eginiko tratuen bidez, Txekoslovakiatik arma kargamendua ekartzea lortu zuten; hartan, Lezo Urreiztieta santurtziarra ibili zen Azteca deituriko ontziarekin Santanderrera kargamendua ekarri zuena irailaren 24rako[223].

Lezo Urreiztieta Rekalde, EAJ/PNV-ra afialiatutako euskal kontrabandista izan zen. Oso kontrabandista berezia izan zen. Euskal nazionalista izan arren, 1934ko iraultzatik ihesi zihoazen zenbait militante ezkertiar mugaz bestaldeko babesera ezkutuan eraman zituen. Gerran zehar ere, bere egitekoa gorestekoa izan zen, Eusko Gudarosteak uneoro behar izan zituen armak atzerritik ekartzeko prest egon baitzen. Enrike Darkistade Garai gudari getariarrak ere, denboralditxo batez, berarekin lanean jardun zuen. Azken honek, ELA/STV-n afiliatuta izaki, ardura politikoz, Itsas Boluntarioen zerrendan[224] izena eman ostean, lehen egitekoa Lezo Urreiztietaren Matxino ontzian arma-hornikuntzan burutu zuen. Bere egitekoa 1936ko urritik 1937ko otsailera arte luzatu zen. Abendurako, Bou Gipuzkoako sugin gisan jardun zuen eta 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko batailan borrokatu zuen. Ekainera bitartean Bou Gipuzkoako marinela izaten jarraitu zuen eta haren ostean Jose Luis Diez destruktorera lekualdatu zuten, hain zuzen, destruktoreko tripulante ez-fidagarriak lehorreratu ostean. Darkistadek, 1937ko iraila bitartean Jose Luis Diez destruktorean zerbitzua emanez jardun zuen.


EUZKADI'KO JAURLARITZA
GUDA ZAINGOA
ITXAS-GUDA BURUTZA

Izena Enrique
Abizenak DARQUISTADE GARAY
Jaiotzerria Getaria
Probintzia Guipúzcoa
Sindikatua Euzko Langilleen Alkartasuna
Norabeak Mare LEZO (10-36/2-37); Fog GIPUZKOA (12-36/6-37); Fog JOSE LUIS DIEZ (6-37/9-37)

Enrike Darkistade Garairen Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


Lezo Urrieiztieta Rekalde.

Irailaren 21ean egoerak hala behartuta Itsas Ministroak, Flota Errepublikarra Bizkaiko Itsasora eramateko erabakia hartu zuen, baina porrotean amaitu zuen:

"Irailaren 21ean Malagatik atera zen Flota Errepublikarra, Miguel Buiza korbeta-kapitainaren agindupean, almiranteordetzarako gaitu baitzuten; bere bandera Libertad gurutzontzian erakusten zuen. Flotaren osatzaileak genituen Jaime I korazatua (Carlos Esteban OA[225]), Libertad (Miguel Buiza KK[226]) eta Miguel de Cervantes (Luis Gonzalez de Ubieta KK) gurutzontziak, eta Destruktore Taldea, Valentin Fuentes ontzi-kapitainak agindua eta Lepanto (Valentin Fuentes OK[227]), Almirante Valdés (Fernando Oliva OT[228]),

[221] *Ibidem*, 34.or.
[222] *Ibidem*, 42.or.
[223] *Ibidem*, 44.or.
[224] Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen %7a getariarrak ziren; mutrikuarrek eta ondarrutarrek ere, bakoitzak partaidetza berdina zuen.
[225] Ontzi-alfereza.
[226] Korbeta-kapitaina.
[227] Ontzi-kapitaina.
[228] Ontzi-tenientea.

Escaño (Manuel Pasquin KK), José Luis Díez (Vicente Ramirez de Togores OT), Almirante Antequera (Ricardo Noval OA) eta Almirante Miranda (Gabriel Martinez Itsas Laguntzailea) destruktoreez osatua. Itsas agregatu sobietarra ere, Nikolai Kuznetsov ontzi-kapitaina, Flota Buruaren aholkulari gisa zihoan Libertad ontzian"[229].

Irailaren 23an, Bizkaiko Itsasoko Ekialdeko Itsas Sektorea Manuel Moreu ontzi-kapitainaren agindupean ezarri zuten. Hasieran, kanoa taldea zuten, Juan Tornos ontzi-tenientea buruzagi zelarik eta Pat, Stella Maris eta Taka-Pun txalupekin:

"Baina urriaren hasieran bou artilatuen talde berri bat antolatu zuten, Patruilaontzien 4. Taldea edo Pasaiako Taldea izenekoa, Pascual Diez de Rivera fragata-kapitainaren agindupean, eta Denis (Manuel Aldereguia OT), Virgen del Carmen (Javier Quiroga OT), Virgen de Iciar (Angel Bona OT), Alcázar de Toledo (Javier Saldana OT), Juan Mary (Luis Pinto OT) eta Santa Urbana (Martin Pinillos OT) bouez osatua"[230].

Une hori, Itsas-Armada frankistak Bilbo inguruak minatzeko aprobetxatu zuen eta bitartean, babes errepublikarrik gabe utzi zuten.

Irailaren 29an, itsasartean, Canarias eta Cerverak eraso azkar bat egin zuten Almirante Ferrandiz destruktorea hondoratuz eta Gravinak, ihes egitea lortu eta Casablancan babestu behar izan zuelarik. Handik aurrera Flota Errepublikarraren helburu nagusi bakarra trafikoa babestera mugatu zen, flota frankistari inongo erasorik egin gabe. Flota errepublikarra guztiz moral baxuarekin geratu zen:

"**Urriaren 2an** Bilbora heldu zelarik berria, eta destruktoreaz gain tripulazio gehiena ere bertan galdu zela, Jaime I-en marinel talde handi batek Cabo Quilates kartzela-ontziari eraso egin zion, han eskuineko 700 bat pertsona baitzeuden atxiloturik, eta berrogeita hamar bat hil zituzten"[231].

Urriaren 7an Bilboko portuan geratu ziren Jose Luis Diez destruktorea (Carlos Moya Blanco OA), C-2 (Eugenio Calderón Martínez OT), C-5 (Jose Lara Dorda KK) eta Torpedero nº3 (Julián Sánchez-Gómez) izenekoekin eta Santanderreko 3 hidrohegazkinekin Bizkaiko Itsas Armada eratu zuten:

"Errepublikaren Armadaren osatzaileak, halaz, Flota (Miguel Buiza KK), Bizkaiko Itsasoko Armada (Jose Lara Dorda KK) eta Cartagena (Antonio Ruiz Gonzalez OT) eta Mahongo (Nicanor Menendez 1. Itsas Ofiziala) Itsas Baseak eta Malagako (Baudilio San Martin 2. makinaria) sortu berria ziren"[232].

Haien aginte osoa, Indalecio Prieto Itsas eta Aireko Ministroarekin esku zegoen.

Urriaren 15ean Galerna harrapatu eta bertan ziren Aitzol apaiza eta beste kide nazionalista batzuk fusilatu zituzten haren ostean.

Urriaren 19an Flota Errepublikarra Cartagenara iritsi eta ez zuen handik atzera egingo, Mediterraneoan borrokatuko zuen handik aurrera. Abenduan ordea, itsas-armada guztia koordinatuko zuen Estatu Nagusia sortu behar izan zuten.

Santander eta Asturiasko itsas-antolaketa

Santander eta Asturiasen, itsasontziek, horniketa-lanak egin zituzten. Horretan, Herri Ontziteriako Idazkariordetzaren arrantzain batzuk bakoitza bere itsas ordezkariekin ibili ziren:

"**Abuztuaren 16an** Santanderko abiazioak Tiburón bou armatua harrapatu zien matxinatuei. Dirudienez, harrapatuak zituen kanoietako bat desmuntatu eta honez beste bou bat, Alcaudon izenekoa, armatu zuen Santanderko Itsas Ordezkaritzak, eta biak erabili zituzten gero hainbat zainketa lan egiteko, irailaren 3an Bilbora bidali zituzten arte"[233].

Alcaudon Mediterraneoan Errepublikako Armadako kostazain gisa ibili zen eta Tiburon desartilatu eta baldintza hobeagoetan zeuden bou batzuk armatzeko erabili zuten. Irailaren amaiera aldean, kolpistek Bizkaiko Itsasoko portuak minatu nahi izan zituzten eta hori ekidin ahal izateko Asturias eta Santanderreko agintariek arrantza-ontzi batzuk mobilizatu zituzten.

"Laburbilduz, Bizkaiko Itsasoko armada errepublikarra, abuztuaren erdialdean, Torpedero nº3 eta Herri Ontziteriako Idazkariordetzaren eta Tabacaleraren zainketako txalupa batzuk besterik ez ziren, inolako balio militarrik gabeak hauek. Geroxeago Tiburón eta Alcaudon bou armatuak gehitu zitzaizkion –oso denbora laburrean aritu ziren arren–, C-2, C-3, C-4, C-5 eta C-6 itsaspekoekin batera, baina hauek oso eraginkortasun eskasekoak gertatu ziren; irailaren amaiera aldera, hainbat minaketari ere izan zen"[234].


[229] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 44.or.
[230] *Ibidem*, 42.or.
[231] *Ibidem*, 46.or.
[232] *Ibidem*, 50.or.
[233] *Ibidem*, 34.or.
[234] *Ibidem*, 34.or.

3.2.4. Euskadiko Gudontzidiaren sorrera

1936ko urriaren 15ean Jose Antonio Agirrek, Defentsa Sailaren barnean, Itsas Saila sortu eta hango buruzagi, 1933az geroztik Bilboko itsas ordezkariordea zen Joaquin Egia Untzueta ezarri zuen. Hura sortzeko arrazoiak: kolpistek merkantzia eta arrantzaleei eginiko erasoak ekiditea, eraso haiek herritarren moralean eragindako nahigabea txikitzea, Errepublikarren Flotak behar zuen tokia hartzea eta Errepublikarren etsaien ihesaldi zein espioitza jardunak etetea izan ziren. Urriaren 25ean martxan jarri eta haren helburu nagusia, batik bat, zaintza-lana izan zen. Euskal Herriko lurreko borrokan defentsan jarduteko aukera ere izan zuen eta helburu horiekin guztiekin, hain zuzen, Joaquin Egiak *Euzkadi'ko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldea* sortu zuen.



Joaquin Eguia Untzueta, Euskadiko Gudontzidiko buruzagia. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



MEMORIA DE LA SECCION DE MARINA DEL DEPARTAMENTO DE DEFENSA.

Con fecha 25 de Octubre de 1936 comenzó a actuar la Sección de Marina del Departamento de Defensa de Euzkadi, encontrándose al frente de la misma por designación del Excmo Sr. Consejero, D. Joaquín de Egia y Untzueta.-

La misión confiada por el Sr. Consejero a esta Sección consistía principalmente en la formación de una Flota Auxiliar de la Marina de Guerra, mediante el artillado de buques mercantes de velocidad y condiciones marineras, que se dedicara a la protección de la pesca y libre navegación de los buques mercantes de nuestro pabellón y banderas amigas a la vez que acabar con la piratería existente en nuestras aguas, motivada por la presencia de barcos de guerra y embarcaciones menores artilladas por los elementos facciosos.-

Al hacerse cargo esta Jefatura de los servicios se encontró con cuatro buques que se acababan de artillar en los astilleros de esta plaza, pertenecientes todos ellos a la flota pesquera de la S. A. "ITUR" (Pesquerera y Remolcadora de Socallao de España) domiciliada en Pasajes (GUIPUZCOA) y los cuales habían llegado a nuestro puerto al efectuarse la evacuación de aquellabora bien, encontrándose que no se encontraban aun delimitadas ni la jurisdicción a la que los mismos habían de encontrarse sometidos, al tampoco a cargo de que organismo había de correr su atención y sostenimiento, esta Jefatura como primera providencia sometió a la consideración de S.E. un anteproyecto de Decreto incautándose el Gobierno Vasco de los buques de referencia, denominados, MUSTAL, ITXARAVAL, EUSKALERRIA e HISPANIA, proyecto que mereció la superior aprobación del Sr. Consejero, quien lo sometió a la consideración de los demás Consejeros, publicándose la orden de incautación en el B. O. del E de Noviembre próximo pasado.-

Al hacerse cargo esta Jefatura de los indicados buques a tenor de lo dispuesto en el Decreto de referencia, tropezó con el grave inconveniente de que sus tripulaciones se encontraban formadas en su gran mayoría por gente extraña al país, pertenecientes a organizaciones extremistas y carentes en absoluto de la disciplina necesaria para el desempeño de las misiones especiales a confiar por el Gobierno Vasco, y con la vista fija siempre en rodearse de personal de entera confianza, ya que aborde además de las tripulaciones de los buques existían elementos pertenecientes a la Armada española, en los especialidades de artillería, personal muy carente en absoluto de control y cuya disciplina al igual que la de los restantes tripulantes dejaba mucho que desear, existiendo entre ellos un buen número de indeseables, tanto políticos como moralmente, propuso esta Jefatura a la superior consideración de S. E. la formación de lo que posteriormente ha sido denominado "VOLUNTARIADO DE MAR", es decir, la libre inscripción de voluntarios para integrar con ellos las dotaciones de los buques artillados y de cualquier otro que pudiera irse preparando a medida que las necesidades del servicio por una parte lo requieran y las disponibilidades de esta Jefatura lo permitieran.

Euskadiko Gudontzidiaren sorrera-agiria. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hasiera batean, Euskal Milizien Itsas Zerbitzuetatik edo Pasaiako Flotatik lortutako hamar bat ontzi baino ez zituzten eta ehun bat gizon baino ez. Bizkaiko Itsas Armadak burutu behar zituen zenbait eginkizun burutu zituen, lehenengoak zuen ezgaitasunagatik. Euskadiko Gudontzidiak, Bilbo frankisten atzaparretan erori bitartean, itsas kanpainaren pisu nagusiena izan zuen:

"1937aren erdialdean, dagoeneko berrogeita hamar bat ontzi eta 650 bat gizon ziren, lehorreko bulego eta zerbitzuetan, ontzi artilatu, minaketari, txalupa eta kanoa laguntzaileetan eta BIAren zerbitzu eta ontzietan destinatutako pertsonetan"[235].

Euskadiko Gudontzidia Itsas Sailaren barnean eta ondorioz Eusko Jaurlaritzako Defentsa Departamentuaren menpean zegoen eta ez zuen Bizkaiko Itsas-Armadaren menpean funtzionatzen. Betetzen zituzten agindu guztiak Eusko Jaurlaritzako Defentsa Sailetik zetozen:

"Itsas Saila arduratzen zen ontzi laguntzaileen zuzendaritza administratibo eta operatiboaz, eta Bizkaiko Itsasoko Armadaren (BIA) eskumena gerraontzietara mugatzen zen. Ekintzen planifikazio eta prestakuntza BIAren Estatu Nagusiaren eginkizuna zen; Euskadiko Jaurlaritzak agintzen zizkion zerbitzuei zegozkien ekintzetarako aginduak erredaktatzen zituen BIAk"[236].

Joaquin Egia Untzuetak, Bilboko portuan zeuden eta erabiltzen ez ziren arrantza-ontziak hartu, artileria ipini eta bou armatu bilakatu zituen. Beste itsasontzi batzuei berriz, miatzeko tresneria ezarri eta minak miatzeko itsasontzi gisa funtzionatu zuten.

Armada Errepublikarrarekin zenbait eztabaida izan arren, Bizkaiko Itsasoko Armadari, Euskadiko Gudontzidiak, merkantzien eskolta eta mina miaketak eginez lagundu zion.

Euskadiko Gudontzidiaren antolaketa administratiboa

Euskadiko Gudontzidia, Eusko Jaurlaritzako Defentsa Sailaren menpean zegoen eta bere bulegoak, Hotel Carlton-eko hirugarren pisuan zituen. Hasiera batean, buruzagia, idazkari bat, irratitelegrafista bat eta administrazioko langileak baino ez zituen, baina Flota Laguntzaileak hartutako neurrien eraginez, egitura zabalagoa eman behar izan zioten buruzagitzari, 1937ko martxoan osatu zen arte.

Santanderrera ebakuatzean ordea, berriro ere, pertsonala murriztu egin zuten: buruzagia, idazkari bat, makina-ikuskatzaile bat, aholkulari tekniko bat, administrazio arduradun bat, hornikuntzarako beste bat eta langile laguntzaile talde txiki bat. Euskadiko Gudontzidiaren sorreran, horrelako antolaketa administratiboa zuen:

- *Itsas Sailaren buruzagitza:* Joaquin Egia. Euskadiko Gudontzidiko ontzi eta zerbitzuen zuzendaritza operatiboa zuen.
  - *Idazkaritza*: Jose Maria Burgaña Belaustegi. Otsailetik aurrera, Jose Antonio Duranona-k ordezkatu zuen. Bilbo tropa frankistek menpean hartu ostean, Santanderren, Andres Atela idazkari izan zen. Bertan, informazio, dokumentazio, artxibo eta osasun kontuez arduratzen ziren, besteak beste.

[235] *Ibidem*, 52.or.

[236] *Ibidem*, 52.or.


- *Pertsonal eta Armamentu Bulegoa*: Alejandro Larrondoren esku. Pertsonala errekrutatzeaz, destinoez, kuartelez, armamentuaz... arduratzen zen.
- *Eraikuntza eta Konponketa Bulegoa*: Juan Cruz Ajuria, Francisco Zabaletak laguntzen ziolarik ikuskatzaile lanetan eta Jose Casamitjanak aholkulari tekniko gisa; Santanderren azkeneko biak bakarrik aritu ziren. Euskadiko Gudontzidiaren ontziei egindako moldaketa eta konponketez arduratzen zen.
- *Administrazio Bulegoa*: Jose Ramon Maruri. Santanderren, Eugenio Pedro Jimenezek zuzendu zuen. Kontabilitateaz eta ordainketez arduratzen zen.
- *Transmisio Bulegoa*: Juan Mª Lekube. Apirilean Jose Fernandez Villanuevak ordezkatu zuen. Irrati eta irratitelegrafoz egiten ziren komunikazioez arduratzen zen.
- *Intendentziako Bulegoa*: Luciano Arteta. Jaki, tresna eta itsas elementuen horniduraz eta bilketaz arduratzen zen. Santanderren Candido Caballero arduratu zen eginkizun honetaz.

- *Portugaleteko Itsas Ordezkaritza*: hasieran Candido Caballeroren arduran. Otsailean, Jose Maria Burgañak hartu zuen postua, eta Candido Caballerok idazkari gisa jarraitu zuen. 1936ko azaroaz geroztik, itsas-ordezkaritza, Hotel de Portugaleten kokatu zen, eta kaian, intendentzia eta hornidura biltegi bat ere bazuen, bertan bildutako minak gordetzen zituzten. Geroago, beste bat ere egokitu zuten. Euskadiko Gudontzidiaren itsas-basea Portugaleteko portua zen eta horrenbestez, instalazio haietaz arduratzen zen. Horrez gainera, bou artilatuekiko lotura-zerbitzua, mina-bilketa zerbitzua eta kosta-zaintza zerbitzuak zuzentzen zituen. Portuko lanetarako, hainbat ontzi txiki eskura zituen.
- *Talaia eta Zelatari Zerbitzua*: zelatari eta talaia postu guztiak Itsas Buruzagitzaren mende zeuden eta hari, gertatutako guztiaren berri ematen zioten. Kostako zaintza bermatzeko, Luzero eta Galea lurmuturretan, Sopelan, Plentzian, Villano lurmuturrean, Matxitxako lurmuturrean eta Lekeition kokatutako postu finkoak baliatuz sortu zuten honako zerbitzua.
- *Praktiko edo bide-emale zerbitzua*: 1936ko azarotik 1937ko martxora bitartean, Itsas Buruzagitzak, Bilboko portuko praktiko zerbitzua zuzendu zuen. Martxotik aurrera Merkantzi Ontziteriaren Zuzendaritzaren esku geratu zen.
- *Itsas Kuartela*: 1937ko urtea aurrera zihoala, Getxon Itsas Kuartela ezarri zuten. Bertan, destinoaren zain edo zerrendatzeko fasean zegoen tripulazioa kokatu zen. Araba bouaren komandanteak agintzen zuen bertan, bere tripulazioa baitzen kuarteleko goarnizioan gehiengoa.

Armadako tripulazioa

1936ko azaroaren 10ean, Joaquin Egiaren aginduz, Itsasoko Bolondresgoa sortzeko Dekretua atera zuten. Zibilez osatutako gorputz militar hartan, hasiera batean baxurako edo alturako arrantza-ontzietan gutxienez 6 hilabete jardun zutenek eta merkantzia-nabigazioan aritutako guztiek eman zezaketen izena:

"Aurkeztutakoak 3.000 baino gehiago izan ziren, 18 eta 60 urte bitartekoak eta lanbide maila guztietakoak: kapitainak, pilotuak, patroiak, makinariak, suginak... baina prestakuntza militar eskasekoak eskuarki"[237].



Euskadiko Gudontzidiko marinel-boluntarioak. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[237] *Ibidem*, 58.or.

Hasieran 350 marinel hautatu bazituzten ere, 1937ko ekainean, 1924tik 1938rako kintak mobilizatuz, 700dik gora ziren, ontzietara eta Bizkaiko Itsas Armadako bulegoetara destinatutakoak ere kontutan hartuz.

Armadaren lege eta foruen menpean lan eginen zuten eta jantzi berezia ere izan zuten:

"Pertsonal guztiak hartu zuen laneko eta paseoko arropa. Lehena mono itxurakoa zen, eta bigarrena txaketoia eta prakak ziren, gris berdexkatik itsas urdineranzko tonuez, arrantzale botez eta txapel ilunaz. Bakoitzaren gradu edo maila ezagutzeko bereizgarri zein galoirik ez zuten erabili, baina horretarako proiektuaren lehen zirriborroa egitera heldu ziren"[238].

Langile motak


"Bouetako komandanteei ontzi-teniente maila eman zieten, baina bestelako hierarki izen guztiak Herri Ontziterian erabilitakoetatik hartu zituzten. Ontzi-bizkarreko Ofizialen artean komandante eta 1., 2. eta 3. ofizial graduak zeuden. Goizeko eta Iparrekoren komandanteak eta minaketari eta kanoetako kapitainak 1. ofizialtzat hartzen zituzten. Makinetako ofizialen artean 1., 2. eta 3. makinari eta makina-laguntzaile edo 4. makinari graduak erabili zituzten, Ontzi-bizkarreko ofizialekin halako paralelotasun bat finkatuz. Goizeko eta Iparrekoren makinariak 2. makinistatzat hartzen zituzten. Telegrafistek eta Osasuneko langileek (mediku eta praktikanteek) ere ofizial maila zuten Euzkadiko Gudontzidian. Tarteko laguntzaile graduetan kostako edo kabotajeko patroia (1.eko patroi deitua batzuetan), 2. ofizialaren mailakoa, eta arrantzako patroiak (edo 2.eko patroia) izaten ziren, menpeko mailaz azkeneko hauek. Makinetako graduak 1. mekanikari edo 1. motorista graduak ziren, 3. Makinariaren parean, eta 2. mekanikari edo 2. motorista, menpeko mailaz. Maila horixe bera zuten minaketarietako makinari eta sugin gaituek. 1937ko ekainean intendente edo bulegoetako laguntzaile postua ere sortu zuten. Azkenean, atzeneko mailaren osatzaileak genituen Marinel Saila (kontramaisua, marinel-kabua, marinela eta mutila), Makinetakoa (makina-arduraduna, koipeztatzailea, sugina eta endai-mutila), Irratitelefonokoa (telefonista), Artilleriakoa (kanoikabua eta artilleroa) eta Sukaldekoa (1. eta 2. sukaldaria, 1. eta 2. zerbitzaria eta eltzezaina). Kanoa automotoreetan destinatutako pertsonal guztiak marinel maila zuen, nahiz eta batzuek kanoa patroi edo kanoa motorista izendapenak jaso zituzten"[239].

Itsasoko Bolondregoaren gehiengoa euskal kostaldeko herrietakoa zen, hain zuzen, hauen gehiengoa arrantzalea baitzen eta beraz, ohituraz, bazekien itsas-baldintzak zer-nolakoak ziren. Horien artean %57a, bizkaitarrak ziren (bermeotarrak nagusi zirelarik, %11); gipuzkoarrak %28a osatzen zuten, arabar eta nafarrek %1a baino ez zuten osatzen eta gainontzekoak, %14a, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak ziren (gehiengoa galiziarrak, %11).

Militantzia politikoari dagokionez, haien gehiengoa EAJ/PNV edo ELA/STV-koak ziren (%57), %19a UGT edo Alderdi Sozialistakoak, %5a CNT-koak, EAE/ANV-koak %4a, Izquierda Republicnakoak %2a, Alderdi Komunistakoak ere %2a eta %1a, UGT-ren inguruan lan egiten zuten sindikatu profesionalek osatzen zuten. Afiliatu gabekoak edo afiliazio ezezagunekoak %10a ziren. Datu horiei erreparatuz, gerrara joan ziren Euskadiko Gudontzidiaren gudarien artean kontzientziazio politiko altua zegoela esan genezake[240].

Lehorreko pertsonala, ez zen Itsasoko Bolendresa, ez ziren armadaren lege eta foruen menpe geratzen: bulego, tailer, biltegi, talaia eta zainketa-postuetan egoten ziren.

Euskadiko Gudontzidian aritutako hiru emakumeak, administrazioan lanean aritu ziren. Buruzagitzago bulegoetan lan egin zuten: Paquita García eta Maria Luisa Jimenez Alzaga, 1937ko martxoaz geroztik egon ziren nominan eta, Miren Leanizbarrutia, lehenaren ordez sartu zen apirilean.



PAIS VASCO
DEPARTAMENTO DE
PRESIDENCIA Y DEFENSA

EUZKADI
LENDAKARITZA ETA GUDA
ZAINGOA

Establecida la militarización en toda su amplitud de las dotaciones que habrán de tripular los buques pesqueros artillados "Hispania", "Eskal-erria", Vendabel" y "Mistral", conviene, no obstante, fijar los haberes y cuantía de manutención que habrá de percibir este personal por su especial misión.

A tal efecto vengo en disponer rija para las dotaciones de los susodichos buques la siguiente escala de sueldos y cuantía de manutención mensuales:

Cargo	Sueldo	Manutención
-Capitán -	800 pts.	150 pts.
-1º Oficial	600 "	150 "
-2º Oficial	500 "	150 "
-Contramaestre	300 "	120 "
-Marineros	225 "	120 "
-Mozos	200 "	120 "
-1º Maquinista	750 "	150 "
-2º Maquinista	600 "	150 "
-3º Maquinista	500 "	150 "
-Calderetero	300 "	120 "
-Engrasador	275 "	120 "
-Fogoneros	250 "	120 "
-Palero	215 "	120 "
-1º Cocinero	275 "	120 "
-2º Cocinero	250 "	120 "
-Camarero	215 "	120 "
-Marmitón	200 "	120 "

Las nóminas se confeccionarán por la Sección Administrativa de este Departamento con el Vº Bº de esa Jefatura, siendo también aquella la que verificará los pagos que deberán ser siempre efectuados por meses vencidos.

Lo que pongo en su conocimiento y en

Euskadiko Gudontzidiko marinelen soldatak. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Bou armatuak

Bou armatuak, Euskadiko Gudontzidiko ontzi esanguratsuenak izan ziren. Haiek guztiak, gerra hasi baino lehen, arrantzaleek bakailao arrantzarako erabiltzen zituzten. Eusko Jaurlaritzak gerrarako zereginetarako itsasontzi bilakatu zituen, batez ere, zainketa-lanetarako:

[238] *Ibidem*, 58.or.

[239] *Ibidem*, 58.or.


[240] *Ibidem*, 58.or.

"Jendeak 'bou armatu' izenaz ezagutzen zituen horrelako ontziak. Guzti-guztiak berun-grisez pintatu zituzten, amuletan, beltzez, izenaren lehen hizkia zeramatela. Ikurrina brankan, eta errepublikaren hiru koloreko bandera zeramaten masta nagusian. Basea Portugaleten zuten, eta gehienetan Benedictako edo Galdamesko ditxoan botatzen zuten aingura"[241].

Itsas Buruzagitzaren mendean zeuden, eta ez zeuden ontzitalde gisa antolatuta; ofizialik zaharrenak, Gipuzkoaren komandante Manuel Galdosek, komodoro lanak egiten zituen batzuetan. 1937ko abuztuan, bou armatuak Bizkaiko Itsasoko Armadari eman behar izan zizkioten.

BOU DONOSTIA

Historia laburra: 1918an Eskozian *Bow, Mclachlan & Co. Ltd.* enpresak *Bulby* izena ezarriz britainiar armadarentzat eraikitako lurrunezko eta burdinazko oskoldun boua izan zen. 1929an, espainiar estatuari arrantza-ontzi gisan saldu eta hauek Guimera izena ezarri zioten. Estatu-kolpearekin, kolpistek errekisatu, artilleria ezarri eta Ribadeoko Itsas-Baseko ontzi bilakatu zen. Frankistek Pasaia menpean hartzean, bertako flotako ontzi bihurtu zen, Virgen del Carmen izena hartuz. 1936ko abenduaren 6an, bertako tripulazioa matxinatu eta frankistei itsasontzia kenduz, Bilbora sartzea lortu zuten. Bi kabok beste marinel batek lagunduta komandantea lotu eta giltzapetuta utzi zuten. Bi makinariak ere komandantearekin lotuta giltzapetu zituzten. Aldaketa txiki batzuk eta brankako kanoia aldatuta, 1936ko abenduaren 10ean, Virgen del Carmen ontzia Donostia gisara izenpetu zuten. Bere itsasoratzea, 1937ko otsailean burutu zuen, hain zuzen, Bou Gipuzkoatik jaso zuen kainoia ezarri ostean.



Bou Donostia. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Matxitxako lurmuturreko gudua zuzenean ikusi ahal izan zuen 1937ko martxoaren 5ean. Haren ostean salbu jarri eta Arcachonen (Frantzia) babestu zen. Hilaren 12an La Pallicera (Frantzia) joan eta zenbait konponketa egin zizkioten. 1937ko uztailean, armaz kargatutako Viiu merkantzia-ontzia Gijoneraino eskoltatu zuen. Iparraldeko fronteko batailak amaituta, 1937ko azaroaren 1ean Errepublikar Armadak bere egin zuen ontzia. 1938ko apirilaren 17an, boua desarmatu eta haren armak, Frantziako armategi batean utzi behar izan zituzten. 1939an armadoreei ematean Lanzaroten hondartu eta 1942an desegin egin zuten.

Tripulazioa: Haren komandanteak, 1938ra arte, Francisco Elortegi eta Antonio Fernández izan ziren. 1937ko urtarrilean, guztira 28 gudari ziren. Filiazioari dagokionez, gehiengoa, 18 gudari, ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren; 5 UGT eta Alderdi Sozialistakoak; 2 IR-koak, 1 Alderdi Komunista eta Nazioarteko Laguntza Gorrikoa eta 2 filiaziorik gabekoak ziren. Francisco Elortegi Ganbe, EAJ/PNV-ELA/STV-koa zen. Hauen artean euskal lurralde guztietako kideak zeuden eta horietatik 2 militar profesionalak ziren, artilleriako kaboak; bou honetan gertatutako berezitasuna izan zen. Bou Donostiako gudarien artean, Nikasio Kerejeta Agote getariarra egon zen.

Armamentua: 1937ko otsailean, *Vickers* 76,2/50 mm-ko kainoi bat, *Vickers* 47/50 mm-ko kainoi bat, *Steyr* 8 mm-ko bi metrailadore, Hotchkiss 9 mm-ko fusil metrailadore bat eta sei sakonera-karga zituen.

[241] *Ibidem*, 54.or.



Bou Donostiako brankako kanoia.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).



Bou Donostiako popako kanoia.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).



Francisco Elortegi Ganbe, Bou Donostiako komandantea. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Nikasio Kerejeta Agote, Bou Donostiako marinela.

*BOU DONOSTIAKO GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIA	FILIAZIOA
KEREJETA AGOTE, NIKASIO	30	Marinela	Donostia (1936ko abendua-1938)	EAJ/PNV

NABARRA, ARABA, GIPUZKOA ETA BIZKAIA BOUAK

Urriaren 30ean, Jose Antonio Agirrek, Mistral, Vendaval, Euzkal-Erria eta Hispania Bizkaiko Itsas-Armadaren eskuetan zeuden ontziak konfiskatzeko dekretua atera zuen. Hala eta guztiz ere ez zituzten abendura arte hauek guztiak beraien eskumenean ezarri.


1936ko abenduaren 9an, *Agintaritzaren Egunerokoaren* arabera, ordura arte itsas-operazioak burutu zituzten bakailao-ontziei izenak aldatzea erabaki zuten: Vendaval handik aurrera Nabarra izan zen; Hispania berriz, Araba; Mistrali Gipuzkoa izena ezarri zioten eta azkenik Euzkal-Erriari, Bizkaia.

1936ko abenduaren 11n, Jose Antonio Agirre Lekube Lehendakariak, Indalecio Prieto Gobernu Errepublikarreko Itsas eta Aireko Ministroari, bou Nabarra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren artillatzearen berri eman zion.

Hilaren 12an tripulazioa ezarri zen, barkuek ikurrina brankan ezarri (bandera errepublikarra ere eraman zuten ezarrita) eta Euskadiko Armadaren barnean sartuta geratu ziren erabat.



Nabarra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bouen izendapen-agiria. (Euskadiko Artxibo Historikoa).



Nabarra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bouen artillatze-agiria. (Euskadiko Artxibo Historikoa).

BOU NABARRA:

Historia laburra: 1928an, Abeerden-en (Eskozia) *Hall Rusell & Co. Ltd.* enpresak eraikitako lurrunezko eta burdinazko oskoldun PYSBE-ko bakailao-ontzia, Vendaval gisa izenpetutakoa. 1936ko irailaren 13an, Pasaiatik Bilboko portura ebakuatu zen eta horren eraginez, Bizkaiko Defentsa Batzarraren menpe geratu zen. Haren baitan, Bilbo-Baiona babes-trafikoa gauzatu zuen eta 1936ko urriaren 30ean Eusko Jaurlaritzak errekisatu eta abenduan artilleria ezarri ostean lanean jarraitu zuen.

Bou Nabarraren komandantea Enrike Moreno Plaza (1906-1937) izan zen, zeina CNT eta UGT-ren artean lankidetzan jarduten zuen elkarte profesional bateko kidea zen; inongo bietan ez zegoen afiliatuta. Berau merkantzia-ontzietako kapitaina zen, bere

ikasketak Cartagenan burutu zituen pilotu titulua jasoz eta 1933an kapitain gradura iritsi zen. Gerra hastean, Hispania bouko 1.ofiziala zen, baina urrian Vendavaleko kapitain izendatu zuten, zeina 1936ko abenduaren 9an Bou Nabarra gisan izenpetu zuten. Bou Arabari kendutako kanoia, Bou Nabarraren brankan ezarri zuten.


1936ko abendu bukaeran, bou Nabarrak, Pluto eta Palos ontzi alemaniarrak atxilotzen lagundu zuen. 1937ko urtarrilaren 8an, Velasco destruktore frankistak Bilboko portuaren inguruan egin nahi izan zuen minaketa ekidin zuen.

1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko guduan, Galdames merkantzia-ontzia, Canarias gurutzaontzi frankistaren kanoikadetatik babesten ari zela, hondoratu zen.


Tripulazioan guztira, 42 gudari ziren. Horietatik 23 ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren[242]; 9 UGT eta Alderdi Sozialistakoak; 5 CNT-koak, 2 Izquierda Republicanakoak, 2 Nazioarteko Laguntza Gorriko eta Alderdi Komunistakoak eta 1 filiaziorik gabea.

Bertan 6 getariar gudari egon ziren eta haietatik, hiru Matxitxako lurmuturreko borrokan hil zituzten frankistek, Meltxor Albizu Indo, Jose Miguel Iñarra Esnal eta Antonio Ituarte Etxebarria, hain zuzen. Guztira, Matxitxako lurmuturreko bataila gogorrean, 34 euskal-gudari, Galdames merkantzia-ontziko 5 zibil eta Canarias gurutzaontziko marinel bat hil ziren. Bou Nabarrako getariar gudariek ere, izugarrizko adorea erakutsi zuten Canarias gurutzaontzi frankistak zuen arma-potentziala kontutan hartuz, artileria xumez hornitutako bakailao-ontziaz aurre egiten. Bizirik geratutako 20 gudariak, Canarias gurutzaontziak hartu eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Hasiera batean, guztiak heriotz-zigorrera kondenatu zituzten, baina Canarias gurutzaontziko kapitain Salvador Morenok eta korbetako kapitainak Manuel Calderon deiturikoak, ahalak eta bi egin zituzten gudari haiek guztiak kartzelatik ateratzeko, gudariek erakutsitako adorea baitzuten beren memorian present. Gobernu-frankistari hainbat eskari egin ostean, heriotz-zigorra kentzea lortu zuten eta denbora batera irten ziren kartzelatik. Frankismoan zehar ere gudari hauei laguntzeaz arduratu ziren.

Armamentua: 1936ko azaroan, *Vickers* 101,6/50 mm-ko kainoi bat, Steyr 8 mm-ko bi metrailadore eta Hotchkiss 9 mm-ko fusil metrailadore bat zituen. 1937ko otsailean, Vickers 101,6/50 mm-ko bi kainoi, Steyr 8 mm-ko bi metrailadore eta Hotchkiss 9 mm-ko fusil metrailadore bat zituen.



Bou Nabarra. (Euskadiko Artxibo Historikoa).



Bou Nabarra. (Euskadiko Artxibo Historikoa).



Enrike Moreno Bou Nabarrako komandantea.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).



VASCONGADAS

Tranquilidad en los frentes. Combates marítimos entre los «bous» leales y los rebeldes. El «España» bombardeado por nuestra Aviación

Bilbao 9, 10 noche. El secretario particular del presidente, Sr. Aguirre, manifestó a los informadores que en los frentes del País Vasco había reinado tranquilidad en las últimas horas. Agregó que nuestros buques de mar continuaban realizando valientes incursiones. A primera hora de la madrugada, el "bou" "Navarra" abrió intenso fuego de cañón y ametralladora contra el buque pirata "Velasco", en el momento en que iba acompañado de un "bou" faccioso. El "Velasco" contestó en igual forma. El combate se oyó a la altura de Castro, y sus resultados son difíciles de precisar, entre otras razones, por la densa niebla reinante en estas aguas. Pero sí se sabe que el "Velasco" y el "bou" se internaron mar adentro a toda máquina. Sabemos también que el "Navarra", terminada la desigual lucha, pudo llegar a puerto y reintegrarse a sus servicios ordinarios.

A la altura de Ondárroa, una motora, sin más armamento que los fusiles de sus tripulantes, después de mantener combate con un grupo de pesqueros facciosos, capturó a uno de ellos, que era trasladado a Bilbao.

La Aviación republicana realizó vuelos de exploración sobre el mar. A la altura de Guetaria descubrieron al acorazado pirata "España", que fue intensamente bombardeado y puesto en fuga.

El secretario terminó manifestando que nuestros aviones habían permanecido hoy vigilantes, pero sin abandonar sus aeródromos, y que en los frentes se había registrado ligeros cañoneos sueltos.—Febus.

Bou Nabarra eta Velasco-ren arteko borroka.
(ABC errepublikarra).



Bou Nabarra Matxitxakoko guduan.



Bou Nabarrako tripulazioa.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).



Periko de la Hoz Nabarra bouko gudaria eta Manuel Calderon Canarias gurutzaontziko korbeta kapitaina 1975eko abenduan. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

[242] Getariarren artean, bou Nabarrako gudari gisan jardun zuten seiak, EAJ/PNV edo ELA/STV-koak ziren.

*BOU NABARRAKO GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALBIZU INDO, MELTXOR	28	Artileria	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO)	24	Morroia	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
IÑARRA ESNAL, JOSE MIGUEL	52	Sugina	Nabarra[243] (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	ELA/STV
ITUARTE ETXEBARRIA, ANTONIO	34	Marinela	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
LEKUBE BURGAÑA, JULIAN	23	Endai-mutila	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
MANTEROLA AGOTE, ENRIKE	30	Morroia	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV



Meltxor Albizu Indo. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Periko de la Hoz Kintana. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Antonio Ituarte Etxebarria. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Julian Lekube Burgaña. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Enrike Manterola Agote. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[243] Hispania (1936ko azaroa-1936ko abendua).

BOU ARABA:

Historia laburra: 1927an La Ciotat-en (Frantzia) *Société Provençale des Constructions Navales* izeneko enpresak eraikitako lurrunezko eta burdinazko oskoldun PYSBEko bakailao-ontzia, Alfonso XIII.a gisan izenpetua. 1931n, Hispania izena ezarri zioten. Santiago Asolo Landea (Santurtzi, 1889-1956), merkantzia-ontzietako kapitaina Hispaniako kapitain izendatu zuten 1936an bertan.

1936ko urria amaieran Eusko Jaurlaritzak bou Araba errekisatu zuen. Azaro erdialderako lanean hasita zegoen. 1936ko abenduaren 9an, Eusko Jaurlaritzak, Hispania izena kendu eta Araba izena ezarri zion. 1936ko abenduaren 11rako artilleria ezarrita zuen, Eusko Jaurlaritzak Indalecio Prieto Gobernu Errepublikarreko Itsas eta Aireko Ministroari bidalitako dokumentuak hala frogatzen duenez.

Labean zenbait arazo izaten zituen eta urtarril-otsailean artilleria kendu egin zioten gainontzeko bouetan aprobetxatu ahal izateko. Hark izandako kanoietako bat Bou Nabarrari ezarri zioten. Bilbon konpontzen saiatu ziren arren, oraindik artilleriarik gabe jarraitzen zuen. Haren ostean, tripulazio osoa Getxoko txalet batera eraman zuten eta bertan, handik aurrera Armadaren Koartela izan zena egituratu zuten, Asolo buru zelarik.

Tripulaziori dagokionez, guztira 42 gudari ziren. Haietatik 27, ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren, 6 UGT eta Alderdi Sozialistakoak, 5 CNT-koak, 2 EAE/ANV-koak, Izquierda Republicanako 1 eta, Alderdi Komunistako eta Nazioarteko Laguntza Gorriko beste 1. Santiago Asolo Landea komandantea, ELA/STV-koa zen. Bou Araban jardun zuten getariar gudariak ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren.

1937ko ekainaren 16an, tropa frankistak Bilbora sartzear zeudela, errepublikarrek ontzia hondoratu egin zuten. Tropa frankistek ur-hondotik atera eta Alava izena jarri zioten, beraien jabetzako flotan sartuz. 1939an armadoreei itzuli eta 1965an, suntsituta geratu zen.

Armamentua: 1936ko azaroan, Vickers-101, 6/50 mm-ko kainoi bat eta Steyr 8 mm-ko 2 metrailadore zituen.




Araba boua hondoratuta, 1937ko uztailaren 19an frankistek atera zutenean. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Bou Araba, frankistek, bou Alava izenpetuta, Arabako Aldundiak guduikurra emandako egunean (1937/10/21).
(Gasteizko Hiri-Artxiboa).

*BOU ARABAKO GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA	24	Marinela[244]	Araba (1936ko abendua-1937ko maiatza)[245]	ELA/STV
LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE	24	Morroi[246]	Araba (1936ko abendua-1937ko apirila)[247]	EAJ/PNV
UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO	23	Morroi[248]	Araba (1936ko abendua-1937ko apirila)[249]	EAJ/PNV



Jose Maria Aranguren Iñarra.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Larrañaga Azpeitia.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Domingo Uzin Berasaluze.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[244] Euzkal-Errian eta L-2an kontramaisu izan zen. L-6an Arrantzako patroi, 2. Mailako patroia izan zen.

[245] Euzkal-Erria (1936ko azaroa-1936ko abendua); L-2 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa).

[246] D-14an, marinel egin zuen 1937ko maiatzean eta 1937ko uztaila eta iraila bitartean. 1937ko maiatzetik ekainera bitartean kontramaisu gisan lanean jardun zuen bertan.

[247] Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-14 (1937ko maiatza-1937ko iraila).

[248] L-4 eta Gazteizen marinel gisan aritu zen.

[249] L-4 (1936ko azaroa); Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko ekaina); Gazteiz (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

BOU GIPUZKOA:

Historia laburra: 1929an Falmouth-en (Ingalaterra) *Cox & Co. Engineers Ltd.* enpresak Mistral izenez eraikitako lurrunezko eta burdinazko oskoldun PYSBEko bakailao-ontzia. 1936ko abuztuaren 21ean, ebakuazioan, Pasaiako portutik irten eta Bilbora joan zen. Arestian aipatu gisan, Eusko Jaurlaritzak errekisatu egin zuen eta 1936ko abenduaren 9an Gipuzkoa izena ezarri zioten. Bouan ezarritako bi kanoiak, Cartagenatik ekarri zituzten.

1936ko abenduaren 14tik 1937ko urtarrilaren 18ra bitartean egindako zaintza-lan guztietan parte hartu zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko guduan, Canarias gurutzaontzi frankistak emandako kanoikaden eraginez, Bilboko portura sutan sartu zen, Galeako lurmuturreko bateriak frankistei tiro eginez lagundu ziolarik. 5 hildako eta 12 zauriturekin Portugaleten sartu zen. Zaurituen artean, Manuel Aranguren Iñarra, Juan Burgaña Etxebarria, Atanasio Kamio Uzin eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden. Bou Gipuzkoako hildakoen artean gudari getariarrik ez zen izan. Haren ostean, konpontze-lanak egin zizkioten. Errefuxiatuen eskolta-lanetan ere parte hartu zuen.

1937ko maiatzaren 1ean, Eusko Gudarosteari, italiarrak Gernika, Busturia, Sukarrieta, Mundaka eta, Bermeo menpean hartu ostean, haiek berriro errekuperatzeko operazioan parte hartu zuen, Bou Bizkaia eta Ciscarrekin batera. Hauen egiteko, Eusko Gudarostea, Bermeo, Truende eta Sollubeko mazeletan behera jaisten zen bitartean, itsasotik erasoa burutzea izan zen. Maiatzaren 4rako ordea, italiarrek beraien posizioak finkatu zituzten.

1937ko ekainaren 22an indar-errepublikarreko itsasontzi gehienak Santanderren aurkitzen zirenez, artilleria zuten itsasontzi guztiei hura kendu egin zieten, eraso frankisten aurrean, kostaldetik itsasontzi hauek guztiak babesteko nahikoa artilleria izateko. Horien artean, Bou Gipuzkoari ere bere artilleria kendu egin zioten. 1937ko abuztuaren 5an, BIA-ren aginduz, Bou Bizkaia eta Iparreko-Izarrarekin batera, Eusko Jaurlaritzak, BIA-ri eman behar izan zion Bou Gipuzkoa ere. Tripulazioak, hildako gudariengatik oroimen ekitaldia egin eta ikurrina jaitsi ostean, tripulazio txikiagoarekin Santanderreko portura eraman zuten bakailao-ontzia. BIA-k abuztuaren 19an Bou Gipuzkoaren 19 tripulatzaile eta komandantea jaisteko agindua eman eta haiek BIA-ko tripulazioak ordezkatu zituen. Abuztuaren 21ean, Andrés Corsino de Tuya Bou Gipuzkoako komandante izendatu zuten. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa armez kargaturik Gijoneko portura joan zen, Bou Bizkaia eta Iparreko-Izarra[250] ontziekin batera. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Gipuzkoa Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Gipuzkoa, Antonio Fernández Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. 1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten.

Tripulazioa: Honakoaren komandantea Manuel Galdos UGT-ko militantea izan zen eta batzuetan komodoro lanak ere egin zituen; gerora, BIA-ren buruak, Jose Luis Diez destruktoreko Komisario Politiko izendatu zuen. 1937ko ekainean, Eugenio Martinez Anthonissen aldi baterako komandante egon ostean, Policarpo Bilbao izendatu zuten Bou Gipuzkoako komandante eta tripulazioa ere aldatu egin zen. 1937ko abuztura arte Policarpo Bilbao Bou Gipuzkoako komandantea izan zen, eta haren ostean, abuztutik azarora bitartean, Andres Corsino de Tuya komandante ezarri zuten. Azarotik 1938ko urtarrilera bitartean Antonio Fernandez Santos komandante izan zen eta urtarriletik azarora bitartean, Francisco Miranda Diaz.

Guztira 48 gudarik osatzen zuten tripulazioa. Haietatik 27 EAJ/PNV eta ELA/STV-koak ziren, 8 UGT eta Alderdi Sozialistakoak, 4 CNT-koak, 3 Izquierda Republicanakoak, 2 EAE/ANV-koak, 2 Nazioarteko Laguntza Gorrikoak eta Alderdi Komunistakoak eta azken biak, filiaziorik gabekoak.

Armamentua: 1936ko azaroan, *Vickers* 101,6/50 mm-ko kainoi bat, *Vickers* 76,2/50 mm-ko kainoi bat, *Steyr* 8mm-ko bi metrailadore eta *Hotchkiss* 9mm-ko fusil metrailadore bat zituen. 1937ko otsailean, *Vickers* 101,6/50 mm-ko bi kainoi, *Steyr* 8 mm-ko bi metrailadore eta *Hotchkiss* 9 mm-ko fusil metrailadore bat zuen. 1937ko uztailean, Steyr 8 mm-ko bi metrailadore zituen. 1938ko martxoan, Vickers 101,6/50 mm-ko bi kainoi, *Vickers* 47/50 mm-ko bi kainoi eta *Steyr* 8 mm-ko bi metrailadore zituen.



Getariar gudariak Bou Gipuzkoan goardia egiten. (Peru Ajuria Artxibategia).



Ezkerretik hasita, Santiago Asolo, Manuel Galdos eta Alejo Bilbao, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia ontzietako komandanteak hurrenez hurren. (Peru Ajuria Artxibategia).



Gipuzkoa Abran. (Peru Ajuria Artxibategia).



Bou Gipuzkoa sutan, Matxitxako lurmuturreko batailaren ostean. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Bou Gipuzkoa konpontze-lanetan zegoen bitartean, Galdos komandantea bere tripulazioarekin. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Bou Gipuzkoan, ikurrina jasotzean, goardiakoak armak jasotzen. (Peru Ajuria Artxibategia).

[250] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

*BOU GIPUZKOAKO GETARIARREN ZERRENDA


IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARANGUREN IÑARRA, MANUEL	26	Marinela[251]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko apirila)[252]	EAJ/PNV
BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN	24	Morroi[253] 1936ko abendua 1937ko otsaila / Endai-mutil (1937ko otsaila-1937ko apirila) / Sugina (1937ko apirila-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila-1937ko azaroa)	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)[254] Gipuzkoa (1937ko uztaila-1937ko azaroa)	IR
KAMIO UZIN, ATANASIO	25	Morroi[255]	Gipuzkoa (1937ko urtarrila-1937ko ekaina)[256] Gipuzkoa (1937ko uztaila-1937ko azaroa)	EAJ/PNV
DARKISTADE GARAI, ENRIKE	-	Sugina[257]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)[258]	ELA/STV
ERRAZKIN AIZPURU, JOSE MANUEL	22	Marinela	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko maiatza)[259]	EAJ/PNV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA	26	Endai-mutila[260]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)[261]	IR-UGT



Manuel Aranguren Iñarra. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Juan Burgaña Etxebarria. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Atanasio Kamio Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Enrike Darkistade Garai. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Manuel Errazkin Aizpuru. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Maria Olaskoaga Zubimendi. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[251] Txepetx ontzian patroi gisan jardun zuen.
[252] Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko maiatza); Txepetx (1937ko maiatza-1937ko uztaila).
[253] Ciscar destruktorean sugina izan zen.
[254] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[255] Ciscar destruktorean marinela izan zen.
[256] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[257] Lezo Urreiztietaren Matxino ontzian marinela izan zen. Jose Luis Diez destruktorean sugina izan zen.
[258] Matxino (1936ko urria-1937ko otsaila); Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko iraila).
[259] 1937ko martxoaren 23an hilabeterako baja eman zioten gaixotasunagatik. C-6 (1937ko maiatza-1937ko urria).
[260] Ciscar destruktorean sugina izan zen.
[261] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

BOU BIZKAIA:

Historia laburra: 1927an, *Société Provençale des Constructions Navales* deitutakoak La Ciotat-en (Frantzia) Euzkal-Erria[262] izenpean eraikitako PYSBE-ko bakailao-ontzia. 1936ko irailaren 13an Pasaia ebakuatzean, Bilbora joan zen. Eusko Jaurlaritzak 1936ko urriaren 30ean Mistral, Vendaval eta Hispania bakailao-ontziekin batera errekisatu zuen. Abenduaren 9an, Euzkal-Erria izena kendu eta Bou Bizkaia izena ezarri zioten. Gainontzeko bakailao-ontzietan geroago ontzi-teniente bihurtuko ziren komandante berdinak mantendu bazituzten ere, Bizkaian, Alejo Bilbaok[263] (ELA/STV) ordezkatu zuen aurreko komandantearen postua. 1937ko ekainaren 14tik aurrera, Ramon Garrastazu Bou Bizkaiako komandantea izan zen.

1936ko abenduaren 20an, Bou Nabarrarekin laguntzaz, Pluto ontzi alemaniarra, zeinak frankistentzat armak zekartzan, Bilboko portura sartzen ahalegindu zen. BIA-ko buruzagiek aginduta, Bilbon bertan ezin izango zutela ontzia atxilotu adierazi zieten, itsasoko nazioarteko legeei men eginez. Egun batzuk beranduago, Palos ontzi alemaniarra Bilboko portura ekartzea lortu zuten, gorabeherak gorabehera. Horiez guztiez gainera, beste zenbait merkantzia-ontzi lur errepublikarretara babestuta iristeaz arduratu zen.

1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko batailan, Yorbrook merkantzia-ontzia Canarias gurutzaontziaren kanoikadetatik babestu ahal izan zuen eta Bermeoko portuan hark zekarren armen kargamendua utzi. Matxitxako lurmuturreko batailaren ostean, Euskadiko Gudontzidiko ontzien artean, berau eta Iparreko-Izarra baino ez ziren zerbitzuak emateko gai izan. Bilboko ebakuazioan ere, errefuxiatuen ontziak babesteko lanak egin zituen.



Bou Bizkaia. (Peru Ajuria Artxibategia).




Bou Bizkaia eskolta-lanean. (Euskadiko Filmategia).

1937ko maiatzaren 1ean, Eusko Gudarosteari, italiarrak Gernika, Busturia, Sukarrieta, Mundaka eta, Bermeo menpean hartu ostean, haiek berriro errekuperatzeko operazioan parte hartu zuen, Bou Gipuzkoa eta Ciscarrekin batera. Hauen egiteko, Eusko Gudarostea, Bermeo, Truende eta Sollubeko mazeletan behera jaisten zen bitartean, itsasotik erasoa burutzea izan zen. Maiatzaren 4rako ordea, italiarrek beraien posizioak finkatu zituzten.

Bilboko ebakuazioaren ostean, Santoñan aurkitzen zen. 1937ko ekainaren 22an indar-errepublikarreko itsasontzi gehienak Santanderren aurkitzen zirenez, artilleria zuten itsasontzi guztiei hura kendu egin zieten kostaldetik itsasontzi hauek guztiak babesteko eraso frankisten aurrean nahikoa artilleria izateko. Horien artean, Bou Bizkaiari ere bere artilleria kendu egin zioten. 1937ko abuztuaren 5ean, BIA-ren aginduz, Bou Gipuzkoa eta Iparreko-Izarrarekin batera, Eusko Jaurlaritzak, Bou Bizkaia ere BIA-ri eman behar izan zion. Ontzia eman baino lehen, ikurrina jaitsi eta hildako gudariengatik oroimenezko ekitaldia egin zuten. Abuztuaren 19an, bertako 15 tripulanteren lehorreratzea agindu eta BIA-ko pertsonalaz ordezkatu zituzten.

Francisco Murga Itsas Erreserbako ontzi-tenientea Bou Bizkaiako agintari berri izendatu zuten. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa eta Iparreko-Izarra[264] ontziekin batera armez kargaturik, Bou Bizkaia, Gijoneko portura joan zen. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Bizkaia Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Bizkaia, Antonio Fernandez Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. 1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten.

Tripulazioa: Bou Bizkaian guztira 40 gudari ziren. Horietatik 25 ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren, 9 UGT eta Alderdi Sozialistakoak, 3 CNT-koak, 2 EAE/ANV-koak eta 1 filiaziorik gabekoa. Tripulazioaren %25a, komandantea barne, bermeotarrak ziren. Bou Bizkaiako komandanteak honakoak izan ziren: 1936ko azarotik abendura bitartean, Augusto Fernandez González de Linares; abendutik 1937ko ekainera bitartean, Alejo Bilbao B. Gebara; ekainean, aldi baterako, Avelino Gonzalez Zulaika; ekainean bertan, Ramon Garrastazu eta baita Jose Antonio Sopelana ere; 1937ko ekainetik uztailera bitartean, aldi baterako, Avelino Gonzalez Zulaika; uztailetik abuztura berriro ere Alejo Bilbao B. Gebara komandante izan zen; abuztutik azarora bitartean, Francisco Murga Perez eta azkenik, azarotik 1938ko urtarrilera bitartean, Antonio Fernández Santos Bou Bizkaiako komandantea izan zen.



Ruego a V.E. se digne cursar las oportunas instrucciones a fin de que sean puestas a disposición de esta Jefatura y con destino a los señores VICKERS lol.2 recientemente emplazados abordo de los buques artillados "BIZK YA" y "GIPUZKOA" las siguientes municiones:

200 proyectiles de metralla(a los que se acoplarán espoletas existentes abordo por carecer ellos de las mismas)

200 granadas alto-explosivo

50 proyectiles semi-perforantes.

Lo que elevo a conocimiento de V.E. a fin de poder dotar de las anteriores municiones a los buques artillados a fin de que puedan prestar servicio de forma eficaz.-

Bilbao, 1º de Febrero de 1.937

EL JEFE DE MARINA

Sr. Consejero de Defensa.- PRESENT .-

Bou Bizkaia eta Bou Gipuzkoarako munizioen eskaera.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[262] 1927an Euskal-Erria izenpetu zuten, 1936an, Euzkal-Erria gisara berridatziz.

[263] Geroago Ciscarreko Komisario Politikoa ere izan zen eta 1937ko ekainera bitartean Bou Bizkaian komandante egon zen. Haren ostean, ekaina-uztaila bitartean, aldi baterako, Avelino Gonzalez ezarri zuten bertako komandante. Ekainean bertan, Ramon Garrastazu eta Jose Antonio Sopelana egon ziren komandante. 1937ko uztailetik abuztura bitartean berriro ere Alejo Bilbao postu horretan egon zen. Francisco Murgak hartu zion lekukoa, eta abuztutik azarora bitartean egon zen komandante Bou Bizkaian. Azken komandantea, 1937ko azarotik 1938ko urtarrilera bitartean, Antonio Fernandez izan zen.

[264] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

Armamentua: 1936ko azaroan, *Vickers* 101,6/50 mm-ko kainoi bat, *Steyr* 8 mm-ko 2 metrailadore eta *Astra* 7 mm-ko fusil metrailadore bat zituen. 1937ko otsailean, *Vickers* 101,6/50 mm-ko bi kainoi, *Steyr* 8 mm-ko bi metrailadore eta *Astra* 7 mm-ko fusil metrailadore bat zuen. 1937ko uztailean, *Steyr* 8 mm-ko bi metrailadore zituen.

*BOU BIZKAIAKO GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO	-	Endai-mutila	Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina) / Bizkaia (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[265]	IR
ESNAL AGOTE, LUIS	25	Morroi[266]	Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina) / Bizkaia (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[267]	EAJ/PNV UGT[268]



Bou Bizkaiako tripulazioa, armekin. (Peru Ajuria Artxibategia).



Gregorio Berasaluze Egaña. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Luis Esnal Agote. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

BOU GOIZEKO-IZARRA:

Historia laburra: 1933an Zumaian Constructora Metalicak eraikitako arrantzarako motordun eta burdinazko oskoldun binakakoa, Pasaiako Sarriegi, Sagarzazu y Cia enpresaren jabetzakoa. Gerra hasi bezain pronto, Gipuzkoako Defentsa Batzarrak hala aginduta, kostazaintza lanak burutu zituen. Donostiako ebakuazioan, jada tropa frankistak Donostian zeudenean, Kontxara sartuz, azken pertsonak ebakuatzen saiatu zen, baina frankistek lehorretik tiro egitean, patroia zauritu eta handik irten beharra izan zuen, bere jarduna bete gabe. 1936ko abenduan, artilleria ezarri zioten, popan kokatutako kanoi batez. Bertako kapitaina Isaias Antonio Zinkunegi izan zen[269].


1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu egin zen. Bertan hil ziren Jose Maria Aranguren Ondarra eta Bienvenido Urkidi Arrieta getariarrak eta Ignacio Lekube Goenaga jaiotzaz mutrikuarra zena.

Tripulazioa: Goizeko-Izarra bouan guztira 17 tripulante ziren. Horietatik 10 ELA/STV eta EAJ/PNV-koak ziren, 5 UGT eta Alderdi Sozialistakoak, Izquierda Republicanako 1 eta Nazioarteko Laguntza Gorriko beste bat. Tripulazioaren %44a bermeotarrak ziren.

Armamentua: 1937ko urtarrilean, Vickers 57/50 mm-ko kainoi bat zuen.



Isaias Antonio Zinkunegi, Goizeko-Izarra bouko kapitaina. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Goizeko-Izarra boua eskolta-lanak egiten, Bou Gipuzkoatik ikusita. (Euskadiko Filmategia).


[265] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[266] Jose Luis Diezen marinela izan zen.


[267] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[268] Ikertutako iturri batzuek UGT-koa zela argitzen dute.

[269] Kapitain hau, 1936ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian hil zen mina baten aurka izandako istripuan. Goizeko-Izarra eta Iparreko-Izarraren komandanteak "kapitain" izendatu zituzten 1936ko abendutik 1937ko urtarrila amaiera bitartean. 1937ko ekainetik aurrera, Iparreko-Izarraren komandantea beste bouetako komandanteen partean jarri zuten.







Bou Goizeko-Izarraren hondoratzea.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

*BOU GOIZEKO-IZARRAN BORROKATU ZUTEN GUDARI GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARANGUREN ONDARRA, JOSE MARIA	53	Kontramaisua	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	UGT
LEKUBE GOENAGA, IGNACIO	30	Marinela	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	EAJ/PNV
URKIDI ARRIETA, BIENVENIDO	24	Zerbitzaria	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	EAJ/PNV-ELA/STV



Jose Maria Aranguren Ondarra.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Ignacio Lekube Goenaga.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Bienvenido Urkidi Arrieta.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Getaria

ERIOTZAK.—Abeñak zenbat ziñopa? Beñi minkotza aztu degu. Getariarrok, lenez gaiz, beste iru ziñopa ditugu. Urkidi'taf Benebenda. Lekube'ta; Iñaki ta Afun'taf Joseba Mirena.

Egunkariak ez digute azaldu euren beñirik; ala ere jakin degu.

Benebenda gure txikitako laguna genduen. Abertzale ta antzerlari porrokatua. Amaika txalo entzuna! Alkarekin negu gaitan antzeztu ot gituzen antzertirik azkenak. Igezko neguan zenbat lan antzerkitan?

Lekube'taf Iñaki ostera, mutil mardul ta ix'la. Antxiñao abertzalea. Ze'ako itsasontzi bere eriotzjak! Beran zan sendiaren irabazpide bakafa'ta gizon prestua bat ba'zan.

Afun zafa da eta abeñtzale jatorra. Makiña bat egualdi txaf aftua "Mistral" itxasontzian Teranoba'ko uretan. Geyago ezin ordia. Abeñagaitik il da beste biak il ditzan ier.

Otoi, irakurle ta gogoan aftu Euzkadi'ren ziñopek.

Otsdai Emdi

Emilio de la Hoz Kintanak idatzitako berria.
(Eguna Egunkaria, 1937-01-30).

BOU IPARREKO-IZARRA:

Historia laburra: 1933an Zumaian Constructora Metalicak eraikitako arrantzarako motordun eta burdinazko oskoldun binakakoa, Pasaiako Sarriegi, Sagarzazu y Cia enpresaren jabetzakoa. Gipuzkoako Defentsa Batzarrak hala aginduta, kosta-zaintze lanak burutu zituen gerra hasi bezain pronto. 1936ko irailaren 12an Pasaia ebakuatzean Bilbora joan zen. 1936ko abenduan, artilleria ezarri zioten, popan kanoi bat ezarriz eta aire-kontrako metrailadore bat ezarriz, besteak beste. Bertako komandantea Pedro Ruiz de Loizaga[270] Izquierda Republicanakoa izan zen.

[270] 1937ko irailean Le Verdonera (Frantzia) atzerriratu eta bertatik Kataluniara joan zen indar-errepublikarrekin berriro ere borrokatzera. Han, Itsasoko Karabineroetan jardun zuen Margarita Taberner belaontzi-motoredunaren agintaritzan, Levante eta Katalunia arteko zubi-lanetan. Gerra amaitu ostean Frantziara erbesteratu eta handik, Burgaña kapitaina eta beste marinel batzuekin batera, Donibane eta Bigarrena bapore txikietan Venezuelara ihesi joan ziren. Venezuelan itsasoan lan eginez bizi izan ziren.

Zenbait kostazaintza-lan burutu zituen. 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko borrokaren ostean Bou Bizkaiarekin batera Euskadiko Gudontzidian funtzionatzen jarraitu zuen ontzia izan zen. Bilboko ebakuazioan errefuxiatuen ontzien inguruan eskolta-lanak burutu zituen. Horrez gainera, Bilbo ebakuatzean, Portugaleteko biltegietatik aterako itsas-tresneria, arropa, janaria… Iparreko-Izarra, Bou Bizkaia eta Bou Gipuzkoan, eta gainontzeko txalupa laguntzaileetan sartu zituzten.



Pedro Ruiz Loizaga, Bou Iparreko-Izarreko kapitaina. (Agiritegi Historiko Nazionala-Gerra Zibileko Saila).



Bou Iparreko-Izarra. (Peru Ajuria Agiritegia).

Bilboko ebakuazioaren ostean, Santoñan joan zen. 1937ko ekainaren 22an indar-errepublikarreko itsasontzi gehienak Santanderren aurkitzen zirenez, artilleria zuten itsasontzi guztiei hura kendu egin zieten kostaldetik itsasontzi hauek guztiak eraso frankistetatik babesteko nahikoa artilleria izan zezaten. Horien artean, Bou Iparreko-Izarrari ere bere artilleria kendu egin zioten. 1937ko abuztuaren 5an, BIA-ren aginduz, Bou Gipuzkoa eta Bou Bizkaiarekin batera, Eusko Jaurlaritzak, BIA-ri eman behar izan zion Bou Iparreko-Izarra ere. Ontzia BIA-ri eman baino lehen, Ikurrina jaitsi eta hildako gudariengatik oroimenezko ekitaldia egin zuten.

Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Iparreko-Izarreko[271] armez kargatuta zihoazen Bou Gipuzkoa eta Bou Bizkaiarekin ontziekin batera Gijonera joan zen. 1937ko irailaren 7an, Valeriano Saiz BIA-ko gaituarekin, beste 10 kidez eta senidez, komandantearekin eta jatorrizko tripulazioarekin irten eta irailaren 9an, Le Verdonen sartu zen. Azaroan, Juan Sobier Poith ezarri zuten bertako komandante eta 1938ra arte postu hori bete zuen. 1939an armadoreei eman eta 1969an desegin egin zuten.

Tripulazioa: guztira Iparreko-Izarra bouan, 16 gudarik borrokatu zuten. Horietatik 9 EAJ/PNV eta ELA/STV-koak ziren, 6 UGT eta Alderdi Sozialistakoak eta komandantea (baino ez Izquierda Republicanakoa).

Armamentua: 1937ko otsailean, Vickers 57/50 mm-ko kainoi bat, Steyr 8 mm-ko metrailadore bat eta 9 mm-ko fusil metrailadore bat zituen.

*BOU IPARREKO-IZARRAN BORROKATU ZUTEN GUDARI GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
KAMIO UZIN, FRANCISCO	-	1. Zerbitzaria[272]	Iparreko-Izarra (1937ko ekaina-1937ko azaroa)[273]	EAJ/PNV
LETE CORREA, PEDRO	30	Marinela[274]	Iparreko-Izarra (1936ko abendua-1937ko ekaina)[275]	EAJ/PNV

Bou armatu horiez gain, 1937ko hasieran, Danimarkan PYSBEren bi bakailao-ontzi zeuden. 1936ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak, haietaz jabetzeko dekretua egin zuen. Baina frankistak ere, Danimarkara, haren bila joan ziren eta orduan, danimarkarrek ontziak gerra bukatu arte ez ematea adostu zuten.


1937ko udaberrian Santa Rosa eta Mari Begoña artilatzeari ekin zioten, Gasteiz eta Iruña izenak ezarriz, hurrenez hurren. Bilbora tropa frankistak sartzean ordea, Iruña aldaketa prozesuan zegoen eta ez batak ezta besteak ere oraindik artileriarik ez zuten.



Francisco Kamio Uzin.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Pedro Lete Correa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Aguf.

Se ha recibido en esta Presidencia con fecha 26 del corriente, de nuestra Delegación de Paris el siguiente telegrama, que dice:

"Dicenos Valencia haber dictado Sala Tribunal Supremo auto insostenición barcos Pyrbe y procesando personas obtenellem asunto comunicando telegrafo Legación Dinamarca y enviando original valija diplomática punto Barcos se llamarán Navarra números dos y tres entregándose Gobierno Euzkadi punto Pidamos personal vaya Copenhague en seguida antes ejecución acuerdo Legación designado a Secundo punto Espero instrucciones conformidad su telegrama ayer punto Imposible en puerto francés artillar Donostia oposición autoridades y falta material punto Tienen ofrecimiento cañón 76 con quinientas granadas a combinación con transbordo con barco transporte artillero punto Por ello Donostia debe esperar instrucciones. Saludale".

Lo que comunico a Vd. para su conocimiento y efectos oportunos.

Bilbao, 27 de Marzo de 1.937.-

Sr. Egaña - Jefe de la Marina de Guerra de Euzkadi.-

Danimarkako PYSBE bakailo-ontzien eskaera.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[271] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.
[272] 1937ko ekainean marinel gisan kuartelean egon zen.
[273] Armadaren Kuartela: (1937ko ekaina).
[274] Ciscarren sugina izan zen.
[275] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

BOU GAZTEIZ:

Historia laburra: 1914an Beverlyn-en (Ingalaterra) *Cook, Welton & Gemmell Ltd.* enpresak Stalwart arrantza-ontzi gisan britainiar ontziteriarentzat eraikitako lurrunezko eta burdinazko oskoldun boua. 1920an Espainiara saldu eta Santa Rosa izenaz izenpetua. *Marlés y Serra, S. en C.* enpresarena (Bartzelona) zen. 1936ko uztailaren 27an, Murosetik alde egindako karabineroek Bilbora eraman zuten. 1937ko urtarrilean Euskadiko Gudontzidiaren meneko bihurtu zen eta otsailean Gazteiz izena ezarri zioten.

1937ko ekainaren 15ean tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, artileriarik gabe, gainontzeko ontziekin Santoñara joan zen. 1937ko abuztuaren 27an frankisten esku geratu eta haien Armadan sartu zuten, lehendabizi Santa Rosa izenarekin eta haren ostean, Virgen del Carmen izena ezarriz. 1939an armadoreei itzuli zieten.

Tripulazioa: 30-50 gudarik osatzen zuten. 1937ko ekainetik uztailera bitartean, Jose Antonio Gurrutxaga bertako komandantea izan zen[276]. 1937ko abuztuaren 22an, Alejo Bilbao Gazteizen komandante izendatu zuten. Honako komandantea, abuztuaren 24an, Armadaren ordezkari izendatu zuten. Zainketa-zerbitzua eratu behar izan zuen eta horretarako bideratutako bi baporeetan Gazteizeko tripulanteak ere lanean jardungo zuten. Abuztuaren 27an, Gazteiz ontzia Santoñan aurkitzen zelarik, falangearen sekzio batek tripulazioa atxilo hartu eta Duesoko kartzelara eraman zituen, tripulatzaile guztiei heriotz-zigorra ezarriz. Urriaren 15ean, tropa frankistek, Eusko Gudarostearen mendekuz fusilatutako 13 gudariren artean, Gazteizeko bigarren makinaria, ELA/STV-ko Felipe Marcaida Maurica hil zuten.



Gazteiz boua frankistek eskuratzean, artilatuta, Virgen del Carmen izena ezarrita. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

*BOU GAZTEIZEN EGONDAKO GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO[277]	23	Marinel[278]	Gazteiz (1937ko ekaina-1937ko abuztua)[279]	EAJ/PNV

BOU IRUÑA:

Historia laburra: 1918an Port de Boucen (Frantzian) Cigale patruilaontzi gisa frantziar Armadarentzat eraikitako Ildefonso Irala Garciaren (Bilbo), lurrunezko eta burdinazko oskoldun ontzia. 1922an espainiar estatura saltzean, hasieran Elgeta izena ezarri zioten eta haren ostean, Mari Begoña. 1937ko urtarrilean Euskadiko Gudontzidiaren meneko bihurtu zen eta otsailean Iruña izena ezarri zioten. 1937ko otsailetik martxora bitartean, Angel Gabiña Andraka bertako komandantea izan zen.

Tropa frankistak Bilbora sartzerako ezin izan zen bertatik irten, Euskaldunan eraldaketa prozesuan baitzegoen eta horren eraginez makina ezarri gabe baitzuen. Tropa frankistek beren armadara batu zuten, Virgen de Begoña izena ezarriz. 1940an desarmatu egin zuten eta 1942an Cudilleroko uretan galdu egin zen. Bertako tripulazioan ez zen getariarrik egon.



Iruña boua, jada Virgen de Begoña izenpetuta frankisten esku. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

Minaketariak eta ontzi-laguntzaileak

1936ko irailerako Bilbo minez betetzeko arriskuaz jabetuta, Bizkaiko Itsas Armadak lehen aldiz Danak-Ondo eta Marce minaketariak erabili zituen. Azken hauek, arrasketako binakako ontziak ziren.

Abenduan Euskadiko Gudontzidiak, miaketa zerbitzua eratu zuen. 1936ko abendutik 1937ko otsailera bitartean, Jesus Landarte Legarreta izan zuen buruzagi[280]:

"Minaketarietako batean kapitain bat izaten zen beti, taldeburu gisa ziharduena eta operazioak pertsonalki zuzentzen zituena. Minaketari batzuk egiteko berezietan ere erabili zituzten, esaterako Mourisca (Bilbo eta Baiona arteko komunikazio eta garraio zerbitzua), Domayo (Bilbo eta Baiona arteko irrati-lotura zerbitzua) eta D-5 eta D-6 (arma garraioa Lezo Urreiztietarekiko elkarlanean). Ontzietan kabotajeko edo arrantzako patroiak izaten ziren agintean, egiteko edo misio berezietan izan ezik, zeren eta horrelakoetan kapitain bat izaten baitzen"[281].

[276] Juan de Acha 1937ko uztailetik abuztura bitartean bertako komandante izan zen. Azken komandantea, 1937ko abuztuan, Alejo Bilbao izan zen.

[277] 104. orrialdean argazkia ikusgai.

[278] Bou Araban morroi gisa aritu zen eta L-4 marinel gisa aritu zen.

[279] Bou Araba (1936ko abendua-1937ko apirila); L-4 (1936ko azaroa); Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko ekaina).

[280] 1937ko otsailetik maiatzera, Angel Gabiña Andraka miaketa zerbitzuaren buruzagia izan zen. Maiatzetik ekainera bitartean, Ramon Garayalde Barcaseaux; eta uztailetik aurrera, Jesus Aldamiz-Gogeaskoa.

[281] PARDO SAN GIL,J., op.cit., 54.or.

Otsailaren 1etik aurrera, BIA-tik aparte, Portugaleteko Ordezkaritzak, miaketa zerbitzu osoa planifikatu eta koordinatzen zuen, Itsas Buruzagitzaren begiradapean. Horretarako, Pasaiako Flotako ontzi hauek erabili zituen: Jaimin, Rafael Cantos, Arco, Iris, Mari-Toya, Gure Artizar eta Gure Izarra.

Urtarrilean Bilbo eta Baionako itsas loturak Itsas Sailaren ardurapean egin ziren eta hartarako Severiano Asarta yatea erabili zuten. Miaketa zerbitzuaz arduratzen ziren ontziak honakoak ditugu:

MOURISCA /ARABARRA/ D-4:

Historia laburra: 1918an, Aberdeen-en (Eskozia) *J. Lewis & Son* enpresak Moon Beam izenarekin patruilaontzi gisara Britainia Handiko Itsas Armadarako eraikitako motordun eta burdinazko oskoldun arrantza binakakoa, *Juan Velasco Gutierrez y Cía., S.A.* enpresarena (Vigo). 1927an, Espainiara saltzean, Mourisca izena ezarri zioten.

Gerra Zibila hasi bezain laster, Domayorekin batera, armen garraioa egin zuen. 1936ko abuztuan bertan, esaterako, Baionatik metrailadore eta fusil garraio bat egin zuen. Arma hauek Pasaia zein Getaria bertara ere ekarri zituzten. Ontzi honekin eta Domayorekin, Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuak antolatu zituzten. Mouriscako patroia, Agustin Furundarena Agirrebengoa[282] izan zen. Mouriscaren aginte nagusia Eusko Gudarosteko Itsas Zerbitzuetako buruzagi Jose Maria Burgaña Belaustegik zuen.

Hilaren 12an Pasaia ebakuatu ostean, Donostiara egin zuen Domayo eta Euzkal-Erriarekin batera, bertako jendea ebakuatzeko. Domayorekin batera, Donostiako ebakuazioan zehar ordena ezartzen egondako gudarien azken bi konpainiak ebakuatu eta Getarian lehorreratu zituzten. Guztiak lehorreratu ostean, Mouriscak Zumaiara egin zuen, konponketa batzuk egiteko. Domayo eta beste zenbait arrantza-ontzirekin batera, Mutrikura tropa frankistak sartu baino lehen, zenbait miliziano nazionalistak Bermeora eraman zituzten. Gainerako arrantza-ontziek, Lekeitio zein Bilbora ere eraman zituzten. Zenbait agintari, zibil… Frantziara ere ebakuatu zituzten.

Euskadiko Gudontzidiko lehen flotako parte izan zen. 1937ko apiriletik aurrera, miaketa lanetan lagundu zuen eta maiatzean, D-4/Arabarra izena ezarri zioten. Mouriscak, Bilbo eta Baiona arteko komunikazio eta garraio zerbitzua egin zuen. Posta ofiziala eramateaz, hornigai-txikiak eramateaz… arduratu zen. 1937ko urtarrilaren 31n, George Steer kazetari britainiarra eraman zuen Baionara. Bilbo ebakuatzean Baionan zegoen eta gerra amaitu bitartean bertan geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zieten.

Tripulazioa: guztira 12 gudarik osatzen zuten.



Mourisca Portugaleteko kaian. (Peru Ajuria Artxibategia).



D/A " M O U R I S C A "

Buque motor de casco metálico y 9'de andar. Está a punto de servicio y lleva tripulación según lista adjunta, perteneciente al Voluntariado del Mar. No lleva asignado de momento servicio fijo.

LISTA DE TRIPULANTES

CAPITAN	D. Vicente de Artadi
PATRON DE COSTA	Agustin Furundarena
CONTRAMAESTRE	Florentino Pontaeta
MARINERO	Miguel Sofia
ID	Blas Corta
ID	Nicolás Astralaga
COCINERO	Jose de Bikuña
CALAFATE	Jose de Ufeeti
MAQUINISTA	Jose de Deloki
MAQUINISTA	Joaquin de Zapirain
ID	Juan de Zizagife
ENGRASADOR	Ramon de Ufeatilla

Mouriscako tripulazioa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

*MOURISCAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS	17	Marinela	Mourisca (1936ko urria-1937ko otsaila)[283]	EAJ/PNV
FURUNDARENA AGIRREBENGOA, AGUSTIN	-	Kostako edo kabotajeko patroia, 1. Mailako patroia	Mourisca (1936ko iraila-1937ko azaroa)	ELA/STV
URRESTI ANDONEGI, JOSE	21	Zerbitzaria	Mourisca (1936ko abuztua-1937ko azaroa)	ELA/STV

[282] 1936ko irailetik 1937ko urtarrilera bitartean. Handik eta, 1938ra arte, Vicente Artadik hartu zuen haren postua.

[283] Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).



Antonio Jesus Basurto Furundarena.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Agustin Furundarena Agirrebengoa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Urresti Andonegi.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

DOMAYO / NAPARTARRA/ D-3[284]:

Historia laburra: 1918an eraikia, Lowestoft-en (Inglaterra) *Colby Brothers Co.* enpresak Flash patruilaontzi gisa britainiar Armadarentzat eraikitako motordun eta burdinazko oskoldun arrantza binakakoa, *Juan Velasco Gutierrez y Cía., S.A.* enpresarena (Vigo). 1927an Espainiara saldu eta Domayo izena jarri zioten.

Gerra hasi bezain laster, Mouriscarekin batera, armen garraioan ibili zen. 1936ko abuztuan bertan, esaterako, Baionatik metrailadore eta fusil garraio bat egin zuen. Irailean, Bokaletik (Lapurdi), Lewis motako 150 fusil metrailadore platilodun eta *Schneider* motako 75 mm-ko 4 kanoi ekarri zituen. Arma hauek Pasaia zein Getaria bertara ere ekarri zituzten. Ontzi honekin eta Mouriscarekin, Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuak antolatu zituzten. Jose Maria Burgaña Belaustegi[285] Domayoren kapitaina zen eta Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuen agintaritzan jarri zen.

Hilaren 12an Pasaia ebakuatu ostean, Donostiara egin zuen Mourisca eta Euzkal-Erriarekin batera, bertako jendea ebakuatzeko. Mouriscarekin batera, Donostiako ebakuazioan zehar ordena ezartzen egondako gudarien azken bi konpainiak ebakuatu eta Getarian lehorreratu zituzten. Irailaren 20an, tropa frankistak Getariara heltzear zirela, Trintxerpe ontziarekin batera, zenbait gudari konpainia hartu eta, Mutriku eta Ondarroara eraman zituzten. Mourisca eta beste zenbait arrantza-ontzirekin batera, Mutrikura tropa frankistak sartu baino lehen, zenbait miliziano nazionalistak Bermeora eraman zituzten. Gainerako arrantza-ontziek, Lekeitio zein Bilbora ere eraman zituzten. Zenbait agintari, zibil… Frantziara ere ebakuatu zituzten.

Euskadiko Gudontzidiko lehen flotako parte izan zen. 1937ko apiriletik aurrera, minaketa lanetan lagundu zuen eta maiatzean, D-3/Napartarra izena ezarri zioten. Domayok, Bilbo eta Baiona arteko irrati-lotura zerbitzua gauzatu zuen. Gerra amaitu arte Baionan izan zen. 1939an armadoreei itzuli zieten eta 1945an Pasaiako portuko sarreran hondoratu egin zen.

Tripulazioa: guztira 10 gudarik osatzen zuten. Hemen ez zen izan getariar gudaririk.

JAIMIN:


Historia laburra: 1931n eraikitako *Bizi-Nai, S.L.* enpresaren (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza binakakoa izan zen. 1936ko irailean Bilbora iritsi zen, eta handik aurrera miaketari funtzioak bete zituen. Zehazki, Bizkaiko Defentsa Batzarrak irailaren 13an helarazitako oharraren bidez, miaketa zerbitzuaren parte izatera pasa zen. Abenduan Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzura pasatu zen. Jaimin, Jesus Landarte Legarreta kapitainaren menpean geratu zen, zeina miaketa zerbitzuko arduradun nagusia zen.

1937ko otsailaren 1etik aurrera, Jose Maria Burgaña Belaustegi Portugaleteko Itsas Ordezkari izendatu eta miaketa zerbitzuen antolaketaren ardura atxiki zioten. 1937ko martxoa amaiera aldean, Jamin, Industria Sailaren ardurapean utzi zuten, arrantza-ontzi bihurtzeko. Bilbo ebakuatzean, Santanderrera joan zen eta handik Frantziara. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: Jaimin miaketa-ontzian, guztira 9 gudarik lanean jardun zuten. Horietatik, 5 getariarrak ziren. 1936ko irailetik abendura bitartean, Policarpo Ortiz de Zarate Jaimineko komandante izan zen; handik eta 1937ko martxora bitartean, Jose Pombo Mosqueira. 1937ko martxotik apirilera bitartean, Jose Etxaburu Landaribar izan zen bertako komandantea.

[284] Itsasontzi honetan getariar gudariek borrokatu ez bazuten ere, testuinguru historikoa behar bezala ezagutzeko, Domayo itsasontziak Euskadiko Gudontzidian izandako garrantzia azaltzea erabaki dugu. Izan ere, guztia erlazionatuta dago.

[285] 1936ko azarotik 1937ko azarora, Luciano de Andonegi Domayo/Napartarra/D-4-ko komandante izan zen.



Jaimin eta Rafael Cantoseko tripulazioak. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

*JAIMIN ONTZIAN EGONDAKO GUDARI GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO	18	Marinela	Jaimin (1937ko martxoa)[286]	ELA/STV
ARREGI UZIN, URBANO	-	Sugina	Jaimin (1936ko azaroa-1937ko martxoa)[287]	UGT[288]
AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO	32	Sugina	Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[289]	EAJ/PNV
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS[290]	17	Marinela	Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila)[291]	EAJ/PNV
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO	17	Marinela	Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila)[292]	ELA/STV
ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE	26	Makinista gaitua, labezain gaitua	Jaimin (1936ko azaroa-1937ko apirila)[293]	EAJ/PNV-ELA/STV
KEREJETA AGOTE, GERARDO	24	Marinela	Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[294]	EAJ/PNV



Casimiro Alkorta Isasti. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Urbano Arregi Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Domingo Azkue Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Eusebio Garmendia Lazkano. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Ituarte Etxebarria. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Gerardo Kerejeta Agote. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[286] D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[287] D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

[288] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.

[289] D-22 (1937ko martxoa-1937ko azaroa).

[290] Argazkia 113. orrialdean dago ikusgai.

[291] Mourisca (1936ko urria-1937ko otsaila); L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

[292] D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

[293] D-17 (1937ko apirila-1937ko abuztua).

[294] D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

RAFAEL CANTOS:

Historia laburra: 1931n eraikitako *Bizi-Nai, S.L.* enpresaren (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza binakakoa izan zen. 1936ko irailean Bilbora iritsi zen, eta handik aurrera miaketari funtzioak bete zituen. Zehazki, Bizkaiko Defentsa Batzarrak irailaren 13an helarazitako oharraren bidez, miaketa zerbitzuaren parte izatera pasa zen. Abenduan Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzura pasaz. Rafael Cantos ontzia, Jesus Landarte Legarreta bere kapitainaren menpean geratu zen, zeina miaketa zerbitzuko arduradun nagusia zen. 1937ko otsailaren 1etik aurrera, Jose Maria Burgaña Belaustegi Portugaleteko Itsas Ordezkari izendatu eta miaketa zerbitzuen antolaketaren ardura atxiki zioten. 1937ko martxoa amaiera aldean, Rafael Cantos ere, Industria Sailaren ardurapean utzi zuten, arrantza-ontzi bihurtzeko.

Bilbo ebakuatzean, Santanderrera eraman zuten eta handik Frantziara. 1939an armadoreei itzuli zitzaien. 1948an Lekeitioko portuaren sarreran hondoratu egin zen.

Tripulazioa: Rafael Cantosen guztira 9 gudari lanean egon ziren eta horietatik 6 getariarrak ziren. Tripulazioaren gehiengoa, geroago, D-18ra pasatu zen. 1936ko irailetik abendura bitartean, Eladio Cruz Franqueira bertako komandante izan zen; handik eta 1937ko otsailera bitartean, Jesus de Landarte izan zen. Otsailetik apirilera bitartean, Eladio Cruz Franqueira bertako komandante berrezarri zuten.

*RAFAEL CANTOS ONTZIAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO	24	Sugina	Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila)[295]	EAJ/PNV
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE	23	Sukaldaria[296]	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila)	EAJ/PNV
KAMIO UZIN, TOMAS	22	Sugina	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila)[297]	EAJ/PNV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN	32	Sugina	Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila)[298]	ELA/STV
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO	-	Sugina	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[299]	EAJ/PNV



Isidro Berasaluze Egaña. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Silvestre Iribar Zulaika. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Tomas Kamio Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Agustin Olaskoaga Zubimendi. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Victoriano Sustaeta Azkarraga. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

MARI-TOYA:

Historia laburra: 1931n eraikitako Isidro Suarez Morisen (Gijon) lurrunezko eta zurezko oskoldun binakako arrantza-ontzia. Pasaiako ebakuazioaren ostean, Bilbora eraman zuten. Haren komandantea, Manuel Basante izan zen. 1936ko abenduan sortutako Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzuko ontzietako bat izan zen.

1937ko urtarrilaren 18ko eguerdian, Punta Lucero iparraldean frankisten mina bat jo, lehertu eta segituan hondoratu egin zen. Gudarietako 6 hil egin ziren; tartean, Isidro Berasaluze Egaña eta Jose Agustin Olaskoaga Zubimendi gudari getariarrak, Julian Sánchez Gómez ontzi-alfereza eta Manuel Basante Rodet ontziko patroia zeuden.

[295] Mari-Toya (1937ko urtarrila).

[296] Rafael Cantos, D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila), D-21 (1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

[297] D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).


[298] Mari-Toya (1937ko urtarrila).

[299] D-21 (1937ko martxoa-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

Tripulazioa: haren gehiengoa ELA/STV-koa zen. 9 gudari ziren guztira eta horien artean, 2 gudari getariarrek jardun zuten bertan lanean. Biak, 1937ko urtarrilaren 18an mina frankista jotzean eta Mari-Toya hondoratzean hil ziren. Leherketan bertan, 4 bizirik irten ziren eta Portugaleteko Gandarias ospitalera zauriak sendatzera eraman zituzten.

*MARI-TOYA ONTZIAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO[300]	24	Sugina	Mari-Toya (1937/01/18)[301]	EAJ/PNV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN[302]	32	Sugina	Mari-Toya (1937/01/18)[303]	ELA/STV



Recibido 18 ENE 1937
Contestado

Excmº Sr. Consejero de Defensa.

Excmº Sr:


Tengo el sentimiento de comunicar a V.E. que a las 14.30 horas del día de hoy y según me comunican los patronos de las embarcaciones "PINULO" y "NAZARENO Nº 2" al servicio de la Policía Marítima y de esta Jefatura respectivamente, se ha producido una lamentable desgracia en el Abra de Bilbao a unas 4 o 5 millas N. de Punta Lucero, donde por consecuencia de una explosión producida por una mina submarina ha desaparecido el vapor "MARI TOYA que formando pareja con el "JAIMIN" se dedicaba al rastreo de las minas depositadas en aquellos lugares.-

Uno al presente oficio para conocimiento de V.E. relación de tripulantes desaparecidos, así como nota de los que han sido salvados por las embarcaciones mencionadas en el anterior párrafo.-

Todo lo cual manifiesto a V.E. para su conocimiento y efectos.-

Bilbao, 18 de Enero de 1.937

EL JEFE DE MARINA



Juan Sasia, patrón del gasolino "PINULO" de la Policía Marítima, tiene el honor de exponer:

Que habiendo salido en el día de hoy al servicio de vigilancia de minas en el Abra exterior, hemos llegado a avistar a las 12 del mediodía, una mina que se descubría a las bajadas de las olas que se encontraba fondeada a unas 4 o 5 millas al Norte de Punta Lucero. Seguidamente hemos procedido a fondear junto a ella un boyarín para balizarla, dando seguidamente cuenta de la novedad a la pareja "ARCO" e "IRIS", que se encontraban en operación de rastreo, los cuales han maniobrado con intención de recoger dicha mina en el sentido de fuera para adentro, resultando que en esta operación han hecho explotar otra mina, invisible, y situada a unos 100 metros mas al Norte que la anteriormente avistada. Repetida la operación han hecho explotar una segunda mina, situada a unos 100 metros también alrededor del boyarín-baliza .

En vista de que esta segunda explosión han debido de faltarle los cables a los dichos "ARCO" e "IRIS", hemos avisado sin pérdida de tiempo a la pareja "JAIMIN" y "MARI-TOYA". Estos han procedido a rastrear tomando por seno la dicha baliza y cuando se encontraban a unos 150 metros del boyarín, hemos observado que explotaba de pronto el vapor "MARI-TOYA", viendo que hombres y restos del buque volaban hasta unos 50 metros de altura.


En el momento de la explosión nos encontrábamos a unos 50 metros del buque náufrago, y repuestos de la impresión después de resguardarnos de los restos que caían nos calan, hemos procedido a evolucionar sobre el lugar de la explosión, recogiendo a dos náufragos con vida y después de dar varias vueltas más, sin encontrar rastros de hombres, nos hemos dirigido a puerto, abandonando la mina balizada, la cual ha quedado a la deriva.

Es cuanto tengo que exponer a los efectos oportunos.

Bilbao, 18 de Enero de 1.937.

Juan Sasia

Mari-Toya minaketariaren leherketa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



SR. JEFE DE MARINA DEL GOBIERNO DE EUSKADI.

Tengo el honor de poner en su conocimiento que, habiendo salido en el día de hoy, con el vapor "NAZARENO Nº 2", a efectuar servicio de vigilancia, según instrucciones recibidas del Sr. Caballero, hemos llegado a ponernos en comunicación, hacia las dos y media de la tarde, con la canoa "PINULO", el patrón de la cual nos ha indicado que junto al boyarín que se encontraba fondeado junto a ellos, se hallaba una mina.

En vista de ello, nos hemos puesto a la proa del vapor "JAIMIN", que venía arrastrando, con objeto de hacerle indicaciones por si observábamos algo anormal, hasta que de pronto hemos sentido un gran estruendo, viendo que los restos y hombres del vapor "MARI-TOYA", volaban a gran altura.

Seguidamente hemos puesto proa dirigiéndonos a toda máquina al lugar de la explosión, en donde hemos recogido con vida a dos naúfragos que se encontraban asidos a los restos de la proa del barco siniestrado.

Poco después, hemos recogido a dos naúfragos más que se encontraban a bordo de la canoa "PINULO", procediendo seguidamente a dirigirnos a Portugalete, enviando a los naúfragos al Hospital Gandarias, ya que se encontraban heridos, aunque al parecer sin importancia.

Bilbao, 18 de Enero de 1.937.

Luis Bugaña



V A P O R "Mari Toya"

NAUFRAGOS

COMANDANTE DEL TORPEDERO Nº 3- D. Julián Sánchez

Tripulantes

CARGO	NOMBRE	NATURALEZA	EDAD	ESTADO	RESIDENCIA
Patrón	Manuel Basante Bodet	San Ciprián(Lugo)	37	casado	abordo
Maquinista	Manuel Plaza y Bakaldo	Bilbao	43	casado	Bilbao
Marinero	Teodo Bledos Chaus	Corme(Coruña)	45	viudo	abordo
Fogonero	Isidro de Berasaluze Egaña	Getaria	24	soltero	abordo
Fogonero	José A. Olaskoaga Zubimendi	Getaria	32	soltero	abordo

SUPERVIVIENTES

Contramaestre:	Antonio Bofajes Iglesias	C.del Morraxo(Coruña)	39	casado	abordo
Cocinero:	José Bernardez Varela	Corme (Coruña)	3o	casado	abordo
Marinero:	Nando González Bodet	C.del Morraxo(Coruña)	26	casado	abordo
Torpedista:	(PERTENECIENTE A LA DOTACION DEL TORPEDERO Nº 3-)				

[300] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[301] Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila).


[302] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[303] Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila).

ARCO/D-11:

Historia laburra: 1933an *Constructora Guipuzcoanak* eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun binakako arrantza-ontzia. Antonio Elosegui y Cia. enpresarena (Donostia) zen. Abenduan sortutako Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzuko ontzia izan zen. 1937ko maiatzean, Arco izena D-11 izenaz ordezkatu zioten. 1937ko abuztuaren 1ean BIA-ren aginduetara geratu zen. Santanderren ere minen miaketan jardun zuen. 1937ko abuztuaren 25ean La Pallicera (Frantzia) joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten geratu zen eta 1939an armadoreei eman zieten.

Tripulazioa: tripulazioaren gehiengoa UGT-koa zen. 8-10 gudari ziren guztira. Lehenengo komandantea Angel Chans izan zen, 1937ko urtarriletik otsailera bitartean. Martxoan zehar, Juan Lijo bertako komandantea izan zen. Handik eta, uztailera arte, berriro ere Angel Chans izan zen. 1937ko uztailetik azarora bitartean berriz, Angel Eizagirre D-11 ontziko komandante izan zen.



VAPORES "ARCO" e "IRIS".

Pareja de pesqueros con máquina a vapor y cascos de madera, no muy grandes pero de buenas condiciones marineras. Están a punto de servicio con tripulación ecoplada, según lista adjunta y pertenecientes al "Voluntariado de Mar".

Están en condiciones para dedicarse al arrastre en el Abra; no obstante, al normalizarse los servicios, podrían sustituir al "DANAK-OKDO" y "DANAK-BATIAN", pasando éstos al servicio de Pesca.

TRIPULACION DEL "ARCO".

Patrón de Cabotaje	- Angel Chans Pasadin	U.G.T.
Patrón de Pesca	- Francisco Valencia Abascal.	U.G.T.
Contramaestre	- Juan Chans Chans.	U.G.T.
Marinero.	- José González Pérez.	---
Marinero.	- Anselmo Arregi Uzín.	P.N.V.
Marinero	- Gregorio Zubieta Antxustegi	U.G.T.
Fog. Habilitado	- José D.Uranga Olaskoaga.	P.N.V.
Fogonero.	- Tiburcio Bengoetxea Likona.	U.G.T.
Fogonero.	- Enrique Darpón Mitxelena.	P.N.V.

TRIPULACION DEL "IRIS".

Patrón de Cabotaje	- Pedro de Artetxe.	U.G.T.
Patrón de Pesca.	- Juan Paz Franco.	U.G.T.
Contramaestre	- Javier Mejías Lekube.	U.G.T.
Marinero.	- Pedro Artetxe Lalax.	S.T.V.
Marinero.	- Vicente Salinas Anakabe.	U.G.T.
Marinero.	- Donato de Odriozola Badiola	S.T.V.
Fog. Habilitado.	- Juan Landeta San Pelayo.	S.T.V.
Fogonero.	- Manuel Carcía Diz.	C.N.T.
Fogonero.	- Santiago Ruxika Salaverría.	S.T.V.

Arco/D-11 eta Iris/D-12-ko tripulazioak. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

*ARCO/D-11 ONTZIAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, ANSELMO	23	Marinela	Arco/D-11 (1937ko urtarrila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila)[304]	EAJ/PNV
DARPON MITXELENA, ENRIKE	26	Sugina	Arco/D-11 (1937ko urtarrila-1937ko uztaila)[305]	EAJ/PNV
URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO	40	Makinista gaitua, labezain gaitua	Arco/D-11 (1937ko urtarrila-1937ko uztaila)[306]	EAJ/PNV



Anselmo Arregi Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Enrike Darpon Mitxelena. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Jose Domingo Uranga Olaskoaga. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[304] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-19 (1937ko abuztua-1937ko iraila).

[305] D-19 (1937ko abuztua-1937ko azaroa).

[306] L-1-ean arrantzako patroia, 2. Mailako patroia (1936ko urria-1937ko urtarrila); D-9 makinista gaitua, labezain gaitua (1937ko uztaila-1937ko azaroa) izan zen.

IRIS/D-12[307]:

Historia laburra: 1933an *Constructora Guipuzcoanak* eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun binakako arrantza-ontzia. *Antonio Elosegui y Cia.* enpresarena (Donostia) zen. Abenduan sortutako Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzuko ontzia izan zen. 1937ko maiatzean, Arco izena D-12 izenaz ordezkatu zioten. Bilbo ebakuatu eta handik, Santanderrera eta Santoñara egin zuen. 1937ko abuztuaren 25ean, La Pallicera (Frantzia) iritsi zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten geratu zen eta 1939an armadoreei itzuli zieten.

Tripulazioa: guztira 8-10 gudarik osatu zuten Iris/D-12-ko tripulazioa. Haren komandantea, 1937ko urtarriletik otsailera bitartean, Pedro Artetxe izan zen. Haren ostean, martxotik apirilera bitartean, Jose Pombo Mosqueira ordezkatu zuen. 1937ko apiriletik hasi eta azarora arte, Francisco Valencia Abascal izan zen bertako komandante. Ontzi horretan getariar gudariek ez zuten lan egin.

GURE ARTIZAR/D-5:

Historia laburra: 1935ean *Constructora Guipuzcoanak* eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun binakako arrantza-ontzia. Amadeo Gil Cosme Herreroren (Donostia) jabetzakoa. Abenduan sortutako Euskadiko Gudontzidiko miaketa zerbitzuko ontzia izan zen. 1937ko maiatzean, Gure Artizar izena D-5 izenaz ordezkatu zioten.

1937ko maiatzaren amaiera aldera, Lezo Urriztietarekin arma eta hornigaien garraiorako erabili zuten. 1937ko maiatzaren 25ean, hain zuzen, Bilboko portura 20 milioi kartutxo eraman zituen. 1937ko ekainaren 26an, D-6arekin batera, Anberesetik zetorren ontzitik arma kargamendua itsaso zabalean hartu eta San Vicente de la Varquerara eraman zuten.

Tripulazioa: tripulazioaren gehiengoa UGT-koa zen. 8-9 gudarik bertan lanean jardun zuten. 1937ko urtarriletik otsailera bitartean, Juan Lijo Prego bertako komandantea izan zen; martxoan zehar, Angel Chans Pasadín; martxotik maiatzera bitartean, berriro ere, Juan Lijo Prego eta maiatzetik azarora bitartean, Basilio Badiola Arroita.

*GURE ARTIZAR/D-5 ONTZIAN IZANDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO[308]	18	Marinela	D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila)[309]	ELA/STV

GURE IZARRA/D-6[310]:

Historia laburra: 1935ean *Constructora Guipuzcoanak* eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun binakako arrantza-ontzia. Amadeo Gil Cosme Herreroren (Donostia) jabetzakoa.

1937ko maiatzaren amaiera aldera, Lezo Urriztietarekin arma eta hornigaien garraiorako erabili zuten. 1937ko ekainaren 26an, D-5arekin batera, Anberesetik zetorren ontzitik arma kargamendua itsaso zabalean hartu eta San Vicente de la Varquerara eraman zuten. 1937 abuztuaren 9an La Pallicen (Frantzia) babestu zen eta ondoren, gerra amaitu bitartean, Sables d'Olonnera babestu zen. 1939an armadoreei itzuli zieten.



Gure Izarra/D-6. (Kutxateka Fototeka).

Tripulazioa: 8-9 gudarik bertan lanean jardun zuten. Tripulazioaren gehiengoa CNT-koa zen. Bertan ez zen getariarrik egon. 1937ko urtarriletik maiatzera bitartean, Fernando Santos Costa bertako komandantea izan zen eta maiatzetik azarora bitartean, Juan Uriarte Asteinza.

Miaketa zerbitzu horri 8 ontzi laguntzaile ere batu zitzaizkien: Danak Ondo eta Danak Batian, praktiko zerbitzurako; arestian aipatutako Domayo, Baionarekiko irrati bidezko loturarako; Severiano Asarta yatea, Baionarekiko itsas loturarako; Angel de la Guarda, Nazareno nº1 eta Nazareno nº9 txalupa motoredunak, zainketa zerbitzurako eta mina miaketan laguntzeko, eta Sheabe kanoa, portu zerbitzuetarako.

Gainera, Zelatari eta Talaia Zerbitzua antolatzen hasiak ziren dagoeneko, eta zelatatze postuak jarri zituzten Galea, Luzero eta Matxitxako lurmuturretan, eta Lekeition. Egun horietan 400 gizon baino gehiago ari ziren Armadan, bulego, talaia, zerbitzu berezi (Lezorekin) eta beste batzuetan destinatutako 50 inguru barne.

Orain arte aipatutako ontzi guztiak Euskadiko Gudontzidiaren eskuetan zeuden urtarrila erdian.


[307] L-1-ean arrantzako patroia, 2. Mailako patroia (1936ko urria-1937ko urtarrila); D-9 makinista gaitua, labezain gaitua (1937ko uztaila-1937ko azaroa) izan zen.

[308] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[309] Jaimin (1937ko martxoa); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[310] Itsasontzi honetan getariar gudariek borrokatu ez bazuten ere, testuinguru historikoa behar bezala ezagutzeko, Gure-Izarra itsasontziak Euskadiko Gudontzidian izandako garrantzia azaltzea erabaki dugu.

Frankistek 1937ko urtarrila eta apirila bitartean minaketa ugari egin zituzten eta horren eraginez, 1937ko maiatzaren 24an Pasaia eta Ondarroako binakako gehiago lortu zituzten, miaketa zerbitzurako[311], guztiei izenak aldatuz: Maria Angeles *(D-1)*, Julito *(D-2)*, Domayo *(D-3)*, Mourisca *(D-4)*, Gure Artizar *(D-5)*, Gure Izarra *(D-6)*, Alque *(D-7)*, Alcion *(D-8)*, Nuevo Constante *(D-9)*, Constante Barreiro *(D-10)*, Arco *(D-11)*, Iris *(D-12)*, Motrico *(D-13)*, Ondarroa *(D-14)*, Eduardito *(D-15)*, Anthon Mari *(D-16)*, Delfina *(D-17)*, Marcos *(D-18)*, Ibai-Ederra *(D-19)*, Salvadora *(D-20)*, Nazareno nº6 *(D-21)*, Aralarko-Mikel-Deuna *(D-22)*, Eugenio *(D-23)* eta Julia *(D-24)*.



O R D E N

A propuesta de la Sección de Marina de Guerra de este Departamento, y de conformidad con la misma vengo en disponer que los buques incautados por este Gobierno y que a continuación se detallan se denominen en lo sucesivo:

"Maria Angeles"	"D-1"
"Julito"	"D-2"
"Domayo"	"D-3"
"Mourisca"	"D-4"
"Gure-Artizar"	"D-5"
"Gure-Izarra"	"D-6"
"Alque"	"D-7"
"Alción"	"D-8"
"Nuevo Constante"	"D-9"
"Constante Barreiro"	"D-10"
"Arco"	"D-11"
"Iris"	"D-12"
"Motrico"	"D-13"
"Ondarroa"	"D-14"
"Eduardito"	"D-15"
"Anthon-Mari"	"D-16"
"Marcos"	"D-17"
"Delfina"	"D-18"
"Ibai Ederra"	"D-19"
"Salvadora"	"D-20"
"Nazareno 6"	"D-21"
"Aralar'ko Mikel Deuna"	"D-22"
"Eugenio"	"D-23"
"Nazareno 1"	"L-1"
"Angel de la Guarda"	"L-2"
"Josu-ren Ama"	"L-3"
"Nazareno 9"	"L-4"
"San Isidro"	"L-5"

De esta orden se dará el debido conocimiento a los organismos correspondientes a los efectos pertinentes.-

Bilbao, 12 de Mayo de 1.937

EL CONSEJERO DE DEFENSA

Ontzien izen aldaketa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

JULITO/D-2:

Historia laburra: Izarra S.L. (Pasaia) enpresaren lurrunezko eta burdinazko oskoldun binakakoa, 1929an, Zumaiako Astilleros Balenciagak eraikitakoa. 1937ko apirilean bere egitekoa burutzen hasi zen. Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-8-arekin batera, ontzi honetan ere, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako deposituak sartu zituzten. Santanderretik, 1937ko abuztuaren 25an, La Pacillera joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten (Frantzia) babestu zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.



Julito, gerora D-2 minaketaria. (Kutxateka Fototeka).

Tripulazioa: tripulazioa 8-12 gudarik osatzen zuten eta horietatik, 4 getariar gudariak ziren. Haien komandantea, 1937ko apiriletik uztailera bitartean, Jose Pombo Mosqueira izan zen eta uztailetik azarora bitartean, Agustin Marques Urriz.

*JULITO/D-2-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
AZKUE UZIN, PEDRO	-	Marinela	D-2 (1937ko ekaina-1937ko iraila)[313]	EAJ/PNV-ELA/STV
BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO[312]	20	Marinela	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko abuztua-1937ko azaroa)[314]	EAJ/PNV-ELA/STV
UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO	41	Makinista gaitua, labezain gaitua	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[315]	EAJ/PNV
UZIN BERASALUZE, SALVADOR	18	Sukaldaria	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[316]	EAJ/PNV

[311] Jarraian, getariar gudariak izan zituzten ontzien deskribapenak egitea hautatu da, eta ez guztiena, espazio faltagatik.

[312] Ez dugu bere argazkia lortu.

[313] D-20 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).

[314] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-22 (1937ko uztaila).

[315] Jose Luis Diezen marinel (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-10ean ere marinel (1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[316] Ciscarren marinel (1937ko ekaina-1937ko uztaila).


Pedro Azkue Uzin. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


Jose Domingo Uzin Alkorta. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


Salvador Uzin Berasaluze. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

ALCION/D-8:

Historia laburra: 1932an Ondarroan eraikitako Javier Arcelus Irizarren (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza binakakoa. 1937ko apirilean bere egitekoa burutzen hasi zen. Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-2-arekin batera, ontzi honetan ere, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako deposituak sartu zituzten. 1937ko abuztuaren 25ean, Joaquin Egia bertan ontziratuta, La Pacillera (Frantzia) heldu zen. 1937ko azaroaren 1ean Rocheforten (Frantzia) zegoen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: 8-12 gudarik tripulazioa osatzen zuten. Bertan, bi getariar gudari nabarmendu ziren, Silvestre Iribar Zulaika eta Manuel Mendizabal Alberdi, hain zuzen. 1937ko maiatzetik abuztura bitartean, Jose Rodiño bertako komandantea izan zen eta handik eta, azarora bitartean, Amadeo Uribe.


Manuel Mendizabal Alberdi. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

*ALCION/D-8 EGONDAKO GUDARI GETARIARREN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE[317]	23	Marinel[318]	D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila)	EAJ/PNV
MENDIZABAL ALBERDI, MANUEL	24	2. Mekanikaria	D-8 (1937ko maiatza-1937ko azaroa)	ELA/STV

NUEVO CONSTANTE/D-9:

Historia laburra: 1928an, Vigon eraikitako, Arturo Juan Freire Barreiroren (Bouzas), lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza-ontzi binakakoa. 1937ko apirilean martxan jarri zuten. Martxotik aurrera, gauez, Plentzia eta Castroko zainketa-lanak egiten zituen. Abuztuaren hasieran, BIA-ren menpean geratu zen; Santanderren eta Gijonen minen miaketan parte hartu zuen. 1937ko urriaren 23an Arcachonen (Frantzia) babestu eta gerra amaitu bitartean hantxe egon zen. Frantziara heltzean, Euskadiko Gudontzidiaren esku geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zieten.

Tripulazioa: tripulazioan 8-12 gudari egon ziren. Komandantea, 1937ko apiriletik azarora bitartean, Juan Paz Franco izan zen.


Relacion de los Buques que pasan a depender de Fuerzas Navales del Cantabrico. a partir del 1º de Agosto de 1.937.

Buque 1 - 1.
" 1 - 3.
" 2 - 9.
" 2 - 10.
" 2 - 11.
" 2 - 21.
" 2 - 22.
" 2 - 25.

Santander 2 de Agosto de 1.937.

BIA-ren menpe geratutako Euskadiko Gudontzidiko ontziak. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

NUEVO CONSTANTE /D-9 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO[319]	40	Makinista gaitua, labezain gaitua	D-9 (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[320]	EAJ/PNV

[317] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[318] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila) eta D-21-en (1937ko uztaila) ere, marinel gisan jardun zuen. Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila), D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen.

[319] 117. orrialdean argazkia ikusgai.

[320] L-1-ean arrantzako patroia, 2. Mailako patroia (1936ko urria-1937ko urtarrila); D-11-n makinista gaitua, labezain gaitua (1937ko urtarrila-1937ko uztaila) izan zen.

CONSTANTE BARREIRO/D-10:

Historia laburra: 1928an Vigon eraikitako, Arturo Juan Freire Barreiroren (Bouzas), lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza-ontzi binakakoa. 1937ko apirilean Euskadiko Gudontzidiak martxan jarri zuen. 1937ko abuztuaren hasieran, BIA-ko itsas armadaren menpe egotera pasa zen. Abuztuaren 25ean, La Pacillera (Frantzia) heldu zen. Gerra amaitu bitartean, Rocheforten (Frantzia) egon zen. Frantziara heltzean, Euskadiko Gudontzidiaren menpean geratu zen berriro ere. 1939an armadoreei itzuli zieten.

Tripulazioa: tripulazioa 8-12 gudarik osatzen zuten eta horietatik bakarra, Jose Domingo Uzin Alkorta getariarra, aldi batez, bertako marinela izan zen. 1937ko apiriletik maiatzera bitartean, komandantea, Javier Andonegi izan zen eta handik eta, azarora bitartean, Juan Lijok postu hori bete zuen.

*CONSTANTE BARREIRO/D-10 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO[321]	41	Marinel	D-10 (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[322]	EAJ/PNV

ONDARROA/D-14:

Historia laburra: 1927an eraikitako Tomas Lerchundi eta Semeren (Donostia), lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza-ontzi binakakoa. 1937ko apirilean martxan hasi zen. 1937ko abuztuaren 25ean Santanderretik La Pallicera (Frantzia) egin zuen. 1937ko azaroaren 1ean Rocheforten (Frantzia) zegoen eta gerra amaitu bitartean bertan geratu zen. 1939an armadoreei itzuli eta 1946an itsasoan hondoratu zen.

Tripulazioa: tripulazioa 8-12 gudarik osatzen zuten. Jose Larrañaga Azpeitia gudari getariarra, denboraldi batez, bertako tripulazioko partaidea izan zen. 1937ko apiriletik azarora bitartean, Jose Ignacio Murelaga bertako komandantea izan zen.

*ONDARROA/D-14 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE[323]	24	Marinel (1937ko maiatza) / (1937ko uztaila-1937ko iraila / Kontramaisu (1937ko maiatza-1937ko ekaina)[324]	D-14 (1937ko maiatza-1937ko iraila)[325]	EAJ/PNV

ANTHON MARI/D-16:

Historia laburra: 1928an eraikitako, Antonio Vega de Seoaneren (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantza binakakoa. 1937ko apirilean martxan hasi zen. 1937ko abuztuaren 25ean Santanderretik La Pallicera (Frantzia) joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten (Frantzia) egon zen eta 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: 8-12 gudari zituen. Haien artean getariar bat baino ez zegoen: Juan Azkue Ibarbia. D-16 ontziko komandantea, 1937ko apiriletik azarora bitartean, Andres Sustaeta Urkidi mutrikuarra jaiotzez eta gerra ostean, Getarian bizi zena izan zen.

*ANTHON MARI/D-16 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
AZKUE IBARBIA, JUAN	-	Marinela	Anthon Mari/D-16 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	EAJ/PNV
SUSTAETA URKIDI, ANDRES	49	Arrantzako patroia, 2. Mailako patroia	Anthon Mari/D-16 (1937ko apirila-1937ko azaroa)	UGT



Juan Azkue Ibarbia.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Andres Sustaeta Urkidi.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[321] 120. orrialdean argazkia ikusgai.

[322] D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina) makinista gaitua, labezain gaitua izan zen. Jose Luis Diezen marinel (1937ko ekaina-1937ko uztaila) postua bete zuen.

[323] 104. orrialdean argazkia ikusgai.

[324] Bou Araban (1936ko abendua-1937ko apirila) morroi gisan.

[325] Bou Araba (1936ko abendua-1937ko apirila); Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko maiatza).

MARCOS/D-17:

Historia laburra: 1928an Zumaian Marcos Vicente Orusek eraikitako Juan Zubimendi y Otros-en (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu binakakoa. 1937ko apiriletik minaketari zerbitzuan jardun zuen. Santoñatik Santanderrera zihoanean, azpiaz lurra jo eta 1937ko abuztuaren 14an Nojako hondartzan lehertu egin zen. Tomas Kamio Uzin gudari getariarra istripu horretan hil zen. Bitartean, Urbano Arregi Uzin getariarra zauritu egin zen.

Tripulazioa: tripulazioan 8-10 gudari ziren. 1937ko apiriletik abuztura bitartean, Jose Etxaburu Landaribar bertako komandantea izan zen.

*MARCOS/D-17 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, URBANO[326]	-	Sugina	D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua)[327]	UGT[328]
AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO	27	Sugina	D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[329]	EAJ/PNV-ELA/STV
KAMIO UZIN, TOMAS[330]	22	Sugina	D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua)[331]	EAJ/PNV
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO[332]	17	Marinela	D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[333]	ELA/STV
ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE[334]	26	Makinista gaitua, labezain gaitua	D-17 (1937ko apirila-1937ko abuztua)[335]	EAJ/PNV-ELA/STV


Antonio Azpeitia Ibarbia.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

DELFINA/D-18:

Historia laburra: 1928an Zumaian Marcos Vicente Orusek eraikitako Juan Zubimendi y Otros-en (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu binakakoa. 1937ko apiriletik miaketari- zerbitzuan jardun zuen. Maiatzaren 21ean, ustekabean, Ciscar miaketariak aurretik eraman eta Bilboko Abran hondoratu egin zuen. Tripulazioaren gehiengoa D-24ra pasatu zen.

Tripulazioa: tripulazioan 8 gudari ziren. Horietatik 3, getariarrak ziren. 1937ko apiriletik maiatzean hondoratu bitartean, bertako komandantea Eladio Cruz Franqueira izan zen.

*DELFINA/D-18 ONTZIKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO[336]	18	Marinela	D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza)[337]	UGT
KAMIO UZIN, TOMAS[338]	22	Sugina	D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza)[339]	EAJ/PNV-ELA/STV
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE[340]	23	Sukaldaria[341]	D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza)	EAJ/PNV

[326] 114. orrialdean argazkia ikusgai.
[327] Jaimin (1936ko azaroa-1937ko martxoa); D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina).
[328] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.
[329] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[330] 115. orrialdean argazkia ikusgai.
[331] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).
[332] 114. orrialdean argazkia ikusgai.
[333] Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).
[334] 114. orrialdean argazkia ikusgai.
[335] Jaimin (1936ko azaroa-1937ko apirila).
[336] 114. orrialdean argazkia ikusgai.
[337] Jaimin (1937ko martxoa); D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila).
[338] 115. orrialdean argazkia ikusgai.
[339] D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua); Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).
[340] 115. orrialdean argazkia ikusgai.
[341] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila), D-21 (1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

IBAI EDERRA/D-19:

Historia laburra: 1926an Bermeon eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu bikotea, Cecilio Iriarte Goyenechea eta besterena (Ondarroa). 1936ko urriko Ondarroako ebakuazioan, Bilbora joan zen. 1937ko maiatzean bere zerbitzua egiten hasi zen. Bilbo ebakuatzean, Santanderrera egin zuen. Abuztua hasieran, BIA-ren zerbitzura pasa zen, hark Eusko Jaurlaritzari hala eskatuta. D-19a matxuratuta egoteagatik, D-11-k ordezkatu zuen. Handik, abuztuaren 25ean, La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Gerra amaitu bitartean, Rocheforten (Frantzia) geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: tripulazioan 8-11 gudari zeuden. Haietatik bi gudari getariarrek bertan lanean jardun zuten: Anselmo Arregi Uzin eta Enrike Darpon Mitxelena. Bertako komandantea, 1937ko apiriletik uztailera bitartean, Angel Eizagirre izan zen. Handik eta azarora bitartean, Pedro Artetxe.

*IBAI-EDERRA/D-19-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, ANSELMO[342]	23	Marinela	D-19 (1937ko abuztua-1937ko iraila)[343]	EAJ/PNV
DARPON MITXELENA, ENRIKE[344]	26	Sugina	D-19 (1937ko abuztua-1937ko azaroa)[345]	EAJ/PNV

SALVADORA/ D-20:

Historia laburra: 1925ean Zumaian eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu bikotea, Cecilio Iriarte Goyenechea eta besteena (Ondarroa). 1936ko urriko Ondarroako ebakuazioan, Bilbora joan zen. 1937ko maiatzean miaketa zerbitzuan lanean hasi zen. 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek egindako bonbardaketaren eraginez, txikituta geratu zen.

Tripulazioa: guztira 8 gudari ziren bertan eta haietatik, bertan, getariar gudari bakar batek denboralditxoa egin zuen, hain zuzen, Pedro Azkue Uzin. 1937ko maiatzetik ekainera bitartean, bertako komandantea, Lorenzo Arrieta Mugerza izan zen.

*SALVADORA/D-20-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
AZKUE UZIN, PEDRO[346]	-	Marinela	D-20 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)[347]	EAJ/PNV-ELA/STV

NAZARENO Nº6/D-21:

Historia laburra: 1932an Pedro Manuel Egañak Mutrikun eraikitako, lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu bikotea, Antonio Izagirre eta Justo Ibarlozarena. 1937ko urrian Ondarroako ebakuazioan Bilbora joan zen. 1937ko martxoan miaketa zerbitzuan lanean hasi zen. Beste zenbait jardueren artean, Plentzia eta Castroko zainketa-lanak gauez egiten zituen. Abuztuaren hasieran, BIA-ren aginduetara geratu zen eta Santander, Gijon eta Avilesen miaketa zerbitzuan jardun zuen. 1937ko urriaren 24an Arcachonen (Frantzia) babestu eta bertan gerra amaitu bitartean geratu zen. Han berriro ere, Euskadiko Gudontzidiaren esku geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: bertako tripulazioa 9-11 gudarik osatzen zuten, horietatik 2 gudari getariarrek bertan denboralditxo bat egin zuten: Silvestre Iribar Zulaika eta Victoriano Sustaeta Azkarraga. 1937ko maiatzean, Angel Gabiña Andraka bertako komandantea izan zen. Handik eta ekainera bitartean, Ramon Garayalde izan zen. Ekainetik azarora bitartean, Justo Ibarloza Akarregi bertako azken komandantea izan zen.

*NAZARENO Nº6/D-21-EAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE[348]	23	Marinela[349]	D-21 (1937ko uztaila)	EAJ/PNV
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO[350]	-	Sugina	D-21 (1937ko martxoa-1937ko ekaina)[351]	EAJ/PNV

[342] 117. orrialdean argazkia ikusgai.

[343] D-11(1937ko urtarrila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[344] 117. orrialdean argazkia ikusgai.

[345] D-11 (1937ko urtarrila-1937ko uztaila).

[346] 120. orrialdean argazkia ikusgai.

[347] D-2 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[348] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[349] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila), D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

[350] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[351] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko martxoa); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

ARALARKO MIKEL DEUNA/D-22:

Historia laburra: 1936an Pedro Manuel Egañak Mutrikun eraikitako lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu bikotea, Antonio Izagirrerena (Ondarroa). 1936ko urrian, Ondarroako ebakuazioan Bilbora joan zen. 1937ko martxoan miaketa zerbitzuan lanean hasi zen. Beste zenbait jardueren artean, Plentzia eta Castroko zainketa-lanak gauez egiten zituen. Abuztuaren hasieran, BIA-ren aginduetara geratu zen eta Santander, Gijon eta Avilesen miaketa zerbitzuan jardun zuen. 1937ko urriaren 24an Arcachonen (Frantzia) babestu eta bertan gerra amaitu bitartean geratu zen. Han berriro ere, Euskadiko Gudontzidiaren esku geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: tripulazioan 8-10 gudarik jardun zuten, haietatik lau gudari getariarrak ziren: Urbano Arregi Uzin, Jose Domingo Azkue Uzin, Marcelino Basterretxea Larrañaga eta Gerardo Kerejeta Agote. 1937ko maiatzetik uztailera bitartean, Pedro Artetxe bertako komandantea izan zen. Handik eta azarora arte, Angel Chans Pasadin izan zen.

*ARALARKO MIKEL DEUNA/D-22-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, URBANO[352]	-	Sugina	D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina)[353]	UGT[354]
AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO[355]	32	Sugina	D-22 (1937ko martxoa-1937ko azaroa)[356]	EAJ/PNV
BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO[357]	20	Marinela	D-22 (1937ko uztaila)[358]	EAJ/PNV-ELA/STV
KEREJETA AGOTE, GERARDO[359]	24	Marinela	D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila)[360]	EAJ/PNV

JULIA/D-24:

Historia laburra: 1929an Ondarroan eraikitako Jose Fernandez Martinezen (Donostia) lurrunezko eta zurezko oskoldun arrantzu bikotea. Pasaiako ebakuazioan, Bilbora joan zen. 1937ko apirilean miaketa zerbitzuan hasi zen. 1937ko ekainaren 13an hegaz-kin frankistek egindako erasoak, hondoratu egin zuen.

Tripulazioa: tripulazioa 8 gudarik osatzen zuten eta bertan 3 gudari getariar egon ziren: Casimiro Alkorta Isasti, Silvestre Iribar Zulaika eta Tomas Kamio Uzin. Ontzi honetako tripulazioaren gehiengoa, Ciscar-ek hondoratutako D-18-tik zetorren. Bertako komandantea, maiatzetik ekainera bitartean, Eladio Cruz Franqueira izan zen.

Minak aurkitu eta desaktibatzeko, eta itsasbasterra gauez zaintzeko lan osagarrietan baxurako sei arrantza-ontzi erabili zituzten, gehienak Mutrikukoak ziren. Gehienetan gauez eta kostatik hurbil ibiltzen baziren ere, goizetan batzuetan, miaketariei laguntzen zieten. Maiatzaren hasieran izenak aldatu zizkieten: Nazareno nº1 *(L-1)*, Angel de la Guarda *(L-2)*, Josuren Ama *(L-3)*, Nazareno nº9 *(L-4)*, San Isidro *(L-5)* eta San Ignacio de Loyola *(L-6)*.

*JULIA/D-24-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO[361]	18	Marinela	D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)[362]	ELA/STV
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE[363]	23	Sukaldaria[364]	D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	EAJ/PNV
KAMIO UZIN, TOMAS[365]	22	Sugina	D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)[366]	EAJ/PNV

[352] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[353] Jaimin (1936ko azaroa-1937ko martxoa); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

[354] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.

[355] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[356] Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa).

[357] Ez dugu bere argazkia lortu.

[358] D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)-(1937ko abuztua-1937ko azaroa); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[359] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[360] Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[361] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[362] Jaimin (1937ko martxoa); D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[363] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[364] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila) eta D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila), D-21 (1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

[365] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[366] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

NAZARENO Nº1/L-1:

Historia laburra: Pedro Manuel Egañaren (Mutriku) motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. 1936ko irailetik Eusko Gudarostearen zerbitzuan egon zen eta Gipuzkoako ebakuazioan Bilbora iritsi zen. 1936ko urrian, Euskadiko Gudontzidiaren aginduetara geratu zen. 1937ko maiatzean, L-1 izena ezarri zioten. Martxotik aurrera, Plentzia eta Castroko zainketa-lanak gauez egiten zituen.

1937ko abuztua hasieran BIA-ren esku geratu zen eta handik aurrera, Santander eta Gijonen minen araketan lan egin zuen. Urriaren 19an, frankistek C-6 itsaspeko errepublikarrari 150 kg-ko bonba bat bota zioten eta horren eraginez, desgaituta geratu zen. Une horretan, L-1 txalupak Torres lurmuturreraino eraman eta bertan, urriaren 20an, frankistek ez hartzeko txikitu egin zuten. 1937ko urriaren 24an Pauillac-en babestu zen. Gerra amaitu bitartean Bordelen BIA-ren aginduetara jarraitu zuen. 1938ko amaiera aldera arte, BIA-ren zerbitzura egon zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: 4-6 gudarik osatzen zuten eta denboralditxo batez, 2 getariar gudarik bertan lanean jardun zuten: Francisco Iribar Zulaika eta Jose Domingo Uranga Olaskoaga. 1936ko urritik 1937k urtarrilera bitartean, Jose Domingo Uranga bertako komandantea izan zen. 1937ko otsailetik azarora bitartean, Leon Agirregomezkortak komandante postuan ordezkatu zuen.

Minak aurkitu eta desaktibatzeko, eta itsasbasterra gauez zaintzeko lan osagarrietan baxurako sei arrantza-ontzi erabili zituzten, gehienak Mutrikukoak ziren. Gehienetan gauez eta kostatik hurbil ibiltzen baziren ere, goizetan batzuetan, miaketariei laguntzen zieten. Maiatzaren hasieran izenak aldatu zizkieten: Nazareno nº1 *(L-1)*, Angel de la Guarda *(L-2)*, Josuren Ama *(L-3)*, Nazareno nº9 *(L-4)*, San Isidro *(L-5)* eta San Ignacio de Loyola *(L-6)*.



Francisco Iribar Zulaika.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

*NAZARENO Nº1/L-1-EAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO	21	Marinela[367]	L-1 (1937ko urtarrila-1937ko apirila)	EAJ/PNV
URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO[368]	40	Arrantzako patroia, 2. Mailako patroia	L-1 (1936ko urria-1937ko urtarrila)[369]	EAJ/PNV

ANGEL DE LA GUARDA/L-2:

Historia laburra: Barrenetxearen (Mutriku) motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. 1936ko irailetik Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuetan parte hartu zuen eta Gipuzkoako ebakuazioaren ostean Bilbora iritsi zen. 1937ko maiatzean, L-2 izena ezarri zioten. Martxotik aurrera, Plentzia eta Castroko zainketa-lanak gauez egiten zituen. 1936ko urrian Euskadiko Gudontzidiaren menpe geratu zen. 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek Bilbo bonbardatu ostean oso hondatuta geratu zen. Horren ostean, bere tripulazioaren gehiengoa L-6 txalupara pasa zen.

Tripulazioa: 3-6 gudarik osatzen zuten eta momentu jakin batean, bertan lau getariar gudari egon ziren. 1936ko urritik 1937ko urtarrilera bitarte Leon Agirregomezkorta bertako komandantea izan zen. Apiriletik ekainera bitartean Esteban Exposito Bilbao izan zen.

*ANGEL DE LA GUARDA/L-2-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA[370]	24	Kontramaisu[371]	L-2 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)[372]	ELA/STV
IBARBIA SUBIÑAS, JOSE	17	Marinela	L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[373]	ELA/STV
IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO[374]	21	Marinela[375]	L-2 (1936ko abendua-1937ko urtarrila)	EAJ/PNV
UZIN ALKORTA, PRUDENCIO	-	Marinela (1937ko apirila-1937ko maiatza) / Koipeztatzailea (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[376]	-

[367] L-2 (1936ko abendua-1937ko urtarrila) eta L-3 (1937ko apirila-1937ko maiatza) ere marinel gisan jardun zuen. L-3 (1937ko maiatza-1937ko azaroa) koipeztatzaile gisan lanean jardun zuen.

[368] 117. orrialdean argazkia ikusgai.

[369] D-9 (1937ko uztaila-1937ko azaroa) eta D-11n (1937ko urtarrila-1937ko uztaila) makinista gaitua, labezain gaitua.

[370] 104. orrialdean argazkia ikusgai.

[371] Euzkal-Errian kontramaisu izan zen. Bou Araban marinela izan zen. L-6an Arrantzako patroi, 2. Mailako patroia izan zen.

[372] Euzkal-Erria (1936ko azaroa-1936ko abendua); Bou Araba (1936ko abendua-1937ko maiatza); L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa).

[373] L-6 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[374] Argazkia goiko aldean ikusgai.

[375] L-1 (1937ko urtarrila-1937ko apirila) eta L-3 (1937ko apirila-1937ko maiatza) ere marinel gisan jardun zuen. L-3 (1937ko maiatza-1937ko azaroa) koipeztatzaile gisan lanean jardun zuen.

[376] L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa).



Jose Ibarbia Subiñas.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Prudencio Uzin Alkorta.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

JOSUREN AMA/L-3:

Historia laburra: Pedro Manuel Egañak Mutrikun eraikitako Basurkoren alargunaren (Mutriku) motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. Gipuzkoa ebakuatzean Bilbora joan zen. Martxoan, Plentzia eta Castro arteko zainketa-lanak gauez egin zituen. 1937ko apirilean Euskadiko Gudontzidiaren zerbitzuan lan egiten hasi zen. 1937ko abuztua hasieran BIA-ren menpe geratuta, minen araketan Santander, Gijon eta Avilesen lanean jardun zuen. 1937ko urriaren 24an Arcachonen (Frantzia) babestu zen, gerra amaitu bitartean. Han berriro ere, Euskadiko Gudontzidiaren menpean geratu zen. 1939an bere armadoreei itzuli zitzaien.

Tripulazioa: 5-6 gudarik osatu zuten. Bertan hiru getariar gudari izan ziren. 1937ko apiriletik uztailera bitartean, Antonio Egurbide Maiz bertako komandantea izan zen. Handik eta azarora bitartean, Jose Pombo Mosqueirak ordezkatu zuen.



L-3 ontzia Arcachonen.
(Juan Pardo San Gilen liburutik).

*NAZARENO Nº1/L-1-EAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
AZKUE UZIN, LUCIANO	20	Marinela	L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[377]	EAJ/PNV
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS[378]	17	Marinela	L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[379]	EAJ/PNV
IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO[380]	21	Marinela[381]/ (1937ko apirila-1937ko maiatza) / Koipeztatzaile / (1937ko maiatza-1937ko azaroa)	L-3 (1937ko apirila-1937ko azaroa)	EAJ/PNV



Luciano Azkue Uzin.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[377] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

[378] Argazkia 113. orrialdean dago ikusgai.

[379] Mourisca (1936ko urria-1937ko otsaila); Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

[380] 125. orrialdean argazkia ikusgai.

[381] L-1 (1937ko urtarrila-1937ko apirila) eta L-2 (1936ko abendua-1937ko urtarrila) ere marinel gisan jardun zuen.

NAZARENO Nº9/L-4:

Historia laburra: 1936an Pedro Manuel Egañak (Mutriku) eraikitako eta bere jabetzako motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. 1936ko irailetik Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuen parte izan zen eta Gipuzkoa ebakuatzean Bilbora egin zuen. 1936ko urrian Euskadiko Gudontzidiaren menpe jarri eta maiatzean L-4 izena ezarri zioten. Martxotik aurrera, Castro eta Plentzia arteko zaintza-lanetan jardun zuen gauez. Bilbo ebakuatzean, 1937ko ekainaren 20an Le Verdonera (Frantzia) iritsi zen. Handik Baionara eraman zuten. 1937an, bertan, jabeak berak emandako tripulazio baten bidez, frankistek berreskuratu zuten.

Tripulazioa: 4-6 gudarik bertan lanean jardun zuten. Horietako bat getariarra zen. 1936ko irailetik 1937ko uztailera bitartean, bertako komandantea Luis Burgaña Belaustegi izan zen.

*NAZARENO Nº9/L-4-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO[382]	23	Marinela[383]	L-4 (1936ko azaroa)[384]	EAJ/PNV

SAN ISIDRO/L-5:

Historia laburra: 1936an eraikitako Isidro Aranzamendiaren (Ondarroa) motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. Ondarroako ebakuazioan Bilbora joan zen. 1937ko apirilean Euskadiko Gudontzidiaren aginduetara jarri zen eta maiatzean L-5 izena ezarri zioten. 1937ko maiatzaren 1ean hegazkin frankistek Bilboko kanpoko portua bonbardatzean, Modesto Agirregomezkortak txalupatik jauzi egin zuen babesteko, eta horretan, itota hil zen.

Bilbo ebakuatzean L-5 Santanderrera pasatu zen eta handik, 1937ko abuztuaren 25ean La Pallicera (Frantzia) joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zioten.

Tripulazioa: 6-10 gudarik osatzen zuten. Horietatik 3 getariarrak ziren. Bertako komandantea, 1937ko apiriletik azarora bitartean Jose Ibarloza Urkiza izan zen.



Ignacio Maria Larrañaga Azpeitia.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



Emilio de la Hoz Kintana.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

*SAN ISIDRO/L-5-EAN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO[385]	18	Marinela	L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila)[386]	ELA/STV
LARRAÑAGA AZPEITIA, IGNACIO MARIA	26	2. Mekanikaria	L-5 (1937ko apirila-1937ko azaroa)	EAJ/PNV-ELA/STV
DE LA HOZ KINTANA, EMILIO	23	Marinela	L-5 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[387]	EAJ/PNV

SAN IGNACIO DE LOYOLA/L-6:

Historia laburra: Alejandro Urrusoloren (Ondarroa) motordun eta zurezko oskoldun arrantza-ontzia. Ondarroa ebakuatzean Bilbora joan zen. 1937ko maiatzean Euskadiko Gudontziaren aginduetara jarri eta L-6 izena ezarri zioten. Bilbo ebakuatzean Santanderrera joan zen.

1937ko ekainaren 24an Laredotik EAJ/PNV-ko ordezkaritzarekin eta Andres Atela bertako komandante postuan ezarrita, Algortara irten zen, Italiar Estatu Nagusiko ordezkariekin bildu eta Santoñako Itunaren inguruko elkarrizketa izateko.

1937ko abuztuaren 14an, D-17a hondoratu zenean, Tomas Kamio Uzin zauritutako marinela hartu eta Santoñara eraman zuten. Hauen ahaleginak alferrikakoak izan ziren, marinela, azkenean, hil egin baitzen.

1937ko abuztuaren 25ean La Pallicera (Frantzia) joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten (Frantzia) egon zen eta 1939an armadoreei eman zieten.

Tripulazioa: 8 gudarik osatu zuten. 3 getariar gudarik bertan lanean jardun zuten. 1937ko ekainetik azarora bitartean, Jose Maria Aranguren Iñarra getariarra bertako komandantea izan zen.

[382] 104. orrialdean argazkia ikusgai.

[383] Bou Araban morroi gisan jardun zuen. Gazteizen marinel gisan aritu zen.

[384] Bou Araba (1936ko abendua-1937ko apirila); Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko ekaina); Gazteiz (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

[385] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[386] Jaimin (1937ko martxoa); D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).

[387] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

*SAN IGNACIO DE LOYOLA/L-6-AN EGONDAKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA[388]	24	Arrantzako patroia, 2. Mailako patroia[389]	L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa)[390]	ELA/STV
IBARBIA SUBIÑAS, JOSE	17	Marinela	L-6 (1937ko ekaina-1937ko iraila)[391]	ELA/STV
UZIN ALKORTA, PRUDENCIO[392]	-	Marinela (1937ko apirila-1937ko maiatza) / Koipeztatzailea (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	L-6 (1937ko ekaina-1937ko iraila)[393]	-



Minaketarien tripulatzaileak Napartarra/D-3 ontzian, Baionan (1938). Zutik, ezkerretik eskuinera: Furundarena (D-4), Felipe Manterola (L-6), Jose Aranguren (L-6, patroia), erdi makurtuta Hilario Burgaña (D-3), atzean X (D-4), Luis Manterola (L-6) eta Jose Carballar (D-3). Eserita edo makurtuta: Ignacio Burgaña (D-3), Luciano Andonegui (D-3, patroia), Javier Andonegui (D-5, patroia) eta Nemesio Bullain (D-3). (Juan Pardo San Gilen liburutik).

Itsas armada errepublikarreko ontzietan Euskadiko Gudontzidiko gudariek egindako interbentzioak

C-6 ITSASPEKOA:

Historia laburra:

1929ko abenduaren 29an uretaratutakoa eta Sociedad Española de Construcción Navalek eraikitako, Itsas Armada errepublikarreko 12 itsaspekoen arteko bat. 1936ko irail erdirako Bilbon zegoen. Urriaren 2an, Itsas ministroak hala aginduta, C-3 eta C-4 itsaspekoekin batera, Mediterraneorako bidea hartu zuen.

1937ko maiatzaren 12an, Cartagenatik Portugaletera heldu berritan, hegazkin frankistek egindako erasoaren eraginez, C-6 itsaspeko bost tripulatzaile hil eta beste lau zauritu zituzten. Zauritutako bat, hilaren 23an Santurtziko ospitalean hil zen.

Horren eraginez, C-6 itsaspeko komandanteak hala eskatuta, Euskadiko Gudontzidiko 9 kabu eta marinel itsaspeko tripulazioko kide egin zituzten. Izan ere, komandante sobietarrak tripulatzaile batzuen diziplinarik eza ere nabarmendu zuen. BIA-ren buruzagitzarekin zenbait eztabaida izan zituzten hartutako erabakiaren inguruan.

Jasandako erasoaren ostean, matxuratuta geratu eta ekainera bitartean konpontzen jardun zuten. Ordutik eta Bilbo tropa frankistek menpean hartu arte, Jose Luis Diez eta Ciscar ontziekin batera, C-6 itsaspekoa, Euskadiko Armadako Buruzagitzaren Intendentziak artatu zuen.

Konponketen ostean, ekainaren 6an egin zuen bere lehen egitekoa, tripulazioak moral oso ona zuela aprobetxatuz; baina inongo emaitzarik gabe ekainaren 9an Santanderrera iritsi zen. Hilaren 20an, bere torpedoekin Cervera gurutzaontzia eraso zuen, emaitzarik lortu gabe; hurrengo egunean Santanderrera itzuli zen. Balentria hori erakutsi ostean, C-6 itsaspekoko Ivan Alekseievich Burmistrov korbeta-kapitain sobietarra Bizkaiko Itsasoko Itsaspekoen buru izendatu zuten. Santanderreko ebakuazioan, C-6 itsaspekoak sobietar aholkulariak eraman zituen.

1937ko uztailaren 24an ere, Baleares ontzi frankistaren kontra torpedoak bota zituen eta, 1937ko urriaren 15ean berriz, Jupiterren aurka. Ez bazion bietako inori ere eman, haien balentria eredugarria izan zen.

[388] 104. orrialdean argazkia ikusgai.

[389] Bou Araban marinela zan zen. Euzkal-Errian eta L-2an kontramaisu izan zen.

[390] Bou Araba (1936ko abendua-1937ko maiatza); Euzkal-Erria (1936ko azaroa-1936ko abendua); L-2 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).

[391] L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina).

[392] 126.orrialdean argazkia ikusgai.

[393] L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina).

Urriaren 19an, 150 kg-ko bonba bat jaurti eta guztiz txikituta geratu zen. L-1 txalupak atoia hartu eta Torres lurmuturrera eraman zuen; tropa frankistek bereganatu ez zezaten urriaren 20an guztiz txikitu zuten.

1947ko azaroaren 27an frankistek berriro ere atera egin zuten, baina 1948ko martxoaren 28an desegitera zaramatela, berriro ere hondoratu egin zen.

Tripulazioa: 40 gudarik osatzen zuten eta bertan, 1937ko maiatzetik urrira bitartean, Jose Manuel Errazkin Aizpuru gudari getariarrak borrokatu zuen. 1936ko abuztuan, Mariano Romero Carnero kolpisten aldeko korbeta kapitaina bertako komandantea zen, baina ordezkatu eta Julian Sanchez Gomez ezarri zuten 1936ko irailean. Momentu batez, izan ere, geroago Remigio Verdía y Jolí korbeta izan zen irailetik 1937ko urtarrilera bitartean bertako komandantea. Urtarriletik otsailera Fidel Enparanza Zabala korbeta kapitaina. Otsailetik uztailera bitartean, Ivan Alekseevich Burmistrov edo "Luis Martinez" korbeta kapitaina eta uztailetik irailera bitartean, Nikolaii Pavlovich Egipko edo "Severino Moreno" korberta kapitaina.

Armamentua: 1937ko ekainean, *Vickers* 76,2/45 mm-ko kainoi bat eta 533 mm-ko torpedo jaurtiketarako sei hodi.

*C-6 ITSASPEKO ERREPUBLIKARREAN BORROKAN JARDUNDAKO GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ERRAZKIN AIZPURU, JOSE MANUEL[394]	22	Marinela	C-6 (1937ko maiatza-1937ko urria)[395]	EAJ/PNV

JOSE LUIS DIEZ:

Historia laburra: 1928ko maiatzaren 25ean[396] uretaratutako eta 1929an Sociedad Española de Construcción Navalek eraikitako Espainiako Itsas Armadaren destruktorea. 1936ko irailaren 21ean gainontzeko Flota Errepublikarrarekin Malagatik irten eta hilaren 26an Bilboko portura iritsi zen.

Urriaren 13an gainontzeko Flota Errepublikarra irten zenean, Jose Luis Diez Bilboko portuan geratu zen galdaratan arazo batzuk medio, C-2 eta C-5 itsaspekoekin batera. Bizkaiko Itsas Armadako ontzia izan zen hura sortu ostetik.

1936ko abendura bitartean jarduerarik burutu gabe egon zen, langileak, galdaretako matxurak konpontzen baitzeuden. Handik aurrera, merkantzia-ontzien babesean eta miaketan parte hartu zuen.



Jose Luis Diez destruktorea. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hala eta guztiz ere, bere jardueretako asko ez zituen bete eta kolpisten aldeko itsasontzi gisan hartuta zegoen. 1937ko martxoaren 5eko Matxitxakoko borrokan, Canarias gurutzaontziaren erasoen aurrean Bou Gipuzkoari lagundu beharrean, Jose Luis Diezeko Carlos Moya komandanteak, beste bost ofizialekin batera desertatu egin zuen, ontzia Bordelera eramanez. Gainera hainbat lima jarri zituzten destruktoreko propultsio turbinetako engranaje ezkutuetan. Berriro ere martxan jartzean, matxurak eragin zizkion.

1937ko martxoaren 30ean, Jose Luis Diez, Bordeletik Horacio Pérez Pérez korbeta-kapitainaren gidaritzan Bilbora bidean irten zen. Hilaren 31n, tropa frankisten ontziekin tirokatzea izan ostean, Bilboko portura iritsi zen. Han frankisten aldeko Evaristo Lopez Rodriguez-ek ontziaren buruzagitza hartu zuen.

1937ko maiatzaren bukaeran, Bizkaiko Itsas Armadako buruzagitzak aginduta, bertako tripulatzaile gehienak lehorreratu (Ciscar destruktorean ere bai), kolpisten aldekoak zirela baitzekiten eta haren ostean, Euskadiko Gudontzidiko 210 marinel tripulazioan ezarri zituzten. 114 marinel Jose Luis Diezera batu ziren. Ordutik eta Bilbo tropa frankistek menpean hartu arte, Jose Luis Diez eta Ciscar ontziak eta C-6 itsaspekoa, Euskadiko Armadako Buruzagitzaren Intendentziak artatu zituen:



Jose Luis Diez destruktorea Bilboko itsasaderrean (1937ko hasiera).
(Juan Pardo San Gilen liburutik).

"Maiatzaren 31ko gauean, hamaikak aldera, Euzkadiko Gudontzidiko, Ordena Publikoko eta Ertzainako indarrak, Portugaleteko Itsas Ordezkari Jose Mª Burganak ikuskaturik, Sestaoko Naval-en armamentuko kaira abiatu ziren, hantxe baitzen José Luis Díez amarratuta, eta ontziaz jabetu ziren inolako borrokarik gabe. Gauza berbera egin zuten Císcarren, Zorrozako kaian zegoela berau. Tripulazio osoa lo baitzegoen, zelatariak barne. Berehala kanporatu zituzten ontzi bietako dotazioak, eta Deustuko txalet batera eraman zituzten, atxilo"[397].

Handik aurrera, Jose Luis Diezeko komandantea mantendu egin zuten eta bertan Manuel Galdos Komisario Politiko gisan izendatu zuten, ordura arte Bou Gipuzkoako komandantea izana.

1937ko ekainaren 10ean Cervera gurutzaontziarekin zenbait tirokatze izan zituen.

[394] 106. orrialdean argazkia ikusgai.

[395] Bou Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko maiatza). 1937ko martxoaren 23an hilabeterako baja eman zioten gaixotasunagatik.

[396] Data hau ez da guztiz zehatza.

[397] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 120.or.

1937ko ekainaren 15ean, Ciscarrekin batera, Bilbotik 288 ebakuatu atera zituen (adin militarreko 122 gizon zihoazen, haietako asko arduradun militar garrantzitsuak, ihes egiteko aprobetxatu zuten bidaia). Le Verdonera iristean, Evaristo López komandanteak eta hiru ofizialek desertatu egin zuten alde frankistara. Tripulazioak hasiera batean zeramatzan errefuxiatuak ez zituela jaitsiko adierazi zuen, guztia argitu bitartean. Horren aurrean, frantsesek portuetan gendarmeria eta armadako indarrak ezarri zituzten eta L'Audacieux eta L'Orage destruktoreak bidali zituzten, tripulazioa bigilatzeko. Baina azkenean guztiak jaitsi eta bertan zeramatzan urre, harri-bitxi… guztiak errekisatu zizkieten eta ekainaren 20an Santanderrerako bidea hartu zuen. Han bertan, Bilbon sartutako Euskadiko Gudontzidiko marinelen 2/3-ak lehorreratu eta Bilbon lehorreratutako tripulazioko kideak sartu zituzten berriro ere. Lehorreratutako Euskadiko Gudontzidiko marinelak berriro ere beraien bouetara itzuli ziren eta hala izan ez zen kasuetan, Euskadiko Gudontzidiaren jabetzako gainontzeko ontzietan ezarri zituzten. Handik aurrera, destruktoreak, gehienbat, Asturias aldean zenbait jarduera bete zituen.

1937ko abuztuaren 27ko frankisten aurkako borrokan, Jose Luis Diezek 2 hildako, 6 desagertutako eta 10 zauritu (haien artean, Rafael Mentxaka bigarren ofiziala) izan zituen. Atxilotutako bi arrantza-ontziren dotazioetako 24 arrantzale ere hil ziren, Canariasen tiroak harrapatu zuen tokian baitzeuden.

1937ko irailaren 31n Falmouthera (Ingalaterra) joan zen, bonbardaketen arriskuaz ohartuta, Asturiaseko portuak arriskutsuak izan zitezkeelakoan:

"Bizkitartean, Garcia Presno José Luis Díezen komandantea, Manuel Galdos komisario politikoa eta ofizial gehienak, Londresko itsas agregatuak (Fernando Navarro FK[398]) kontrako jarrera erakusten ziela ikusirik eta agintari errepublikarrek, itzuliz gero, epaituko ote zituzten beldurrez, lehorrean geratu ziren, eta beraiekin batera beste zenbait laguntzaile eta marinel ere bai, 68 guztira. Orduan Horacio Perez Perez korbeta-kapitaina bidali zuten José Luis Díezen ardura hartzeko, eta honek Le Havrera eraman zuen ontzia irailaren 27an, bertan konponketa lan asko egin behar zituen eta"[399].

1938an Juan Antonio Castro Izagirre tolosarra agintean zuela, Frantziatik Mediterraneora eramaten saiatu zen. Gibraltarren geratu zen ordea, izan ere, Canarias gurutzaontziak eraso egin zion.

1938ko abenduaren 30ean Gibraltarretik irteten ahalegindu zen, baina ontzi frankistek tirokatuta, hondartzan hondoa jo zuen. Borrokaren emaitza, 4 hildako, 12 zauritu eta desagertu bat izan ziren. Vulcano bost aldiz jota, 5 zauritu izan ziren.

1939ko martxoaren 25ean Britainia Handiko agintariek Jose Luis Diez destruktorea frankistei entregatu zieten. 1965ean zerbitzutik kendu eta desegin egin zuten.

Tripulazioa: 175 gudari aritu ziren bertan. Horietatik momentu jakin batean, 5 getariar aritu ziren bertan. 1936ko abuztutik urrira bitartean Vicente Ramirez de Togores ontzi-tenientea izan zen bertako komandante; urritik 1937ko martxora bitartean, Carlos Moya Blanco ontzi-alfereza; martxoan, Pedro de Loyola Larrañaga eta Horacio Perez y Perez; martxotik ekainera bitartean, Evaristo Lopez Rodriguez; ekainetik uztailera bitartean, berriro ere, Pedro de Loyola Larrañaga; uztailetik irailera bitartean Jose Maria Garcia-Presno ontzi-tenientea; irailetik urrira bitartean, Horacio Perez y Perez korbeta kapitaina eta 1937ko urritik 1938ko abendura bitartean, Juan Antonio Castro Izagirre ontzi-tenientea Jose Luis Diez destruktoreko komandantea izan zen.

Armamentua: 1937ko ekainean, *Vickers* 120/45 mm-ko 4 kainoi, *Vickers* 76,2/45 mm-ko kainoi bat, *Hotchkiss* 25 mm-ko bi metrailadore, torpedo jaurtiketarako 6 hodi eta 8 sakonera-karga zituen.



Jose Luis Diez Gibraltarren, Canariasekin borrokatu ostean (1938-08-27). Brankan Canariasen tiro batek irekitako zuloaz. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

[398] Fragata-kapitaina.

[399] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 138.or.

*JOSE LUIS DIEZ DESTRUKTOREKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO[400]	27	Sugina	Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[401]	EAJ/PNV-ELA/STV
DARKISTADE GARAI, ENRIKE[402]	-	Sugina[403]	Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko iraila)[404]	ELA/STV
ESNAL AGOTE, LUIS[405]	25	Marinela[406]	Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[407]	EAJ/PNV / UGT[408]
DE LA HOZ KINTANA, EMILIO[409]	23	Marinela	Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[410]	EAJ/PNV
UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO[411]	41	Marinela	Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[412]	EAJ/PNV

CISCAR:

Historia laburra: 1932ko azaroaren 25ean[413] Cartagenan uretaratutakoa. 1936an gerra hastean, oraindik ere Sociedad Española de Construcción Navalek Espainiako Itsas Armadaren destruktorea izango zena eraikitzea amaitu gabe zuen. 1937ko maiatzaren bukaeran, Bizkaiko Itsas Armadako buruzagitzak aginduta, bertako tripulatzaile gehienak lehorreratu (Jose Luis Diez destruktorean ere bai), kolpisten aldekoak zirela baitzekiten eta haren ostean, Euskadiko Gudontzidiko 210 marinel tripulazioan ezarri zituzten. 100 batu ziren Ciscarrera. Ordutik eta Bilbo tropa frankistek menpean hartu arte, Jose Luis Diez eta Ciscar ontziak eta C-6 itsaspekoa, Euskadiko Armadako Buruzagitzaren Intendentziak artatu zituen.

Handik aurrera, Jose Antonio Castro Izagirre marinel tolosarra Ciscarreko komandante izendatu zuten eta Komisario Politiko, ordura arte Bou Bizkaiako komandante izandako Alejo Bilbao.

1937ko maiatzaren 1ean, Eusko Gudarosteari, italiarrak Gernika, Busturia, Sukarrieta, Mundaka eta, Bermeo menpean hartu ostean, haiek berriro errekuperatzeko operazioan parte hartu zuen, Bou Gipuzkoa eta Bou Bizkaiarekin batera. Hauen egiteko, Eusko Gudarostea, Bermeo, Truende eta Sollubeko mazeletan behera jaisten zen bitartean, itsasotik erasoa burutzea izan zen. Maiatzaren 4rako ordea, italiarrek beraien posizioak finkatu zituzten.



Ciscar destruktorea. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

1937ko ekainaren 10ean, Cervera gurutzaontziarekin tiroketa batzuk izan zituen.

1937ko ekainaren 15ean, Jose Luis Diazekin batera, Bilbotik 288 ebakuatu atera zituzten (adin militarreko 122 gizon zihoazen, haietako asko arduradun militar garrantzitsuak, ihes egiteko aprobetxatu zuten bidaia). La Pallicera (Frantzia) iristean, komandanteak desertatu egin zuen, nahiz eta tripulazioa tiroka hura ekiditen saiatu. Tripulazioak hasiera batean zeramatzan errefuxiatuak ez zituela jaitsiko adierazi zuen, guztia argitu bitartean. Frantsesek portuetan gendarmeria eta armadako indarrak ezarri zituzten eta L' Audacieux eta L' Orage destruktoreak bidali zituzten, tripulazioa bigilatzeko. Baina azkenean guztiak jaitsi eta bertan zeramatzan urre, harri-bitxi… guztiak errekisatu eta ekainaren 20an Santanderrerako bidea hartu zuen. Han bertan, Bilbon sartutako Euskadiko Gudontzidiko marinelen 2/3-ak lehorreratu eta Bilbon lehorreratutako tripulazioko kideak sartu zituzten berriro ere. Lehorreratutako Euskadiko Gudontzidiko marinelak berriro ere beraien bouetara itzuli ziren eta hala izan ez zen kasuetan, Euskadiko Gudontzidiaren jabetzako gainontzeko ontzietan ezarri zituzten. Handik aurrera, gehienbat, Asturias aldean zenbait jarduera bete zituen.

Alejo Bilbao Ciscarreko komisario politikok, bertako tripulatzaileekin elkartasunez, Ciscarretik lehorreratu zen. 1937ko uztailaren 5ean, Santoñan ainguratutako Euskadiko Gudontzidiko buruzagitza hartu zuen. Errefuxiatuen ebakuazio haietako batzuetan Habana itsasontzia eskoltatu zuen.

1937ko urriaren 20an, hegazkin frankistek Gijoneko portua erasotzean, bertan hondoratu egin zen. Frankistek hurrengo egunean atera, Ferrolera eraman eta bertan konponketak eginik, Itsas Armada frankistara batu zen. 1957an zerbitzutik kendu eta desegin egin zuten.

---

[400] 122. orrialdean argazkia ikusgai.

[401] D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko abuztua).

[402] 106. orrialdean argazkia ikusgai.

[403] Lezo Urreiztietaren Matxino ontzian marinela izan zen. Bou Gipuzkoan sugina izan zen.

[404] Bou Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina); Matxino (1936ko urria-1937ko otsaila).

[405] 108. orrialdean argazkia ikusgai.

[406] Bou Bizkaian morroia izan zen.

[407] Bou Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[408] Ikertutako iturri batzuek UGT-koa zela argitzen dute.

[409] 127. orrialdean argazkia ikusgai.

[410] L-5 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko abuztua).

[411] 120. orrialdean argazkia ikusgai.

[412] D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina); D-10ean ere marinel (1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[413] Data hau ez da guztiz zehatza.

Tripulazioa: 175 gudari ziren. Haietatik 15 getariarrek jardun zuten bertan, hain zuzen, Euskadiko Gudontzidiko Intendentziak artatutako uneetan. 1936ko urritik 1937ko ekainera bitartean Jose Maria García-Presno bertako komandantea izan zen. Ekainetik urrira bitartean, Juan Antonio Castro Izagirrek ordezkatu zuen.

Armamentua: 1937ko ekainean, *Vickers* 120/45 mm-ko 4 kainoi, *Vickers* 76,2/45 mm-ko kainoi bat, *Hotchkiss* 13,2 mm-ko metrailadore bat, torpedo jaurtiketarako 6 hodi eta 8 sakonera-karga zituen.

*CISCAR DESTRUKTOREKO GUDARI GETARIARRAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIAK	FILIAZIOA
ARREGI UZIN, ANSELMO[414]	23	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[415]	EAJ/PNV
AZKUE UZIN, LUCIANO[416]	20	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[417]	EAJ/PNV
BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO[418]	20	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[419]	EAJ/PNV-ELA/STV
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS[420]	17	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[421]	EAJ/PNV
BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO[422]	-	Endai-mutila	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[423]	IR
BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN[424]	24	Sugina[425]	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[426]	IR
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO[427]	17	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[428]	ELA/STV
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE[429]	23	Marinela[430]	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)	EAJ/PNV
KAMIO UZIN, ATANASIO[431]	25	Marinela[432]	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[433]	EAJ/PNV
KEREJETA AGOTE, GERARDO[434]	24	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[435]	EAJ/PNV
LETE CORREA, PEDRO[436]	30	Sugina[437]	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[438]	EAJ/PNV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA[439]	26	Sugina[440]	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[441]	IR-UGT
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO[442]	-	Sugina	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria)[443]	EAJ/PNV
UZIN BERASALUZE, SALVADOR[444]	18	Marinela	Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila)[445]	EAJ/PNV

[414] 117. orrialdean argazkia ikusgai.

[415] D-11 (1937ko urtarrila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila); D-19 (1937ko abuztua-1937ko iraila).

[416] 126. orrialdean argazkia ikusgai.

[417] L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina).

[418] Ez dugu bere argazkia lortu.

[419] D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)-(1937ko abuztua-1937ko azaroa); D-22 (1937ko uztaila).

[420] 113. orrialdean argazkia ikusgai.

[421] Mourisca (1936ko urria-1937ko otsaila); Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina).

[422] 108. orrialdean argazkia ikusgai.

[423] Bou Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[424] 106. orrialdean argazkia ikusgai.

[425] Bou Gipuzkoan morroi (1936ko abendua-1937ko otsaila); Endai-mutil (1937ko otsaila-1937ko apirila); Sugina (1937ko apirila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[426] Bou Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[427] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[428] Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina).

[429] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[430] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila), D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar, D-21 (1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

[431] 106. orrialdean argazkia ikusgai.

[432] Bou Gipuzkoan morroia izan zen.

[433] Bou Gipuzkoa (1937ko urtarrila-1937ko ekaina)- (1937ko uztaila-1937ko azaroa).

[434] 114. orrialdean argazkia ikusgai.

[435] Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa); D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila).

[436] 110. orrialdean argazkia ikusgai.

[437] Iparreko-Izarran marinela izan zen.

[438] Iparreko-Izarra (1936ko abendua-1937ko ekaina).

[439] 106. orrialdean argazkia ikusgai.

[440] Bou Gipuzkoan endai-mutila izan zen.

[441] Bou Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina).

[442] 115. orrialdean argazkia ikusgai.

[443] Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko martxoa); D-21 (1937ko martxoa-1937ko ekaina).

[444] 120. orrialdean argazkia ikusgai.

[445] D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila-1937ko abuztua) sukaldaria izan zen.

Beste binakako, kanoa automotore, yate eta txalupa motoredunak beste ekintza batzuetarako ere erabili zituzten: Danak Ondo, Danak Batian eta Marce, esaterako, 1936ko azarotik 1937ko martxora bitartean, praktiko zerbitzuetan erabili zituzten. Baiona eta Bilbo arteko komunikazioak: Severiano Asarta yate donostiarrarekin, Trintxerpe, Kayue eta Txepetx (lehenago Pussycat) txalupa motoredunekin eta bi kanoekin gauzatu zituzten.

1937ko maiatzaz geroztik, hainbat kanoa automotore erabili zituzten: Comandante Moreno (lehengo Isi-Anton), Aitor (lehengo S.C.), Sorgiña (lehengo Cedard Bird), Miren Garbiñe (lehengo Politena) eta Berabille (lehengo Tio Maco). Portu zerbitzuetan Sheabe txalupa motoreduna, Miren Koldobike (lehengo Pili), Trinkertxu (lehenagoko Jaungoikoa Lagun) eta Epailla 5 yatea (lehenagoko Izaro) nabarmendu ziren.

Aipatutako ontzi guztien basea, Portugaleten zegoen eta hauek guztiak kai berrian amarratzen ziren.

Amaitu gabeko proiektuak:

1. Eusko Jaurlaritzak hidrohegazkina erosi zuen eta hau 1937ko uztailaren 30ean martxan jarri zutenean, errepublikarren ehiza-hegazkinek bota egin zuten, ez baitzituen errepublikarren aldeko ikurrik. Bertako lau tripulatzaileak hil egin ziren.
2. Amaitu gabeko proiektuen artean, Egiak Goizeko-Izarra yatearen konfiskazioaren bitartez egin nahi izan zuen eskola-ontzia dago. Defentsako Sailburuak ezetza eman zion. Horren eraginez, Getxon, Igeretxeko bainuetxetik gertuko txalet batean ezarri zuten Armadaren kuartela.
3. Eusko Jaurlaritzak Euskalduna ontziolei 12 kostazain egiteko agindua eman zien, baina ez zen aurrera atera halakorik. 1937ko urtarrilean Euskaldunak 6 kanoi-txalupa egitea proposatu zuen, baina proiektu horrek ere ez zuen aurrera irten.
4. Egiak giza torpedoak egiteko eskatu zituen; apirilean lastertasun handiko 6 torpedo-txalupa errusiar erostea eskatu zuen. Ez zen halakorik gertatu, baina Eusko Jaurlaritzak Parisen zuen Ordezkaritzaren bitartez, kanoetarako torpedoak eskatu zizkion Lezo Urreiztietari. Eta hark, baita erosi ere, baina Bilbo tropa frankistek hartzean, proiektua bertan behera geratu zen.
5. 1937ko otsailean eta martxoan Egiak, Defentsa Sailera, bi txalupa motoredun eskatu zituen, Leikeitio eta Bermeoko arrantza-ontziak babesteko, baina ezezkoa eman zioten.
6. 1937ko apirilean Eusko Jaurlaritzak Misio Militar ezkutukoa jarri nahi izan zuen martxan, baina ez zen aurrera atera, Bilbo tropa frankisten atzaparren artean geratzean.

Operazioak:

Bou batek Santoña eta Matxitxakoko zainketa burutu bitartean, beste bouak Matxitako eta Leikeitio arteko zonaldea zaintzen zuen. Eguna argitzean irten eta iluntzean itzultzen ziren. Gauez konboiak ibiltzen ziren.

Hasierako jarduerak:

Urrian zehar, frankistek, indar-errepublikarren zenbait ontzi harrapatu zituzten. Hilaren 15ean bertan, Pasaiako bouek, Galerna harrapatu zuten; 30ean, España korazatuak, Larroxeletik Castro Urdialesera bitartean zihoan Manu harrapatu zuen. Hilaren 31n, España korazatuak beste bou frankista batzuekin batera, Ingalaterratik Santacaballonera mea hartzera zetorren Arrate-Mendi ontzia harrapatu zuten. Euskadiko Gudontzidia bere bouak prestatzen ari zen, laster, azaro hasieran, hain zuzen, itsas-trafikoa erregulatzen eta babesten hasi ziren.

Eusko Jaurlaritzako Itsas Sailak bere lehen jarduera 1936ko azaroaren 1ean egin zuen. Egun horretan, Leningradetik (gaur egungo San Petersburgo), Andreev merkantzi-ontzia armen kargarekin zetorren. Itsaso zakarra zegoen eta inguruan Köln gurutzontzi alemaniarra zebilen, Bermeo aldean. Joaquin Egiak telegrafo isiltasuna agindu zuen inork bazetoztela atzeman ez zezan eta urriaren 31ko gauerdian Egia bera joan zen Domayo arrantza-ontzian haren bila. Bitartean, C-5 itsaspekoak zainduko zuen ontzi alemaniarra eta Torpedero nº 3 ere portutik irten zen. Egiak merkantzia-ontzia topatu eta iluntzean Bilbon sartu ziren. Köln, C-5 eta torpedontzia ere portuan sartu ziren, eguraldi txarra medio:

"A. Andreeven bodegetan heldu zen Euskadik gerra osoan zehar jaso zuen arma kargamenturik handiena: 15 hegazkin, 30 blindatu, 22 kanoi, 50 mina-jaurtitzaile, 300 metrailadore, 15.000 fusil eta munizio ugari"[446].

Azaroaren 14an, Euzkal-Erria bou armatuak (Augusto Fernandez G. Linares kapitaina) lehen irtenaldia egin zuen. Gauerdian, Mistralekin batera, Portugaletetik irten zuten, Pasaia edo Donostiara zihoan merkantzia-ontzi greziar batek armen kargamendua zeramala jakinda. Haien helburu nagusia, Baionako portuan, Eusko Gudarostearentzat arropa eta hornigaiekin zeuden Ana, Antonieta, Capricho eta Jose Maria merkantzia-ontzi txikiak Baionatik Bilbora babestuta ekartzea zen. Garai hartan, Eusko Gudarostea Legutioko erasoa prestatzen ari zen eta oso ongi etorriko zitzaien gudariei aipatu kargamendu guztia. Bidaia ez zen guztiz segurua, zamen eskolta egitera joan ziren gudariak, ontziak etsaiari emango ote zizkieten beldur ziren.

Hurrengo egunean, Frantziako kostaldera iristen zihoazela Velasco destruktoreak tiro egin zien, eta hauek ere artilleriaz erantzun zioten. Ontzi frankistak Mistral bouaren popa jotzea lortu eta bertako bi gudari zauritu zituen. Borroka ez zen instant horretan amaitu. Haren ostean, Euzkal-Erriak Velasco destruktorearen makina-gela jo zuen, baina bertan zuen kanoi bakarra enkaskilatu eta Mistral boua babesik gabe utzi behar izan zuen. Horren ostean, Velascok Pasaiako porturantz egin zuen. Euzkal-Erria eta

[446] D-11 (1937ko urtarrila-1937ko ekaina)-(1937ko uztaila); D-19 (1937ko abuztua-1937ko iraila).

Mistralek, frantziar uretan sartu arte beraien bidean jarraitu zuten. Hiruetako inork ez bazuen borroka irabazi ere, gudariak, arrantzarako bouekin barku militar bati aurre egiteko kapazak zirela ikusi zuten eta horrek, beldurrak kendu eta gudari haiei guztiei morala igo zien.

Borrokaren ostean, Velasco Pasaiara bidean matxuratuta zihoala, Nazareno nº9 euskal ontziarekin topo egin zuen. Baina aipatu matxuragatik, Baionarantz zihoan ontzi euskaldunari, frankistek ez zioten erasorik egin. Hein handi batean, ontzi errepublikarra frantziar uretan zegoelako ez zion erasorik egin. Hura ere, Baionara bidean zen, 40 boluntariorekin, haien egitekoa, aipatu merkantzia-ontzietako tripulazioa osatzea izango zen, kargamendua Bilboko portura modu seguruan ekartzeko, aipatu gisan, jatorrizko tripulazioaz ez baitziren fio.

Azaroaren 16ko goizaldean, Mistral eta Euzkal-Erria bouak Bilboko portura itzuli ziren. Hauek babesteko, Hispania (Santiago Asolo kapitaina) hogei miliatara irten zen, bi bouei babesa emateko. Itzuleran, Leningradetik (gaur egungo San Petersburgo) kanoi, fusil eta munizio kargamendu batez zetorren Artza-Mendi merkantzia-ontzia eskoltatu zuten.

Azaroaren 17an, Nazareno nº9-arekin batera, Baionatik, kargamendu guztiarekin, arestian aipatutako lau merkantzia-ontziak irten eta hurrengo goizaldean, Euzkal-Erria eta Vendavalek eskoltatuta Bilboko portuan sartu ziren. C-2 itsaspekoa hauek eskoltatzeko irten bazen ere, ez zuten bide osoan zehar ikusi.

Egun horretatik abendu hasiera bitartean, bouen jarduera nabarmen murriztu zen. Euzkal-Erria eta Vendavalek egin zituzten noizbehinkako irteerak, gainontzekoei konponketak egiten ari baitzitzaizkien. Besteak beste, ikatz-ekartzeak, Galdames zein Hidalgo merkantzia-ontzien eskoltak… egin zituzten.

Azaroaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Itsas Sailak eta Bizkaiko Itsas-Armadak, Ondarroa bouez bonbardatzea erabaki zuten, Legutioko erasoa hastera bazihoazen eta haren distrazio modura. Azken momentuan ordea, BIA-k bertan behera utzi zuen planifikatutakoa eta horrek zenbait euskal agintariren artean berebiziko haserrea eragin zuen.

Abenduaren 1ean, Euzkal-Erria, Mistral eta Vendavalek, Baionatik zetorren Mar Rojo merkantzia-ontzia babestu zuten abenduaren 3an Bilboko portura iritsi arte. C-2 itsaspekoak, babes tarte batekin, merkantzia-ontziaren bidea babestea zuen helburu, baina itxura denez bidean galdu eta Iris arrantza-ontziaren kontra egiten amaitu zuen.

Abenduaren 3tik 12ra bitartean, bouek beraien jarduera izugarri igo zuten. Haien onerako, Almirante Cervera eta Canarias gurutzaontziak Mediterraneora borrokatzera joan ziren eta bouek España korazatuari aurre egin behar izan zioten.

Ordutik aurrera, errepublikarren itsas-trafikoa nabarmen hobeagotu zen.

3.2.5. Euskadiko Gudontzidiaren operazioak

Alemaniarekiko istiluak:

Frankisten ontziak, indar-errepublikarreko ontzien kontra Mediterraneora borrokatzera joan ziren. Modu horretan, Bizkaiko Golkoan, kolpistek ontzi gutxi mantendu ahal izan zituzten. Egoera horri aurre egin nahian, frankistek, Bizkaiko Golkoa minatzeari ekin zioten. Hauek, martxora bitartean, Genoveva Fierro, Ciudad de Palma eta beste bou batzuk baino ez zituzten erabili gure itsas-inguruetan. Minaketa saioa ez zen oso efektiboa izan, izan ere, Euskadiko Gudontzidiko miaketariek izugarrizko lana egin zuten haiek guztiak desaktibatzen.

Bitartean, Euskadiko Gudontzidiak, Jose Luis Diez destruktorea abenduaren hasieratik erabili zuen; gainontzekoek matxura ezberdinak zituztelarik.

Abenduaren 14tik urtarrilaren 18ra bitartean, abenduaren 21, 24 eta 25a kenduta, egunero Euskadiko Gudontzidiko bou bateren bat itsasoko lanetan jardunean egon zen. Otsailaz geroztik ordea, ikatzaren jaitsierak, bouen jarduera ere moteldu egin zuen.

Tiro ariketak etab. egitera irteten zuten aldian aldian.

Hurrengo lerroetan, euskal ontziek egindako operazio desberdinen berri jasoko duzue.

Bouen operazioak:

Abenduaren 20an, Bizkaia tiro-probaketak egiten zebilela, merkantzia-ontzi susmagarri batekin topatu zen eta geratzeko agindu zion. Hark geratzeko aginduari muzin egin eta iparrerantz alde egin zuen. Matxitxakoko lurmuturretik 6 mila iparrerantz bistaratu zeuden. Orduan telegrafiaz Bilbora informatu eta gainontzeko bouak abisuan jarri zituzten. Pluto ontzi alemaniarra zen. Gertaera horrek, frankistek, beharrezko hornikuntzetan ere alemaniar nazien laguntza izan zutela adierazten digu.

Bitartean Bizkaiak Pluto ontziari jarraitu zion, hark aurrera jarraitzen zuelarik, harik eta Bizkaiak kanoikada bota arte. Villano lurmuturretik 20 mila ingurura geratu zuen, eta berau, Pasaiatik A Coruñara mea karga batez zihoan alemaniar itsasontzia zen.

Geroago bou Nabarra heldu eta Euskadiko Gudontzidiko bi bouen bitartez Pluto merkantzia- ontzi alemaniarra Bilbora bideratu zuten. Artxandatik ordea, atzerritarrak 3 milatara baino ezin zituztela atxilotu berri eman zioten eta beraz, merkantzia-ontzia libre utzi behar zutela agindu zieten. Halaxe egin zuten. Agindu hura ordea, Eusko Jaurlaritzari inongo kontsultarik egin gabe, BIA-ko buruzagitza zuen Federico Monreal korbeta-kapitainak eman zuen. Handik egun batzuetara Monreal bere postutik kendu eta haren ordez, Valentin Fuentes ontzi-kapitaina BIA-ko buruzagitzan ezarri zuten.

Gertaera haren ostean, Euskadiko Gudontzidiko buruzagitzak, aurretik Euskadiko Gudontzidiko buruzagitzak ez bazuen onartzen, BIA-k emandako agindurik ez zuela beteko argitu zuen. Aurrerantzean, Euskadiko Gudontzidia, Eusko Jaurlaritzaren menpeko izan zen, BIA-rekin ez baitziren fio.

Abenduaren 23an, Jose Luis Diez eta C-5ak, Baionatik zetorren Duero merkantzia-ontzia babestu behar zuten. Haiek ordea beren funtzioa bete ez zutelarik, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nabarra bouak eskolta lana egitera joan ziren. Hilaren 23an merkantzia ontzia aurkitu eta konboian Bilboko portura eraman zuten. Horretan zebiltzala, Bizkaiak ontzi susmagarri bat ikusi zuen, hain zuzen, Palos ontzi alemaniarra zen, Pasaiarako bidean zihoan. Oraingoan, Nabarra eta Bizkaiak, itsasontzia Bilboko portuan sartu zuten, eta frankistentzako zeramatzan armak konfiskatu eta dokumentaziorik gabeko bidaiari espainiar bat atxilotu egin zuten.

Abenduaren 26an, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nabarra, zainketa-lanak burutu bitartean, seinale- ariketak egitera irten ziren. Hurrengo egunean, berriro ere hiru bouak irtetean, Gipuzkoak, Amerikako Estatu Batuetako bandera zeraman merkantzia-ontzi bat bistaratu zuen. Geratzean ordea, Isla de Gran Canaria deituriko ontzi errepublikarra zela konturatu zen, hain zuzen, Valentziatik zetorren Bilbora, elikagaiekin. Bertako tripulazioak Bilboko portua minez josita zegoela pentsatzen zuen, baina Gipuzkoako gudariek ez zela hala adierazi eta Bilboko porturaino sartzen lagundu zieten.

Abenduaren 28an, Könisberg gurutzaontzi alemaniarra Bilboko portuan agertu zen eta hiru bouak zainketa lanetan zebiltzala Bizkaiaren bidez Agirre lehendakariarekin komunikazioan jartzeko deia egin zuen. Alemaniarrek, Agirreri, beraien itsasontzia Palos askatu eta beraien armamentua itzultzeko agindu zioten. Telegrama bidez izandako komunikazio luzearen ostean, Palos epaituta zegoela eta gauerako bidaiatzeko baimena izango zuela berretsi zioten. Gaueko 21:30etan Gipuzkoa eta Nabarraren babesean, Palos Bilboko portutik irten zen. Hala eta guztiz ere, kargamentuaren zati bat eta atxilotua Bilbon geratu ziren. Alemanen haserrearen aurrean, segurtasunagatik, abenduaren 29, 30 eta 31n eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an, 4 bouak itsasora atera zituzten. Urteberri egunean, tripulatzaileetako askok jai hartzeko baimena zutelarik, Gipuzkoa eta Bizkaia baino ez ziren itsasora atera.

Abenduaren 29an, Könisberg berriro ere Bilbo parean agertu zen eta bou Gipuzkoaren bitartez, lehendakariari zuzendutako eskutitz bat bidali zuen. Bertan, Paloseko kargamendu guztia itzultzeko eta bidaiaria aske uzteko exigitu zuten, bestela Alemaniar Reicheko Gobernuak neurriak hartu eta berehala sartuko zirela haiek indarrean adierazi[447]. Badaezpada, alemaniarren ekintzen jardunaren beldurrez, Jose Luis Diez Baionara abiatu zen egunean bertan eta Mar Baltico ontzia hilaren 30ean Bilboraino eskoltatuta ekarri zuen.

Abenduaren 30ean, C-5 itsaspekoa (Jose Lara Dorda KK) bere 42 tripulatzaileekin zeharkaldi bat egitera atera zen eta ez zen gehiago itzuli. Hipotesi batzuek, komandante kolpistak itsaspekoa nahita hondoratu zuela adierazi zuten. Beste batzuek matxura izan zuela eta Ribadesellatik 10-11 miliara hondoratu zela adierazi zuten.

Urtarrilaren 1ean, Könisberg, Santoña parean, Soton merkantzia-ontzia, Gijonetik Bilbora zihoanean, harrapatzen saiatu zen. Sotonek, Santoñaraiko, portura heltzea lortu zuen, baina hantxe hondartuta geratu zen. Egun berdinean, Admiral Graf Spee korazatuak, Almeriatik irtendako Aragon merkantzia-ontzia geratu eta Ceutan sartuarazi zuen.

Urtarrilaren 3an, Könisberg Santoña parean jarri zen eta Punta Pescadorretik 4 miliara arrantzan zebiltzan arrantza-ontzi batzuk hartu nahi izan zituen, atxilotzeko intentzioarekin. Bizkaia zainketa-lanetan zegoen eta arrantza-ontzien parean jarrita, alemanek bira eman beharra izan zuten. Ordu batzuk geroago Könisberg ontziak Marta Junquera ontzi santandertarra harrapatu eta Ferrolera eraman zuen. Gero tripulazioa Lastresen atxilotu gabe utzi zuen. Ontzia Ferrolen geratu zen.

Hori gertatu bitartean, Pasaiako Ontzitaldea berriro ere, Baionarekiko trafikoa eteten ahalegindu zen.

Urtarrilaren 1ean, Galernak (Pablo Suances KK), taldeko beste hiru bouak lagun zituela, Baionatik Santanderrera bidean zihoan Blackhill merkantzia-ontzi ingelesa atzeman nahi izan zuen. Azken honek motorrak topera jarri zituen eta Galernak 33 kanoikada bota zizkion. Bilbo aldera iristen hasi zelarik, Gipuzkoa eta Bizkaiak haren laguntzan irten zuten eta frankistek beraien lana amaitutzat jo zuten. Pasaiara itzultzean, Getaria parean, hegazkin errepublikar batek bi bonba bota zizkion ezer pasatu gabe. Blackhill ondo zegoela ikuskatuta Santanderrera bidean jarri zen eta Miguel merkantzia-ontzia ikusi zutenean, hura eskoltatuz Bilbora ekarri zuten.

Urtarrilaren 2an, berriro ere Pasaiako Ontziteria Taldea beste merkantzia-ontzi bat bonbardatzen saiatu zen, baina Jose Luis Diez destruktoreak erantzunda geratu egin ziren. Lau euskal bouak, bitartean, zainketa lanean ari ziren, eta Sotonen errekuperazio lanak babesten. Destruktoreari laguntzeko abisua jaso zuten arren, ez ziren garaiz heldu, eta etsaiaren patruilaontziak ziztu bizian joan ziren, ihesi, beren baseko babesaren bila; Diezek ez zuen tiroekin asmatu eta, ulertzen zaila bada ere, ez zien segitu. Soton, berriz, azkenik askatu zuten eta Jose Maria Martinez bou armatuak Santanderrera erremolkean eraman zuen; Araba eta Jose Luis Diez ere hara joan ziren eskolta gisa Bilbora itzuli baino lehenago.

Egoera horren aurrean, Euskadiko Gudontzidia, Baionako arrantzaleekin harremanetan jarri zen, Baionatik Matxitxakora bitartean jarduten zuten arrantza-ontzien babes-sarea osatu ahal izateko. Harreman horiek Manuel Atejada Eusko Jaurlaritzako Baionako itsas-ordezkariaren bitartez gauzatu zituzten. Domayo itsasontzia Baionan zegoen eta hura aprobetxatuz, Eusko Jaurlaritzako mezuak bertara iristen zitzaizkion ordezkariari. Zenbaitetan ordea, bou frankistek haiek gelditu eta arrantzaleak zirelakoan, zenbait arrantza-ontzi atxilotu zituzten. Atxiloketa haiekin ordea, arrantzaleak beldurtu eta babes-sarea bertan behera geratu zen.

Frankistek Bilbo minatu zutenekoa

1936ko irailaren 24an, Velasco destruktoreak, Bilboko portuan lehen minaketa egin zuen. Galea eta Luzero lurmuturren artean, guztira 40 mina ezarri zituen. Egun haietan Flota Errepublikarra Mediterraneotik itzultzear zen eta Bilboko portura sartzea ekidin nahi zioten. Egun hartan bertan, Marce eta Danak Ondo arrastontziek minak aurkitu eta hilaren 26an Escaño, Jose Luis Diez eta

[447] *Ibidem*, 76.or.

Almirante Antequera Bilboko portura sartu ahal izan zituzten eta hilaren 29an Flotako gainontzeko zatia sartu zuten. Torpedero nº3-k ere minen kentzean lagundu zuen.

Alemaniarrekiko liskarrak amaitu ostean, urtarrilaren 5etik 18ra bitartean, larrialdi-uneak amaitu eta bitartean, egunean hiru edo bi bourek baino ez zuten irteten.


Urtarrilak 7tik 8rako gaua: Gipuzkoa (Manuel Galdos komandantea) eta Nabarra (Enrike Moreno komandantea) bouak gauerdia pasatxo Portugaletetik irten ziren eta Jose Luis Diez desktruktoreak berdina egin zuen Santanderretik. Ijora, kargamendu militarra zekarren merkantzia-ontzi sobietarra babestu behar zuten. Nabarra azkena irten zen, hain zuzen, matxura txiki bat konpondu beharra izan zuelako. Nabarrak, ordu bata aldera, branka edo proa Bilbo aldera zuen merkantzia-ontzi bat eta destruktorea ikusi zituen eta Ijora eta Jose Luis Diez zirela pentsatuta argi-seinaleak egin zizkion. Merkantzia-ontziak ziaboga egin eta itsaso zabalera egin zuen eta destruktoreak tiroka egin zion Nabarrari. Nabarrak orduan kanoikada bota zion merkantzia ontziari berau hartzeke eta destruktoreari metrailaz tiro egin zion. Destruktorerantzat kanoia bideratu eta itsaso zabalera ihesi zihoala hiru tiro egin zizkion. Tiroek ez zuten ontzi bakar bat ere jo. Nabarrak borroka egindako baporea Genoveva Fierro (Jose Maria Ragel KK) eta honen eskolta Velasco destruktorea (Francisco Núñez Rodríguez KK) ziren eta hauek, Bilbo inguruan mina eremua prestatzeko nahian zebiltzan, Nabarrak, hori ekidin egin zuen. Españak ere (Luis de Vierna Belando FK[448]) dispositiboan parte hartu zuen. Ijora Bilbora iritsi zen, baina Velascok, Smidovich sobietar barkua harrapatu zuen, zeinak Bilborako elikagaiak zekartzan.

Urtarrilaren 10ean, Gipuzkoa, Araba eta Nabarrak, Nantesetik zetorren Marzo baporea babestu zuten.

Urtarrilaren 12an, Gipuzkoa eta Nabarrak Baionatik zetorren Candinarekin, zerbitzu berdina egin zuten eta gero Gobeori, Ingalaterratik iristean, sartzen lagundu zioten. Egun berean, Jose Luis Diez destruktorea, Sil baporea eskoltatzeko, Bilbotik irten zen, Veracruzen gerra material pila garrantzitsu bat ontziratu baitzuen azken honek Santanderra eramateko; elkarrekin sartu ziren Kantabriako hiriburuan eguerdian, eta destruktoreak inguruan bota zuen aingura, bere artilleriaz deskarga babesteko, aireko erasoren bat izan zitekeen eta. Bitartean, Velascok, Aviles parean, 20 mina eta 29 arrastakontrakoak finkatu zituen.

Hilaren 13an, goiz erdian, Galea lurmuturrean jarri berriko kostako bateriak bere lehen erasoa egin zuen España eta Velascoren kontra tiro eginez, Abra parea zeharkatzen ari zirelarik, kostatik 15.000 metro ingurura.

Urtarrilaren 15ean, Goizeko Izarrak (Antonio Zinkunegi kapitaina) eta Iparreko Izarrak (Pedro Ruiz de Loizaga kapitaina) bere lehen zainketa zerbitzua egin zuten. Hilabete horretan bouek izan zuten azkeneko egiteko garrantzitsuak atzera Araba, Gipuzkoa eta Nabarra bildu zituen. Hilaren 16ko egunsentian basetik irten ziren, Mar Rojo baporea Bilboko sarreraraino eskoltatzeko, egun horretan bertan goizez ailegatzekotan baitzen. Jose Luis Diez aldi berean Santanderretik atera zen, operazioan laguntzeko. Irten bezain pronto Gipuzkoak itzuli egin behar izan zuen, matxura txiki batzuk tarteko, eta beste ontziek merkantzia-ontziaren zain jarraitu zuten. Mar Rojo berandutu egin zen, eta aurkitzerako gaua sartuta zegoen. Azkenean hilaren 17ko goizaldean Portugaleten sartu zen, bere eskoltak lagunduta. Egiteko hau burutzearekin batera ontzi frankistek berriro ekin zioten Bilboko sarrerak minatzeko ahaleginari.



INFORME

Ante la presencia de buques faccioso y alemanes por estas aguas y previendo la contigencia de un nuevo fondeo de minas, se ha visto esta Jefatura de Marina en la precisión de redoblar y reforzar la vigilancia permanente establecida en el Abra de Bilbao.Esta vigilancia se ejerce a base de cuatro embarcaciones y que evolucionan permanentemente dos a dos entre Castro y la punta de Villano,relevándose entre sí por cada 24 horas.

Contribuía a dar fuerza a la sospecha apuntada el hecho de tener conocimiento por medio del representante en Bilbao de cierta poderosa Potencia extranjera,de que se creía saber que los facciosos pretendían sembrar de minas el acceso al puerto de Bilbao,y recomendaba a su vez la mayor vigilancia posible, para tratar de evitar la consumación del hecho.

La eficacia de las medidas adoptadas, y que siguen en vigor, lo evidencia el hecho de que la noche del 7 del corriente se encontrara el "NABARA"cerca del Abra con un buque sospechoso, al parecer el"VELASCO", con el que sostuvo cañoneo y al cual acompañaba un buque mercante de poco tonelaje. Todo parece indicar que los supuestos buques facciosos trataban de llevar a efecto el temido fondeo de minas, siendo frustados en su intento, [illegible] habían respaldados en su intento por el acorazado [illegible] visto al siguiente amanecer por el "GIPUZKOA" cuando navegaba al Este del Abra de Bilbao.

Pero como para reforzar la referida vigilancia se resurre a nuestros "bous"armados,nos vemos por ello privados, en parte, de disponerlos para otros muy necesarios servicios, y es por ello por lo que al que suscribe se permite sugerir con todo respeto a V. E. la idea de que para el refuerzo nocturno de nuestro referido servicio permanente de vigilancia se dispusieran por el mando correspondiente los servicios del "TORPEDERO Nº 3º, surto en Portugalete, e inactivo en la actualidad.

Este "TORPEDERO", debido a sus características y demás, resulta ineficaz para el servicio armado por el Cantábrico; pero no obstante, debido a lo limitado y abrigado de la zona en que tendría que actuar, y aprovechando la circunstancia de que sus disposs de artillado y tripulación completa en activo, podría coadyuvar,siempre que las circunstancias de mar y viento lo permitieran, en servicio nocturno de vigilancia entre Castro y punta de Villano, desde la puesta del Sol hasta el amanecer, con lo cual se podría disponer libremente de nuestros "bous" para otros servicios de mayor envergadura, atendiendose debidamente en la forma expuesta la vigilancia que requiere el Abra en las circunstancias del momento.

Es cuanto tengo que sugerir a la alta consideración de V.E.

Bilbao 12 de enero de 1937.

EL JEFE DE MARINA

Excmo. Sr. CONSEJERO DE DEFENSA.

Nabarraren eta Velascoren arteko borroka. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hilaren 16ko goizaldean Genoveva eta Velascok 97 mina eta 50 arrasta-hausle jartzea lortu zuten, Castro Urdiales inguruan hesi bat eratuz. Goizean bertan portuko sarreran lanean ari ziren unitateek, lehenbiziko minak aurkitu zituzten. Egun horretan bertan, gauez, Goizeko-Izarra eta Iparreko-Izarra bouak atera ziren. Gauerdia baino lehentxeago, Iparrekok leherketa handi bat entzun zuen, eta ordu eta laurden geroago beste bat. Hurrengo egunean jakin zuten arrazoia: Goizeko- Izarrak mina baten kontra jo zuen, bere 17 tripulatzaileekin. Bertan, gerra hastean Getarian bizi ziren hiru gudari hil ziren: Jose Maria Aranguren Ondarra, Ignacio Lekube Goenaga eta Bienvenido Urkidi Arrieta.

Gauez, Genovevak zeramatzan 97 mina eta Velascoren 50 arrastakontrakoak Castrotik 2 milia ekialdera hasiz IE norabidean Villano lurmuturraren ingururaino iristen zen hesi bat eratu zuten.

BIA-k minen miaketa bideratu zuen. Operazioen zuzendaritza Torpedero nº3-ko komandanteak hartu zuen bere gain, Julian Sanchez-Gomez ontzi-alferezak alegia.

[448] Fragata-kapitaina.

Hilaren 18an, dragatze lanak hasi berriak zirela, Itsas Poliziaren Pirulo txalupak, Luzero lurmuturretik 4-5 milia iparrera, mina bat ikusi zuen, eta buia batez balizatu zuen. Haren ostean, Arco eta Iris miaketariei hara joateko abisua eman zien. Seinalizatutako mina indargabetzen ahalegintzean beste bi lehertarazi zituzten; hauetako batek arrastatzat erabiltzen ari ziren kablea eten, eta lana bertan behera laga behar izan zuten. Orduan Jaimin eta Mari-Toya binakakoei hots egin zieten, ordezka zitzaten. Mari-Toyan, Julian Sanchez-Gomez ontzi-alfereza eta miaketa zerbitzuen zuzendaria zihoan.

Bi miaketariak, Nazareno nº9 txalupa motoreduna aurrean zutela miaketan hasi ziren. Mari-Toyak, 14:30ak aldera, balizatik 150 bat metrora jarritako mina bat jo eta zeharo azkar hondoratu zen. Tripulatzaileetako 6 hil ziren istripuan, tartean, aurreko lerroetan aipatu gisan, Jose Agustin Olaskoaga Zubimendi gudari getariarra, Julian Sanchez-Gomez ontzi-alfereza eta, Manuel Basante Rodet ontziaren patroia.

Mina haiek, Bilboko sarrera ixtera ez ziren heldu, bai ordea egun batzuetan zehar portuan sartu-irtenean zebilen ontzi kopurua murriztera. Astebete igaro aurretik ontzien trafikoa normaldu egin zen, Castro Urdiales inguruan, miaketariek kostatik hurbileko korridore txiki bat garbitzea lortu zutenean. Pixkanaka-pixkanaka korridorea zabalduz joan ziren.

Apiriletik aurrera, Bilbo inguruko kosta minatzeaz arduratutako ontzi frankistak Velasco, Felisa Rodal, Rodal Barreiro, Genoveva Fierro eta Jupiter izan ziren. Horretarako, frankistek alemaniarrei EME motakoa eta erasokoa deitutako 500 mina erosi zizkieten, 1936ko abendurako Cadizera ekarriz. Hauetatik 200 Ferrolera eraman zituzten.

Apirilaren 29an, Velascok Bilboko ekialdeko sarrerak ixtearren, Galea lurmuturretik iparraldera, 60 minako hesi bat ezarri zuen. Hauek ere miaketari-zerbitzuak kendu egin zituen.

Minekin batera, arrasta-hauslea edo arrastakontrakoa eta txibia ere deitutakoa erabili zuten: miaketarien miaketa aparejuak haustea helburu zuen, minaz jositako eremua babestea alegia.

Kontrako kasuan, Armada Errepublikarrak zituen mina bakarrak, frankistei kendutakoak ziren eta ez zuten minatze-operaziorik egin. 1936ko abenduan, Santander inguruan mina babes-sare bat osatu zuten. Magdalenako hondartzako aurreko sarrera-kanalean, errepublikarrek, 13 lehergailu ezarri zituzten. Lehorretik lehertzeko prestatuta zeuden, Errege Jauregia izandakoaren zalditegitik, sistema elektrikoa baitzuten.

Bilbo tropa frankisten menpe geratzean, Santander eta Asturiasko eremuetan garbiketan euskal miaketariak aritu ziren. Ahalegin horiek ez zioten inolako kalterik eragin portu horietako trafikoari.

Frankistek haren bitartean, mina kaxkarrak izateagatik eta euskal ontziteriaren lan bikainagatik merkantzia-ontzi errepublikarren trafikoa galaraztea ez zuten lortu.

Matxitxako lurmuturreko borroka

Euskadiko Gudontziko gudari getariarrek, iparreko gerra osoan zehar, izugarrizko balentriaz beren egitekoak burutu zituzten. Balentria eta kemen handiko gudariak ziren, tropa frankistek gerrarako armamentu punta-puntakoaz hornitutako ontziei aurre egin baitzieten arma xumez hornitutako bakailao-ontziekin. Hura adorea eta garra gudari getariarrena, ardura politikoz, gerran borrokatzeko boluntario gisa zerrendatutako marinel jatorriko herritarrena.

Euskadiko Gudontzidia sortu zenetik, 1937ko martxora bitartean egindako betekizunetan, aurreko orrietan erreparatu dugunez, jarduerak ongi baino hobeto bete zituzten. Martxoa, Euskadiko Gudontzidiarentzat hilabete iluna bilakatu zen, hain zuzen, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko bataila galdu ostetik. Batailan zehar, euskal gudariak balentria handiz jokatu zuten, bertan aurre egin zioten Canarias gurutzaontzi frankistako buruzagi eta marinelek ere berretsi zutenez.

Itsas Armada frankista, borroka testuinguruan

1937ko martxoaren 3an, Canarias gurutzaontzi frankista, matxura batzuk konpondu ostean, Ferroletik Mediterraneo aldera abiatu zen, bertan ere indar-errepublikarren aurka borrokatzeko asmoz. Harako bidean zela, Estatu Nagusiko Buruzagiak berriro ere Ferrolera itzuli zedin agindu zion, gurutzaontzia, Castro Arizkun Departamenduko Komandante nagusiaren eskuetan utziz. Handik aurrerako helburua, indar-errepublikarrentzat arma kargamendu handiarekin zetorren Mar Cantabrico merkantzia-ontzia bere helmugara ez iristea izan zen.

Hori lortzeko, Salvador Moreno ontzi-kapitainaren gidaritzako Canarias gurutzaontziak Bilbo parean ezkutuan jarriz, eremu hura zainduko zuen. Joaquin López Cortijo ontzi-kapitainaren gidaritzapeko España korazatua, Santander parean jarriko zen eta Juan Jose Jauregi korbeta-kapitainaren gidaritzapeko Ciudad de Valencia Gijon parean ezarriko zen. Bitartean, Galerna bouak, zainketa-zerbitzua eginen zuen, Frantziako itsasbazterretatik Lorairen bokaleraino igoz. Pasaiako bouek eta Francisco Nuñez korbeta-kapitainaren gidaritzapeko Velasco destruktoreak, itsas-basetik ipar mendebalderako zainketa-hesia osatu zuten. Ribadeoko itsas-basekoek berriz, Estaca de Vares meridianoaren inguruan. Indalecio Nuñez korbeta-kapitainaren meneko Ciudad de Palma gurutzaontziak, Ouessant irla bretainiarraren ingurura joan behar zuen.

Aurreikusitako plana burutu baino lehen, Canarias gurutzaontzia oraindik ere Ferrolen zela, Galdames merkantzia-ontzi errepublikarra Baionatik irten zela adierazi zioten, bou batzuek eskoltatuta eta agian, bertan Jose Luis Diez destruktorea ere egonen zela. Hori jakinik, Castro Arizkunek, Canarias gurutzaontziari konboi errepublikarra suntsitzeko agindua eman zion, hau lortzeko zereginetan askatasun osoa emanez.

Itsas Armada frankistak iparraldeko itsasoan erabateko nagusitasuna zuen. Indar-errepublikarren merkantzia-ontzien aurka ofentsibak prestatzeko ontzi nahikoa zuen eta hauek suntsitzeko adina indar ere bazuen. Bitartean, indar-errepublikarren alde-

ko euskal ontziek defentsarako indarrak baino ez zituzten, zeuzkaten baliabide materialak kontutan hartuta, frankisten ontzien aurkako ofentsibarik ezin izan zuten burutu. Azken hauen erasoen aurrean, defendatzeaz arduratu ziren. Horrek, beste behin, gudari haiek guztiek zuten adorea goratzera garamatza.

Galdames merkantzia-ontzia Baionatik babesten

Itsasoko testuingurua halakoa zelarik, Galdames ontziak handik irten nahirik Baionan denboralditxoa zeraman. Azkenean, Euskadiko Gudontzidiko goi-agintariek baiezkoa eman ostean, Galdames merkantzia-ontzia babesteko, 1937ko martxoaren 4ez, Portugaleteko itsas-basetik Bou Nabarra, Bou Donostia, Bou Gipuzkoa, Bou Bizkaia eta Jose Luis Diez destruktoreak konboia osatzera bidali zituzten. Jose Luis Diez destruktoreak lehena irteten izan zen; gainontzekoek, goizean, oilarraren lehen kukurrukuarekin irten zuten. Galdames merkantzia-ontzia, zeinak 173 bidaiari, Belgikan Eusko Jaurlaritzarentzat eginiko 3 tona nikelezko txanpon eta beste zenbait hornigai zeramatzana, 21:00etan hitzartutako tokian gainontzeko bouekin elkartu zen.

Hala, Bou Nabarra eta Bou Donostia, Galdames merkantzia-ontziaren istriborrean kokatu ziren eta, Bou Gipuzkoa eta Bou Bizkaia berriz, ababorrean. Konboi hartan, getariar gudariak ere baziren.



Galdames merkantzia-ontzia. (Juan Pardo San Gilen liburutik).

Bou Nabarran, Meltxor Albizu Indo, Periko de la Hoz Kintana, Jose Miguel Iñarra Esnal, Antonio Ituarte Etxebarria, Julian Lekube Burgaña eta Enrike Manterola Agote gudari getariarrak gainontzeko tripulazioarekin batera zihoazen.

Bou Donostian, Nikasio Kerejeta Agote gudari getariarra zihoan gainontzeko herrietako gudariekin.

Bou Gipuzkoan, Manuel Aranguren Iñarra, Juan Burgaña Etxebarria, Atanasio Kamio Uzin, Enrike Darkistade Garai, Jose Manuel Errazkin Aizpuru eta Jose Olaskoaga Zubimendi gudari getariarrak Euskadiko Gudontzidiko gainontzeko gudariekin zihoazen.

Bou Bizkaian, Gregorio Berasaluze Egaña eta Luis Esnal Agote gudari getariarrak gainontzeko Euskadiko Gudontzidiko gudariekin zihoazen.

Jose Luis Diez destruktorean berriz, oraindik ez zegoen gudari getariarrik.

Euskadiko Gudontzidiko marinelen morala gogor astinduko zuen bidaia hastear zen.

Halako bidaiak, tropa frankisten itsasontzien mehatxuaz jabetuta, gauez egiten zituzten; beti ere, haiek erasotzeko probabilitatea txikiagoa baitzen. Arrisku biziko bidaiak gauzatzen zituzten, itsasontzietako argiak itzalita, ilunpean eta, irratiak ere itzalita. Hori gutxi ez balitz, euskal konboia, izugarrizko ekaitz malapartatuak harrapatu zuen. Sagailo handiaren bortizkeriaz, Galdames gero eta istriborrerago desbideratzen hasi zen eta horren eraginez, Bou Donostia eta Bou Nabarrak, uste baino iparralderago egin zuten beren eskolta-lana. Haiek beren bidea jarraitu bitartean, Bou Bizkaia eta Bou Gipuzkoak beren begiradapetik galdu zituzten.

1937ko martxoaren 5eko goizaldean, Bou Bizkaia eta Bou Gipuzkoa konboia aurkitzen saiatu ziren. Horretarako, Bou Bizkaiak Villano lurmuturretik ekialderantz, ordura arte eginiko bidea jarraitu zuen; aldiz, Bou Gipuzkoak, Villano lurmuturretik mendebalderako bidea egin zuen, Santoñaraino.

Euskadiko Gudontzidiaren nahigabearen hasiera

Euskadiko Gudontzidiaren nahigabea hastear zen, Canarias gurutzaontziak 12:55 inguruan, Bou Gipuzkoa itsasertzetik 10 milia ingurura ikusi zuen, azken hau Bilborako bidean zela. Gurutzaontzi frankista, Santander inguruan harrapatutako Yorkbrook merkantzia-ontzi estoniarrarekin Pasaiako porturako bidean zihoan, zeinak indar-errepublikarrentzako arma-kargamendua zuen. Une horretan, Canarias gurutzaontziak 30 korapiloko lastertasuna jarriz, Bou Gipuzkoarengana zuzenean joaten hasi zen.

Bou Gipuzkoak gurutzaontzi handiaren aurka gogor egiterik ez zuela ikusita, Bilboko portura ahalik eta lasterren bideratzen hasi zen. Ahaleginak ahalegin, Canarias gurutzaontziak Bou Gipuzkoa 6.000 metrotara zuenean, 120 mm-ko piezez euskal bouari tiro egin zion. Euskal gudariak beren adorez, Canarias gurutzaontzia tirokatu zuten. Minutu gutxira ordea, Canarias gurutzaontzi frankistak botatako kanoikadaz, popako kanoian jo eta bertako bi artillariak hil eta beste zenbait zauritu zituzten.



Canarias gurutzaontzi frankista. (Juan Pardo San Gilen liburutik).




Bou Gipuzkoa Abran borroka baino lehen. (Peru Ajuriaren Artxibategia).



Canarias guruntzaontzi frankistak Bou Gipuzkoaren popako kanoiari emandako kanoikada. (Peru Ajuriaren Artxibategia).



Bou Gipuzkoa sutan, Canarias gurutzaontzi frankistaren kanoien bidezko erasoaren ostean. (Juan Pardo San Gilen liburutik).



Bou Gipuzkoa konponketa-lanetan. (Peru Ajuriaren Artxibategia).

Bou Gipuzkoako gudariek, oraingoan, brankako kanoia erabiliz, Canarias gurutzaontziko "B" behaketa-postuko kasetatxoan jo eta hildako bat eta zauritu bat eragin zituzten. 13:45 aldera, oraindik ere borrokak jarraitzen zuelarik, Canariasek 203 mm-ko kanoiak erabiliz, Bou Gipuzkoaren aginte-zubian sute handia eragin eta, 2.ofiziala, telegrafista eta lemaria hil eta, Manuel Galdos komandantea zauritu egin zuten.

Morala jaitsita egon zitekeelako jakitun, Manuel Galdos komandanteak popan jarritako lema hartu eta Bilborako bidea jarraitu zuen. Canarias gurutzaontziak hura jazartzen jarraitu zuen, eta halako batean, haren nahigaberako, Galea eta Luzero lurmuturreko gudarien tiroek, 14:00ak aldera gurutzaontzi frankista iparraldera jotzera behartu zuten.

Horren bitartean, 13:10 aldera, Bou Bizkaiak, Yorkbrook merkantzia-ontzi estoniarra Matxitxako lurmuturretik 12 milia iparraldera aurkitu eta Bermeoko portura babestuta eraman ahal izan zuen. Arratsaldeko 15:00etan Bermeora iritsi ziren eta gauez, Joaquin Egia zenbait agintarirekin hurbildu zen, martxoaren 6 eta 7an egingo zen ontzi-hustuketa antolatzeko.

Bou Bizkaiak ez bezala, Jose Luis Diez destruktoreak, euskal bouei laguntza eskaini beharrean kontrako jarrera izan zuen. Artxandan kokatutako BIA-ren irrati-estazioarekin bataila osoan zehar komunikazioan egon bazen ere, eguraldi txarra eta matxura bat aitzakiatzat jarrita, iparrerako bidea hartu eta 15:30etan Bordelerako bidea hartu zuen. Arestian argitu dugunez, bere komandante Carlos Moya ontzi-alferezak beste bost ofizialekin batera martxoaren 8an alderdi frankistara batuz desertatu egin zuen. Indar-errepublikarrak gehiago izorratze aldera, destruktoreko propultsio turbinetako engranaje ezkutuetan zenbait lima jarriz, martxan jartzera matxurak eragiteko.

Bou Gipuzkoak, azkenean, 5 hildako eta 12 zaurituekin, sutan eta matxura handiez, arratsaldeko 15:00etan Portugaleten sartzea lortu zuen. Zaurituen artean, Manuel Aranguren Iñarra, Juan Burgaña Etxebarria, Atanasio Kamio Uzin eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden. Bou Gipuzkoako hildakoen artean gudari getariarrik ez zen izan.

Bou Nabarraren borroka eredugarria

Bou Nabarra eta Bou Donostiak, ez zuten gertatutakoaren berririk jaso, harik eta Bou Nabarrak bere irrati-antena jaso zuen arte. Konboiko hiru ontziak, bidean batutako Pantzeska eta Joseba Mikel arrasteko ontziekin Bilboko portura bidean zihoazen. Bou Nabarrako Enrike Moreno komandanteak, azken berriak jasotzean, konboi osoari, iparrerako norabidea hartzeko agindu zion. Handik gutxira ordea, Canarias gurutzaontzia bistaratu eta branka lehorrera bideratu zuten.

Arratsaldeko 15:07ean, lehenik, Canarias gurutzaontziak, 10.000 metroko distantziatik Bou Donostiari tiro egin zion. Proiektiletako bat, tximiniaren eta zubiaren artean igaroz, metalezko tirante bat okertu eta metraila batzuk iritsi bazitzaizkien ere, inolako bajarik ez zuen eragin. Bou Donostiako gudariek ezin izan zieten eraso, haien kanoien potentzia ez baitzen horrenbeste metrora iristen.

Bou Nabarrako Enrike Moreno komandanteak egoera hura ikusiz, gudari guztiak bildu zituen eta hura itsasontzia hondoratu arte ez zela errendituko adierazi zien. 15:10ean, Canarias gurutzaontziak Bou Nabarra 7.000 metrotara zuela probesturik, artilleria guztiaz eraso zuen. Bou Nabarrako gudariak ere indar betez ontzi frankistaren erasoari erantzun zioten. Une horretan, Pantzeska eta Joseba Mikel arrasteko ontziek alde egiteko probestu eta gau horretan bertan Castro Urdialesen sartu ziren.



Bou Gipuzkoa Abran borroka baino lehen. (Peru Ajuriaren Artxibategia).



Bou Donostia Nabarrako tripulanteak sorosten. (David Cobben olio-pintura).

Bou Nabarrak Gipuzkoak bezalaxe, Canarias gurutzaontzia kanoikadaz jo zuen, ababorreko amulan, mailatu txiki bat eraginez. Beste proiektil batzuek masta eta antenetan zeharka jo zuten. Bou Nabarrako gudariek gogor borrokatu ziren beren baina askoz handiagoa eta armamentu eraginkorreko gurutzaontzi frankistaren aurka.

Gurutzaontzi frankistak ordea, izugarrizko potentzialа izaki, metraila-printza bidezko lehen hilketa gauzatu zuten Bou Nabarran. Haren ostean, zubian jotako inpaktu baten eraginez, euskal bouko lemaria hil eta 2. Ofiziala larriki zauritu zen. Ordubete luzeko borroka izan zen, eta Bou Nabarrak eguraldi ankerra izan zuen lagun, Canarias gurutzaontziari tinko aurre egiteko. Materialki indartsuenak irabazten duelako legeari jarraiki, Canarias gurutzaontziaren 203 mm-ko tiro batek makina-gelan jo eta makinari guztiak hiltzean, Bou Nabarra nork gidatu ez zutela noraezean geratu ziren. Azken inpaktu baten eraginez, tripulatzaileek ontzia uztea erabaki zuten. Enrike Moreno komandanteak, lehen ofizialak eta beste batzuek, ontzi berarekin hondoratu eta itota hil ziren. 49 tripulatzaile haietatik 20k beren bizia salbatzea lortu zuten, batzuk ahaleginean itota hil zirelarik.

Bou Donostia txalupa haietako batengana hurbildu zen, salbatzeko; baina haiek, salbu zirela esanez, bertatik ura ateratzeko ontzi batzuk besterik ez zizkieten eskatu eta beraiek salbatzeko adierazi zieten. Bou Donostiak martxoaren 6ko goizaldean Arcachonen (Frantzia) sartzea lortu zuen.

Canarias gurutzaontziak naufragoak hartu eta atxilotu egin zituen. Haren ostean, Bou Nabarrak, jasandako leherketa baten eraginez, hondoratu egin zen. Ordura arte motorrak kenduta egondako Galdames merkantzia-ontzia ere Canariasek harrapatu eta Pasaiako portura eraman zuen. Han, bidaiarietako batek ihes egin nahian uretara jauzi egin eta frankistek bi aldiz pentsatu gabe tiroz hil zuten.

Matxitxako lurmuturreko batailaren ondorioak


Guztira, borroka anker hartan, 34 euskal marinel, Galdameseko 5 bidaiari eta Canariasen marinel bat hil ziren. Hildakoen artean, Meltxor Albizu Indo, Jose Miguel Iñarra Esnal eta Antonio Ituarte Etxebarria gudari getariarrak zeuden.

MELTXOR ALBIZU INDO


Jaiotzez getariarra baina gerra hastean Mundakan bizi zen; lanbidez, marinela zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoen eta ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarien zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko abenduaren 10ean Bou Nabarrako gudari izendatu zuten, artilleriako postuan. Euskadiko Gudontzidiko gainontzeko bou armatuen gisan, Bou Nabarrarekin, indar-errepublikarrei hornigaiak, armak… ekartzen zizkieten merkantzia-ontzien zainketa-lanetan parte hartu zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, 1937ko martxoaren 4-5ean, Baionatik Bilbora zetorren Galdames merkantzia-ontzia babesteko Bou Gipuzkoa, Bizkaia eta Donostiarekin sortutako konboiarekin bat eginik zetorrela, beren ontzia, Bou Nabarra Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zuen. Matxitxako lurmuturreko batailla hartan, Meltxor Albizu Indo gudari getariarra Canarias gurutzaontzi frankistako kanoikadak hil zuten. Une hartan, 28 urte zituen eta ezkongabea zen.



Meltxor Albizu Indoren heriotza-akta. (Getariako Erregistro-Zibila).




Meltxor Albizu Indoren heriotza-agiria. (Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa).



Meltxor Albizu Indoren heriotza-agiria. (Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa).

JOSE MIGUEL IÑARRA ESNAL

Gerra hastean, Getarian bizi zen. ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko azarotik abendura bitartean Hispania bouan (gerora Araba izenpetu zutena) euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanak bermatu zituen. Abendutik aurrera, Bou Nabarran ontziratu zuten. Bi itsasontzietan, sugin-lanak egin zituen. Meltxor Albizu Indo eta Antonio Ituarte Etxebarriarekin batera, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturrean Canarias gurutzaontzi frankistak eraso egitean hil zuten. 52 urte zituen eta ezkongabea zen.



GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre José Miguel
Apellidos IÑARRA ESNAL
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Sindicato Solidaridad de Trabajadores Vascos
Destinos Fog. HISPANIA (11-36/12-36); Fog. NABARRA (12-36/3-37)
BAJA
Tipo de baja Fallecido
Fecha 5 de marzo de 1937
Causa Combate
Edad 52

Jose Miguel Iñarra Esnal Matxitxako lurmuturreko borrokan eraila. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

ANTONIO ITUARTE ETXEBARRIA

Mutrikuarra jaiotzez, baina gerra hastean Getarian bizi zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz eta marinela izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik, Bou Nabarrarekin, euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanetan jardun zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, Galdames merkantzia-ontzia Baionatik Bilbora Bou Nabarran bera, Bou Bizkaia, Gipuzkoa eta Donostiarekin batera babesten ari zirelarik, Matxitxako lurmuturrean, Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zituen. Frankisten gurutzaontziarekin izandako 1937ko martxoaren 5eko borrokan, erail egin zuten. 34 urte zituen eta ezkongabea zen.

Canarias gurutzaontzian atxilotutako 20 marinelak epaitu eta hasiera batean heriotz-zigorrera kondenatu zituzten. Atxilotuen artean, Periko de la Hoz Kintana, Julian Lekube Burgaña eta Enrike Manterola Agote zeuden.



GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Antonio
Apellidos ITUARTE ECHEVARRIA
Natural de Motrico
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Maja. NABARRA (12-36/3-37)
BAJA
Tipo de baja Fallecido
Fecha 5 de marzo de 1937
Causa Combate
Edad 34


Antonio Ituarte Etxebarriaren Matxitxako lurmuturreko borrokan eraila.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).



GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Julian
Apellidos LECUBE BURGAÑA
Natural de Motrico
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Paj. NABARRA (12-36/3-37)

Julian Lekube Burgañaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



EUZKADIKO JAURLARITZA
GOBIERNO DE EUZKADI

Excmº Sr. Consejero de Defensa.

Excmº Sr.:

Habiéndose informado esta Jefatura por mediación de las Autoridades Consulares británicas de esta Villa de la existencia de 18 tripulantes de la hoja doteación del bou "NABAÑA" prisioneros de los facciosos en Donostia, únicos supervivientes de los 49 hombres que formaban la tripulación a su salida de nuestro puerto en el último servicio regresado, y habiendo llegado el rumor a esta Jefatura de que las autoridades del campo faccioso pretenden objetar respecto a la integridad personal de estos 18 hombres de mar que tan heroicamente lucharon en situación de tan notoria diferencia, alegando que del bou -VIRGEN DEL CARMEN- que llegó a nuestro puerto, fueron fusilados el comandante y uno de los maquinistas.ruego a V.E. se digne interponer con el mayor interés cerca de las representaciones diplomáticas extranjeras, a fin de evitar la consumación de los hechos que pretenden realizarse, haciendo bien presente que si por el Tribunal Popular se dictó sentencia en el sentido apuntado, fué debido a que sobre ellos pesaban graves acusaciones por parte de la tripulación, en relación con la conducta seguida por los mismos en el apresamiento del buque -GALERNA- con las desagradables consecuencias que ello ocasionó.-

Por lo expuesto reitero a V.E. el precedente ruego, a fin de ver de evitar que por parte de los elementos facciosos se evite este nuevo derramamiento de sangre, ya que suficientemente pagó esta tripulación su tributo a la muerte con la vida de 31 de sus miembros.

Todo lo cual tengo el honor de exponer a V.E. con encarecido ruego de que tenga a bien proceder a las gestiones oportunas al importante fin expuesto.-

Bilbao, 17 de Marzo de 1.937

EL JEFE DE LA SECCION DE MARINA

JEFATURA DE MARINA
SALIDA
17 MAR. 1937
Nº 149

Bou Nabarrako gudariak Donostian. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Eugenio Pedro
Apellidos de la OTZ KINTANA
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Mo. NABARRA (12-36/3-37)

Periko de la Hoz Kintanaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA
Nombre Enrique
Apellidos MANTEROLA AGOTE
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destino Mo. NABARRA (12-36/3-37)

Enrike Manterola Agoteren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Laster ordea, Canarias gurotzaontziko komandante Salvador Moreno eta Manuel Calderon korbeta-kapitainak, ahalak eta bi egin zituzten euskal marinel adoretsuen askatasuna baliatzeko. Horren eraginez, 1938ko azaroaren 30ean aske geratu ziren.

Frankistek beren itsaso operazioekin jarraituz, beste zenbait ontzi errepublikarren artean, Adda merkantzia-ontzi britainiarra izenpetutako Mar Cantabrico harrapatu egin zuen. Horrek iparraldeko errepublikarrei izugarrizko blokeo sentsazioa eragin zien.

Ahalak eta bi eginez ere, Bou Donostiak ezin izan zuen Bilbora itzuli eta gerra amaitu bitartean Frantzian geratu behar izan zuen. Bou Gipuzkoa ere, bi hilabetez, konpontzen izan zuten.

Materialki galketa izan bazen ere, euskal marinelengan, gertatutako borrokak, izugarrizko moral igoera izan zuen. 1937ko Aberri Eguna, Euskal Marinelaren omenezkoa izan zen eta beste horrenbeste ekitaldi ere egin zizkieten. Prentsak ere borroka hura, euskal indar errepublikarren borroka adoretsu gisan gorazarri zuen eta horrek euskal jendartearen moral igoera ekarri zuen.

Euskadiko Gudontzidia Matxitxako lurmuturreko borrokako ostean

Matxitxakoko borrokaren ostean, Euskadiko Gudontzidia bi bourekin geratu zen, Bizkaia eta Iparreko Izarra.

Martxotik ekainera bitartean, euskal-ontziek merkantzia-ontziei bere babesa ematen jarraitu zuten. Frankistek, alemaniarrek emandako minak aprobetxatuz, Bilboko portuko trafikoa ekidin nahi izan zuten. Haren inguruan mina-hesiak eratu zituzten. Euskadiko Gudontziko gudariak, arduraz orduan ere, miaketa zerbitzua gauzatuz, kasurik gehienetan, mina haiek guztiak desaktibatzea lortu zuten.

Maiatzaren bukaera aldean Euskadiko Flota Laguntzailearen osagaiak hurrengo ontzi hauek ziren[449]:

- 3 bou artilatu: Gipuzkoa, Bizkaia, Iparreko-Izarra. Donostia Frantzian zegoen, operatibitaterik gabe, eta Araba, Gazteiz eta Iruña alistamendu obrak amaitzen ari ziren, eta ez zuten artilleriarik.
- 20 minaketari: *D-1* (Mª Angeles), *D-2* (Julito), *D-7* (Alque), *D-8* (Alcion), *D-9* (Nuevo Constante), *D-10* (Constante Barreiro), *D-11* (Arco), D-12 (Iris), *D-13* (Motrico), *D-14* (Ondarroa), *D-15* (Eduardito), *D-16* (Anthon Mari), *D-17* (Marcos), *D-18* (Delfina), *D-19* (Ibai-Ederra), *D- 20* (Salvadora), *D-21* (Nazareno nº6), *D-22* (Aralarko Mikel Deuna), *D-23* (Eugenio), *D-24* (Julia).
- 6 txalupa motoredun: *L-1* (Nazareno nº1), *L-2* (Angel de la Guarda), *L-3* (Josuren Ama), *L-4* (Nazareno nº9), *L-5* (San Isidro), *L-6* (San Ignacio de Loyola).
- 15 ontzi laguntzaile: *D-3*/Napartarra (Domayo), Bilbo eta Baiona arteko irrati loturarako, eta *D-4*/Arabarra (Mourisca) eta Kayue eta Txepetx txalupak portu horien arteko itsas loturarako. *D-5* (Gure Artizar) eta *D-6* (Gure Izarra), Lezo Urreiztietarekin, arma eta hornigaien garraiorako. Kanoa automotoreak, Comandante Moreno (lehengo Isi-Anton), Aitor (lehengo S.C.), Sorgiña (lehengo Cedard Bird), Miren Garbiñe (lehengo Politena), eta Berabille (lehengo Tio Maco), Minaketari Taldearen zerbitzurako. Epailla 5 (Izaro) yatea, beronen Epailla 5 L txalupa (lehengo Izaro Laguntzailea) eta Miren Koldobike (lehengo Pili) eta Trinkertxu (lehengo Jaungoikoa Lagun) txalupa motoredunak, guztiak portu zerbitzuetara eramanak.

Pertsonalari dagokionez, 1924-1938 bitartean zeuden itsasoko kinta guztiak mobilizatu zituzten. 1937ko maiatzean, tripulazio eta lehorreko langileekin batuz, 500 gizonezko inguru baino gehiago zituen; ekainaren erdialderako 700 izatera iritsi ziren. Maiatzaren hasieraz geroztik, Itsas Buruzagitzak emisore propioa lortu zuen, eta orain ez zuen menpekotasunik BIA-k zuen Artxandako Santo Domingo estazioaren gain.

Euskadiko Gudontzidiko ontziek, Bilbo ebakuatzen lagundu zuten. Beren etxeak galdu ostean noraezean zebiltzan pertsona guztiak salbu jartzeaz arduratu ziren. Hala, Euskadiko Gudontzidiko gudariek, ume, edadetu, emakume zein gizonezko errefuxiatuak, Cervera, Canarias… gurutzaontzi frankisten kanoikadetatik babesten tinko jardun zuten.

Bilbo ebakuatu ostean, gehienek, Santoña eta Santanderrera egin zuten. Han, batik bat minen desaktibatzeko jardueretan jardun zuten, beti ere, BIA-k agintzen zuenaren arabera. 1937ko abuztuaren 26an frankistak Santanderren sartzean, Euskadiko Gudontzidiko gudarietako batzuk, preso hartu zituzten, beste batzuk Frantziara ihes egin eta bertako kontzentrazio-eremuetan geratu zein lanean hasi ziren.

Azken batzuk, Frantziara iritsi ostean, Kataluniako fronterako bidea hartu zuten. Bertan, zenbait marinel getariar Armada Errepublikarrean zerrendatu eta gerran parte hartzen jarraitu zuten:

[449] PARDO SAN GIL, J., op.cit.

ARMADA ERREPUBLIKARREAN BORROKATU ZUTEN GETARIAR GUDARIAK

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA EDO LANBIDEA	ONTZIAK EDO EGONDAKO TOKIAK	FILIAZIOA
ARANBURU ARRIETA, MODESTO	-	Marinela	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara)	-
AZKUE IBARBIA, PASTOR	-	Marinela	Jaime I. korazatuan 1937/06/17an hildakoa	-
AZKUE UZIN, LUCIANO	20	Marinela	Libertad itsasontzian, 2. Marinel gisan / Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) / Rotako Kontzentrazio-Eremua	EAJ/PNV
BORDAGARAI EIZAGIRRE, ANDRES	20	Marinela	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara)	EAJ/PNV
EIZAGIRRE FERNANDEZ, JOAKIN	23	Marinela	Beziers-eko ospitalea / Agde kontzentrazio-esparrua (Herault) / Gurs / (1939/04/17)	EAJ/PNV
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO	17	Marinela	Ulloa itsasontzia borrokatutakoa / Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-…) / Kenadsako minetan aurkitzen zen (1940-1941) eta Ain-Safrako ospitalean hil egin zen[450]	ELA/STV
IÑARRA MAYOR, JOSE	-	Marinela	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara)	-
LETE CORREA, PEDRO	30	Marinela	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) / 1940ko ekainean, Cadizeko San Fernandoko kontzentrazio-eremuan aurkitu	EAJ/PNV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA	26	Marinela	Ulloa itsasontzia / Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara 1939/04/03)	IR-UGT
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO	-	Marinela	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara 1939/04/03)	EAJ/PNV
URRESTI ANDONEGI, JOSE	21	-	Bateria 532 (Oerlicon-1938/10/18) / Escollera-ko kartzelan (1941/03/08-an)	ELA/STV
ZAYA SANCHO, JOSE MARIA	-	-	Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara)	-

*ARMADA ERREPUBLIKARREAN ZEUDELA HILDAKO GETARIARRAK:

PASTOR AZKUE IBARBIA

Gerra hastean 20 urte zituen eta soldaduska egiteko urteak zituenez, kintekin marinel eraman zuten. Jaime I. korazatuan borrokatzen egon zen. Korazatua Cartagenako portuan zegoela, 1937ko ekainaren 17an, lehertu egin zen. Bertan, beste 300 inguru borrokalarirekin batera, Pastor Azkue Ibarbia hil zen[451].

EUSEBIO GARMENDIA LAZKANO

Gerra hastean, 17 urte zituen eta, marinel getariarra eta ELA/STV sindikatuko afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko martxotik apirilera bitartean, Jaimin destruktorean borrokatu zuen. Handik, 1937ko apiriletik ekainera bitartean, geroago lehertuta hondoratutako D-17 miaketa ontzian lanean jardun zuen. Ekainetik urrira bitartean, Ciscar destruktorean ontziratu zen eta geroago, data zehatzik ez daukagun arren, Ulloa ontzira lekualdatu zuten. 1940-1941ean, Kenadsako minetan (Argelia) lanean eduki zuten beste errepublikarrekin batera, kondizio tamalgarrietan. 1940-1941ean, Ain-Sefra-ko ospitalean oso gaixorik hil egin zen.

[450] Victoria Fernández Díaz. "El exilio de los marinos republicanos" liburuaren idazlea eta gaian aditua.

[451] Victoria Fernández Díaz. "El exilio de los marinos republicanos" liburuaren idazlea eta gaian aditua.

EUSKADIKO GUDONTZIKO GETARIAR MARINELEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIA	FILIAZIOA
ALBIZU INDO, MELTXOR	28	Artileria	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
ALKORTA ISASTI, CASIMIRO	18	Marinela	Jaimin (1937ko martxoa)[452]	ELA/STV
ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA	24	Marinela[453]	Araba (1936ko abendua-1937ko maiatza)[454]	ELA/STV
ARANGUREN IÑARRA, MANUEL	26	Marinela[455]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko apirila)[456]	EAJ/PNV
ARANGUREN ONDARRA, JOSE MARIA	53	Kontramaisua	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	UGT
ARREGI UZIN, ANSELMO	23	Marinela	D-11 (1937ko urtarrila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila)[457]	EAJ/PNV
ARREGI UZIN, URBANO	-	Sugina	Jaimin (1936ko azaroa-1937ko martxoa)[458]	UGT[459]
AZKUE IBARBIA, JUAN	-	Marinela	Anthon Mari/D-16 (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	EAJ/PNV
AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO	32	Sugina	Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[460]	EAJ/PNV
AZKUE UZIN, LUCIANO	20	Marinela	L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[461]	EAJ/PNV
AZKUE UZIN, PEDRO	-	Marinela	D-2 (1937ko ekaina-1937ko iraila)[462]	EAJ/PNV-ELA/STV
AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO	27	Sugina	D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[463]	EAJ/PNV-ELA/STV
BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO	20	Marinela	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko abuztua-1937ko azaroa)[464]	EAJ/PNV-ELA/STV
BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO JESUS	17	Marinela	Mourisca (1936ko urria-1937ko otsaila)[465]	EAJ/PNV
BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO	-	Endai-mutila	Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina) / Bizkaia (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[466]	IR
BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO	24	Sugina	Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila)[467]	EAJ/PNV
BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN	24	Morroi / (1936ko abendua-1937ko otsaila) / Endai-mutil (1937ko otsaila-1937ko apirila) / Sugina (1937ko apirila-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila-1937ko azaroa)[468]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina) / Gipuzkoa (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[469]	IR
DARKISTADE GARAI, ENRIKE	-	Sugina[470]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)[471]	ELA/STV
DARPON MITXELENA, ENRIKE	26	Sugina	Arco/D-11 (1937ko urtarrila-1937ko uztaila)[472]	EAJ/PNV
DE LA HOZ KINTANA, EMILIO	23	Marinela	L-5 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[473]	EAJ/PNV

[452] D-5 (1937ko martxoa-1937ko apirila); D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-5 (1937ko ekaina-1937ko iraila).
[453] Euzkal-Errian eta L-2an kontramaisu izan zen. L-6an Arrantzako patroia, 2. Mailako patroia izan zen.
[454] Euzkal-Erria (1936ko azaroa-1936ko abendua); L-2 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa).
[455] Txepetx ontzian patroi gisan jardun zuen.
[456] Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko maiatza); Txepetx (1937ko maiatza-1937ko uztaila).
[457] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-19 (1937ko abuztua-1937ko iraila).
[458] D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).
[459] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.
[460] D-22 (1937ko martxoa-1937ko azaroa).
[461] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).
[462] D-20 (1937ko maiatza-1937ko ekaina).
[463] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[464] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-22 (1937ko uztaila).
[465] Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila); L-3 (1937ko apirila-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).
[466] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[467] Mari-Toya (1937ko urtarrila).
[468] Ciscar destruktorean sugina izan zen.
[469] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).
[470] Lezo Urreiztietaren Matxino ontzian marinela izan zen. Jose Luis Diez destruktorean sugina izan zen.
[471] Matxino (1936ko urria-1937ko otsaila); Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko iraila).
[472] D-19 (1937ko abuztua-1937ko azaroa).
[473] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIA	FILIAZIOA
DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO)	24	Morroia	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
ERRAZKIN AIZPURU, JOSE MANUEL	22	Marinela	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko maiatza)[474]	EAJ/PNV
ESNAL AGOTE, LUIS	25	Morroi[475]	Bizkaia (1936ko abendua-1937ko ekaina) / Bizkaia (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[476]	EAJ/PNV UGT[477]
FURUNDARENA AGIRREBENGOA, AGUSTIN	-	Kostako edo kabotajeko patroia, 1. Mailako patroia	Mourisca (1936ko iraila-1937ko azaroa)	ELA/STV
GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO	17	Marinela	Jaimin (1937ko martxoa-1937ko apirila)[478]	ELA/STV
IBARBIA SUBIÑAS, JOSE	17	Marinela	L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[479]	ELA/STV
IÑARRA ESNAL, JOSE MIGUEL	52	Sugina	Nabarra / (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)[480]	ELA/STV
IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO	21	Marinela[481]	L-1 (1937ko urtarrila-1937ko apirila)	EAJ/PNV
IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE	23	Sukaldaria[482]	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila)	EAJ/PNV
ITUARTE ETXEBARRIA, ANTONIO	34	Marinela	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE	26	Makinista gaitua, labezain gaitua	Jaimin (1936ko azaroa-1937ko apirila)[483]	EAJ/PNV-ELA/STV
KAMIO UZIN, ATANASIO	25	Morroi[484]	Gipuzkoa (1937ko urtarrila-1937ko ekaina) / Gipuzkoa (1937ko uztaila-1937ko azaroa)[485]	EAJ/PNV
KAMIO UZIN, FRANCISCO	-	1. Zerbitzaria[486]	Iparreko-Izarra (1937ko ekaina-1937ko azaroa)[487]	EAJ/PNV
KAMIO UZIN, TOMAS	22	Sugina	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko apirila)[488]	EAJ/PNV
KEREJETA AGOTE, GERARDO	24	Marinela	Jaimin (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[489]	EAJ/PNV
KEREJETA AGOTE, NIKASIO	30	Marinela	Donostia (1936ko abendua-1938)	EAJ/PNV
LARRAÑAGA AZPEITIA, IGNACIO MARIA	26	2. Mekanikaria	L-5 (1937ko apirila-1937ko azaroa)	EAJ/PNV-ELA/STV
LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE	24	Morroi[490]	Araba (1936ko abendua-1937ko apirila)[491]	EAJ/PNV
LEKUBE BURGAÑA, JULIAN	23	Endai-mutila	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
LEKUBE GOENAGA, IGNACIO	30	Marinela	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	EAJ/PNV
LETE CORREA, PEDRO	30	Marinela[492]	Iparreko-Izarra (1936ko abendua-1937ko ekaina)[493]	EAJ/PNV
MANTEROLA AGOTE,ENRIKE	30	Morroia	Nabarra (1936ko abendua-1937ko martxoaren 5a)	EAJ/PNV
MENDIZABAL ALBERDI, MANUEL	24	2. Mekanikaria	D-8 (1937ko maiatza-1937ko azaroa)	ELA/STV

[474] 1937ko martxoaren 23an hilabeterako baja eman zioten gaixotasunagatik. C-6 (1937ko maiatza-1937ko urria).

[475] Jose Luis Diezen marinela izan zen.

[476] Jose Luis Diez (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[477] Ikertutako iturri batzuek UGT-koa zela argitzen dute.

[478] D-17 (1937ko apirila-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

[479] L-6 (1937ko ekaina-1937ko iraila).

[480] Hispania (1936ko azaroa-1936ko abendua).

[481] L-2 (1936ko abendua-1937ko urtarrila) eta L-3 (1937ko apirila-1937ko maiatza) ere marinel gisan jardun zuen. L-3 (1937ko maiatza-1937ko azaroa) koipeztatzaile gisan lanean jardun zuen.

[482] Rafael Cantos, D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza) eta D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina) sukaldari gisan jardun zuen. Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila), D-21 (1937ko uztaila) eta D-8 (1937ko abuztua-1937ko iraila) marinel gisan jardun zuen.

[483] D-17 (1937ko apirila-1937ko abuztua).

[484] Ciscar destruktorean marinela izan zen.

[485] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[486] 1937ko ekainean marinel gisan kuartelean egon zen.

[487] Armadaren Kuartela: (1937ko ekaina).

[488] D-18 (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-24 (1937ko maiatza-1937ko ekaina); D-17 (1937ko ekaina-1937ko abuztua).

[489] D-22 (1937ko martxoa-1937ko ekaina eta 1937ko uztaila); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko uztaila).

[490] D-14an, marinel egin zuen 1937ko maiatzean eta 1937ko uztaila eta iraila bitartean. 1937ko maiatzetik ekainera bitartean kontramaisu gisan lanean jardun zuen bertan.

[491] Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko maiatza); D-14 (1937ko maiatza-1937ko iraila).

[492] Ciscarren sugina izan zen.

[493] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	ONTZI-POSTUA	ONTZIA	FILIAZIOA
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN	32	Sugina	Rafael Cantos (1936ko abendua-1937ko urtarrila)[494]	ELA/STV
OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA	26	Endai-mutila[495]	Gipuzkoa (1936ko abendua-1937ko ekaina)[496]	IR-UGT
SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO	-	Sugina	Rafael Cantos (1937ko urtarrila-1937ko martxoa)[497]	EAJ/PNV
SUSTAETA URKIDI, ANDRES	49	Arrantzako patroia, 2. Mailako patroia	Anthon Mari/D-16 (1937ko apirila-1937ko azaroa)	UGT
URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO	40	Makinista gaitua, labezain gaitua	D-11 (1937ko urtarrila-1937ko uztaila)[498]	EAJ/PNV
URKIDI ARRIETA, BIENVENIDO	24	Zerbitzaria	Goizeko-Izarra (1936ko abendua-1937/01/17)	EAJ/PNV-ELA/STV
URRESTI ANDONEGI, JOSE	21	Zerbitzaria	Mourisca (1936ko abuztua-1937ko azaroa)	ELA/STV
UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO	41	Makinista gaitua, labezain gaitua	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[499]	EAJ/PNV
UZIN ALKORTA, PRUDENCIO	-	Marinela (1937ko apirila-1937ko maiatza) / Koipeztatzailea (1937ko maiatza-1937ko ekaina)	L-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina)[500]	-
UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO	23	Morroi[501]	Araba (1936ko abendua-1937ko apirila)[502]	EAJ/PNV
UZIN BERASALUZE, SALVADOR		Sukaldaria	D-2 (1937ko apirila-1937ko ekaina) / (1937ko uztaila-1937ko abuztua)[503]	EAJ/PNV




Familiarrek D-3ko gudariei egindako bisita.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

[494] Mari-Toya (1937ko urtarrila).
[495] Ciscar destruktorean sugina izan zen.
[496] Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).
[497] D-21 (1937ko martxoa-1937ko ekaina); Ciscar (1937ko ekaina-1937ko urria).
[498] L-1-ean arrantzako patroia, 2. Mailako patroia (1936ko urria-1937ko urtarrila); D-9 makinista gaitua, labezain gaitua (1937ko uztaila-1937ko azaroa) izan zen.
[499] Jose Luis Diezen marinel (1937ko ekaina-1937ko uztaila); D-10ean ere marinel (1937ko uztaila-1937ko azaroa).
[500] L-6 (1937ko ekaina-1937ko azaroa).
[501] L-4 eta Gazteizen marinel gisan aritu zen.
[502] L-4 (1936ko azaroa); Armadaren Kuartela (1937ko apirila-1937ko ekaina); Gazteiz (1937ko ekaina-1937ko abuztua).
[503] Ciscarren marinel (1937ko ekaina-1937ko uztaila).


3.3. GERRAN EDO GERRAREN ONDORIOZ HILDAKO GUDARI GETARIARRAK

MELTXOR ALBIZU INDO

Jaiotzez getariarra baina gerra hastean Mundakan bizi zen; lanbidez, marinela zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoen eta ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarien zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko abenduaren 10ean Bou Nabarrako gudari izendatu zuten, artilleriako postuan. Euskadiko Gudontzidiko gainontzeko bou armatuen gisan, Bou Nabarrarekin, indar-errepublikarrei hornigaiak, armak… ekartzen zizkieten merkantzia-ontzien zainketa-lanetan parte hartu zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, 1937ko martxoaren 4-5ean, Baionatik Bilbora zetorren Galdames merkantzia-ontzia babesteko Bou Gipuzkoa, Bizkaia eta Donostiarekin sortutako konboiarekin bat eginik zetorrela, beren ontzia, Bou Nabarra Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zuen. Matxitxako lurmuturreko bataila hartan, Meltxor Albizu Indo gudari getariarra Canarias gurutzaontzi frankistako kanoikadak hil zuten. Une hartan, 28 urte zituen eta ezkongabea zen.



Meltxor Albizu Indoren heriotza-agiria.
(Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa).



Meltxor Albizu Indoren heriotza-agiria.
(Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa).



Meltxor Albizu Indoren heriotza-akta.
(Getariako Erregistro-Zibila).

JOSE MARIA ARANGUREN ONDARRA

53 urteko kontramaisu getariarra. Gerra hastean, UGT-n afiliatuta zegoen eta ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan Bou Goizeko-Izarrean lan egiteko izendatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Jose Maria Aranguren Ondarra gudari getariarra, Ignacio Goenaga mutrikuarra eta Bienvenido Urkidi Arrieta getariarrekin batera hil egin zen.



Jose Maria Aranguren Ondarraren Euskadiko Gudontzidiko fitxa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

PEDRO JOSE ARREGI AZPETIA

1916ko martxoaren 7an jaiotako gudari getariarra. Akarregi Haundi baserrikoa, 23 urte zituen preso hartzean eta ezkongabea zen. 1936ko irailaren 20an Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen eta Eusko Gudarostean borrokatu zuen. 1937ko abenduaren 5ean 64 zenbakidun lehenengo konpainian Langile Batailoian gatibu-lanak egitera derrigortu zuten. 1939ko uztailaren 11n, 64 zenbakidun Langile Batailoikoa izaki eta gaixotuta ospitale militarrean egon ostean, alta eman zioten. 1939ko uztailaren 18an San Juan de Mozarrifar (Zaragoza) kontzentrazio-esparrutik Malgrat-eko 64 zenbakidun Langile Batailoira gatibu-lanak egitera behartu zuten. 1939ko irailaren 5ean, Nafarroako ospitale militarrean (Iruña) sartu behar izan zuten, apendizitisa medio. Irailaren 17an bertan hil egin zen. Orduan, Amaiurren (Baztan) 64 zenbakidun Langile Batailoiarekin gatibu-lanetan aurkitzen zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen.

DAVID BERISTAIN GARRASTAZU


1911n Getariako Lasalde baserrian jaioa, errementaria zen. Donostiako Antiguoko Ariceta familiarekin bere ofizioa ikasi ostean, gaur egungo Herrieta-Kalean, orduan Magallanes deiturikoan, bere tailerra ireki zuen. Gerra hastean, EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz gerrara egin zuen. 1937ko irailaren 28an, Madrileko Valdemoroko presondegi batean hil zen. Horren ostean, bere tailer frankistek errekisatu egin zioten. Hasieran, Valdemoroko (Madrid) hilerrian hilobiratu zuten eta 1961eko otsailaren 25ean Erorien Haranera lekualdatu zuten[504].



David Beristain Garrastazu, 24 urterekin. (Antxon Aguirre Sorondoren artikulutik).

LEONCIO BURGAÑA ETXEBERRIA

1915eko ekainaren 24an Getarian jaiotako gudaria. Gerra hastean, UGT-ra afiliatuta egonagatik, ardura politikoz frontera joan zen. Frontean zela, granada baten leherketaz hil zen. Antxon Narbaizak azaltzen digunez, hileta, bere familiak hilkutxa huts eta ikurrina bat bertan ezarriz egin behar izan zion. Gudari getariarrak, 21 urte zituen hil zenean Hernaniko frontean bertan hilobiratu zutenean. Getariako gudarien artean lehena hil zena izan zen.



BURGAÑA
Leoncio
ECHEVERRIA

Afiliado a la U,G,T, miliciano de las milicias de Guetaria(Guipuzcoa). Leg,8-1169 Rol,379.

Leoncio Burgaña Etxebarriaren fitxa. (PARES).

JOSE AGUSTIN ERRAZKIN AIZPURU

Gerra hastean 16 urte zituen. Lleidan, Langileen Infanterian, 23 Batailoian 2. Konpainian 51. Zutabean borrokatzen zauritu egin zen. Handik Avellaneseko ospitalera eraman eta 1938ko ekainaren 7an hil egin zen.

JOSE MARIA ERRAZKIN AIZPURU


Gerran Eusko Gudarostearekin borrokatu zuen. 1938ko ekainaren 28an Prat de Compte-n (Katalunia) hil zen.

JESUS ESNAL AGOTE

27 urte gudari getariarra. Gerra hastean, Izquierda Republicanara afiliatuta, ardura politikoz, gerrara joan zen. 1936ko urriaren 5an frontean zela zauritu egin zen. Handik, Durangoko ospitalera eraman zuten eta bertan hil zen, balek eragindako zauriak larriak baitziren. Bere gorpua Durangoko hilerrian enterratu zuten.

JOSE MIGUEL IÑARRA ESNAL

Gerra hastean, Getarian bizi zen. ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko azarotik abendura bitartean Hispania bouan (gerora Araba izenpetu zutena) euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanak bermatu zituen. Abendutik aurrera, Bou Nabarran ontziratu zuten. Bi itsasontzietan, sugin-lanak egin zituen. Meltxor Albizu Indo eta Antonio Ituarte Etxebarriarekin batera, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturrean Canarias gurutzaontzi frankistak eraso egitean hil zuten. 52 urte zituen eta ezkongabea zen.



GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre José Miguel
Apellidos IÑARRA ESNAL
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Sindicato Solidaridad de Trabajadores Vascos
Destinos Fog. HISPANIA (11-36/12-36); Fog. NABARRA (12-36/3-37)
BAJA
Tipo de baja Fallecido
Fecha 5 de marzo de 1937
Causa Combate
Edad 52

Jose Miguel Iñarra Esnal Matxitxako lurmuturreko borrokan eraila. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[504] Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos: David Beristain Farrastazo bezala adierazita.


ANTONIO ITUARTE ETXEBARRIA

Mutrikuarra jaiotzez, baina gerra hastean Getarian bizi zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz eta marinela izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik, Bou Nabarrarekin, euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanetan jardun zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, Galdames merkantzia-ontzia Baionatik Bilbora Bou Nabarran bera, Bou Bizkaia, Gipuzkoa eta Donostiarekin batera babesten ari zirelarik, Matxitxako lurmuturrean, Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zituen. Frankisten gurutzaontziarekin izandako 1937ko martxoaren 5eko borrokan, erail egin zuten. 34 urte zituen eta ezkongabea zen.


GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Antonio
Apellidos ITUARTE ECHEVARRIA
Natural de Motrico
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Marg. NABARRA (12-36/3-37)
BAJA
Tipo de baja Fallecido
Fecha 5 de marzo de 1937
Causa Combate
Edad 34

Antonio Ituarte Etxebarriaren Matxitxako lurmuturreko borrokan eraila. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


EUZKADIKO JAURLARITZA
GOBIERNO DE EUZKADI

Excmº Sr. Consejero de Defensa.

Excmº Sr.:

Habiéndose informado esta Jefatura por mediación de las Autoridades Consulares Británicas de esta Villa de la existencia de 18 tripulantes de la Inglesa dotación del bou "NABARRA" prisioneros de los facciosos en Donostia, únicos supervivientes de los 49 hombres que formaban la tripulación a su salida de nuestro puerto en el último servicio realizado, y habiendo llegado el rumor a esta Jefatura de que las autoridades del campo faccioso parecen objetar respecto a la integridad personal de estos 18 hombres de mar que tan heroicamente lucharon en situación de tan notoria diferencia, alegando que del bou "VIRGEN DEL CARMEN" que llegó a nuestro Puerto, fueron fusilados el Comandante y uno de los maquinistas.ruego a V.E. se digne interponer con el mayor interés cerca de las representaciones diplomáticas extranjeras, a fin de evitar la consumación de los hechos que pretenden realizarse, haciendo bien presente que al por el Tribunal Popular se dictó sentencia en el sentido apuntado, fué debido a que sobre ellos pesaban graves acusaciones por parte de la tripulación, en relación con la conducta seguida por los mismos en el apresamiento del buque "GALERNA" con las desagradables consecuencias que ello ocasionó.-

Por lo expuesto reitero a V.E. el precedente ruego, a fin de ver de evitar que por parte de los elementos facciosos se evite este nuevo derramamiento de sangre, ya que suficientemente pagó ésta tripulación su tributo a la muerte con la vida de [illegible] de sus miembros.

Todo lo cual tengo el honor de exponer a V.E. con encarecido ruego de que tenga a bien proceder a las gestiones oportunas al importante fin expuesto.-

Bilbao, 17 de Marzo de 1.937

EL JEFE DE LA SECCION DE MARINA

JEFATURA DE MARINA
SALIDA
17 MAR. 937
Nº. 149

Bou Nabarrako gudariak Donostian. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Julian
Apellidos LECUBE BURGAÑA
Natural de Motrico
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Pol. NABARRA (12-36/3-37)

Julian Lekube Burgañaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Eugenio Pedro
Apellidos de la OTZ KINTANA
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Mo. NABARRA (12-36/3-37)

Periko de la Hoz Kintanaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).


GOBIERNO DE EUZKADI
DEFENSA
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA

Nombre Enrique
Apellidos MANTEROLA AGOTE
Natural de Guetaria
Provincia Guipúzcoa
Partido Partido Nacionalista Vasco
Destinos Mo. NABARRA (12-36/3-37)

Enrike Manterola Agoteren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Canarias gurutzaontzian atxilotutako 20 marinelak epaitu eta hasiera batean heriotz-zigorrera kondenatu zituzten. Atxilotuen artean, Periko de la Hoz Kintana, Julian Lekube Burgaña eta Enrike Manterola Agote zeuden.

Laster ordea, Canarias gurotzaontziko komandante Salvador Moreno eta Manuel Calderon korbeta-kapitainak, ahalak eta bi egin zituzten euskal marinel adoretsuen askatasuna baliatzeko. Horren eraginez, 1938ko azaroaren 30ean aske geratu ziren.

Frankistek beren itsaso operazioekin jarraituz, beste zenbait ontzi errepublikarren artean, Adda merkantzia-ontzi britainiarra izenpetutako Mar Cantabrico harrapatu egin zuen. Horrek iparraldeko errepublikarrei izugarrizko blokeo sentsazioa eragin zien.

Ahalak eta bi eginez ere, Bou Donostiak ezin izan zuen Bilbora itzuli eta gerra amaitu bitartean Frantzian geratu behar izan zuen. Bou Gipuzkoa ere, bi hilabetez, konpontzen izan zuten.

Materialki galketa izan bazen ere, euskal marinelengan, gertatutako borrokak, izugarrizko moral igoera izan zuen. 1937ko Aberri Eguna, Euskal Marinelaren omenezkoa izan zen eta beste horrenbeste ekitaldi ere egin zizkieten. Prentsak ere borroka hura, euskal indar errepublikarren borroka adoretsu gisan gorazarri zuen eta horrek euskal jendartearen moral igoera ekarri zuen.

GREGORIO ISASTI URANGA[505]

Getariarra jaiotzez, gerra hastean, Deban bizi zen. 41 urte zituen eta ezkongabea zen. Gerra hastean, ardura politikoz, gerrarako adinez nagusia izan arren, Eusko Gudarosteko Amaiur batailoian borrokan jardun zuen. Hartan, 1937ko maiatzaren 14an, Bilboko hiriaren defentsan zeudela, Lezaman konkretuki, hegazkin frankistek botatako bonbek eragindako zaurien erruz, bere kide batekin batera hil egin zen. Derioko hilerrian lurperatu zuten[506].

TOMAS KAMIO UZIN

1913ko urriaren 17an jaiotako marinel getariarra. Gerra hastean, Getarian bizi zen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz jokatuz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik apirilera bitartean, Rafael Cantos miaketa ontzian lan egin zuen; haren ostean, hilabetez maiatzera bitartean, D-18 miaketa ontzian lan egin zuen. Maiatzetik ekainera berriz, D-24an bete zuen bere gudari zerbitzua. Ekainetik aurrera, apiriletik miaketa zerbitzua egiten zuen D-17 miaketa ontzian lan egin zuen. Hartan zebilela, D-17ak, Santoñatik Santanderrera zihoanean, azpiaz hondoa jo eta 1937ko abuztuaren 14an Nojako hondartzan lehertu egin zen. Jose Antonio Arregi Aranguren, Urbano Arregi Uzin orduan D-17ko gudaria zenaren semeak azaltzen digunez, Kamiok, bere bota berrien bila joan nahi izan zuen eta hartzera joatean leherketa izan eta larriki zauritu zen, bere aita Urbanorekin batera. L-6 ontzi laguntzaileak, Tomas Kamio Uzin gudari getariarra hartu eta larriki zaurituta Santoñara eraman zuen. Handik gutxira hil egin zen.



EUZKADI'KO JAURLARITZA
GUDA ZAINGOA
ITXAS-GUDA BURUTZA

Izena Tomás
Abizenak CAMIO UCIN
Jaioterria Guetaria
Probintzia Guipúzcoa
Alderdia Euzko Alderdi Jeltzalea
Norakoak Eog. RAFAEL CANTOS (1-37/4-37); Eog. D-18 (4-37/5-37); Eog. D-24 (5-37/6-37); Eog. D-17 (6-37/8-37)
BAJA
Baja mota Hildakoa
Data 1937ko abuztuaren 14a
Zergaitia Istripua
Adina 24

Tomas Kamio Uzinen Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

IGNACIO LEKUBE GOENAGA

30 urteko marinel mutrikuar, ezkongabea. Gerra hastean, Getarian bizi zen, EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoa hartuta, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan, Bou Goizeko-Izarran destinatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Ignacio Lekube Goenaga gudari mutrikuarra, Bienvenido Urkidi eta Jose Maria Aranguren getariarrekin batera hil egin zen.



EUZKADI'KO JAURLARITZA
GUDA ZAINGOA
ITXAS-GUDA BURUTZA

Izena Ignacio
Abizenak LECUBE GOENAGA
Jaioterria Motrico
Probintzia Guipúzcoa
Alderdia Euzko Alderdi Jeltzalea
Norakoak Marn. GOIZEKO-IZARRA (12-36/1-37)
BAJA
Baja mota Hildakoa
Data 1937ko urtarrilaren 17a
Zergaitia Mina
Adina 30


Ignacio Lekube Goenagaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

[505] ARITZABALETA GANTXEGI, I., op.cit., 99.or.

[506] Aranzadi Zientzia Elkarteko Datu-Basea.

IGNACIO OLAZIREGI ALZAGA

Jaiotzez Hondarribikoa, Manuela Atorrasagasti Etxeberriarekin ezkonduta zegoen. 1923ko martxoaren 18an Gabriel Olaziregi Atorrasagasti deituriko semea Getarian izan zuten. Hain zuzen, 1921-1923 bitartean Getarian bizi izan ziren. 1937ko apirilaren 14an Barazarreko (Bizkaia) frontean larriki zauritu zen eta seguruenik bertan hil zen[507].



JUZGADO DE PAZ
ORIO
(Guipuzcoa)

ACTA DE COMPARECENCIA

En el Juzgado de Paz de Orio, a cuatro de Mayo de mil novecientos setenta y nueve.-

Ante el Sr. Juez de Paz de éste Distrito D. José Antonio Arriza balaga Zubiarrain, asistido de mi el infrascrito Secretario, comparece expontaneamente D. GIL DIONISIO LARRAÑAGA SARRIA, de 74 años de edad, casado, pensionista y vecino de ésta localidad, con D.N.I. núm. 15.102.787, y D. RAMON SOLABERRIETA BEGOECHEA, de 74 años de edad, viudo, pensionista y ve cino de ésta localidad, con D.N.I. número 15.102.475.-

A preguntas del Sr. Juez de Paz sobre el motivo de su comparecencia, manifiestan es deseo de los mismos declarar lo siguiente:

Que conocian a JOSE IGNACIO OLACIREGUI ALZAGA, esposo de doña MARIA MANURIA ATORRASAGASTI ECHEVERRIA, vecinos de ésta localidad, y que durante la guerra civil española de 1.936, marchó al frente, y que no se han tenido más noticias del mismo hasta ésta fecha, creyendo que hubiera fallecido en algunos de los combates en que interuino. Y que no tienen más que decir.-

Seguidamente el Secretario dió lectura del presente documento, encontrándolo conforme y de acue rdo con lo expresado por los comparecientes, firmando con el Sr. Juez de Paz y conmigo el Secretario, que de todo ello, doy fé.-

El Juez de Paz, Los Comparecientes,

El Secretario,

Jose Ignazio Olaziregi Alzaga. (Orioko Udal-Agiritegia).

BERNARDO OTAMENDI ILLARRAMENDI

18 urteko marinel eta gudari getariarra. Gerra hastean, ardura politikoz, Eusko Gudarostean izena eman zuen. Legutioko batailan, 1936ko abenduaren 19an zauritu eta Basurtoko ospitale zibilean hil egin zen. Bere gorpua, Derioko hilerrian hilobiratu zuten[508].

LUCIO MUGERZA BELAUSTEGI

Mutrikuarra jaiotzez, baina Getarian bizi zen; lanbidez, marinela zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, gerran Bigarren Errepublikaren udal-gobernu legitimoaren alde tropa frankisten aurka borrokatu zuen Saseta Batailoian. Tropa frankistek, Laredon atxilotu eta preso politiko egin zuten. Leonen desagertuta[509].

[507] Orioko Udal-Agiritegia.
[508] GUA.
[509] GUA.

JOSE ANTONIO ZUBIMENDI OLASKOAGA

32 urteko marinel getariarra, ezkongabea. Gerra hastean, ELA/STV-ra afiliatuta izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abendutik urtarrilera bitartean, Rafael Cantos miaketa ontzian lan egin zuen eta urtarriletik aurrera, Mari-Toya miaketa zerbitzuko ontzira pasa zen. Bere zerbitzua betetzen zegoela, 1937ko urtarrilaren 18ko eguerdian, Punta Lucero iparraldean Mari-Toya miaketa ontziak frankisten mina bat jo, lehertu eta segituan hondoratu egin zen. Gudarietako 6 hil egin ziren; tartean, berarekin batera Isidro Berasaluze Egaña gudari getariarra, Julian Sanchez Gomez ontzi-alfereza eta Manuel Basante Rodet ontziko patroia hil ziren.



EUZKADI'KO JAURLARITZA
GUDA ZAINGOA
ITXAS-GUDA BURUTZA

Izena José Agustin
Abizenak OLASCOAGA ZUBIMENDI
Jaioterria Getaria
Probintzia Guipúzcoa
Sindikatua Euzko Langilleen Alkartasuna
Norakoak Zgr. RAFAEL CANTOS (12-36/1-37); Zgr. MARI-TOYA (1-37)
BAJA
Baja mota Hildakoa
Data 1937ko urtarrilaren 18a
Zergatia Mina
Adina 32

Jose Agustin Olaskoaga Zubimendiren Euskadiko Gudontzidiko fitxa.
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

BIENVENIDO URKIDI ARRIETA

24 urteko marinel getariarra, ezkongabea. Gerra hastean, Getarian bizi zen, EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoa hartuta, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan, Bou Goizeko-Izarran destinatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Bienvenido Urkidi Arrieta gudari getariarra, Ignacio Goenaga mutrikuarra eta Jose Maria Aranguren getariarrekin batera hil egin zen.



EUZKADI'KO JAURLARITZA
GUDA ZAINGOA
ITXAS-GUDA BURUTZA

Izena Bienvenido
Abizenak URKIDI ARRIETA
Jaioterria Getaria
Probintzia Guipuzcoa
Alderdia Euzko Alderdi Jeltzalea
Sindikatua Euzko Langilleen Alkartasuna
Norakoak Zgr. GOIZEKO-IZARRA (12-36/1-37)
BAJA
Baja mota Hildakoa
Data 1937ko urtarrilaren 17a
Zergatia Mina
Adina 24

Bienvenido Urkidi Arrietaren Euskadiko Gudontzidiko fitxa. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

3.4. GETARIA EBAKUATUEN BABESGUNE

Euskal herritar guztien ahotan, tropa frankistetako soldaduek eginiko sarraskiak haien egunerokotasunean present zeuden. Izua eta gorputzeko hotzikarak sorrarazten zituzten, bortxaketa eta hilketen aipamenak nonahi irakurri eta entzun zitezkeen. Horren aurrean, biztanleriak, zenbaitetan, halako zorigaitzetik ahalik eta azkarren alde egiteko hautua egin zuen. Etxea eta ondasunak atzean utzita, batek baino gehiagok bizitza salbatzeko hautua egin zuen.

Hala, tropa frankistek 1936ko irailaren 13an Donostia menpean hartzean, ordura arte Irun eta inguruetatik zetozen ebakuatuak eta donostiarrak beraiek ere, Gipuzkoako kostaldean mendebaldera egin beharra izan zuten. Kantauriko itsasaldeko marinelen herrietan, gutxi gorabehera 7.000 inguru biztanle bizitzen egon zirela zenbatu izan da.

Getariak ere, haietako zenbait jaso zituen. Getariako Defentsa Komitea, haiek guztiek oinarrizko baliabideak eta babesgune bat izan zezaten arduratu zen. Izaera politiko ezberdinetako errefuxiatuak jaso zituzten Getarian. Horietako bat, Alegian burututako Gerra Zibileko ikerketan argitara atera genuen Gregorio Okiñena Erro albaitaria izan zen. 1936ko abuztuaren 1ean, bere Alegiako etxea eta kontsulta zuen tokiaren ondoan frankistek bonba jaurtitzean, bi aldiz pentsatu gabe herritik alde egin zuen. EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, Alegian zenbait mitin nazionalista eman zituen eta Batzokiko presidentea ere izanik jasan zezakeen errepresioaren beldurrez alde egin zuen. Denboraldi batez, Getaria bere babesgune bihurtu zen:

"Con la entrada de los insurgentes en Gipuzkoa compartirá, con su esposa, hijos y familia política, el calvario de los refugiados; de Getaria a Deba, donde se alojaron en el hotel Monreal; luego, Bergara, pasando la noche en casa del veterinario de la localidad, D. Benito Echeverría Mendiluce quien les ayudaría a pasar, desde Elgeta a Bizkaia"[510].

Donostiako ebakuatuen artean, Juan Maria Bandres eta haren familia Getariara iritsi ziren. Familia horrek Getariarekin lotura handia zuen eta bertan errefuxiatu ziren, Okiñena eta bere familiaren gisan, tropa frankisten atzaparretatik ihesi:

"Entonces nosotros nos marchamos en septiembre del 36. Antes de que se tomara San Sebastián el 13 de septiembre, nosotros nos marchamos a Getaria, es decir, la ruta de la huida que era todo ir hacia Bilbao. Teníamos *[en Getaria]* la casa que hoy día tengo, que es la casa de ese abuelo secretario del ayuntamiento donde vivía una tía mía y su marido. "Leonoren-etxea" se llama la casa en el centro (..)"[511].

Donostiako ebakuaziotik, Mariano Doporto Marchori[512] Alderdi Sozialistako kidea Getariara iritsi zen. Igeldoko behatoki-meteorologikoko zuzendari izanik, Bigarren Errepublikako itsasontzi zein lurreko batailoientzat hain garrantzitsua gertatutako behatokia Getarian ezartzea izan zen. Hartarako, bera eta bere ekipo osoa, tresneria andanarekin Getarian egon ziren denboralditxo batez. Doportok, haren unibertsitateko ikasketak 25 urterekin amaitu eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak irekitako konkurtsoaren bidez Igeldoko behatoki-metereologikoko postua lortu zuen "(…) científico innovador y a la vez trabajador incansable, mezclado con el valor del intelectual comprometido y un sentido acusado de la amistad"[513]. Getariatik, tropa frankistak nahikoa hurbil zeudenean alde egitean, bere ekipoaren zati batekin Bilbora egin zuen. Bertan, tropa frankistek Bilbo menpean hartu bitartean, behatoki-metereologikoa ezarri zuten.





Mariano Doporto Marchori.

Mariano Doporto Marchori "2" zenbakiarekin Igeldoko Leku Ederren.

[510] ETXANIZ MAKAZAGA, J.M. 2000. "Veterinarios en el exilio como consecuencia de la Guerra Civil 1936-1939". Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, 56. Liburukia, 2. Zbk.: 38.or.

[511] CASTRO, R. 1998. *Juan María Bandrés. Memorias para la paz*. Hijos de Muley Rubio: Madrid, 23.or.

[512] Jaiotzaz Caceres-koa.

[513] URZAINKI MIKELEIZ, ASUNCIÓN. 2010. "Igeldo, un observatorio meterológico para el Golfo de Bizkaia", https://www.divulgameteo.es/uploads/Igeldo-Bizkaia.pdf

Bitartean, Justiniano García Polo taldeko telegrafistak, Getariatik Donostiara egin zuen. Han, frankistek, Igeldoko behatoki-metereologikoko zuzendari izendatu eta 1937ko udan Santanderrera egin zuen, Doportok bere ihesian utzitako behatoki-metereologikoko zenbait tresna tekniko batzeko.

Horren guztiaren eraginez, Doportok, frankisten errepresioa bere azalean bizi izan zuen. Iruñako, 1941eko irailaren 29an, Frantzian erbesteratuta zegoen bitartean, behatoki-metereologikoko materiala lapurtu egin balu bezala adierazita, 2000 pezeta ordaintzera eta 10 urteko inhalibitaziora kondenatu zuen. Epaila ez zuen bete eta Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Irlandara erbesteratu zen. Han Irlandako Estatu Libreko zerbitzu metereologikoko zuzendari izendatu zuten.

Frankistek, kolpea eman zutenean, uda garaia zen. Hala, aipatu kostaldeko herrietan, Donostia, Zarautz zein Getarian, besteak beste, udako turista batzuk iritsita zeuden. Hartaz, euskaldunak edo Euskal Herrian bizi zirenak ez ezik, gure lurretan denboraldi txoa pasatzera etorritako biztanleria ere, gerratik ihesi hasi zen.

Horixe, Argentinako orduko enbaxadorearen kasua izan zen. Daniel García Mansilla, frankistek estatu-kolpea eman zutenean, bere Zarautzeko udako etxean oporraldian zegoen. Han, zenbait frankista babestu zituen eta hargatik, zenbait istilu izan ere bai, Gipuzkoako indar-errepublikarreko zenbait agintariekin. Azken hauek, enbaxadorea eta bere langileak Zarautzetik Argentinako gobernuak bidaltzea pentsatzen zuen 25 de mayo armadaren gurutzaontzian joatea uzten zieten. Baina, alderantziz, bere udako etxean errefuxiatutako kolpistak ezin ziren armadaren itsasontzi hartan ontziratu.

Egoera horren aurrena, Argentinako Gobernuak, Britainia Handia, Frantzia, Alemania eta AEBtako gobernuei, bere herritarrak ateratzeko laguntza eskatu zien. Alemaniak horri erantzunez, 1936ko abuztuaren 14an, Getariako portura, enbaxadorearen familia, langileak eta kolpista espainiarrak jaso zituen Albatross torpederoa bidali zuten. Hark, haiek guztiak, Donibane Lohizunera eraman zituen eta bitartean, enbaxadore argentinarrak ere, lurrez, harako bidea egin zuen[514].


Kolpearen ostean, abuztu erdirako lehen ume eta emakumeen ebakuazioak hasi ziren gerrako zonaldetik. Lehenak alde egiten, euskal lurraldeetan zeuden pertsonak, baina Estatu Espainiarreko nazionalitatea ez zutenak izan ziren. Beorlegui militar frankistak iparraldetik hasitako erasoen eraginez, gerra gogortu eta ebakuazioak ugaritzen hasi ziren: "En un lapso de tiempo tan corto como el comprendido entre la tarde del 30 de agosto y las 18 horas del 1 de septiembre, 2.272 personas atravesaron la muga para sumarse a los que lo habían hecho los días anteriores"[515].

Gipuzkoako gerraren ondorioz ordea, gutxi gorabehera 16.000 pertsona baino gehiago joan zirela erbestera kalkulatzen da.

Tropak sartu baino zerbait lehenxeago euskal itsasontziak Getaria ebakuatzera hurbildu ziren. Ordura arte ebakuatuen laguntzaile izan ziren zenbait getariar errefuxiatu bilakatu ziren, tropa frankistak herriaren ateetan zeudela jakitean, alde egin beharra izan baitzuten. Beste batzuek, haien gehiengoak gerrara joan zirenen emakumeak, Getarian bertan gelditu ziren eta tropa frankistak sartzean, tropa frankisten ankerkeriak beraien azalean jasan behar izan zuten, 4. Kapituluan modu zabalago batean azalduko dugunez. Donostia tropa frankistek hartu zutenean Mourisca eta Domayo itsasontzietan Getariara ekarritako gudarien konpainietako batzuk, berriro ere, Eusko Gudarostearen Itsas Zerbitzuetako itsasontzietan ebakuatu zituzten:

"Ontziak Getaria, Zumaia eta Pasaiatik aritu ziren lanean, eta oso partaidetza aktiboa izan zuten soldaduak ebakuatzeko unean, Gipuzkoatik erretiratu behar zelarik. (…) Hilaren 20an, Domayo eta Trintxerpek zenbait konpainia hartu zituzten Getarian, eta Mutriku eta Ondarroara eraman zituzten; herri honetan, ontzi biak Mouriscarekin elkartu ziren"[516].

"Durante las noches y desde los puertos de Donostia, Getaria, Zumaia y Mutriku se organizó una constante e ininterrumpida evacuación de la población civil hacia los puertos de Donibane Lohitzun y Baiona. En aquellas embarcaciones, que cruzaban sin luces el Golfo de Bizkaia, huyendo de la vigilancia de los rebeldes amparadas en las sombras de la noche, dio comienzo la emigración vasca (…) que continuó más tarde a consecuencia de la caída sucesiva de Bilbao, Santander y Gijón"[517].



SENTENCIA

Mariano Doporto Marchori Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia.
(Nafarroako Artxibo Irekia).

[514] GURRUTXAGA URANGA, AMAGOIA. 2017. *Zarauzko gutunak: 36ko gerra.* Zarautz, 69-72.orr.

[515] ALONSO CARBALLÉS, J.J. 1998. 1937. *Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica…,* Asociación de Niños Evacuados el 37, 35.or.

[516] PARDO SAN GIL, J., op.cit., 32 eta 42.or.

[517] IRUJO, M., op. cit., 168.or.

3.5. KOLPISTAK GETARIARA HURBILTZEN

Getariako Defentsa Komiteak izugarrizko egituratze-lana egin zuen Bigarren Errepublikaren alde joango ziren gudarien miliziak osatzeko. Tropa frankistak, Getariatik geroz eta hurbilago zeuden. Egunkari errepublikarrek, egunez egun, militar kolpistek tropek indar-errepublikarren eskuetan egon ziren herri bakoitzera sartzean gauzatutako sarraskien berri ematen zuten. Getariarren gorputzetan beldurra zen nagusi, horren kontziente, haiei aurre egiteko balorea hartu zuen getariar bat baino gehiagok.

Getaria, zinez itsas-portu garrantzitsua zen. Haren portuan itsasontzi handientzako tokia eta aldi berean babesa zegoen. San Anton eta Garate mendiko gotorlekuek, Getariako portua ongi baino hobeto zaintzeko aukera ematen zuen. Tropa frankistek ere, Getariako portua zinez preziatua zuten, bere ontziteriaren beharrak asetzeko babes handiko portua baitzen.

3.5.1. Iruretagoyena frankista, kostako herri errepublikarren hartzean

1936ko uztailaren 18an oligarkiek eta militar kolpistek Gipuzkoa eta Bizkaian egindako estatu-kolpea porrotean geratu zen. Herritarrak, izkiluak hartuta, Bigarren Errepublikako gobernuaren defentsan aurre egin zieten kolpistei. Nafarroan, egoera bestelakoa izan zen; erreketeek, estatu-kolpearekin, Bigarren Errepublikaren aldeko botere guztiak deuseztatu eta haren aldeko herritarrak fusilatu eta errukirik izan zuten erreketeek, herritar haiek kartzelaratzeko hautua egin zuten.

Era horretan, Nafarroatik, Mola jeneral kolpistaren agindupean, Cayuela, Beorlegui eta Latorre komandanteen mende tertzioetan egituratuta zeuden erreketeek, Gipuzkoa eta Bizkaia menpean hartzeko asmoz, harako bidea hartu zuten. Gipuzkoa haien kontrolpean izan eta Bizkairako pausoa emateko, bi leku estrategiko hartu zituzten kontutan militar erreakzionarioek. Bata, Irunen kokatzen zen Frantziaren eta Estatu Espainiarraren arteko muga zen. Militar erreakzionarioen helburua, Irun beraien menpean hartu eta hura ahalik eta azkarren ixtea zen; modu horretan, indar-errepublikarrek izan zitzaketen askotariko laguntzak (hornidurak, kontaktu politikoak…) eten baitzitzaketen eta guztiz isolatu. Bestea, Gipuzkoako hiriburua, Donostia, beraien menpean hartzea zen, modu horretan, gipuzkoar lurraldearen erabateko kontrola hartuko baitzuten.

Lehenengo helburua, Alfonso Beorleguik, 1936ko irailaren 4an lortu zuen, indar-errepublikarrekin izandako borroka gogorren ostean, muga itxi eta irailaren 5eko goizean, tropa frankistak Irunera sartu ziren. Bigarren helburua, 1936ko irailaren 13an lortu zuten, huraxe izan zen tropa frankistek, erreketeen gehiengoarekin, Donostia menpean hartu zuten eguna. Indar-errepublikarrek, 1936ko irailaren 12an Defentsa Batzordeko kide guztiekin Diputazioko Jauregian eginiko bileraren ostean, hiriburua ebakuatzeko agindua eman zuten. Horrek, herritarrak, ume, gazte, emakume, gizon eta haurrak, Gipuzkoako kostako bidea hartzera behartu zituen eta haietako erbesteratu asko, Getarian bertan egon ziren, indar-errepublikarren babesean.

Tropa frankistek Donostia menpean zutela, beraien tropek jarraitu beharreko planak mahaigaineratu zituzten:

"La principal agrupación, la de Los Arcos, invadirá la zona central del territorio guipuzcoano finalizando su movimiento entre Mondragón y Elgoibar. El eje de su avance será la carretera de Tolosa a Azpeitia. **Las fuerzas de Iruretagoyena avanzarán por la costa mientras que Alonso Vega penetrará por el puerto de Arlabán"[518].**

Iruretagoyenaren Zutabea, lehenago Cayuela eta Latorre deiturikoez osatutakoak, egin zuen kostako herrien menperatzea. Hala, irailarean 15ean Latorrek, Mendizorrotz bere menpean hartu zuen. Bitartean, Cayuelak, bere 32 soldadu zauritu ostean, irailaren 17an Andatza bere menpe hartu zuen. Borroka gogor eta odoltsuak izan ziren haiek, Manuel de Irujok azaltzen digunez:

"Columnas bien dotadas de artillería rodada y provistas de secciones de ametralladoras iniciaron sus ataques al propio tiempo por Orio, Tolosa, Beasain y Zumarraga (…) El parque central de Azpeitia fue evacuado en su totalidad, transportándose a Saturraran y más adelante a Lekeitio. La retirada de las posiciones de Andrezarrate, Bentas de Zarate, Bidania, Goiaz y Murumendi se efectuó con relativo orden, dirigiendo personalmente Saseta la operación, respecto a la más avanzada y peligrosa del Ernio. (…) El gobernador civil, la Comandancia Militar y la Junta de Defensa de Guipuzkoa se situaron en Zumaia. La evacuación de la capital se dirigió por Zumaia a Eibar. La de la Comandancia de Azpeitia tomó la ruta de la costa, de Zumaia a Saturraran, Mutriku y Ondarroa"[519].

Hilaren 19an, Cayuelak Asteasuko Santa Marina hartu eta bere soldaduekin Irumuñon ezarri zen. Hurrengo egunean, Azpeitiara tropa frankistak iritsi direla jakitean eta inongo irtenbiderik gabe geratuko zirelakoan, azken milizianoek defentsa-lanak utzi eta erretiratu egin ziren. Latorrek Aia menpean hartu eta Barandallak Pagoeta mendia hartu zuen. Horren ostean, Latorrek, Usurbil hilaren 19an eta Orio hurrengo egunean mendean hartu zituen.

Tropa frankistek jada kostalde osoa hartzeko ez zuten inongo enbarazurik, izan ere, Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Zarautz ez defendatu eta Zumaiaraino erretiratzea erabaki zuen. Hartaz, Getariarako bidea, inongo trabarik gabe egin zuten tropa frankistek hilaren 21ean bertan, Zarautz eta Zumaia ere egun berean beraien menpe hartuz:

Gipuzkoako kostaldeko herrira sartu bezain laster, gainontzeko herrietan betetzen zuten mekanismoa errepikatuz, 1931tik 1936ra bitarteko kinten deialdia gauzatu zuten, tropa frankistekin borrokatzera joateko[520].



Getariako elizako kanpandorrean bandera faxista espainiarraren ezarpena. (La Voz de España).

[518] BARRUSO BARÉS, P., op.cit., 259.or.


[519] IRUJO, M., op.cit., 167-168.orr.

[520] Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia. "Nuestra Señora del Rosario" arrantza-ontziko tripulazioaren deklarazioa. http://www.marinavasca.eu/eu/archivo-documental-detalle.php?o=10&a=1&id=1


3.6. FRONTEAN HILDAKO GETARIAR KOLPISTAK

"Seguidamente a propuesta del Sr Alcalde acordó hacer constar en acta el sentimiento de la Corporación por la muerte gloriosa hallada por el soldado Antonio Iruretagoyena Arregui de esta localidad, y dar el pésame a su familia y acuerda asimismo señalar 30 pesetas para sufragio del citado finado así como para el de Vicente[521] Mayoz Peña cuyas cantidades serían entregadas con dicho destino a las mismas familias"[522].

IZEN-ABIZENAK	URTEAK, Gerra hastean	LANBIDEA	NON HILDAKOA
IRURETAGOIENA ARREGI, ANTONIO	23	-	Bot (Tarragona) / 1959/03/28tik Erorien Haranean[523]
MAYOZ PEÑA, BERNABE	26	-	Teruleko frontea



Frontean hildako getariar kolpistei udaletxe frankistak diru-laguntzak. (GUA).


REGISTRO CIVIL DE ... DISTRITO ...
Número 38
NOMBRE Y APELLIDOS
Bernabé Mayoz Peña
En Guetaria
provincia de Guipúzcoa, a las ... y ... minutos del día ... de Diciembre de mil novecientos cuarenta y dos, ante D. Manuel Zubia ... Juez municipal, y D. José ... Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Bernabé Mayoz Peña de edad 31 años de estado ... natural de Guetaria, provincia de ..., hijo de D. Domingo ... y de Doña María ..., domiciliado en Calle de ... núm. ..., piso ..., de profesión ... y de estado soltero
Visitado
Guetaria 3/ Diciembre/ 1942
El Delegado Tenencia
Bzdenaga
fallecido en el Frente de Teruel (1) el día 29 de Enero de 19... de ..., a las ... y ... minutos, a consecuencia de (2) Herida Penetrante por Arma por Fuego según resulta de (3) Certificación de Defunción del Juzgado ... y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el Cementerio de ...
Esta inscripción se practica en virtud de (4) mandato del Juzgado
consignándose además (5) ...
habiéndola presenciado como testigos, D. Manuel Serabino y D. Jose Zamanillo Tellado, mayores de edad y vecinos de Guetaria
Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el señor Juez, los testigos (6) ... de que certifico.
Tomás Zubiarrain
Manuel Serabino

Bernabe Mayoz Peña-ren heriotza-akta.
(Getariako Erregistro-Zibila).

[521] Vicente idatzi zuten arren, Bernabez mintzo ziren.

[522] GUA, 1938-10-16.

[523] Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos.

3.7. GETARIAR IHESLARIAK

Zenbait getariarrek herritik alde egin zuten, batzuek gerran borrokatu nahi ez zutelako eta beste batzuek aldiz, indar-errepublikarrekin borrokatu eta tropa frankisten errekrutamenduei muzin egin nahi izan zietelako. Kasu batzuetan, Frantzian aurkitzen ziren eta beste batzuek, muga zeharkatu eta tropa frankistekin zein beste kasu batzuetan, indar-errepublikarrekin borrokan jardun zuten:

GETARIAKO IHESLARI ZEIN "DESAGERTU" GISA IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	DATU GEHIGARRIAK
AIZPURU ZUBIZARRETA, JOAKIN	20	1936ko otsailerako, gerra hasi baino lehen alde eginda.
CALVO VEGA, ANTONIO	22	-
EGUZKIZA AZPEITIA, FRANCISCO	17	-
ESTEBANEZ ZAMONA, ANGEL	24	-
GONZALEZ RODRIGUEZ, LAUREANO	22	Gero frankistek atxilotu eta Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardundakoa.
IBAÑEZ ORUETA, JOSE LINO	-	-
IRIBAR AIZPURUA, IGNACIO	-	Frantziatik itzultzean, Osasun Militarrean zerbitzua bete beharra.
IRIBAR AREIZAGA, JOSE CRUZ	-	-
IRIBAR AREIZAGA, JUAN	24	-
IRIBAR AREIZAGA, VICTOR	-	Frantziara ihes egin, baina handik denbora batera Getariara itzuli eta tropa frankistekin borrokatu beharra izan zuen.
ISASTI ELOSUA, GREGORIO	18	-
ITURZAETA BASURTO, ASCENSIO	34	-
ITURZAETA BASURTO, TORIBIO	20	-
KEREJETA AGOTE, CIPRIANO	-	Frankistek iheslari deklaratu zuten. Landetan (Frantzia) bere anaia Gerardo eta Nikasiorekin eta, Juan Burgaña Etxebarriarekin basoetan lanean jardun zuen.
LARRAÑAGA ARANBURU, JOSE MARIA	19	Frankistek atxilotu eta Deustuko Infekziosoen ospitalean gaixorik aurkitzen zen.
LAURGAIN PIOZAGA, JOSE ANTONIO	-	Iruneko mugan frankistek atxilotu eta Gerra-Kontseilua egin zioten.
LAZKANO ULAZIA, DAMIAN	22	-
LOPEZ GARCIA, GERMAN	15	-
MITXELENA IRIBAR, BALTASAR	20	-
ODRIOZOLA LARRAÑAGA, JOSE	27	-
PEREZ ARANBURU, EDUARDO	18	-
PEREZ EURAZABAL, MANUEL	16	-
PEREZ EURAZABAL, ROBUSTIANO	19	-



Milizianoak Behobian.

3.8. ERESOINKA, ASKATASUNA IPAR, HERRI BATEN AHOTSA

Tropa frankistak, 1936ko irailaren 21ean Getarian sartu eta gainontzeko herrietan, sartu bezain laster egin gisan, errepresio-mekanismoak martxan jarri zituzten. Bigarren Errepublikari leial izan ziren guztiak, hil ezean, sufrikariozko bizitza batera kondenatu zituzten:

"Sembrar el terror… eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros"[524].

Frankistek, askatasunaren izenean faxismoaren aurka borrokatzen ari ziren euskaldunak isiltzea nahi izan zuten. Zorionez gurerako, eta zoritxarrez haientzako, haziak jada ereinda zeuden eta euriak gure larreak ontzen dituen gisan, garai hartako euskaldunak herriaren askatasun aldarria lau haizetara zabaltzea erabaki zuten. Gure herriaren historia eta borrokaren zergatia munduan ikusarazi egin behar zen; euskal askatasunaren alde eta orduan munduan zen etsai handienetako baten aurka, hau da, faxismoaren aurka egiten ari ziren.

1937ko ekainaren 19an, Bilbo hiriburuan, tropa frankistak sartzean, Jose Antonio Agirrek, aipatu euskaldunon aldarria munduan zehar zabaltzeko unea zela hauteman zuen. Hala, 1937ko abuztuaren 19an, Santanderren, Agirre lehendakaria Gabriel Olaizola Donostiako Eusko Abesbatzako zuzendariarekin bildu zen. Hari, euskal kultura eta garaiko euskaldunon egoera munduan zehar erakusgarri egiteko misioa eman zion.

Gabriel Olaizola, iparraldera, Baionara joan eta bertan erbestean zeuden artistak inguratu eta proiektuaren berri eman zien. Haren ostean, Sarako herrian bildu ziren eta ekitaldietarako lehen saioen prestakuntzak hasi zituzten. Aita Donostia eta Jose Miguel Barandiaranek Sarako biztanleekin zuten harreman ona, Antonio Labayen euskal nazionalista errefuxiatuaren eta Michel Leremboure bertako alkatearen oniritzia ezinbestekoa izan zen, Sara, euskal kulturaren babesgunea bilakatzeko. Sarako herrian Eresoinka, 110 erbesteratutako euskal artistez sortutako koro mistoa sortu zen. 1937ko irailaren 22tik azaroaren 17ra bitartean, 43 obra entseatu zituzten.

Haien artean izan zen Gipuzkoako kostaldeko herri arrantzaleko ordezkaririk ere. Huraxe, Josebe (Pepita) Enbil Etxaniz getariarra izan zen. 1937ko azaroaren 8an, Donostiako Muro zapata dendan lan egiten zuen. Handik gutxira, Gabriel Olaizolaren deiari men eginez, Ipar Euskal Herrira egin eta Eresoinka abesbatzara batu zen.

Lehen aktuazioa, 1937ko abenduaren 18an Pariseko Pleyel aretoan estreinatu zuten. Harik eta 1939ko maiatzaren 26ko Pariseko Chiallot Teatroan eman zuten azken ikuskizunera bitartean, Amsterdam, Brusela, London, Haga, Rotterdam, Hilversum eta Europako beste hiri handi batzuetan barrena ikuskizunak egin zituzten. Haren ostean, 1940an, Josebe (Pepita) Embil Etxaniz, Plácido Domingo Ferrer-ekin ezkondu zen. Haien seme-alabak, Mari Pepa eta Placido Domingo hartuta, Mexikora egin zuten. Erdi- eta Hego- Abya Yalan zehar, zenbait eszenatoki ezagutu zituzten.

Eusko Jaurlaritzak, garaiko estatu ezberdinen artean, euskaldunok faxismoaren aurka eginiko askatasunaren aldeko borrokatu lau haizetara zabaltzea lortu zuen.



Eresoinka.



Eresoinka abesbatza, bidaiatzen. (Jesus Elosegiren Artxibategia).



Josebe (Pepita) Embil Etxaniz.



Eresoinka abesbatza, Josebe (Pepita) Embil Etxaniz zirkuluarekin seinalatuta- Sabino Arana Fundazioa. (Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia).

[524] Emilio Mola Vidal "El Director" militar kolpistaren aginduak.

3.9. ESKUINDARREN AURKAKO ERREPRESIOA

1936ko uztailaren 17 eta 18 bitartean, oligarkia eta militarrek herritarrek bozkaz hautatutako Bigarren Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman zuten. Hori medio, herritarren bozka bidez hautatutako hautagai getariarrek, legedia errespetatu eta mantendu asmoz, Getariako Defentsarako Komitea eratu zuten:

GETARIAKO DEFENTSA KOMITEA[525]

IZEN-ABIZENAK	URTEAK	LANBIDEA	KOMITEKO POSTUA	FILIAZIOA
AIZPURU LAZKANO, JOSE	23	Jornalaria	Gerra Komiteko kidea	EAJ/PNV
ALEGRIA LASA, ANTONIO	-	Getariako Bigarren Errepublikako alkatea	-	EAJ/PNV
ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME	46	Mekanikoa	Getariako Hornikuntza Komiteko kide	UGT
EGURBIDE ISASTI, JOSE	-	-	Getariako Obren Komiteko kide	Fronte Popularra
ESNAL, KANDIDO	-	-	-	Fronte Popularra
ITUARTE, ANTONIO	43	-		EAJ
SETIEN CALVO, PEDRO	-	Mekanikoa eta gidaria	Komunikazio Komisaria	UGT

Horren bidez, gerra hasi ostean sortutako botere errepublikarren hutsunea bete nahi izan zuten. Gerran zehar, hornigaien, pertsonen… kudeaketa administratu ahal izateko tresna bilakatu zen.

Testuinguru horretan, getariar kolpista eta errepublikarren legeadiaren aldekoen arteko tentsioak sortu ziren. Atal hau azaldu baino lehen, aipatzea, getariar kolpista eta errepublikar legediaren aldekoen arteko tentsioen nondik-norakoak, frankistek gerra ostean egindako Gerra-Kontseiluen dokumentuetatik eta salaketa ezberdinetatik lortu ditugula. Hauek emandako datuak, zuhurtziaz irakurtzea besterik ez zaigu geratzen, izan ere, askotan, errepublikarren aurkako errepresioa bikoizteko erabilitako arma gisan ulertu behar ditugu.

Getariarren arteko tentsioetako bat, Casa Torresko markesaren etxean errepublikarrek egindako erregistroa izan zen. Frankistek, Vicente Iraundegi Ibarra Getariako portuko zaindaria eta Pedro Setien Calvo mekanikoa eta gidaria, tropa frankistak Getariara sartu ostean, egiteko horretan parte hartzeagatik salatu zituzten. Casa Torresko markesaren etxean, gerra hastean, diktadura frankistan zehar Getariako F.E.T eta J.O.N.S.[526]-eko buruzagietako bat izan zen Alejo Jimeno Oses-ek enkargatu eta zaintzaile gisan lan egiten zuen.

1938ko martxoaren 17an, Pedro Setien Calvo UGT-ko afiliatua, Eugenio Egurbide alkate frankistak, Casa Torresko markesaren etxeko erregistroan eta etxe horretako zenbait materialen errekisamenduan parte hartzeagatik salatu zuen, beste zenbait ekintzen artean.

1939ko apirilaren 23an, Eugenio Egurbidek, Vicente Iraundegi Ibarra portu-zaina, Getariako Defentsa Komiteko kide gisan berretsi eta Casa Torres markesaren etxean erregistroa egin eta bertako zenbait objektu lapurtzeagatik salatu zuen. Horrez gainera, errepublikarrek Getaria ebakuatzean, udaletxetik eskopeta batzuk eta Juan Sebastian Elkanoren koadroa lapurtzeagatik salatu zuen.

1940eko uztailaren 24an, Eugenio Egurbide alkate frankista eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiak, oraindik ere, gerra amaitu bezain laster Vicente Iraundegi Ibarraren aurka egindako salaketa berretsi egin zuen.

Handik eta hilabete batzuetara, frankistek, portu-zainak ez zuela inongo lapurretarik egin determinatu zuten. Hain zuzen, lapurreta ez eta prestazioa izan zela adierazi zuten, hartutako koltxoiak eta objektuak, Getariara iritsitako errefuxiatuak lo egiteko tokia izan zezaten erabili zirela justifikatu zuten.

Getariar frankistek ez zuten inolako eraso fisikorik jasan izan Bigarren Errepublikako gobernuaren aldeko militanteen partetik.

Hala eta guztiz ere, Eugenio Egurbidek, oraindik Getarian tropa frankistak sartu aurretik Kantauriko itsasertzeko labarretan gertatutako zenbait erailketaren inguruko informazioa eman zuen. Hartarako, Espainiar Estatu frankistako Justiziako Ministroak abian jarritako Causa General deiturikoa erabili zuen. Horren funtsa, gerra garaian tropa frankistak sartu aurrean, errepublikar gobernuaren aldeko militanteek eginiko erailketak etab. salatzea zen.

Eugenio Egurbide, Getariako labarretan miliziano ezkertiarren eskuetan gertatutako bi erailketa azaldu zituen.

[525] Honakoa zehazteko, Getariako Udal-Artxiboko dokumentu frankistetan oinarritu gara; besteak beste, bertan, Getariako Defentsa Komiteko kideei egindako akusazioak ageri zaizkigu.

[526] Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista, diktadura frankistako alderdi bakarra izan zen. 1937ko apirilaren 20an, Falange Española de las JONS, karlista tradizionalista eta gainontzeko kolpisten batasunean sortutako alderdia izan zen. Kolpean parte hartutako zenbait kide ez ziren alderdira batu eta Francisco Franco diktadoreak epaitu egin zituen zenbait zigor ezarriz.



Informe de

Getaria, 17 de marzo de 1938
El Secretario

Pedro Setien Calvo-ren salaketa. (GUA).



CERTIFICADO DE ANTECEDENTES Y CONDUCTA

D. Eugenio Igurbide Aspeitia, Alcalde de la Villa de Getaria

CERTIFICO: que segun resulta de los antecedentes obrantes en esta Alcaldía y Ficheros furgualeos de los evadidos y demás datos que se han sido suministrados por los Agentes de la autoridad, D. Vicente Iraundegui Ibarra, se encontraba, el lúnes glorioso Movimiento Nacional, ejerciendo el cargo de Celador de Puerto en esta localidad, en cuyo cargo llevaba en dicha fecha mas de dos años, habiendo observado buena conducta y sin que haya hecho ostentación alguna en la política al estar afiliado a ningún partido.

Durante el movimiento se unió a los gubernamentales y Consignas del Frente Popular é cuyas órdenes y mando prestó diversos servicios, participó en un registro verificado en la casa del Sr. Marqués de Casa Torres y el día de la evacuación, y despues de marchados ya el Comité local del frente popular, se asentó del Ayuntamiento, donde se encontraban recogidas varias escopetas del vecindario, para lo que fue violentado la puerta del local donde estaban depositadas y falsificando en la cara del ayuntamiento, al que tuvieron facil acceso, un tapiz alusivo a la primera vuelta al mundo por Juan Sebastian Elcano, hechos estos en los que se le atribuye parte activa el referido Vicente Iraundegui.

Aparte de lo hecho constar precedentemente no se tiene conocimiento en esta alcaldía, de haber participado en ningún hecho criminal mas perseguido é persona alguna de derechas ni practicado detenciones.

Y para que conste y surta los efectos procedentes, expido el presente á instancia de parte interesada, en Getaria á veintitres de abril de mil novecientos treinta y nueve

Año de la Victoria


Vicente Iraundegi Ibarraren salaketa. (GUA).




Getaria, 17 de Octubre de 1.940.
El Alcalde,

Sr. Juez Instructor del Juzgado Especial de Marina

Vicente Iraundegi Ibarraren salaketa berrespena. (GUA).



Vicente Iraundegui Ibarraren aldeko abala. (GUA).




Lehenengoa, Manuel Lersundi Orueta tradizionalistaren erailketaren ingurukoa dugu. 1936ko abuztuaren 22an, Manuel Lersundi Orueta lanbidez doitzailea eta tradizionalista, Soraluzeko Defentsa Komiteak atxilotu egin zuen. Etxe zahar batean beste tradizionalista batzuekin preso izan ostean, abuztuaren 27an Arratera (Eibar) eraman zuten. Torturatu eta iraila hasieran, Getarian hil eta bere hilotza itsasora jaurti zuten. Ekintza hura egitea Manuel Mugica Arisnabarreta-ri "Caron" soraluzetarrari egotzi zioten eta gerora, azken hau, frankistek Begoñan atxilotu eta Gerra-Kontseiluaren ostean Donostian fusilatu egin zuten.

Lersundiren gorpua hasiera batean Getariako hilerrian ehortzi bazuten ere, gerora Soraluzekora lekualdatu zuten.

Bigarrena Miguel Feo Alfonso debar telegrafista falangistaren erailketa kasua dugu. 1936ko irailean, Zestoako bi herritarrek, debarraren gorputza Donostia-Bilbo bitarteko errepidearen 35. kilometroan, itsasertzeko arroketan aurkitu zuten. 41 urteko falangista debarra, milizianoek, arma-tiroz hil zuten.

Ekintza hauetan guztietan ez zen Bigarren Errepublikaren aldeko defentsan jardun zuen getariar bat ere aritu, kanpotik etorritako milizianoak baino. Azken horiek ere beren zoritxarra pairatu zuten ordea. Hain zuzen, Eugenio Egurbidek aditzera ematen digunez, tropa frankistak Getariara sartu baino lehen, milizianoen auto blindatu bat itsasora erori zen. Han bertan, hiru miliziano omen zihoazen eta hirurak hil ziren. Alkate frankistak argitzen duenez, blindatuan zeramatzaten lehergailuek eztanda eginda hil omen ziren. Haien gorpuak inork ez omen zituen identifikatu eta itsasoak bere egin omen zituen.

Aipatu ekintzez gain, ez zen inolako kolpisten aurkako erasorik egon Bigarren Errepublikaren legitimitatearen alde egindako getariar herritarren partetik. Hala eta guztiz ere, herritarrek bozkaz aukeratutako gobernu legitimoa defendatu zutenek, diktadura frankistan zehar, errepresio gogorra jasan behar izan zuten.



Providencia,Juez
Sr.Barrenca

Plasencia a trece de febrero de mil novecientoscuarenta y tres..

Por recibido el mandamiento precedente,procede y cúmplase y,al efecto,practíquese en forma la diligencia que se interesa,reportandose seguidamente.

Lo mando y firmo el señor Juez del margen, de que yo el Secretario doy fé.

DILIGENCIA - La extiende yo el Secretario para hacer constar que,segun resulta de las averiguaciones practicadas el individuo muerto a tiros en Guetaria durante nuestra Cruzada es el joven Manuel Lersundi Orueta,hijo de Maria y Santiago,vecinos de esta villa,por lo que paso a dar cuenta al Sr. Juez.Doy fé.

DECLARACION - Plasencia a trece de febrero de mil novecientos cuarenta y tres,ante Don Ramon Barrenca Arpe,Juez Municipal y suscrito Secretario, comparece el que dice llamarse Santiago Lersundi Aramburu, mayor de edad,casado,empleado,vecino de esta villa,quien advertido en forma orrecto decir verdad y

A la ordenado,dijo - Que es de las circunstancias expresadas sin que le comprenda otra particularidad.

Requerido exponer de lo consignado en la comunicacion dirigida por el señor Fiscal Instructor de la Zona General de Guipuzcoa,dijo -Que su hijo Manuel Lersundi Orueta,nacido en esta villa y vecino de la misma,de diez y ocho años,soltero,empleado,fué detenido por el Comité del Frente Popular de esta villa y conducido a Arrate (Eibar).De allí parece fué trasladado a diversos sitios mas,despues de haberseio apaleado y se ignoraron su paradero hasta que por pesquisas practicadas se supo que en el cementerio de la villa de Guetaria habia sido enterrado un hombre de aspecto enteramente igual a nuestro citado hijo.Por tanto y de acuerdo con las Autoridades locales de aquella villa,se desenterró su cadaver y se identificó inmediatamente,pues tanto en el aspecto de su cuerpo como en el de sus ropas y demas detalles exteriores se vió que era el cadaver de su referido hijo Manuel,por lo cual y despues de las gestiones conducentes al caso,fué trasladado al cementerio de esta villa.


Que la detencion se llevó a efecto en el mes de Agosto de 1936 y el asesinato hacia primeros de Septiembre del mismo,ignorando quien o quienes pudieron ser los autores materiales del mismo,pues no se supo mas que fueron trasladados de Arrate a la carretera de Zumaya a Guetaria donde fué encontrado muerto.

Leida y enterado de las prevenciones legales en ella se afirma y ratifica y firma de que doy fé.

REMISION - Seguidamente se devuelven estas diligencias a su procedencia y doy fé.

DILIGENCIA.- Para hacer constar que en el Reno núm. 86 correspondiente al Ayuntamiento de Plasencia y, en la relación dada por dicho Ayuntamiento, referente a las personas residentes en dicho término municipal, que durante la dominación roja fueron muertas violentamente, aparece entre tal el vecino MANUEL LERSUNDI ORUETA. San Sebastián, veintisiete de Febrero de mil novecientos cuarenta y tres. Doy fé.

Santiago Lersundi Aranbururen deklarazioa. (PARES).



9

DECLARACIÓN DEL TESTIGO

Manuel Lersundi Orueta-ren aita Marcelo Lersundi Aranberriren deklarazioa. (PARES).



46

Providencia,Juez
Sr.Juzgado

Plasencia a veinticuatro de febrero de mil novecientos cuarenta y cinco.

Por recibidas las órdenes precedentes,procede y cúmplase y,al efecto,practíquense en forma las diligencias que se interesan,reportandose seguidamente a su procedencia.

Lo mandó y firmó el señor Juez del margen,de que yo el Secretario accidental doy fé.

DILIGENCIA:


La extiende yo el Secretario para hacer constar que, en el Registro Civil del Juzgado municipal de esta villa no aparece la inscripcion de Don Manuel Lersundi Orueta,el cual fué inhumado en el cementerio de esta villa pero exhumado en el de Guetaria en cuyo término municipal fué asesinado por las hordas marxistas,por lo que su inscripcion aparecerá en el referido Registro Civil.Y para que surta los consiguientes efectos expido y firmo en Plasencia a veinticuatro de febrero de mil novecientos cuarenta y cinco.Doy fé.

Devolucion.Seguidamente se devuelven estas diligencias a su procedencia y doy fé.


Manuel Lersundi Oruetaren ehorzketa, Soraluzen. (PARES).




Miguel Feo Alfosoren hilketa. (PARES).



Miguel Feo Alfonsoren heriotza-akta. (PARES).



Causa General-aren laburpena. (PARES).



Hiru milizianoen heriotza, Getariako itsasertzeko arroketan. (PARES)



ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

AGIRITEGIAK / ARCHIVOS

Alegiako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Alegia
Azkoitiako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Azkoitia
Getariako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Getaria
Orioko Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Orio.
Errenteriako Erregistro Zibila / Registro Civil de Errenteria
Getariako Erregistro Zibila / Registro Civil de Getaria
Zumaiako Erregistro Zibila / Registro Civil de Zumaia
Administrazioaren Agiritegi Orokorra / Archivo General Militar de la Administración
Aranzadi Zientzia Elkartea / Sociedad de Ciencias Aranzadi
Artxibo Historiko Nazionala /Archivo Histórico Nacional
Avilako Agiritegi Militar Nagusia / Archivo General Militar de Ávila (AGMAV)
Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia
Erorien Haraneko Benediktarren Abadiako Agiritegia / Archivo de la Abadía de los Benedictinos del Valle de los Caídos, Cuelgamuros (AABVC)
Euskadiko Artxibo Historikoa / Archivo Histórico de Euskadi
Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa / Centro de Patrimonio Documental de Euskadi
Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra / Fundación Popular de Estudios Vascos
Euskal Memoria Fundazioa
Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol / Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste, Ferrol (AIRMN)
Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa
Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos
Guadalajarako Agiritegi Militar Nagusia / Archivo General Militar de Guadalarajara (AGMA)
Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala / Centro Documental de la Memoria Histórica
Nafarroako Agiritegi Irekia / Archivo Abierto de Navarra
Renoko Unibertsitatea / Universidad de Reno
Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Sabino Arana Fundazioa-Archivo del Nacionalismo Vasco

HEMEROTEKA / HEMEROTECA

ABC. Hemeroteka Digitala / ABC. Hemeroteca Digital
Ahora, Madrid
Diario de Burgos
Donostiako Liburutegi Digitala / Biblioteca Digital de Donostia
El Día
El Diario Vasco
Eguna
Espainiako Liburutegi Nazionala. Hemeroteka Digitala / Biblioteca Nacional de España. Hemeroteca Digital
Euzkadi
Gaceta
Gipuzkoako Foru Aldundia. Hemeroteka Digitala / Diputación Foral de Gipuzkoa. Hemeroteca Digital
Koldo Mitxelena Kulturunea
La Constancia
La Vanguardia. Hemeroteka Digitala / La Vanguardia. Hemeroteca Digital
La Voz de Guipúzcoa
La Voz de España

BULETINAK / BOLETINES

Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado (BOE)
Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG)

BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

Aguirre Sorondo, A., 2000. Getaria, itsasoaren, zeruaren eta mendiaren artean. Getariako Udala, Getaria.

Aguirre Sorondo, A., 2010. De albeitares y herreros. Herradores de Guipuzcoa por localidades. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 43, 149-346.

Alonso Carballés, J.J., 1998. 1937 Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940. Asociación de Niños Evacuados el 37.

Almorza Arrieta, K., Buces Cabello, J., 2016. Saseta Defentsa-Sistema. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aranbarri Etxaniz, S., 1989. Anai arteko borroka Azkoitian, 1936-1939. S. Aranbarri, Donostia.

Aranzadi Zientzia Elkartea, Beledo, A., Egaña, I., Martín, C., Zato, M., 2010. Gipuzkoa: udal errepublikanoetatik frankistetara 1936-1937. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aritzabaleta Gantxegi, I., 2019. Deba 1936-1945: Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aróstegui Sánchez, J., 2013. Combatientes requetés en la Guerra Civil española (1936-1939). La esfera de los libros, Madrid.

Badiola Ariztimuño, A., 2012. Cárceles y campos de concentración en Bizkaia: 1937-1940. Txertoa, Donostia.

Barranquero Texeira, E., Prieto Borrego, L., 2004. Las mujeres durante la Segunda República: trabajo y vida cotidiana. In: Morales Muñoz, M. (coord.), La Segunda República. Historia y memoria de una experiencia democrática, 125-145. Diputación de Málaga.

Barruso Barés, P., 1995. Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa. Haranburu, Donostia.

Barruso Barés, P., 1996. El movimiento obrero durante la II República: organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936). Diputación Foral de Guipúzcoa, Departamento de Economía y Turismo, Donostia.

Beaumont Esandi, E., Mendiola Gonzalo, F., 2004. Batallones disciplinarios de soldados trabajadores: castigo político, trabajos forzados y cautividad. Revista de historia actual 2, 31-48.

Buces Cabello, J., 2016. Azpeitia 1936-1945: Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Calleja, E.G., Aróstegui Sánchez, J., 1994. La tradición recuperada: el Requeté carlista y la insurrección. Historia Contemporánea 11, 29-54.

Castro, R., 1998. Juan María Bandrés. Memorias para la paz. Hijos de Muley Rubio, Madrid.

De Mora Vaquerizo, J.M., 2001. Los muertos estaban quietos. Universidad Autónoma de México, México.

Del Arco y Blanco, M.A., Gómez Oliver, M.A., 2005. El estraperlo: forma de resistencia y arma de represión en el Primer Franquismo. Studia historica. Historia contemporánea 23, 179-199.

Del Arco y Blanco, M.A., 2010. El estraperlo: pieza clave en la estabilización del régimen franquista. Historia del Presente 15, 65-78.

Díaz Freire, J.J., 1999. La reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la dictadura de Primo de Rivera. In: El Rumor de lo Cotidiano: Estudios sobre el País Vasco Contemporáneo. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Di Febo, G., 2003. Nuevo Estado, nacionalcatolicismo y género. In: Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política, cultura, 19-44. Editorial Complutense, Madrid.

Domingo Cuadriello, J., 2009. El exilio Republicano Español en Cuba. Siglo XXI, Madrid.

Egaña, I., 1999. 1936 Guerra Civil en Euskal Herria. (IV lib., La Guerra en Gipuzkoa). Aise liburuak, Andoain.

Espuelas, S., 2008. La creación del seguro de desempleo en la II República. Un análisis de su impacto y de por qué fue voluntario. Universidad de Barcelona. Eskuragarri hemen: https://www.aehe.es/wp-content/uploads/2008/09/La-creacion-del-seguro.pdf

Etxaniz Makazaga, J.M., 2000. Veterinarios en el exilio como consecuencia de la Guerra Civil 1936-1939. Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País 56(2), 399-442.

Gómez Escarda, M., 2008. La mujer en la propaganda política republicana de la Guerra Civil española. Barataria: Revista castellano-manchega de ciencias sociales 9, 83-101.

Gurrutxaga Uranga, A., 2017. Zarauzko gutunak: 36ko gerra. Zarautz.

Irigoras, A., 2017. Kaleko zegamarrak Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk (II). Indarkeria politikoaren eragina zegamarrongan 1936-2016.

Irujo, M., 1978. La Guerra Civil en Euzkadi antes del Estatuto. Kirikiño argitaraldia.

Irujo, X., 2017. La verdad alternativa: 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika. Txertoa, Donostia.

Joly, M., 2008. Las violencias sexuadas de la Guerra Civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto. Historia Social 61, 89-107.

Kortazar Billelabeitia, J., 2018. Frankistak Beasainen. Uztailaren 27ko gau beltza eta errepresioa (III. Liburukia). Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Martín Bastos, J., 2015. Badajoz: tierra quemada. Muertes a causa de la represión franquista 1936-1950. PREMHEX, Badajoz.

Martinez, M., Mendaza, D., Egaña, I., 2000. 1936 Guerra Civil en Euskal Herria. Aralar Liburuak, Andoain.

Narbaiza Azkue, A., 2010. Periko Kintana, itsagizona eta gudaria. Itxaropena, Zarautz.

Nash, M., 2000. Rojas: Las mujeres republicanas en la Guerra Civil. Taurus, Madrid.

Pardo San Gil, J., 1998. Euzkadiko Gudontzidia=La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi. Untzi Museoa, Donostia.

Peix Geldart, B., 2013. Relaciones políticas y diplomáticas entre España y Suecia de 1931 a 1939. Universidad de Valladolid, Valladolid.

Roquero Ussía, M.R., 2013. El caso Idiakez: lengua, prensa y política en la II República. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 46, 479-527.

Ugalde Solano, M., 1993. Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936. Emakunde, Bilbao.

Ugarte Telleria, J., 2009. El carlismo en la guerra del 36: la formación de un cuasi-estado nacional-corporativo y foral en la zona vasco-navarra. Historia Contemporánea 38, 49-87.

Urzainki Mikeleiz, A., 2010. Igeldo, un observatorio meterológico para el Golfo de Bizkaia. Eskuragarri hemen: https://www.divulgameteo.es/uploads/Igeldo-Bizkaia.pdf.

Sanz Goikoetxea, E., 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Tellabide Azkolain, J., 2004. Usurbilgo baserriak eta baserritarrak. Noaua Kultur Elkartea, Usurbil.

Torrealdai Nabea, J.M., 1998. El Libro Negro del Euskera. Ttarttalo, Donostia.

WEB-GUNEAK

Segurtasun-Saila. Hauteskundeetako emaitzen Agiritegia. Bigarren Errepublikako emaitzak.

ARGAZKI FUNTSAK / FONDOS FOTOGRÁFICOS

Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia / Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia.

Jesus Elosegi Funtsa. Aranzadi Zientzia Elkartea / Fondo Jesus Elosegi. Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Pascual Marin Funtsa / Fondo Pascual Marin.

Indalecio Ojanguren Funtsa / Fondo Indalecio Ojanguren.

Kutxa fototeka: Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia.

AHOZKO-ITURRIAK

AHOTSAK.EUS:

-Sebastian Aranguren Ulazia, Paulo Argibe Uraola eta Jaxinto Isasti Aizpuru (GET-002/013)
-Sabina Azkue Fernandez (GET-010/029)
-Sabina Azkue Fernandez eta Eugeni Lazkano Ulazia (GET-010/005)
-Raimunda Basurto Lazkano eta Jesusita Manterola Larrañaga (GET-028/009)
-Juliana Eizagirre Osa (GET-026/014)
-Maritxu Ezenarro Idiakez (GET-017/002)
-Maria (Miren) Iruretagoiena Olano (GET-025/034)
-Juanita Isasti Otamendi (GET-016/011)
-Martina Olaizola Balerdi (GET-015)

DURANGO 1936 KULTUR ELKARTEA:

-Arantza eta Ankelo Usobiaga Larrañaga

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA:

-Itziar Aizpuru Sustaeta eta Jon Elizegi Aizpuru
-Anuntxi Aranguren Burgaña eta Joxe Azkue
-Iñigo Aranberria
-Joxe Arregi Aranguren
-Joseba Andoni Arregi Oiarzabal, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Antonia Burgaña Martija
-Gregorio Berasaluzeren alaba, horrela erregistratuta aurkitu dugu.
-Isabel Egurbide Oiarzabal
-Juan Eizagirre Ulazia
-Jose Mari, Mari Isabel eta Mari Karmen Ezenarro Errazkin
-Izaskun Ituarte eta Miren Agirrezabala
-Eugenio Kamio Uranga eta Nerea Kamio
-Bautista Kerejeta Urresti eta Guadalupe Arregi Berasaluze
-Gabina Martinez Luloaga
-Mari Karmen Mitxelena
-Kontxita Oiarzabal Idiakez
-Ibon Urbieta
-Eusebio Urresti Garmendia
-Arantza eta Ankelo Usobiaga Larrañaga
-Anita Uzin Albizu

LIBURUAN ZEHAR ERABILITAKO LABURDURAK

Agiritegi, buletin eta erregistroak:

AGA: Administrazioaren Agiritegi Orokorra, Alcalá de Henares / Archivo General de Administración, Alcalá de Henares
AGMAV: Avilako Agiritegi Militar Nagusia, Ávila / Archivo General Militar de Ávila, Ávila
AGMG: Guadalajarako Agiritegi Militar Nagusia, Guadalajara / Archivo General Militar de Gudalajara, Guadalajara
GPAH-AHPG: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa.
BPAH-AHPV: Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa, Bilbo / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia, Bilbao
AN: Nazionalismoaren Artxibo Historikoa, Bilbo / Archivo Histórico del Nacionalismo, Bilbao
APPSS: Donostiako Probintziako Presondegiko Artxiboa / Archivo de la Prisión Provincial de San Sebastián
AZEDB: Aranzadi Zientzia Elkarteko Datu-Basea
BO: Boletin Ofiziala / Boletín Oficial
BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado
BOG: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa
CDMH: Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala, Salamanca / Centro Documental de la Memoria Histórica, Salamanca
GUA: Getariako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Getaria
PARES: Artxibo Espainiarren Ataria / Portal de Archivos Españoles
RD: Errege Dekretua / Real Decreto

Instituzio eta legeak:

BBTT: Langileen Batailoia / Batallón de Trabajadores
BDST: Soldadu Langileen Batailoi Diziplinatzaileak / Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores
BDSTP: Soldadu Langile Zigortuen Batailoi Diziplinatzaileak / Batallón Disciplinario de Soldados Tranbajadores Penados
CPIB: Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala / Comisión Provincial de Incautación de Bienes
EG: Eusko Gudarostea / Ejército Vasco
EJ/GV: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
ICC: Kontzentrazio Eremutako Inspekzioa / Inspección de Campos de Concentración
TRRP: Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia / Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas

Alderdi politikoak eta sindikatuak:

CNT: Confederación Nacional de Trabajadores
CEDA: Confederación Española de Derechas Autónomas
C. Trad.: Comunión Tradicionalista
EAB: Emakume Abertzale Batza
EAE/ANV: Eusko Abertzale Ekintza / Acción Nacionalista Vasca
EAJ/PNV: Eusko Alderdi Jeltzalea / Partido Nacionalista Vasco
ELA/STV: Euskadiko Langileen Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vascos
F.E.T. y de las J.O.N.S.: Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista
FP: Fronte Popularra
IR: Izquierda Republicana
JSU: Juventudes Socialistas Unificadas
PC: Alderdi Komunista / Partido Comunista
PRR: Partido Radical Republicano
PSOE: Partido Socialista Obrero Español
Ren. Esp.: Renovación Española
UGT: Unión General de Trabajadores
U.H.P.: Unión de Hermanos Proletarios

Beste laburdura batzuk:

BIA: Bizkaiko Itsasoko Armada (errepublikarra)
Fol.: orria / folio.

Oharrak:

Liburu honetan parentesi artean nondik atera diren ezartzen ez duten argazkiak, internet bidez lortu ditugu.



Getariako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

aranzadi
zientzia elkartea

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES